



SENTSIBILIZAZIORAKO TOKI-PLANAK DISEINATZEKO ETA EGITEKO **GIDA**



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE TRABAJO
E INMIGRACIÓN

SECRETARÍA DE ESTADO
DE INMIGRACIÓN
Y EMIGRACIÓN
DIRECCIÓN GENERAL
DE INTEGRACIÓN
DE LOS INMIGRANTES



Nipo: 790-09-242-9

ADITU-TALDEAK

Bartzelonako Diputazioa. Roquetas de Marreko Udala, Udalerrien eta Probintzien Espainiako Federazioaren izenean. Fuenlabradako Udaleko Polizia Lokala. Zaragozako Udala. Vigoko Udala. Illescaseko Udala. Ijitoen Idazkaritza Fundazioa. Accem. CEPALM. Acción Integral con Inmigrantes. ATIME. Marokoko Langile Etorकिन Espainiako Elkarte. Josefina Alventosa andrea, Valentiako Unibertsitatea. Concepción Antón andrea, Salamancako Unibertsitatea. Carmen Cárdenas andrea.

BALIOZTATZE-TALDEA

Toki-erakundeak: Lleidako Udala (Sektore Programen Zerbitzua eta Pertsonen Zerbitzuak); Aranjuezko Udala (Emakumearen Zinegotzigoaren Gizarte Zerbitzuen Udal Zentroa); Zaragozako Udala; Sabadellgo Udala (Herritartasun Berriaren Batzordea); Madrilgo Udala (Immigrazioaren eta Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusia); Illescaseko Udala (Gizarte Integrazioarako Toki Planaren Koordinazioa); Barakaldoko Udala (Eusko Jauritaritzaren Udal Mailako Harrera Sarea); Mijasko Udala (Gizarte Ongizatea); Totanako Udala (Gizarte Ongizatea); Bartzelonako Udala (Gizarte Ekintzaren eta Herritartasunaren Departamentua eta Diskriminaziorik ezaren Bulegoa); Bilboko Udala (Immigrazioa); Alcorconeko Udala (Prebentzioaren eta Inklusioaren Departamentua eta Kulturarteko Elkarbizitzaren Behatokia); Fuenlabradako Udala (Polizia Lokala); Islantillako Mankomunitatea; Kanaria Handiko Hego-ekialdeko Udalaritza Mankomunitatea; Bartzelonako Diputazioa (Berdintasunerako eta Herritartasunerako Departamentua); Zamorako Diputazioa (Europako Gizarte Funtsaren Programa). Getafeko Udala.

Autonomia-erkidegoak: Balear Uharteetako Gobernua (Immigrazioarako Zuzendaritza Nagusia); Gaztela eta Leongo Junta (Immigrazio Gaien Zerbitzua); Andaluziako Junta (Enplegu Departamentuaren Migrazio Politikak Koordinatzeko Zuzendaritza Nagusia); Kataluniako Generalitatea (Immigrazio Idazkaritza. Gizarte Ekintzako eta Herritarren Departamentua); Murtziako Eskualdeko Autonomia Erkidegoa (Immigrazioko eta Boluntariotzako Zuzendaritza Nagusia)

Unibertsitateak: Valentiako Unibertsitatea; Salamancako Unibertsitatea

GKEak: Espainiako Caritas; ACOBE Usera Elkarte; Tolerantziarik ezaren aurkako mugimendua; ACOGE Sarea; Accem; ACOBE Elkarte; Espainiako Txinoen Elkarte; ARI-PERU Elkarte; Espainiako Gurutze Gorria. AIBE Balcan Elkarte.

Sindikatuak: UGT - Langileen Batasun Orokorra (Migrazioen Departamentua).

Enpresak: CIDALIA consultora técnica en diversidad; Abierto hasta el Amanecer, Madrilgo kooperatiba; Contexto, Análisis y Evaluación SL; Dinamia, Consultoría Social kooperatiba; Ciudadania, Galiziako kooperatiba; Consultora Social Transformando Madrid; Atos Consulting.

ZUZENDARITZA ETA KOORDINAZIOA

Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Espainiako Behatokia: Nicolás Marugán Zalba, Nieves Díaz Domínguez, Rosa María Iturzaeta Manuel, Francisco Javier Bernáldez Fernández.

KOLABORATZAILEAK

CIDALIA S.L.

ITZULPENA

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (IVAP). Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala



© Lan eta Inmigratioko Ministerioa

Immigrazioaren eta Emigrazioaren Estatu Idazkaritza. Etorकिन Integrazioarako Zuzendaritza Nagusia.

Jose Abascal 39. Madril

Webgunea: <http://www.mtin.es>

Argitalpen honek Europako Batzordearen Enplegua, Gizarte Gaiak eta Aukera Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusiaren babesia izan du.

Funtsak Enplegurako eta Elkartasunerako Europako Programa Komunitarioaren (2007-2013) bidez lortu dira. Agenda Sozialean zehaztu bezala, programa hau ezarri zen Europar Batasunaren helburuak enpleguaren eta gizarte-gaien alorrean sartzeari laguntza finantzarioa emateko, eta, noski, horrela, Lisboako Estrategiak alor horietan dituen helburuak betetzen laguntzeko.

Programak zazpi urteko iraupena du, eta erabiltzaileak enpleguaren nahiz gizarte-gaien alorrean politika eta lege egokiak nahiz eraginkorrak garatzen lagun deza-keten eta horretan interesa duten talde guztiak izan daitezke, EBko 27 estatu kideen, EFTA-EEEko parte diren herrialdeen, edota herrialde hautagaien nahiz aurre-hautagaien artean daudenak.

PROGRESS programaren misioa estatu kideek hartzen dituzten konpromisoak eta egiten duten ahaleginari EBk ematen dien laguntza indartzea da, enplegu gehia-goa eta hobeak sortzeko, edota gizarte inklusiboago bat eraikitzeko. Horretarako, beraz, PROGRESS programak honako funtzio hauek ditu:

- PROGRESS eremuetan azterketa eta aholkularitza juridikoa ematen du.
- EBko legediak eta politikak PROGRESS eremuetan duten ezarpena kontrolatu eta horri buruzko informazioa ematen du.
- EBko helburu eta lehentasunei dagokienez estatu kideen artean politika-transferentziak, ikaskuntzak eta laguntza sustatzen ditu.
- Interes-taldeen eta, oro har, gizartearen ikuspegia transmititzen ditu.

Informazio gehiago: http://ec.europa.eu/employment_social/progress/index_en.html

“Argitalpen honetan dagoen informazioak ez du islatzen, ezinbestean, Europako Batzordearen jarrera eta iritzia”

GIDAREN AURKIBIDE OROKORRA

	Or.
Aurkezpena	4
0. Sarrera.	5
1. Zer da plan bat?	14
2. Toki-erakundeak: dibertsitatea, tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza.	25
3. Sentsibilizaziorako toki-planak (STP).	53
3.1 Sarrera	54
3.2 STP bat egiteko proposamen metodologikoa	55
3.3 STP baten printzipio gidariak	66
3.4 Plan bat egiteko faseak	70
3.5 Esku hartzeko eremuak	77
3.6 Aplikazio-eredua eta tresna metodologikoak	84
3.7 Planaren ebaluazioa eta jarraipena	91
4. Azpimarratu beharreko jardunbideak eta esperientziak.	99
5. Eranskinak:	
5.1 Terminoen glosategia	151
5.2 Tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren araubide juridikoa	176

AURKEZPENA

Integrazioa bi noranzko dituen prozesu bat da; prozesu horretan, hain zuzen, ezinbestekoa da etorkinak hartuko dituen gizarteko instituzioek nahiz bizi-baldintzak hobetu asmoz gure herrialdera etorri diren pertsonak esku hartzea.

Gurekin bizitzea erabaki duten bizilagun berrientzat toki-administrazioak dira gertuen dauden instituzioak; beraz, etorkinen integrazioari dagokionez toki-administrazioek bete behar duten funtzioaz jabetuta, Immigrazioaren eta Emigrazioaren Estatu Idazkaritzako Etorkinen Integratziorako Zuzendaritza Nagusiak une oro laguntza eman du integrazioaren alde toki-erakunde horiek egiten dituzten ekintzak bultzatzeko.

Laguntza horren adibide da udaletako, diputazioetako edota mankomunitateetako lantaldeen eskuetara iritsi berri den dokumentu hau: *Sentsibilizaziorako toki-planak diseinatzeko eta egiteko gida*. Tresna honek, dudarik gabe, lana erraztuko die, integrazioak utopia izateari utzi eta, poliki-poliki, errealitatera hurbiltzeko aukera emango duten programak diseinatzean.

Gida Europako Progress Programaren baitan egin da; izan ere, programa horrek sentsibilizaziorako nazio-jarduerak sustatzen ditu diskriminazioaren aurkako borrokan. Gida egiten eta diseinatzen, immigrazioaren esparruko hainbat adituk hartu dute parte, bai eta diskriminazioaren aurkako borrokan espezialista diren zenbait instituzio eta erakundek ere. Azken batean, xede hori lortu nahi da tresna honen bitartez.

Espero dugu gaur aurkeztu dugun tresna hau lagungarri izango zaigula dibertsitatea nagusi den gizarte batean bizikidetzan harmoniatu baten oinarriak ezartzeko; izan ere, iritsi berri diren bizilagunak direla-eta, areagotu egin da gizarte honetako kultura-aniztasuna.

Estrella Rodríguez Pardo

Etorkinen Integratziorako zuzendari nagusia

0. GIDA METODOLOGIKOAREN SARRERA.

1. Enplegurako eta elkartasun sozialerako Europako Erkidegoko Programa – Progress.

Tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren inguruko sentsibilizaziorako toki-planak egiteko eta diseinatzeko gida metodologikoa honako proiektu honen azken produktua da: **ESCI II proiektua: Sentsibilizaziorako toki-planak.**

ESCI II proiektua Europako Batzordearen Enplegu, Gizarte Gai eta Aukera Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusiaren **Progress enplegurako eta elkartasun sozialerako Europako Erkidegoko Programaren** baitan sartzen da (2007-2013). Progress Europako Erkidegoko programak sei helburu ditu:

- Estatu kideetako (eta parte hartzen duten beste lurralde batzuetako) egoera hobeto ezagutzea eta ulertzea, politikak aztertuz, ebaluatuz eta horien jarraipen estua eginez.
- Metodo eta tresna estatistikoen nahiz adierazle komunen garapena bultzatzea.
- Legediaren eta helburu politikoen ezarpena bultzatzea eta kontrolatzea.
- Europan, sareak sortzea, elkarrengandik ikastea, jardunbide egokiak zehaztea eta zabaltzea, eta ikuspegi berritzaileak bultzatzea.
- Alderdi interesatuak eta, oro har, jendea sentsibilizatzea, hainbat alorretan Europako Erkidegoak bultzatzen dituen politikei eta helburuei dagokienez; besteak beste, honako alor hauetan: enplegua, gizarte-babesa eta -integrazioa, lan-baldintzak, diskriminazioaren aurkako borroka, eta gizonen nahiz emakumeen arteko aniztasuna eta berdintasuna.
- Erkidegoko politikak sustatzeko eta bultzatzeko Europako sare nagusiek duten gaitasuna hobetzea.

ESCI II proiektua Progress Erkidegoko Programaren bost jarduera-eremuetako batean sartzen da: ***diskriminaziorik eza eta dibertsitatea***. Jarduera-eremu horren helburu nagusia da diskriminaziorik ezaren printzipioa zuzen aplikatu dezaten bultzatzea, bai eta printzipio hori Erkidegoko politiketan aintzat har dezaten sustatzea ere; horretarako, honako ekintza hauek gauzatu behar dira:

- Diskriminazioaren alorrean, egoera hobeto ulertzea; bereziki, analisiak eta ikerketak eginez eta estatistikak nahiz adierazleak landuz, bai eta indarrean dauden legeen, politiken eta jardunbideen eraginkortasuna eta eragina ebaluatuz ere.
- Diskriminaziorik ezaren alorrean, Europar Batasuneko (EB) legedia aplikatzen laguntzea, kontrol eraginkorraren bitartez, profesionalen prestakuntza emanez eta diskriminazioaren aurkako borrokaren alorrean jarduten duten erakunde espezializatuen artean sareak sortuz.
- Sentsibilizazioa indartzea, informazioa hedatzea eta diskriminazioaren gaiaren erronka nagusiei nahiz horren alderdi politikoei buruzko eztabaida sustatzea, bai eta Erkidegoko politiketan diskriminaziorik ezaren gaia sartzeari ere.
- Erkidegoko sare nagusiek (esaterako, nazioko adituak edo GKEak) Erkidegoko helburu politikoak lortzeko duten gaitasuna garatzea.

2. ESCI II proiektua: sentsibilizaziorako toki-planak. Aurrekariak.

ESCI II proiektua 2009. urtean garatu du **Arrazismoaren eta Xenofobiaren Espainiako Behatokiak (Oberaxe)**, Immigrazioaren eta Emigrazioaren Estatu Idazkaritzaren Etorकिन Integraziorako Zuzendaritza Nagusiaren mendekoak (Lan eta Immigrazio Ministerioa).

2008an garatu zuten **Herritartasunerako eta Integraziorako Estrategia Herritarrak: ESCI I proiektuaren** baitan egindako lanaren jarraipentzat aurkeztu dute. ESCI I proiektuko jarduerak amaitzeko, jardunaldi baten deialdia egin zuten: **Diskriminazioaren aurkako arreta-zerbitzuei buruzko adituen jardunaldia: diagnostika eta proposamenak.**

Jardunaldiaren helburu nagusia diskriminazioaren aurkako borrokarekin lotutako fenomenoetan eta jardunbideetan aditu diren pertsonen arteko iritzi-trukaketak eta hausnarketa bultzatzea izan zen, egoeraren diagnosi bat egiteko eta gai horri buruzko aholkuak eman nahiz proposamenak lantzeko. Guztira, 21 herritatik etorritako 63 pertsonak hartu zuten parte; horiek, hain zuzen, hainbat erakunde eta entitate ordezkatu zituzten, besteak beste: udalak, gizarte-erakundeak, etorkinen elkarteak, sindikatuak, herriko defentsa-bulegoak, ministerioak...

Adituen jardunalditik ateratako ondorio eta aholku garrantzitsuenen artean, ESCI I proiektuari jarraipena emateko premia azpimarratu behar da. Hau da, tokian-tokian, tresna metodologikoak eskura jarri behar dira aurreiritziak eta estereotipoak sortzeari aurre egiteko; horrez gain, tratu-berdintasunarekin eta diskriminaziorik ezarekin lotutako alderdi teorikoak eta kontzeptualak landu behar dira.

ESCI I proiektuaren garapen-aldian egindako proposamenak eta aholkuak oinarri hartuta, proiektuaren bigarren fasea diseinatu zen, 2009. urtean garatu dena.

3. ESCI II proiektua: sentsibilizaziorako toki-planak. Helburuak.

Proiektuaren bidez, dibertsitatearen eta integrazioaren onurei buruzko hausnarketa publikoa bultzatu nahi da; horretarako, *sentsibilizaziorako toki-planak* egin, garatu eta abian jarriko dira, tratu-berdintasunaren eta etnia- edo arraza-jatorriagatiko diskriminaziorik ezaren alorrean.

Helburua honako helburu espezifiko hauen bidez bihurtu da eraginkor:

1. Tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren esparruan sentsibilizatzeko eta jokabide horiek sustatzeko ekintzak garatzeari dagokionez, instituzio publiko eta pribatuak nahiz tokiko eta eskualdeko erakundeak aintzat hartzea eta horien esku-hartzea bultzatzea.
2. Instituzio horiekin batera, lehenetsuta duten gaiak eztabaidatzea eta adostea, bai eta sentsibilizaziorako toki-planak garatzeko metodologia egokiak eta bideragarriak eztabaidatu eta adostea ere.
3. Tratu-berdintasunaren inguruko sentsibilizazioari lotuta udalerrri-mailan gauzatutako jardunbide egokiak eta esperientzia arrakastatsuak identifikatzea, bai Espainian garatu direnak, bai Europako beste herrialde batzuetan garatu direnak.
4. Tratu-berdintasunaren eta etnia- edo arraza-jatorriagatiko diskriminaziorik ezaren inguruko sentsibilizaziorako toki-planak egiteko eta ezartzeko gida metodologiko bat eratzea eta zabaltzea.

4. Zergatik honelako tresna metodologiko bat?

Edozein diskriminazio-motaren aurkako borroka eta, beraz, etnia- edo arraza-jatorriagatiko diskriminazioaren aurkako borroka indartuz joan da azken urteetan; horrenbestez, elementu garrantzitsu bihurtu da Espainiako Administrazioaren hainbat mailatan politika publikoak diseinatzeko. Nolanahi ere, oraindik urriak dira tratu-berdintasunaren eta etnia- edo arraza-jatorriagatiko diskriminaziorik ezaren inguruko sentsibilizazio-ekintza espezifikoak zenbait erakunde publikotan; batez ere, toki-erakunde publikoetan.

Beraz, eta ESCI I proiektuan egindako ekarpenak ere aintzat hartuta, Etorrinen Zuzendaritza Nagusiak tresna metodologiko bat sortzearen alde egin du, toki-erakundeei alor horretako politikak garatzen lagunduko diena.

Hain zuzen, tresna hori da hurrengo lerroetan aurkeztuko den ***Sentsibilizaziorako toki-planak diseinatzeko eta egiteko gida metodologikoa***; hau da, gizarte-aktore

desberdinen inplikazioa oinarri hartuta, tresna horren bidez toki-erakundeak gidatu eta lagundu nahi dira, tratu-berdintasunaren eta etnia- edo arraza-jatorriagatiko diskriminaziorik ezaren inguruko sentsibilizazio-ekintza zehatzak gara ditzaten.

Gutxienez lau arrazoik bultzatu dute Arrazismoaren eta Xenofobiaren Espainiako Behatokia ezaugarri horietako tresna metodologiko bat diseinatzera eta zabaltzera:

1. Lehenik eta behin, XXI. mendeko Espainiako gizartearen zenbait ezaugarrik. Gida honen orrietan islatu nahi izan den bezala, Espainiako gizartean kultura-, gizarte- eta etnia-dibertsitatea da nagusi, hainbat arrazoi direla-eta: gutxiengoan dauden lurralde barneko talde etnikoen presentzia (esaterako, ijitoak); 50eko, 60ko eta 70eko urteetan izan ziren lurralde barneko migrazio-mugimenduak; edo, XX. mendean, nazioarteko migrazio-fluxuan izan den igoera. Azken horiek, hain zuzen, Espainia aukeratu dute helburu-herrialdeztat, eta, horrenbestez, kultura- eta etnia-jatorri desberdineko pertsona ugari iritsi da gure herri eta hirietara.
2. Bigarren, diskriminaziorik ezaren eskubideak Espainian duen bermeak. Tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa Espainiako Antolamendu Juridikoan jasota dagoen bermea da; zehazki, Espainiako Konstituzioan, eta printzipiotzat ez ezik, balio eta eskubidetzat ere hartzen da. Era berean, Europako Araudian, autonomia-estatutu desberdinetan eta Espainiako gainerako legeetan (orokorrak eta espezifikoak), printzipio hau bete beharra aitortzen da.
3. Hirugarren, kultura-dibertsitatearen kudeaketan toki-erakundeek duten funtzioa. Toki-entitateek funtzio garrantzitsua betetzen dute jarrera arrazistak eta xenofoboak garatzea eragozteko egiten den edozein ekintzatan; izan ere, dibertsitatea kudeatzeko politiken kudeatzaileak oinarri hartuta, herritarrengandik gertuen dauden erakundeak dira, eta, gainera, funtzio horretan, administrazio pribilegiatua dira tratu-berdintasunerako politikak zehazteko.
4. Eta azkena, sentsibilizazioak, etnia- eta arraza-jatorriagatiko diskriminazioari aurre egiteko estrategia egokia den aldetik. Ez da estrategia bakarra; baina, sentsibilizazioak hainbat arrazoi ematen ditu, tratu-berdintasunaren alorrean estrategia egokitzat hartzera garamatzatenak. Izan ere, dibertsitatearen egungo testuinguruan, pentsaera, pertzepzio eta jarrera negatiboen aldaketa sustatzeko aukera ematen du, bai eta edozein pertsonarekiko diskriminazioa prebenitzeko aukera ere, pertsona horren gizarte-, kultura- edo geografia-jatorria zeinahi izanda ere.

Gida metodologiko honen helburuak helburu orokor bat oinarri hartuta egituratzen dira; honako hau, zehazki:

Tratu-berdintasunaren alorrean udal-ekintzak gidatzeko aukera emango duen tresna metodologiko bat eskaintzea.

Honako hauek dira helburu espezifikoak:

- a) Tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa betetzearen alde egitea.**
- b) Espainiako udalerrietako herritarren artean, jokabide ez diskriminatzaileak sustatzea.**
- c) Espainiako udalerrietan bizi diren askotariko herritarren arteko bizikidetzaharremanak garatzen laguntzea.**

Helburu horiek lortzeko, segidan zehaztasunez azalduko diren jarduerak egin ziren.

5. ESCI II proiektuaren esparruko metodologia eta jarduerak.

ESCI II proiektua garatzeko proposamen metodologikoak funtsezko bi irizpide izan zituen oinarri:

1. **Parte hartzeko metodologia** bat garatzea; hain zuzen, instituzio publiko eta pribatuak inplikatu behar dira, bai tresna metodologikoa eraikitzeke fasean, bai tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza sustatzeko neurri eta tresna egokiak egiteko fasean.
2. Diskriminazioaren aurkako borrokan eta aukera- nahiz tratu-berdintasunaren ekintzen garapenean esku hartzen duten administrazio publikoko hainbat mailen arteko **sareak koordinatzeko eta eraikitzeke metodologia bat** izatea.

Horretarako, bi lan-talde eratu ziren; zehazki, honako hauek dira bi lan-talde horien helburuak eta osaera:

a) Aritu-taldeak.

ESCI II proiektuko aritu-taldea hainbat instituziok eta gidan agertzen diren gai desberdinetako espezialistek osatu dute; guztira, 13 ordezkari izan dira.

Zehazki, honako hauek dira parte hartu duten instituzioak:

- Bartzelonako Diputazioa.
- Roquetas de Marreko Udala, Udalerrien eta Probintzien Espainiako Federazioaren izenean.
- Fuenlabradako Udaleko Polizia Lokala.
- Zaragozako Udala.
- Vigoko Udala.
- Illescaseko Udala.
- Ijitoen Idazkaritza Fundazioa.
- Accem.
- CEPAIM. Acción Integral con Migrantes.
- ATIME. Marokoko Langile Etorrinen Espainiako Elkarte.

Halaber, honako aritu hauen parte-hartzea izan da:

- Josefina Alventosa andrea, Valentziako Unibertsitatea.

- Concepción Antón andrea, Salamancako Unibertsitatea.
- Carmen Cárdenas andrea, Espainiako Gurutze Gorria, Bulego Nagusia

Aditu-taldea osatzeko, bestalde, irizpide hauek hartu ziren aintzat:

1. Taldearen **aniztasuna**; sentsibilizazioaren alorrean esku hartzen duten gizarte-eragileek osatutako taldea sortzea da helburua.

2. Esperientzia pertsonal edo instituzional zabala sentsibilizazioaren, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren alorrean.

3. Eskuragarritasuna eta erabilgarritasuna, lanaren hainbat etapa garatzeko.

Taldearen xede nagusia tresna metodologikoa egiteko laguntza ematea zen, haren fase guztietan; besteak beste, honako zeregin hauek izan zituzten:

- Tresna metodologikoa diseinatzea.
- Tresna metodologikoan sartuko diren edukiak definitzea eta eratzea.
- Sentsibilizaziorako toki-planak garatzeko funtsezko kontzeptuak sartzea.

Horretarako, hainbat azpi-talde eratu ziren, eta, horiei esker, gida metodologikoaren atal desberdinetako edukietan aurrera egin ahal izan zen; gero, balioztatze-taldeko kideei bidali zitzaizkien.

b) Balioztatze-taldea.

Balioztatze-taldea honako instituzio hauek osatu dute:

- **Toki-erakundeak:** Lleidako Udala (Sektore Programen Zerbitzua eta Pertsonen Zerbitzuak); Aranjuezko Udala (Emakumearen Zinegotzigoaren Gizarte Zerbitzuen Udal Zentroa); Zaragozako Udala; Sabadellgo Udala (Herritartasun Berriaren Batzordea); Madrilgo Udala (Immigrazioaren eta Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusia); Illescaseko Udala (Gizarte Integraziorako Toki Planaren Koordinazioa); Barakaldoko Udala (Eusko Jaurlaritzaren Udal Mailako Harrera Sarea); Mijasko Udala (Gizarte Ongizatea); Totanako Udala (Gizarte Ongizatea); Bartzelonako Udala (Gizarte Ekintzaren eta Herritartasunaren Departamentua eta Diskriminaziorik ezaren Bulegoa); Bilboko Udala (Immigrazioa); Alcorconeko Udala (Prebentzioaren eta Inklusioaren Departamentua eta Kulturarteko Elkarbitzaren Behatokia); Fuenlabradako Udala (Polizia Lokala); Islantillako Mankomunitatea; Kanaria Handiko Hego-ekialdeko Udalarteko Mankomunitatea; Bartzelonako Diputazioa (Berdintasunerako eta Herritartasunerako Departamentua); Zamorako Diputazioa (Europako Gizarte Funtzaren Programa).

- **Autonomia-erkidegoak:** Balear Uharteetako Gobernuak (Immigrazioarako Zuzendaritza Nagusia); Gaztela eta Leongo Junta (Migrazio Gaien Zerbitzua); Andaluziako Junta (Enplegu Departamentuaren Migrazio Politikak Koordinatzeko Zuzendaritza Nagusia); Kataluniako Generalitatea (Immigrazio Idazkaritza, Gizarte Ekintzako eta Herritarren Departamentua); Murtziako Eskualdeko Autonomia Erkidegoa (Immigrazioko eta Boluntariotzako Zuzendaritza Nagusia).
- **Unibertsitateak:** Valentziako Unibertsitatea; Salamancako Unibertsitatea
- **GKEak:** Espainiako Caritas; ACOBE Usera Elkartea; Tolerantziarik ezaren aurkako mugimendua; ACOGE Sarea; Accem; ACOBE Elkartea; Espainiako Txinosen Elkartea; ARI-PERU Elkartea; Espainiako Gurutze Gorria.
- **Sindikatuak:** UGT – Unión General de Trabajadores (Migrazioen Departamentua).
- **Enpresak:** CIDALIA consultora técnica en diversidad; Abierto hasta el Amanecer, Madrilgo kooperatiba; Contexto, Análisis y Evaluación SL; Dinamia, Consultoría Social kooperatiba; Ciudadania, Galiziako kooperatiba; Consultora Social Transformando Madrid; Atos Consulting.

Balioztatze-taldearen helburu nagusia gida metodologikoaren edukiak berrikustea zen, aditu-taldearen azken bertsioa oinarri hartuta; horrez gain, gida metodologikoaren atal desberdinak hobetzeko proposamenak egin eta aholkuak eman behar zituzten.

Balioztatze-taldearen metodologian, tresna metodologikoaren bi berrikuspen-maila zeuden:

- Banakakoa, balioztatze-taldeko parte-hartzaile bakoitzarena.
- Taldekakoa, lan-taldeetan edo bileretan parte hartuz.

BANAKAKOA. Balioztatze-taldearen bilera egin aurretik, taldekideek Tresna Metodologikoaren Proposamen Dokumentua jaso zuten posta elektronikoz, eta, dokumentuarekin batera, galdetegi bat bidali zieten; bertan, hainbat adierazleren bitartez (batzuk orokorrak, gida osorako, eta beste batzuk espezifikoak, kapitulu bakoitzerako), Sentsibilizaziorako Toki Planak ezartzeko tresna metodologikotzat gidak zuen eraginkortasun-maila baloratu zuten.

TALDEKAKOA. Lan-saioan, proposamen-dokumentu osoaren kapitulu eta atal bakoitza aztertu zuten.

Balioztatze-taldea eratzeke proposamenean, funtsezko bi irizpide hartu ziren kontuan:

a) Balioztatze-taldearen **ordezkagaitasuna**, honako adierazle hauetan oinarrituta:

- Lurraldekoa/geografikoa. Hau da, ahalik eta nazio-lurralde gehienetako ordezkariak egon daitezela sustatzea.
- Administrazio-mailak. Gida gizarte-elkarrizketaren eta gizarte-eragile desberdinen arteko erantzukizun partekatua ikuspegitik egin zen; hori zen, hain zuzen, irizpidearen oinarri. Horrenbestez, horiek guztiek hartu behar dute parte dokumentuaren balioztatzean, administrazio-maila desberdinetatik hasita.
- Erakunde-mota. Aurrez azaldutako argumentuarekin jarraituz, sentsibilizazio-alorrean esperientzia zabala duten gizarte-erakundeen presentzia funtsezko elementutzat agertzen zen.

b) **Adierazgarritasuna.** Taldean parte hartu zuten erakundeek, ordezkagaitasun handikoak izateaz gain, adierazgarritasun-maila handia izan zezaten ere nahi zen; horretarako, honako adierazle hauek hartu ziren oinarri:

- Immigrazio-ehuneko altua edo immigrazioaren ezaugarri espezifikoak dituzten lurralde-testuinguruak.
- Immigrazioaren eta Emigrazioaren Estatu Idazkaritzaren Tokiko Funtsen ezarpena sentsibilizazio-ekintzetan.
- Etorकिनen gizarte-integrazioarako toki-planen existentzia edo garapena.

c) **Azken batzarra.**

Azaroaren 19an egin zen *ESCI II Proiektua Sentsibilizaziorako Toki Planak* izenekoaren azken batzarra; orduan aurkeztu zuten sentsibilizaziorako toki-planak diseinatzeko eta egiteko gida metodologikoa.

Gida da, hain zuzen, prozesu metodologiko honen azken emaitza; prozesuan hainbat pertsonak hartu du parte, sentsibilizazioren, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren alorrean esku hartzen duten 60 erakunde publiko eta gizarte-erakunde baino gehiago ordezkaturik.

Gida metodologikoa izanik, eremu horietako sentsibilizazio-ekintzen ikuspegi praktikoa eman nahi du; horretarako, proposamen metodologiko bat egin da, gure herrialdeko toki-erakunde lurralde-, gizarte- eta politika-testuinguru desberdinetara egokitu ahal izango dena.

1. kapitulua

Zer da plan
bat?

I. ZER DA PLAN BAT?

Gida metodologikoaren lehenengo kapitulu honetan, planifikazio-kontzeptua berrikusiko dugu, bai eta planifikazioaren helburuak eta xedeak sakondu edota planifikazio-maila eta teknika desberdinak labur-labur aztertu ere.

Funtsean, toki-erakundeentzat da dokumentu hau (udalak, mankomunitateak, diputazioak...); dena den, planifikazioaren printzipio orokorrak baliagarriak izango dira gizarte-eragileentzat edo bestelako erakunde eta instituzioentzat ere (publikoak nahiz pribatuak).

Proposamena: kapitulu honetan, deskribatutako edukien sarrera orokor bat egin da, eta, horrez gain, zenbait aholku eman dira gai horretan sakontzeko. Beraz, gizarte-planifikazioan eta planifikazio estrategikoan esperientzia teoriko eta/edo praktikoa zabala duzula uste baduzu, has zaitez irakurtzen hurrengo kapitulutik aurrera.

1. Zer da planifikazioa eta zertarako balio du.

Definizio eta kontzeptu ugari daude planifikazioa zer den azaltzeko; guk horietako batzuk berrikusiko ditugu, labur-labur:

- Hizkuntza-ikuspegi zorrotza oinarri hartuta, **Real Academia de la Lengua Españolak** honela definitu du planifikazioa:
 1. Fem. Planifikatzeko ekintza eta horren ondorioa.
 2. Fem. Modu metodikoan antolatuta dagoen eta, sarritan, hedapen handia duen plan orokorra, helburu zehatz bat lortzeko egiten dena; esaterako: hiri baten garapen harmoniatsua, garapen ekonomikoa, ikerkuntza zientifikoa, industria baten funtzionamendua...
- **Ezequiel Ander – Egg** egileak “Introducción a la planificación estratégica” (“Planifikazio estrategikoaren sarrera”) bere argitalpenean honela definitu zuen planifikazioa, bere esanahirik zabalenean: “planifikatzea da zer egin behar den aurrez erabakitzea...; hau da, lortu nahi den zerbait aurreikustea eta hori lortzeko behar diren bitartekoak adieraztea”.

- Ildo beretik, **Francisco Ther Ríosek** honako hau adierazi zuen: “jarraitu beharreko ekintza-bide jakin bat zehaztea da. Planifikazioaren bidez, orientaziorako printzipio batzuk finkatzen dira, eta, horrekin batera, itxaroten dena lortzeko beharrezko diren ekintzen sekuentziak zehazten dira: beharrezko denborak, kostuak eta finantziarioak. Hau da, etorkizunaren arrazionalizazioa, egungo egoeran oinarrituta; horrela, planifikazioa honako kontzeptu hauekin lotzen da: efikazia eta eraginkortasuna, koordinazioa, aurreikuspena eta kontrola¹”.
- Bestalde, **Marco Marchionik**, gizartearen esku-hartzearen eta planifikazioaren beste erreferente teorikoak, adierazi duenez, planifikazioa “gizarte-ekintzako helburu bat, premia implizitu bat, metodo bat eta lan-tresna bat da aldi berean”.

Proposatutako definizioen arabera, planifikazioaren ezaugarri garrantzitsuenetako batzuk ondoriozta ditzakegu:

- Lanerako metodo eta tresna bat.
- Lortu nahi den etorkizunaren aurreikuspena, lantzen ari garen gaiari lotua; funtsean, politika publikoei dagokie.
- Helburu finko batzuen zehaztapena.
- Bide jakin baten zehaztapena; hain zuzen, printzipio gidari batzuk eta beharrezko ekintza batzuk oinarri hartuta, bide horretan aurrera egin behar da espero den hori lortzeko.

Ildo horretan, planifikazioak funtsezko desberdintasunak ditu **estrategiaren** kontzeptuarekiko; izan ere, estrategia honela ulertzen da: *epe luzera erakunde baten efikazian eragina izango duten erabakiak hartzeko ildo nagusien multzoa*. Beraz, estrategiak ez ditu hain zorrotz mugatzen lortu nahi dituen helburuak, epeak edota helburu horiek lortzeko behar diren baliabideak.

Hasiera batean proposatutako definizioak aintzat hartuz (oro har, gizartean oinarritzen dira) eta gida honen helburuarekin lotuz, gizarte-planifikazioaren definizio bat proposatu dugu, betiere garapen komunitarioko prozesutzat hartuta; prozesu hori, zehazki, bi alderdirekin lotuta egongo litzateke:

- a) Lehenik eta behin, **komunitatearen antolaketarekin**; zehazki, antolaketa hori honela ulertuko litzateke: “komunitateari hainbat alorretako zerbitzuak emateko

¹ Francisco Ther Ríos, *Una revisión al concepto de Planificación Social desde la Investigación Social de Segundo Orden*, <http://www.ubiobio.cl/cps/ponencia/doc/p12.7.htm> gunean argitaratua.

xedea, betiere komunitateak berak dituen premien eta egin dituen eskaeren arabera” (Arthur Dunham).

b) **Komunitatearen garapen programatuarekin.** Hau da, programa eta esku-hartze guztiak antolatzeko eta aurreikusteko premiarekin dago lotuta; nolahi ere, gida honetan aurrera egin ahala, gizarte-eremuan oinarrituko gara, bereziki.

Beraz, proposatu dugu **planifikazio estrategikoa garapen komunitarioko edo komunitateko gizarte-ekintzako prozesutzat** hartzea; hau da, garapen komunitarioaren ikuspegi dinamikoa izango du oinarri, eta, beraz, komunitatearen beraren parte-hartzea eta inplikazioa funtsezkoak izango dira.

Gizartearen eta komunitatearen parte-hartzea baldintzatzat eta premiatzat hartzen da; izan ere, planifikazio estrategikoa gizartea aldatzeko antolatu diren ekintzen multzoa bada, baieztatu dezakegu gizartearen parte-hartzerik eta komunitatearen inplikaziorik gabe, ez dela aldaketarik gertatuko. Horrenbestez, sentsibilizaziorako toki-planak diseinatzeko eta egiteko proposamen metodologikoan, komunitateko eta komunitaterako gizarte-ekintza izango dugu oinarri.

Komunitate-kontzeptua, beraz, funtsezko faktoreetako bat da planifikazio estrategikoaren prozesuan, betiere garapen komunitariotzat hartuta. **Gida honetan zer ulertzen dugu komunitate hitzarekin?** M. Marchioniri jarraiki baieztatu dezakegunez, "benetan erabilgarria izateko eta funtzionatu ahal izateko, gizarte-ekintza ezinbesteko duen baliabide nagusia da komunitate antolatua" (54. or).

Gidaren garapenean eta proposamen metodologikoan, honako hau adieraziko dugu komunitate hitzaren bidez: "lurralde berean bizi diren eta elkarrekin zenbait lotura nahiz interes dituzten pertsonen multzoa" (Angela Zucconi). Beraz, komunitate horren baitan sartzen dira, halaber, lurralde horretan dauden eta bertako parte diren instituzioak eta erakundeak. Gida metodologiko honen ondorioetarako, lurralde hori udalerriei eta toki-erakundeei lotuta egongo da.

Gizarte-alorreko planifikazio estrategikoaren proposamen bat azaldu dugu, elkarrekin baina bakoitzak bere erantzukizunekin eta erabaki- nahiz eragin-ahalmenekin egindako lanaren fruitu; zehazki, hiru dira elkarlan horretako eragile nagusiak:

- Administrazioa; hau da, komunitatearen lurraldean dauden erakunde publiko desberdinak.
- Alor horretako langileak eta teknikariak, bai gizarte-organizazioetakoak, bai gizarte-korporazio eta erakundeetakoak.
- Biztanleria, oro har.

Eragile bakoitzaren funtzioa nahiz horien erantzukizun- eta erabaki-ahalmena desberdina izango da seguru asko, komunitate desberdinen eta lurralde-testuinguruaren ezaugarrien arabera.

Sentsibilizaziorako toki-planei dagokien kapituluan, eragile desberdinen esku-hartzea bermatuko duen lan-metodologia proposatuko dugu; beraz, eragile horien malgutasunari esker, hainbat lurralde-testuingurutara egokitu ahal izango da.

Planifikazio estrategikoaren prozesuak “epe ertainerako helburu bat izan behar du komunitatean; hau da, tokiko edo eskualdeko plana egitea. Ageriko tresnak sortu behar dira, komunitateak ikus ditzakeenak²”. Beraz, komunitatearen arazo bat, eskaera bat edo premia bat ikusarazteko tresnatzat hartu behar dugu plana; horrenbestez, **plana bera komunitateko gizarte-ekintzaren tresna bihurtuko da.**

Azken batean, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren alorrean sentsibilizaziorako toki-plan bat garatzea proposatu dugu, garapen komunitariorako tresnatzat; tresna horrek, hain zuzen, komunitatearen eta bertako hainbat eragileren parte-hartzearen bitartez, aldaketak sustatuko ditu gizartearen, norbanakoen eta taldeen jarreretan eta jardueretan (ikus sentsibilizazioaren kontzeptua Terminoen glosategia atalean).

Amaitzeko, adieraziko dugu **plan bat ez dela epe ertainerako lan-hipotesi bat baino**; hau da, malgua izan behar du, eta, hasiera-hasieratik, jarraipenerako eta ebaluaziorako ekintzak izan behar ditu, ekintza horiek zuzentzeko eta aurreikusitako helburuen nahiz xedeen arabera egokitzeko (ikus sentsibilizaziorako toki-planei buruzko kapitulua).

² Marco Marchioni, *Planificación Social y organización de la comunidad. Alternativas avanzadas a la crisis*. Editorial Popular, 7. argitalpena, Madril, 2007.

2. Gizarte-planifikazioaren mailak eta teknikak.

Hainbat planifikazio-maila daude, jarduketa-eremuaren zabaltasunaren edota ekintzak egiteko izaten den zehaztasun-mailaren arabera. Tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren inguruko sentsibilizaziorako toki-planak planifikazio estrategikoaren baitan sartzen dira, aurreko atalean adierazi dugun bezala. Maila honetatik aurrera, beraz, planifikazio-maila espezifikagoa edo eraginkorragoa ezarri ahal izango da.

3 planifikazio-estrategia definituko ditugu: estrategikoa, taktikoa eta operatiboa. Honako hauek dira ezaugarri adierazgarrienak:

Planifikazio-mota	Epea	Helburua	Tekniken adibideak
Estrategikoa	Luzea (4 edo 5 urte)	Jarduketa Plan Orokorra	AMIA
Taktikoa	Ertaina (1 edo 2 urte)	Programa	Arazoen Zuhaitza
Operatiboa	Laburra (urte bat baino gutxiago)	Proiektua	Esparru Logikoaren Ikuspegia (ELI)

PLANGINTZA ESTRATEGIKOA

Epe luzerako egin ohi da (4 edo 5 urte), ikuspegi orokor bat oinarri hartuta. Helburu orokorrak ezartzen ditu, besteak beste: aurreikusitako helburuak lortzeko ekintza-orientazio estrategikoen definizioa, baliabide guztiak hornitzeko sistema bat, jarraipenerako eta ebaluaziorako mekanismoak... Azken batean, Jarduketa Plan Orokor bat da.

Maila estrategikoko planifikazioa Plana izendatuko dugun dokumentu batean jasoko da; bertan, epe luzerako helburu orokorrak ezarriko dira, jarduketa-eremu handietan egituratuta.

Planifikazio estrategikoaren teknikak eta metodologiak desberdinak dira; zehazki, planifikazio-maila honetan, AMIA azterketa da gehien erabiltzen den azterketa-tekniketako bat: Indarrak, Aukerak Ahuleziak eta Mehatxuak,. Metodologia honen lan-matrizea honako hau da:

AMIA azterketa	Indarrak	Ahuleziak
Barne- azterketa	Abantaila naturalak Goi-mailako baliabideak	Baliabide eta ahalmen urriak lurraldean Komunitatearen gizarte- aldaketarako erresistentzia
	Aukerak	Mehatxuak
Kanpo- azterketa	Teknologia berriak Kokatze estrategikoa	Arrisku handiak – Aldaketak inguruan

Barne- eta kanpo-azterketaren helburua honako hau da: ahuleziak epe luzera (4 edo 5 urtean) indar bihurtuko dituen estrategiak eta ekintzak zehaztea (ahulezia horiek, beti, komunitate barneko faktoreei buruzkoak izaten dira, hirigintza-diseinua, esaterako), eta, era berean, mehatxuak (beti komunitateaz kanpoko faktoreak) etorkizunerako aukera bihurtuko dituzten estrategiak eta ekintzak zehaztea.

AMIA azterketa planifikazio estrategikoan gehien erabiltzen den tekniketako bat da; dena den, badira beste batzuk ere, esaterako iraganean pilatutako esperientzia oinarri hartuta etorkizunean sartzeko direnak (estrapolazioa, tendentziak, aldaketen azterketak...).

PLANIFIKAZIO TAKTIKOA

Epe ertainerako egiten da (urte bat edo bi), eta zehaztapen-maila handiagoa du; izan ere, planifikazio estrategikoan definitutako eremu edo segmentu espezifikoetan oinarritzen da. Eremu honetarako definitutako helburuak zehatzagoak dira. Planifikazio taktikoak hainbat jardueraren jarduketa-ildoak zehazten ditu, bere helburuak lortzeko, jarduera horien antolakuntza-eskema bat, finantziarioa...

Maila taktikoko planifikazioa, berriz, Programa izeneko dokumentu batean jasoko da; bertan, Planean (planifikazio estrategikoaren maila) sartutako jarduketa-eremu espezifiko bati buruzko helburuak daude zehaztuta. Programa jarduketa zehatz batzuen arabera dago egituratuta, eta, horietako bakoitzarentzat, plangintza eraginkor bat egiten da: Proiektua.

Plangintza taktikoaren esparruan, halaber, aplika daitezkeen teknika-mota ugari daude, besteak beste: sareen diagrama, Gantten diagrama... Zehazki, gehien

erabiltzen eta ezagutzen diren tekniken artean, Arazoen Zuhaitza aipatu behar da. Teknika metodologiko horri esker, arazo nagusi baten (esaterako, plangintza estrategikoaren ondorioz sortutako arazo bat) kausak eta ondorioak deskriba ditzakegu, lehen mailakoak eta bigarren mailakoak. Horrela, ageriago geratzen dira gure esku-hartzearen hipotesiak, eta, aldi berean, proiektuak izan dezakeen arrakasta kalkula dezakegu, aukeratutako arazoan esku hartzen duten hainbat eta hainbat kausaren eta aldagairen arabera.

Arazoaren Zuhaitza eraikitzeko, honako prozedura hau jarraitu behar da:

1. Balizko proiektuaren onuraduna edo onuradunak identifikatzea: esku-hartzearen zuzeneko subjektuak zein izango diren zehaztea eta deskribatzea.
2. Subjektu edo gizarte-talde horiei eragiten dieten arazo nagusiak zehaztea.
3. Etorkizunean egingo den esku-hartzearen arazo nagusia aztertzea eta aukeratzea.
4. Arazo nagusiaren kausak aztertzea eta deskribatzea.
5. Arazoaren ondorio nagusiak identifikatzea.
6. Deskribapen hori aurkeztea eta zuhaitz baten moduan aztertzea, honako datu hauek aintzat hartuta:
 - Enborra: arazo nagusiarri dagokio eta, beraz, horrek ordezkatzeko du.
 - Sustraiak: arazoaren kausei egiten die erreferentzia.
 - Adaburua: arazoaren ondorioei dagokio.

Segidan, *Arazoen Zuhaitza* egiteko eskema bat ezarri da:



PLANIFIKAZIO OPERATIBOA

Planifikazio operatiboa epe laburrerako egiten da (urtebete, gehienez ere), eta jarduketa edo jarduera zehatz bat identifikatzen du. Helburu oso zehatzak ditu, eta, horrez gain, proiektua egingo duten pertsonen antolakuntza-eskema bat; beharrezko izango diren baliabideak edota proiektuaren jarraipena egiteko nahiz ebaluatzeko mekanismoak zehazten dira bertan.

Maila operatiboko planifikazioa Proiektua izeneko dokumentuan islatuko da; epe laburrerako ekintza espezifikoko baten proposamena da, eta, bertan, elkarren artean lotuta dauden jarduera-multzoak zehazten dira, sekuentziaz sekuentzia eta modu ordenatuan.

Plangintza operatiboaren mailan, Esparru Logikoaren Ikuspegia (ELI) izeneko teknika erabiltzen da gehien, dudarik gabe. ELIa nazioarteko lankidetzaren proiektuen planifikazioan erabili izan da, batez ere; nolana ere, tresna analitikoa izanik, erabilgarria izan daiteke esku-hartze sozialeko proiektuetan ere, helburuen arabera bideratutako proiektuen kudeaketa planifikatzeko.

ELIri esker, planifikazioa hobea da, proiektuko elementuen eta kanpo-faktoreen artean dauden loturak azpimarratzen baititu; horrez gain, elkar ulertzea errazten du, eta, erabakiak hartzen dituztenen, arduradunen eta proiektuan esku hartzen duten gainerako alderdien arteko komunikazioa bultzatzen du.

Oro har, garapen-prozesuaren laburpen bat egiten da matrize batean, goian aipatutako oinarrizko elementuak oinarri hartuta; matrize horri **Proiektuaren Matrizea** (PM) deritzo [batzuetan, Planifikazio Matrizea izendatzen dute].

Hau da, **Proiektuaren Matrizea** —gizarte-garapeneko programa edo proiektu batena— honako informazio hau laburbiltzen duen dokumentua da:

- **Helburu nagusia**
- **Helburu espezifikoak**
- **Ustez lortuko diren emaitzak**
- Emaitza horiek lortzeko beharrezko diren **jarduerak**
- Jarduera horiek egiteko behar diren **baliabideak**
- Programaren edo proiektuaren **kanpo-mugak**
- Programa edo proiektua ebaluatzeko **adierazleak**, neurgarriak eta objektiboak
- Adierazleak zehazteko **prozedura**

Hona hemen ELIren planifikazio-matrizearen adibide bat:

Laburpen narratiboa	Adierazleak	Egiaztatzeko baliabideak
<p><u>Helburu nagusia</u> Proiektuak, beste zenbait proiektuekin batera, modu adierazgarrian bultzatuko duen helburua.</p>	<p><u>Inpaktuak</u> (proiektua amaitu eta 2 edo 3 urtera) Inpaktuak neurtzen dituzten adierazleak (edo epe luzerako Zuzeneko Ondorioak) Inpaktuen adierazleak estandarizatu egiten dituzte askotan, eta, horrenbestez, proiektu bakar baten eskumenaz harago dauden helburutzat hartzen dira.</p>	<p><u>Egiaztatzeko baliabideak</u> Adierazle bakoitzaren informazio-iturriak eta baliabideak (inkestak, azterketak, estatistikak, erroldak, prozesuak, ekitaldiak, txostenak eta bestelakoak), proiektuaren inpaktua egiaztatzeko helburua kontuan hartuta.</p>
<p><u>Helburu espezifikoak</u> Proiektuko produktuak erabiliz lortu nahi den Zuzeneko Ondorioa adierazten duen hipotesia.</p> <p>Proiektu baten asmoak hainbat Zuzeneko Ondorio (emaitza) izan ditzake; esaterako, aldaketak proiektuaren onuradunen jokabidean, ahaleginean edo jarreran.</p>	<p><u>Emaitzak</u> Proiektuaren emaitzatza lortu nahi diren Zuzeneko Ondorioak (Emaitzak) neurtzeko adierazleak. Oro har, Zuzeneko Ondorio horiek azken etapetan lortzen dira, edo, bestela, proiektua gauzatu bezain laster.</p>	<p><u>Egiaztatzeko baliabideak</u> Adierazle bakoitzaren informazio-iturriak eta baliabideak (inkestak, azterketak, estatistikak, erroldak, prozesuak, ekitaldiak, txostenak eta bestelakoak), proiektuaren asmoa zenbateraino lortu zen egiaztatzeko erabil daitezkeenak.</p>
<p><u>Osagaiak/Produktuak</u> Proiektuaren bidez eman beharreko produktuak. Proiektua gauzatzean lortzen diren produktuak (eta/edo zerbitzuak). Produktuen egile-taldea produktu horiek sortzearen arduradun zuzena da.</p>	<p><u>Produktuak</u> Proiektua egin bitartean sortu beharreko produktuak deskribatzen dituzten adierazleak; horiek, hain zuzen, sortutako ondasun eta zerbitzuen kopurua, kalitatea eta horiek emateko aurreikusitako epea espezifikatu beharko dute. Zenbaitetan, proiektuaren erreferentzia-zehaztapentzat (TOR) hartzen dira.</p>	<p><u>Egiaztatzeko baliabideak</u> Adierazle bakoitzaren informazio-iturriak eta baliabideak (inkestak, azterketak, estatistikak, erroldak, prozesuak, ekitaldiak, txostenak eta bestelakoak), proiektuaren Osagaiari/Produktuari dagokionez sortutako Osagaiak egiaztatzeko erabil daitezkeenak.</p>
<p><u>Jarduerak</u> Osagai bakoitza sortzeko egin behar diren jarduera nagusien multzoa (3 edo 4 jarduera nagusi aipatzea gomendatzen da, azpi-banakatarik egin gabe).</p>	<p>Atal honetan, jarduera nagusietarako adierazleak daude, bai eta horiek gauzatzeko beharko den denbora ere.</p>	<p><u>Egiaztatzeko baliabideak</u> Adierazle bakoitzaren informazio-iturriak eta baliabideak (inkestak, azterketak, estatistikak, erroldak, prozesuak, ekitaldiak, txostenak eta bestelakoak), proiektuak, aurrekontuak eta abar ezartzeko planen jarraipena egiten dutenak.</p>

ONARRIZKO BIBLIOGRAFIA. 1. KAPITULUA: ZER DA PLAN BAT?

Ther Ríos, F.: *Una revisión al concepto de Planificación Social desde la Investigación Social de Segundo Orden*,
<http://www.ubiobio.cl/cps/ponencia/doc/p12.7.htm> gunean argitaratua.

Marchioni, M.: *Planificación Social y organización de la comunidad. Alternativas avanzadas a la crisis*. Editorial Popular, 7. argitalpena, Madril, 2007.

2.

kapitulua

Toki- erakundeak

Dibertsitatea, tratu-
berdintasuna eta
diskriminaziorik eza.

II. TOKI-ERAKUNDEAK: DIBERTSITATEA, TRATU-BERDINTASUNA ETA DISKRIMINAZIOAREN AURKAKO BORROKA.

III.1 Askotariko gizartea: tratu-berdintasunaren politikak eta diskriminazioaren aurkako toki-erakundeen borroka

A. Egungo askotariko gizartea. Espainiako gizarteko dibertsitatearen ikuspegi historiko laburra.

Espainiako etnia- eta kultura-dibertsitateari buruz hitz egitean, Espainiako egungo gizartea eraikitzeke izan den prozesu historikoari buruz hitz egin behar dugu; eraikitze-prozesu hori, hain zuzen, gure udalerrietan egun bizi diren herritarren etengabeko mugimenduaren ondorioz askotariko kulturak dituzten herrien eta hirien bidez zehaztu da. Beraz, adieraz daiteke Espainiako herrietako nahiz hirietako dibertsitatea etengabekoa izan dela bertako historia guztian, edozein herri edo herrialdetako historian gertatzen den bezala.

Espainiak naziotzat duen historia, beste hainbatena bezala, Espainiako geografian etengabe mugitzen ari diren herrien eta kulturen historia da. Hain zuzen, hemen aurkituko dugu gure herrialdeko dibertsitateaz hitz egitean aintzat hartu behar den ezaugarrietako bat; hots, Espainia nazio, herri eta kulturatzat hartuta, hainbat herrik izandako presentziaren emaitza da, besteak beste: zeltek, iberiarrek, grekoek, erromatarrek, herri godoak, arabiarrek edo juduek. Beraz, herri horien guztien presentziak Espainiako historiaren bilakaera zehaztu du, hasiera-hasieratik Erdi Arora (XVI-XVIII) iritsi arte.

XII. eta XIX. mendeen artean, Espainian hainbat gizarte-sistema garatu ziren; hasiera batean, landa- eta nekazaritza-kutsu nabarmena izan zuten, baina, poliki-poliki, ikuspegia aldatuz joan zen, hiriak eta hiriarekin lotutako mundua gero eta garrantzi handiagoa lortuz joan ziren heinean. Espainiako gizarte- eta kultura-dibertsitatea azaltzeko beste alderdi garrantzitsu bat landa-munduaren eta mundu hiritarraren koexistentzia izan da; bi elementu desberdin, bereizleak eta nahasiak, landa-eremutik hirira irteteko prozesu desberdinen eta etengabeen fruitu ere izan direnak.

Gerora, XVIII. mende amaieratik XX. mendera, Burgesiaren Iraultza izendaturikoaren hainbat fase gertatu ziren Espainian; fase horien artean honako hauek azpimarratu behar dira, besteak beste: Cadizko Konstituzioa, Fernando VII.aren erregealdia, 1. eta 2. errepublikak, Gerra Zibila, Trantsizio Demokratikoa eta, amaitzeko, Autonomien Estatutuaren garapena. Honako hau da gure lurraldearen dibertsitatea adierazten duen hirugarren alderdia: Espainiako egungo

administrazio-banaketaren arabera, hamazazpi autonomia-erkidego eta bi hiri autonomo; horiek kultura- eta identitate-ezaugarri komunak izan arren, ezaugarri, balio, ohitura eta antolakuntza-modu desberdinak eta askotarikoak dituzte. Dibertsitate hori hainbat udalerritan ikus daiteke, Espainian hirurogeiko eta hirurogeita hamarreko hamarkadan bizi izan zen barne-migrazioko prozesuaren ondorioz; hain zuzen, migrazio horren eraginez, milioika pertsona erkidego batzuetatik beste batzuetara mugitu ziren. Horrez gain, dibertsitate hori etengabeko giza mugimenduaren ondorio ere bada, egun oraindik hainbat autonomia-erkidegoren artean gertatzen dena.

Espainia barneko dibertsitatea definitzen duen laugarren elementua, berriz, herrialdearen baitan dagoen gutxiengo etniko historiko baten presentzia da, gure lurraldean sei mende baino gehiago daramatzana: ijitoak. Dударik gabe, hori da gure estatu barneko etnia- eta kultura-dibertsitatea adierazten duten elementu garrantzitsuenetako bat.

Amaitzeko, beste leku batzuetatik (esaterako, Europa, Latinoamerika, Afrika edo Asia) jendea etortzeak borobildu egin du Espainiako egungo etnia- eta kultura-errealitate desberdina.

Bizi dugun aro global honetan, etnia- eta kultura-dibertsitatea gero eta ugariagoa da; horri esker, beraz, dibertsitatea garapenaren eta bilakaera historikoaren ezaugarri nagusizat duten herriak eta hiriak eraiki dira.

Espainiako gizarteko “etnia- eta kultura-dibertsitatearen” hurbilpen soziodemografiko laburra.

Aurreko atalean proposatu bezala, XXI. mendeko Espainiako gizartea askotarikoa da, hainbat gizarte- eta demografia-prozesuren ondorioz; hala ere, zein dira gizarte horren ezaugarri zehatzak? Zein gizarte horren atzean aurkitzen ditugun ezkutuko profilak?

Atal honetan, profil soziodemografikoaren azterketa bat aurkeztu da, Espainian bizi diren atzerritarrei eta ijito etniako biztanleriari buruzkoa; izan ere, bi talde handi horiek garrantzitsuak dira Espainiako etnia- eta kultura-errealitatean.

Atzerritarrak Espainian.

Azken hogeitaz hamar urteak bereziak izan dira Espainiako migrazioen azken urteetako historian. Laurogeiko hamarkadan trantsizio bizkorra izan zen emigrazio-jatorriko herrialde izatetik immigrazio-hartzaile izatera, eta, gero, XX. mendeko laurogeita hamarreko hamarkadan eta XXI. mendearen hasieran, aldaketa hori sendotu egin

zen; hain zuzen, nazioarteko migrazio-fluxuak azken bilakaera demografikoaren elementu nagusietako bat bihurtu dira³.

Espainiako biztanleria etorkina 70 aldiz biderkatu da azken hamar urteetan; zehazki, 2006-2007 urteetan, ia bi milioi pertsona sartu ziren, Europar Batasuneko migrazio-saldo garbiaren %36.

1998. urtean, Espainiako udalerrietan erroldatuta zeuden atzerriko biztanleak 637.085 ziren; hau da, biztanleria guztiaren %1,6. Hamarkada bat geroago, 2009ko urtarrilaren 1ean⁴, kopurua %12ra iritsi zen, 5.598.691 pertsona baitzeuden; data horretan, %53,1 gizonezkoak ziren (2.973.707) eta %46,9 emakumezkoak (2.624.984).

Bestalde, komeni da gure herrialdean migrazio-fenomenoaren ezaugarri izan den alderdi bat adieraztea, Latinoamerika jatorri-eremutzat duten migrazioetan, batez ere: migrazioaren feminizazioa. Funtsezko alderdia da Espainiako lurraldean bizi den biztanleria etorkinaren ezaugarriak zehazteko unean; Espainiako immigrazioan emakumezkoaren aurpegia elementu garrantzitsua izango da, dudarik gabe, etnia-eta kultura-dibertsitatearen kudeaketa-politikak garatzeko.

Beste alderdi garrantzitsu bat Espainiako lurraldean bizi diren atzerriko pertsonen jatorria adierazten diguna da. 2009ko urtarrilaren 1eko udal-erroldaren behin-behineko datuek berretsi egin zuten, oro har, atzerriko biztanleriaren banaketa, hiru jatorri-eremuren arabera; hau da, erroldaren arabera, %40,5 Europar Batasunetik dator (EB-27), %31,5 Latinoamerikatik eta %17,8 Afrikatik.

Beheko taulan, Espainiako estatuan dauden nazionalitate nagusien zerrenda ikus daiteke.

1. TAULA: 10 nazionalitate ugariak, 2009. urtea

NAZIONALITATEA	GUZTIRA
Errumania	796.576 (%14,2)
Maroko	710.401 (%12,7)
Ekuador	413.715 (%7,4)
Erresuma Batua	374.600 (%6,7)
Kolonia	292.971 (%5,2)
Bolivia	227.145 (%4,1)
Alemania	190.584 (%3,4)
Italia	174.912 (%3,1)
Bulgaria	164.353 (%2,9)

³ RECAÑO, Joaquín eta DOMINGO, Andreu (2006): Evolución de la distribución territorial y la movilidad geográfica de la población extranjera en España. *Veinte años de inmigración en España. Perspectivas jurídica y sociológica [1985 – 2004]*. Argitaratzailea: Fundación CIDOB. Bartzelona.

⁴Biztanleriaren Udal Errolda, 2009, behin-behineko datuak, Estatistikako Institutu Nazionala (www.ine.es).

Iturria: EIN. 2009ko urtarrilaren 1eko biztanleriaren udal errolda, behin-behineko datuak.

Nolanahi ere, kopuru horiek egoitza-baimena indarrean duen atzerriko biztanleriaren kopuruarekin alderatuz, desfase handia dagoela ikus daiteke; zehazki, 2009ko urtarrilaren 1ean, 5.598.691 pertsonako kopuru horretatik 4.473.499 pertsonak soilik zuten indarrean erregistro-agiria edo egoitza-txartela⁵. Alde horrek, beraz, gai konplexu baten aurrean jarri gaitu: gure herrialdean bizi den biztanleria etorkinaren zati batek bizi duen irregulartasun administratiboa. Egoera hori, batez ere, udal-administrazioan da nagusi, horri baitagokio pertsona horiei arreta ematea erroldatu eta gero; dena den, egoitzaren edota Espainiako lurraldean sartzearen eskumenak Gobernu Zentralari dagozkio.

Atzerriko biztanleria lurralde guztian finkatzeko prozesua definitzen duen beste elementu bat da banaketa ez homogeneous; horren adierazgarri da, hain zuzen, lau autonomia-erkidegotan biltzen dela erroldatutako atzerriko biztanleria guztiaren %67,9. Honako hauek dira autonomia-erkidego horiek: Katalunia (1.103.790), Madrilgo Erkidegoa (1.005.381), Valentziako Erkidegoa (847.339) eta Andaluzia (623.279).

Kokapenari dagokionez, ekonomia da immigrazio horien motibo nagusia, probintziako lan-merkatuei oso lotuta dagoena; hain zuzen, egile batzuek jarduerasektoreen edo jatorrien araberako nolabaiteko espezializazioaz hitz egiten dute, bai eta helburu-lurraldeetan aurrez sare sozialak izateaz ere,aldi berean populazio berriak erakartzen dituztenak. Immigrazioaren eta lan-merkatuaren arteko lotura horrek, halaber, immigrazioak gure herrialdean duen lurralde-banaketa azaltzen du; era berean, adierazten du atzerriko biztanleek mugikortasun geografiko handiagoa dutela, Espainiakoarekin alderatuz.

Horri dagokionez, interesgarria da Pumaresen⁶ artikulua; bertan, Espainiako immigrazio-espazioen tipologia bat ezartzen saiatzen da.

- a. Mugako eremuak. Horietan bi logika oso desberdin jarraitzen dira: bata, logika geopolitikoa, muga bi mugapenen arteko limitetzat hartuz, eta, bestea, toki-eremuaren logika, bi munduren arteko zubitzat hartuz (joan-etorrien fluxuari esker bizi direnak). Ceuta, Melilla eta Kanariar Uharteak dira egoera hori hobekien islatzen den lekuak (Algeciras eta Tarifa ere sar daitezke).
- b. Nekazaritza intentsiboko eremuak. Azken 15 urte hauetan, aldaketa handiak izan dituzte, eta atzeritarren esku-lanaren mendeko bihurtu dira ia-ia; hain

⁵ Immigrazioaren Behatoki Iraunkorra (OPI), Lan eta Immigrazio Ministerioa, 2009ko urtarrila.

⁶ Púmares Fernández, Pablo: "La Inmigración en España, perspectivas desde el territorio". In Aubarrel, Gemma (Coordin.) *Perspectivas de la Inigración en España*. Icaria, Bartzelona, 2003, 117-201 or.

zuzen, magrebtarrak, ekuadortarrak eta Europa ekialdeko herritarrak dira nagusi. Nekazaritza-sektoreko kontzentrazioagatik nabarmentzen diren probintziak dira Almeria, Murtzia, Cáceres, Huelva, Jaén eta Albacete (distantzia txikiagora Lleida edo Errioxa daude); probintzia horiek guztiek sasoiko nekazaritza-lanekin lotutako arazoak bizi dituzte.

- c. Eremu turistikoak. Ekonomia dinamismo handia sortzen duten eremuak dira. Atzerriko biztanleen ikuspegitik dualtasuna dago, Europako egoiliarren (ez aktiboak) eta Europako Erkidegokoak ez diren langileen artean; azken urteetan, dena den, Erkidegoko aktiboen kopurua ugartzen ari da. Eremu nagusiak honako hauek dira: Balear Uharteak, Malaga, Alacant, Las Palmas eta Santa Cruz Tenerifekoa.
- d. Metropoliko eremuak. Hiri handi baten inguruan eraikitakoak dira; hain zuzen, horren adibide nagusiak dira Madril eta Bartzelona, nahiz eta Sevilla, Valentzia eta beste zenbait hiri ere talde horren baitan sartu.

Fenomenoa gauzatzeko izan den intentsitatea, lurraldean dauden nazionalitateen ugartzea eta horien lurralde-hedapena direla-eta, zenbait udalerritan atzerriko biztanleria etortzea arrisku edo mehatxutzat hartzen da horien bizikidetzarako edo gizarte-kohesiorako.

*Evolución del racismo y la xenofobia en España*⁷ (Arrazakeriaren eta xenofobiaren bilakaera Espainian) 2008ko txostenean Espainiako biztanleriak etorkinen presentziarekiko duen pertzepzioa aztertu da; txostenaren arabera, 2000. urtetik aurrera immigrazioarekiko harmena gutxitu egin da. Azterketa horretan, Ikerketa Soziologikoen Zentroko (CIS) barometroen emaitzak jaso dira, eta, datu horien arabera, immigrazioa Espainiako hiru arazo nagusietako bat zen 2006ko irailean. Nolanahi ere, aipatu behar da kopuru hori bat datorrela immigrazioaren gaia komunikabideetan oso estigmatizatuta agertu zen garaiarekin. Egia da bai biztanleria etorkina iristeak gizarte pluralago bat sorrarazten duela kulturari dagokionez, bestelako dibertsitate-mota batzuk ere bai baitaude: generoa, sexu-joera, erlijioa edo sinismenak, ezintasuna eta adina; nolanahi ere, Espainiari dagokionez, badira “etnikoki bereizitako” beste biztanleria-talde batzuk ere, ijitoen komunitatea⁸, esaterako.

⁷ CEA, M^a Ángeles eta VALLÈS, Miguel S. (2008): *Evolución del racismo y de la xenofobia en España. Informe 2008*. MTIN – OBERAXE. Madril.

⁸ GARRETA, Jordi (2003): *La integración sociocultural de las minorías étnicas (gitanos e inmigrantes)*. Antropos argitaletxea. Rubí.

Biztanleria ijtoa Espainian

Egun, Espainia da ijtoen biztanleria-kopuru handiena duen Europar Batasuneko lau herrialdeetako bat, Europako ijito guztien %8 baitago bertan; beraz, kopuru garrantzitsua du Europako biztanleria osoaren baitan. Hala ere, Espainian gutxiengo etniko garrantzitsuena izan eta bertan ia sei mendez bizi arren, ijtoen komunitateak ez du integrazio-prozesu erraza izan, inondik inora; hain zuzen, Espainiako gizartean gutxien onartzen den giza taldea da oraindik, eta, horrez gain, sozialki eta ekonomikoki baztertuen dauden komunitateetako bat da.

Espainiako biztanleria ijtoaren kopuruari dagokionez, hainbat zenbatespen egin dituzte, eta, horien arabera, 650.000 eta 970.000 pertsonaren artean daude (biztanleria osoaren %1,4 eta %2 artean)⁹; pertsona horien erdiak, hain zuzen, emakumezkoak dira. Ijitoak Espainiako geografia osoan daude banatuta, baina, batez ere, Andaluzian bizi dira (ia %45); gehienak hirietan biltzen dira, eta, horien baitan, familia asko eta asko sozialki baztertuta dauden zonetan bizi dira. Oro har, talde horretako kideek identifikazio-ezaugarri komun ugari dituzte, bai eta elkarrenganako onarpena ere; dena den, komunitate horren heterogeneotasuna eta dibertsitatea azpimarratu behar dira.

Ijtoen biztanleria oso gaztea da, eskola-adinean dauden hurrek, nerabeek eta 25 urtez azpiko gazteek osatzen baitituzte talde ugariak (kide guztien %40); horrek argitzen du, beraz, adinekoen eta erretiratuen presentzia txikia.

Une honetan, Espainiako ijtoen komunitatea aldaketa- eta eraldaketa-prozesu garrantzitsu batean dago murgilduta, alderdi guztietan gainera; aldaketa sakonak eta egokitzapenak egiten ari dira beraien ohituretan, bizitzeko moduan, edota familia-, demografia- eta gizarte-egituretan. Aldaketa soziokultural hori ez da erritmo berean edota zentzu berean gertatzen ari ijtoen talde edo populazio guztietan; ijito etniako pertsona batzuk gora egin eta Espainiako maila ertain berrietako sektore handietan sartzen ari dira, eta, beste batzuek, berriz, baztertuago edo hiri-inguruetan dauden sektoreetan jarraitzen dute.

Espainiako gizartean asko aurreratu da ijtoen gizarteratze-prozesuari dagokionez, batez ere azken hamarkadetan; hala eta guztiz ere, argi ikus daitekeenez, pertsona horietako asko eta asko —emakumezkoak, bereziki— Espainiako herritarren bizi-

⁹ Datuen iturria: FOESSA Fundazioa eta Espainiako Cáritas (2008) "VI Informe sobre exclusión y desarrollo social en España"; Ijtoen Idazkaritza Fundazioa (FSG) (2005) "Población gitana y empleo: un estudio comparado"; eta Ijtoen Idazkaritza Fundazioa eta Etxebizitza Ministerioa (2007) "Mapa sobre vivienda y comunidad gitana en España"; besteak beste.

maila ertainaren oso azpitik daude oraindik ere, eta, gainera, hainbat arazo direla-eta, ezin dute beren ohiko bazterketa- eta diskriminazio-egoeratik atera¹⁰.

Ikerketa Soziologikoen Zentroaren (CIS) 2005eko azaroko barometroak kezkatzeko moduko zenbait datu berretsi zituen; besteak beste, honako adierazpenak egin ziren: “Lau espainiarretik bati ez litzaioke gustatuko bere seme-alabek ikaskide ijitoak izatea” edota “Espainiarren %40k baino gehiagok adierazi du asko edo dezente gogaitzen duela bizilagun ijitoak izateak”

Orain gutxi Gazteria Institutuak argitaratu berri duen *Espainiako gazteriaren 2008ko txostenak* berretsi duenez, Espainiako gazteriarentzat ijito-etniako biztanleak dira hirugarren talde baztertuena, gaizkile ohien eta drogazale ohien atzetik, hurrenez hurren.

Ijitoen Idazkaritza Fundazioak urtero argitaratzen duen “Diskriminazioa eta ijitoen komunitatea” txostenean berretsi den bezala, ijito etniako biztanleriak diskriminazio-ekintzak pairatzen jarraitzen du alor nagusi batzuetan, esaterako: enplegua, osasuna, justizia, segurtasuna, komunikabideak, ondasunak eta zerbitzuak, etxebizitza eta hezkuntza.

Arrazakeriaren eta diskriminazioaren aurkako borroka gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da immigrazio-politiketan; hala adierazten du hainbat neurri hartu izanak, besteak beste: “Etorkinen harrerari eta integrazioari laguntzeko funtsa” edo “Herritartasunerako eta Integraziorako Plan Estrategikoa”. Ijitoen gaia, ostera, gizarte-inklusioaren ikuspegitik soilik aztertzen jarraitzen dute ia-ia, eta horrek, noski, komunitate osoaren marjinazioa eragin dezake; horrenbestez, babesgabeko egoeran geratuko lirateke bazterketa-arriskuan egon ez arren arrazakeriaren eta etnia-diskriminazioaren ondorioak pairatzen jarraitzen duten taldeak.

Askotariko biztanleria-talde horiekin lan egitean, aintzat hartu behar da “atzerriko biztanleria edo biztanleria etorkina” edota “ijitoak” etiketaren azpian ezaugarri bereizgarriko aukera zabala dagoela, bai taldearen barruan, bai taldetik kanpo; beraz, horiek kontuan hartzen ez badira, fenomenoak ez litzateke bere konplexutasun guztiarekin landuko. Era berean, ezin ditugu talde berean sartu hain

¹⁰ Informazio gehiago:

FOESSA Fundazioa eta Espainiako Cáritas (2008) “VI Informe sobre exclusión y desarrollo social en España”. Osasun eta Kontsumo Ministerioa eta Ijitoen Idazkaritza Fundazioa (2009) “Hacia la equidad en salud. Estudio comparativo de las Encuestas Nacionales de Salud a población gitana y a población general de España, 2006” www.gitanos.org

Ijitoen Idazkaritza Fundazioa (2005) “Población gitana y empleo: un estudio comparado” www.gitanos.org

Ijitoen Idazkaritza Fundazioa eta Etxebizitza Ministerioa (2007) “Mapa sobre vivienda y comunidad gitana en España” www.gitanos.org

Hezkuntzako Ikerketa eta Dokumentazio Zentroa (CIDE) – Emakumearen Institutua – Ijitoen Idazkaritza Fundazioa (FSG) (2006) “Incorporación y trayectoria de niñas gitanas en la ESO” www.gitanos.org

konplexuak diren honako fenomeno hauek: nazionalitatea (lehenengo pertsona-talde hori etiketatzeko erabili den aldagaia) eta etnia (bigarren sailkapen-mailari dagokiona).

Nolanahi ere, bi biztanleria-talde horiek jasan dezakete arrazagatiko diskriminazioa; hau da, zenbait alderdi direla-eta egiten den bereizketa, besteak beste: ezaugarri fenotipikoak, hizkuntza, edota etnia- edo nazio-jatorria. Gainera, **askotariko diskriminazioaren** aurkako borroka landuko duten ekintzen premia sortzen ari da; diskriminazio-mota hori ijito etniako pertsonen eta etorkinek jasaten dute, beren etnia-jatorriarekin lotutako faktoreak beste zenbait faktoreekin lotzen direnean, esaterako: ezintasun-egoera, generoa, atzeritartasuna, sexu-joera...

Horri dagokionez, garrantzitsua da **ijito eta etorkin diren taldeak** edo Roma komunitateak (batez ere, Europa ekialdean jatorria dutenak) bizi duten gizarte-bazterketako, gutxiespeneko eta diskriminazioko egoera berezia agerian jartzea; egoera hori, gainera, areagotu egin da taldearen etnia-jatorria eta migrazio-fenomenoarekin lotutako egoera direla-eta.

Halaber, garrantzitsua da emakumezko etorkinengan eta ijitoengan arreta jartzea, diskriminazio bikoitza jasaten baitute: bata, emakume izateagatik, eta, bestea, gehiengoaren desberdina den kultura- edo etnia-talde bateko kide izateagatik. Beraz, genero-ikuspegia kontuan hartu behar da etnia- eta kultura-dibertsitatearen kudeaketa abian jartzean.

Udalerriko etnia- eta kultura-dibertsitatea

Espainiako udalerriak dibertsitatearen historia horren emaitza dira; horregatik, toki-erakundeetan dibertsitatearen gaia landu eta kudeatu behar da, gizarte harmoniatsuago bat eta bizikidetzak baketsu bat lortzeko. Tolerantziaren eta desberdintasun-eskubidearen balio demokratikoak nahiz gure gizartearen oinarri diren legezkoatasun-printzipioak errespetatuz, bizikidetzak-balioak eta kulturartekotasuna arau orokor diren gizarteak bermatu behar dute udalerriek.

Egiten dituzten ekintzen bitartez, udalerrien xedea da herritarrek estereotipoaz harago dagoen pentsamendua erabiltzea, XXI. mendeko gizarte-egoera berriarekiko tolerantzia eta errespetu handiagoa agertzen duena. Erronka handi baten aurrean gaude, Espainiako gizarteak, ekintza horien hartzaille den heinean, etnia- eta kultura-dibertsitatearekiko jarrera negatiboak garatzen baititu batzuetan, nahiz eta diskurtso arrazista izan ez; zenbaitetan, gainera, diskurtso guztiz diskriminatzailea izaten du.

Jarrera horiek Espainiako gizarteko eremu nagusi batzuetan hauteman daitezke, esaterako: eskola, familia, lana, auzoak... Subiratsek¹¹ adierazten duen bezala, guztia azkarregi mugitzen da, eta, bien bitartean, eskolari, esaterako, asko kostatzen zaio urrats bakar bat ematea.

Hori guztia dibertsitatearen ondorio eta kausa da, azkartasunaren eta gure gizarteetako identitate-zatikatzeko bizkorren ondorio eta kausa; zatiketa hori, gainera, areagotu egin du aurrez zegoen dibertsitateak (barne-migrazioa, ijito-etniako populazioa eta populazio ez ijitoa) nahiz immigrazioak. Hori dela-eta, bilakaera historikoa markatu duen mailen arteko aurkakotasuna eta talka kudeatzeko, askotariko biztanleriak elkar hartzeko premia bera landu behar da, gatazka-egoera oinarri hartuta; dibertsitate hori, gainera, gizarte-mailan hautemateaz gain, identitatean ere hauteman da (jatorria, kultura...), eta horrek, paradoxa bada ere, globalizazioaren beraren homogeneizatzea adierazten du.

Horrela sortzen da, hain zuzen, toki-erakundeak guztiz murgilduta dauden egoera korapilatsu hau; izan ere, horiei dagokie errealitate hori kudeatzea, nahiz eta beren eskumenen artean berez ez diren sartzeko hain desberdina den gizarte-talde baten osasun-alorreko kudeaketa egitea, gizarte-babesa ematea edo enplegu-baliabideen kudeaketa lantzea. Eskumenen desoreka hori izan arren, azkenean udalari dagokio esku hartzea eta bere lurralde-eremuko kultura-dibertsitatearen kudeaketa zehaztea.

Alain Tourainek¹² dioen bezala, elkarrekin bizi ahal izango dugu baldin eta ekintza sozial instrumentala kultura-identitatearekin lotu badezakegu, gutako bakoitza norbanakotzat eta talde bateko kidegiztat eraikitzen bada; hots, komunitate bateko kidegiztat. Ez dago mugarik subjektuaren ideiarekin eta kulturaren artean; izan ere, elkarrekin bizi gaitzeko, soilik berdintasuna eta dibertsitatea konbinatzen baditugu, demokrazia eta dibertsitatea elkartzuz. Horrela, gizartearen kulturen eta komunitateen arteko elkargunetzat hartzen badugu, ez gara berdintasunen diskurtsoaz harago joango; aldiz, pertsonengan eta jendearen bizitza-proiektuan oinarritzen bagara, aukera gehiago izango dugu gure udalerrietan arrakasta lortzeko. Esaterako, gure ikastetxeetan ez dute kulturak egon behar (toki-egunkarietan agertzen den bezala), baizik eta haurrak (ikasleak).

¹¹ SUBIRATS, Joan (2006): "El 'contenedor' escuela". In El País egunkaria, 2006-12-22.

¹² TOURAINE, Alain (1997): *¿Podremos vivir juntos?: Iguales y diferentes*. Promoción Popular Cristiana. Madril.

Dibertsitatearen tokian tokiko kudeaketa: aldaketak eta premiak

Espainiako udalerrietan osatuz joan den askotariko gizarte hori testuinguruan jarri eta gero, honako galdera hau etortzen zaigu burura: toki-erakundeek nola egin diezaiokete aurre dibertsitatearen kudeaketari gizarte justuago bat sortzeko? Eskubideak eta betebeharrak bermatu eta benetako bizikidetzak baketsua ezaugarri izango duen gizartea sortzeko?

Gizarte baten nahia ezin da izan bizitza-eredu eta -estilo guztietan homogeneotasuna lortzea, baizik eta benetako dibertsitatea lantzea eta errespetatzea, legea muga bakartzat hartuta; horrez gain, giza eskubideak bermatuta egongo dira, bai arlo publikoan, bai arlo pribatuan. Udalerrietako eta gizarteko dibertsitatea eskubideak eta betebeharrak oinarri hartuta landu behar da, herritar guztien konpromiso bihur dadin. Hau da, administrazio publikoek bermatu egin behar dute dibertsitateerako eta desberdintasunerako eskubidea, baina,aldi berean, herri hori osatzen duen pertsona bakoitzaren konpromisoa izan behar du; horrela, elkarrenganako errespetua indartu eta edonolako diskriminazio-ekintza saihestuko da.

Espainiako estatuaren berezko osaerari atxikitako dibertsitateak eragin duen gizarte-aldaketa, gutxiengo etnikoen existentzia (adibidez, ijitoak), egungo migrazio-fluxuak, higiezin merkatuaren eta lan-merkatuaren ondorioz lurraldeen artean gertatutako barne-mugikortasunaren ugaritzea, komunikazio-alorrean egin diren aurrerapenak...; aldagai horiek guztiak eta beste hainbat direla-eta, geroz eta populazio dibertsifikatuagoak eratu dira, eta, horren ondorioz, horietan era askotako gatazkak sortu dira.

Gatazka horiek, batzuetan, espazio publikoaren erabilera berriek eragin dituzte, eta, beste batzuetan, auzokideekin izaten diren bizikidetzak-arazoek (zarata, auzo-komunitateetako espazio komun erabilera edota bestelako alderdi batzuk), zenbait auzotan edo zerbitzutan (osasun-zerbitzuak, hezkuntzakoak, gizarte-zerbitzuak...) izaten diren talde-kontzentrazioek, negozio "etnikoak" edo kultu-lokalak irekitzeak eragindako arbuioak edo ezinegonak, zenbait lan-esparruren sarbideak (nekazaritza-alorrekoak, ostalaritzakoak edota eraikuntzakoak)... Gizarte-aldaketako egoera hori, beraz, gizarte-kohesiorako mehatxutzat hartzen dute askotan biztanleek.

Nolanahi ere, azpimarratu egin behar da alderdi horiek etnia- eta kultura-dibertsitatearen kudeaketaren ikuspegitik lantzeak ematen duen aukera; izan ere, aipatutako espazio horiek eta, modu aipagarrian, espazio publikoek nahiz horien erabilerek —hainbat etnia- eta kultura-jatorriko pertsonen presentziak eragindakoak— aukera ematen dute prebentzioaren eta sentsibilizazioaren ikuspegitik lan egiteko. Hau da, elkar hartzeko eta ezagutzeko espazio bihurtuko dira, arau komun, adostu eta partekatu batzuk eraikiko dituzte; arau horiek, gainera,

malguak izango dira, eta espazio nahiz zerbitzuen errealitatera egokituko dira, bai eta horietan sortuko diren erabilera berrietara ere.

Aldaketa horiek guztiak fenomeno orokor baten ondorio dira; zehazki, udalerrietan ikus daiteke pertsonen eta bizi-eredu nahiz -estiloen dibertsitate hori.

Udalak herritarrengandik hurbilen dauden administrazioak diren eta tokiko errealitatea ongi ezagutzen duten heinean, mundu-mailako fenomeno bat tokian-tokian kudeatzeko erronkari egin behar diote aurre; askotan, gainera, ez dituzte izaten beharrezko diren eskumenak, ez eta baliabide tekniko eta ekonomikoak ere.

Prozesu egituratu eta oroko bat den arren, etnia- eta kultura-dibertsitateak ez du berdin eragiten udalerrri guztietan. Hain zuzen, baldintza batzuk daude, fenomenoaz aztertzean eta esku hartzeko nahiz sentsibilizatzeko politikak eta jarduketak zehaztean aintzat hartu beharko direnak, honako hauek, esaterako: lurraldean aurrez etnikoki desberdinak ziren beste biztanleria-talde batzuk egotea, ijito-etniako biztanleen ehunekoa, lurralde barneko migrazioen historia, etorkinen bolumena, talde horrek biztanleria guztian duen garrantzia, etorrera-erritmoa, biztanleriaren jatorri-herrialdea, etortzeko arrazoia (banakako migrazio-proiektua, familia berriz elkartzea...) eta etorkinen seme-alaben sozializazio espezifikoa. Azken horiek Espainian jaiotakoak ala atzerrian jaiotakoak izan daitezke, eta ezaugarri psikosozial berezia dute, sozialki eta kulturalki desberdintzen dituztenak; hau da, desberdinak dira beren guraso etorkinekin nahiz Espainiako jatorria duten gainerako gazteekin alderatuz, baina, aldi berean, ezaugarri komunak dituzte bi talde horiekin.

Etnia- eta kultura-dibertsitateari dagokionez aurrez izan daitezkeen indize altuez gain udalerrietara biztanleria etorkina iristen denean, eta, horrenbestez, bertako udal-zerbitzuen eskaria handitzen denean, presioa egiten da lehendik ere urriak ziren baliabideetan. Horren ondorioz, zenbaitetan agerian gelditu dira bertan zeuden urritasunak, jaitsiera demografikoari eta udalerriko biztanleria-profilari esker, besteak beste, arindu zituztenak.

Ondasunak, eskubideak eta zerbitzuak berdintasun-baldintzetan eskuratzeko biztanleriak duen aukera zaildu egiten da batzuetan zenbait taldek, kolektiboak edo pertsonak jasaten duten diskriminazioa dela-eta, bai eta estatuko Administrazioaren maila desberdinek ematen dituzten zerbitzuak eskuratzeko bideak eta protokoloak ez ezagutzea dela-eta. Bizitza sozialeko maila guztietan tratu-berdintasuna izateko bermea oinarrizko baldintza da pertsonen eskubideak egiaz eraginkor bihurtzeko daitezkeen.

Etnia-jatorriagatiko diskriminazioa, beste arrazoi batzuek eragindakoa bezalaxe, herritar guztien berdintasun-printzipioaren urraketa da, eta, beraz, baita legeek aldarrikatu bezala eskubideak berdintasun-baldintzetan gauzatzeko printzipioaren

urraketa ere. Tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa eguneroko bizitzan hauteman behar da, bai eta espazio publikoetan (politikoak, administratiboak...) edo pribatuetan ere; printzipio hori, gainera, Europar Batasunaren funtsezko ardatz estrategikoetako bat da.

Gizaki guztiak duintasunari eta eskubideei dagokienez berdinak izan daitezten lortzeko, zuzeneko diskriminazioak ezartzen dituen oztopoak gainditu behar dira, bai eta zeharkako diskriminazioak gure gizartean bereziki jartzen dituen oztopoak ere.

Udalak aldaketaren "kudeatzaile" eta pertsonen oinarritzko eskubideak bermatzen dituzten eragile bihurtu dira; horrenbestez, honako funtzio hauek bete behar dituzte:

- Herritarren arteko bizikidetzeta, gizarte-kohesioa eta biztanleria osoaren aukera-berdintasuna bermatzeko jarduketak garatu.
- Biztanleria osoak eskubideak eta betebeharrak errespetatzen dituztela bermatu.
- Biztanleriak baliabide eta zerbitzu publikoak modu normalizatuan eskuratzea eta erabiltzea sustatu.
- Zerbitzu publikoen kopurua eta kalitatea bermatu.
- Aukera-berdintasunaren alorrean eta edozein motatako diskriminazioaren aurkako borrokan lan egiten duten gizarte zibileko erakundeekin lankidetzan aritu.

B. Toki-administrazioek dibertsitatearen kudeaketan duten funtzioa

Aurrez proposatutako guztia aintzat hartzen badugu, Espainiako gizarteak une honetan bizi duen testuinguruan udalerriek betetzen duten funtziora hurbil gaitzke, bai eta dibertsitatearen alde egin behar den lanera ere; horrela, beraz, udalerria dibertsitatearen kudeaketaren eta tratu-berdintasunaren berme bihurtzen da.

Horrenbestez, udalerriek egungo testuinguruan duten funtzioa **funtzioa da integrazioko gizarte-politikak nahiz etnia- eta kultura-dibertsitatea kudeatzeko politikak garatzeko**. Hiru faktorek laguntzen digute funtzio hori ulertzen; faktore horiek, gainera, erlazionatuta daude beren artean.

1. Lurraldea. Herritarrengandik gertuena dagoen administrazio-maila da, eta, beraz, administrazio horretara joaten dira, hasiera batean, dituzten berehalako arazoak konpontzeko.
2. Errealitatearen ezagutza. Udalerriek ezagutzen dituzte hobekien lurralde horretako errealitatea eta bertan bizi diren pertsonen premiak. Udal-politika ororen xedea udal-erri horretan bizi diren pertsonen bizi-kalitatea hobetzea da.
3. Herritarren premiekiko sentsibilitatea. Herritarren arazoekiko sentiberena da; izan ere, herritarren gizarte-arazoak udal-erriko gizarte-arazo bihurtzen dira.

Inklusiorako, dibertsitatearen kudeaketarako eta tratu-berdintasunerako gizarte-politiken araubidea eta eskumen-esparrua

Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen arabera, “gizarte-ehunaren jarraitutasunak ezinezko bihurtzen du interesen araberrako muga argiak zehaztea; hain zuen, horietako bakoitzaren zaintza egitura konplexuko erakunde-multzo baten parte diren botereen esku uzten da. Egitura konplexu horretan, parte bakoitzak osotasun baten baitan hartzen du zentzua, baina beren artean egituratzen dira, eskumenak herritarren benetako interesen arabera egokitzeke. Horregatik, toki-autonomia ezin da dimentsio bakarreko ikuspegitik definitu, tokiko edo eskualdeko objektibotasun hutsa oinarri hartuta; hau da, estatuaren antolamendu integralaren esparruan kokatu behar da.

2007ko otsailean onartu zuten “**2007-2010 Herritartasunaren eta Integrazioaren Plan Estrategikoa**” gure gizartean etorkinen integrazio-prozesua bultzatzeko elementu bihurtu asmoz sortu zen; hau da, botere publikoen ekintza bideratuz eta gizartearen norabide horretan dinamizatuz.

Plana herritar guztientzat da, biztanleria etorkinarentzat nahiz autoktonoarentzat, eta, gainera, adostasunaren nahiz hausnarketa- eta kontsulta-prozesu bizi baten

emaitza da; prozesu horretan, hain zuzen, honako talde hauek hartu dute parte: administrazio guztiek, immigrazioari laguntzeko gizarte-erakundeek, etorkinen elkarteek, sindikatuek eta enpresa-erakundeek, eta irakaskuntza-munduak.

Integrazioa bi norabide dituen elkarrenganako egokitze-prozesutzat hartu behar da, diskriminaziorik eza eta kidetasun-sentimenduaren garapena bultzatzen dituen; ikuspegi horretatik, beraz, Planak hiru printzipio ditu oinarri: **eskubideen eta betebeharren berdintasuna** herritar guztien artean; **herritartasuna**, erabateko parte-hartzea aitortzen duena; eta **kulturartekotasuna**, jatorri eta kultura desberdineko pertsonen arteko elkarreagin-mekanismozat hartuta, betiere balioetan eta dibertsitatearekiko errespetuan oinarrituz.

Plana diseinatzean, funtsezkoa da esparru-ezaugarria izatea estatu-mailako lankidetzarako; horrenbestez, administrazio desberdinen eskumen-eremuak errespetatuz eta integrazioak erakunde publiko guztien esku-hartzeari eragiten diola sinistuz, tresna egokia izan nahi du politikak dinamizatzeko, ekimenak biltzeko, lankidetzak sortzeko eta etorkinen integrazioaren aldeko jarduketeki koherentzia emateko.

Biztanleria etorkina eta espainiarra nahiz ijito-etniako biztanleak eta ijito-etniakoak ez direnak elkarrengana egokitzeko prozesuan, beharrezkoa da Estatuko Administrazio Orokorraren ekintza politikoa, bai eta autonomia-erkidegoen nahiz udal-korporazioen ekintza politikoa ere; baina,aldi berean, gizarte osoari eragiten dionez, horren ekintza ere eskatzen du, antolatutako gizarte zibilarena, batez ere. Administrazioek eta elkarteek funtzio osagarriak dituzte, eta, horrenbestez, beharrezkoa da alde guztien arteko lankidetzaren egonkor bat bultzatzea.

Hori dela-eta, Planean **governantza** sartu da funtsezko elementutzat; hau da, kudeaketa publikoan eta erabakiak hartzeko prozesuetan irekitasuna, parte-hartzea eta erantzukizuna printzipioak txertatzea adierazten du, gobernu onerako printzipioak ahanzi gabe, noski (eraginkortasuna eta koherentzia, esaterako).

Governantzak duen erantzukizunaren baitan, ezinbestekoa da alderdi bakoitzak integrazio-prozesuan nahiz politiken zehaztapenean eta gauzapenean duen funtzioa argitzea, bai eta administrazio publikoen arteko nahiz horien eta gizarte zibil antolatuaren arteko lankidetzaren zehaztea ere. Espainiako Konstituzioaren babespean eratuz joan den eskumen-esparrua dela-eta, administrazio publikoen arteko lankidetzaren oinarritzko faktorea da governantza honetan.

Abiapuntuko zenbait gogoeta

Toki-gobernuak funtsezkoak dira dibertsitatearen kudeaketan; izan ere, hainbat arrazoi direla-eta (eskualde-jatorria, jatorri etnikoa, erlijiosoa...) beren artean hain desberdinak diren pertsonen eguneroko bizitza garatzeko lekuak dira hiriak eta

herriak, baina, horrez gain, barne- edo kanpo-migrazioaren eraginez iristen diren biztanleria-talde berrien hartzaile ere badira.

Toki-gobernuen erronka gaitasunak eta sinergiak lortzea, garatzea eta sendotzea da, gero eta handiagoa den heterogeneotasunean gizarte-kohesioa kudeatzeko edota dibertsitatean berdintasuna kudeatzeko. Horretarako, ezinbestekoa da premiak hautemateko eta horien diagnosiak egiteko sistemak hobetzea, bai eta politikak nahiz jarduketa-neurriak diseinatzea eta zerbitzuak malgutasunez egokitzea ere, malgutasun hori ezinbesteko baitute etengabe aldatzen ari diren zenbait premiak, biztanleriak esaterako. Horri dagokionez, garrantzitsua da aipatzea beharrezkoa dela toki-administrazioei baliabide ekonomiko eta teknikoak ematea, jarduera horiek gauzatu ditzaten.

Halaber, une oro bizikidetzara eraiki behar duen inguru batean gobernatzeko erronka du; gainera, eraikitze-prozesu hori aldatuz doazen parametroetan oinarrituz gauzatu behar da, herritar guztien parte-hartzea aintzat hartuta. Horrez gain, kontuan izan behar da dibertsitatearen ondorioz halabeharrez gerta daitezkeen “kultura-aldaketak” modu berezi batean kudeatu behar direla, konpondu ezin diren errezeloak, gatazkak edo aurkakotasunak eragin ez ditzaten; horretarako, beraz, beharrezkoak izango dira pedagogia-dosi handiak, komunikazioa, informazioa, hartu-emanak eta elkarrizketak.

Horri dagokionez, garrantzitsua da konpromiso politikoa aldeko izatea eta aurrera egin ahala sortzen diren gaiak eztabaidatzea; beraz, beharrezkoa izango da gizarte-aldaketaren prozesuari buruzko informazio-, analisi- eta prebentzio-tresnak eskuratzea nahiz erantzute-gaitasuna lortzea. Aldatuz doazen egoera berri horien aurrean, administrazio publikoek hainbat ekintza gauzatu beharko dituzte: prestakuntza jaso, aurrea hartu, konponbide egokiak eman, lidergoa hartu...

Zenbaitetan, beharrezkoa izango da lurraldeen arteko konpentsazio-mekanismoak ezartzea, zenbait arazo eta zailtasun dituzten udalerriek aukera emango baitiete egoera berrietaz jabetu eta erantzun egokiena emateko; horren adibide dira, esaterako, ghettoak, auzokideen arteko arazoak, zerbitzu publiko batzuen gehiegizko eskaria... Toki-administrazioak dira lurralde-eremu horretan bizi diren pertsonen bizi-kalitatearen erantzule, baina egun gure herri eta hirietan nagusi den etnia- eta kultura-dibertsitatearen konplexutasuna ikuspegi zabalago batetik aztertu behar da, udal, erkidego eta estatuz gaindiko ikuspegiak. Izan ere, jarduketa askok udalaren eskumenak gainditzen dituzte, etnia- eta kultura-dibertsitatearen kudeaketa erreala bermatzeko, eta, horrez gain, beharrezko dute Espainiako administrazioaren hiru maileri dagokien esku-hartzea: udal-administrazioa, erkidegokoa eta estatukoa.

Antolakuntza-mailak berak baldintzatu egiten du, halaber, herritarren arazoak eta premiak konpontzeko ikuspegia. Zerbitzuen antolakuntza eta espezializazioa

egituratzen dituen eremukako antolakuntzak baztertu egiten ditu maila askotako edo zeharkako ezaugarriak dituen eskaera edo zailtasun bati erantzuteko behar diren jarduketak; horregatik, herrian edo hirian etnia- eta kultura-dibertsitatea behar bezala kudeatzeko, zeharkako metodologiak beharko dira, horrela bermatuko baita zerbitzuen eraginkortasuna edota pertsonari erantzun egokia ematea.

Etnia- eta kultura-dibertsitatearen kudeaketak biztanleria osoari eragingo dio halabeharrez; dena den, zenbaitetan beharrezkoa izango da herritarren segmentu batzuk identifikatzea jarduketa publikoak segmentu horiek dituzten ezaugarrien arabera egokitzeko. Egokitze hori, ordea, ez da nahasi behar diskriminazioarekin edo bereizketarekin, eta, horretarako, gizarte-estigmatizatzeak saihestu beharko dira; hau da, zuzeneko nahiz zeharkako diskriminazioetatik prebenituko duten baliabideak segmentatzeko eta egokitzeko irizpideak zehaztu beharko dira.

Etnia- eta kultura-dibertsitatearen kudeaketaz arduratzen diren toki-administrazioen jarduketak edo programak egokiak izan behar dira udalerriko edo hiriko biztanleria guztiarentzat, batez ere dibertsifikatutako gizarte bateko bizikidetzari mesede egin diezaioten. Batez ere gertatu berri diren migrazio-prozesuek eraginda, egun bizi dugun heterogeneotasun kulturalaren testuinguruan, zerbitzuen egituraketak oinarrizko bi lan-ildo ditu: batetik, ohiko udal-zerbitzuak egokitzea, eta, bestetik, zubi-lana egingo duten zerbitzu berriak abian jartzea; nolana ere, bi lan-ildo horietan sartuko dira aldaketa kudeatzen lagunduko duten edo horren euskarri izango diren zerbitzuak. Eredu nagusiak normalizazioa du xede biztanleria guztiak zerbitzuak eskuratzeko duen eskubideari dagokionez, pertsona bakoitzaren nazionalitatea, etnia, sexua, erlijioa, jatorria... zeinahi izanda ere; hala ere, zenbaitetan ezinbestekoa da zerbitzu espezifikoak diseinatzea eta abian jartzea, baina normalizazio-eredu horren baitan zerbitzu horiek aldi baterakoak izan beharko dute. Azken batean, oreka lortu behar da arreta normalizatuaren eta zenbait taldek berezko duten egoeraren araberrako espezifikotasunari eman beharreko arretaren artean.

Etnia- eta kultura-dibertsitatea kudeatzeko politiketan, askotariko gizarte-, kultura- eta etnia-esparruetan bizikidetzak bultzatzeko jarduketak ere sartzen dira. Etnia- eta kultura-dibertsitatea kudeatzeko kostua handia da, ez baitiete “desberdintzat” hartzen diren biztanleria-sektoreei soilik eragiten, baizik eta udalerrian bizi den biztanleria guztiari dagokio; sektore publikoaren ikuspegitik, bereizitako hiru maila ditu:

- Herritarrak, oro har, dibertsitatearen alorrean hezteko xede duten jarduketak garatzea.
- Jarduketa bereziak garatzea, administrazio publikoak berak dibertsitatea kudeatzeko gai izan daitezkeen beren zerbitzuen garapenean inolako diskriminaziorik sortu gabe.

- Lider politikoak eta administrazio-arduradunak gaitzea, taldeko erreferente sinbolikoak dibertsitatea baloratzeko, aintzat hartzeko, ulertzeko, sustatzeko eta errespetatzeko balia ditzaten, eskubide-berdintasuneko eta gizarte-kohesioko esparru batean.

C. Udal-politikak tratu-berdintasunaren eta diskriminazioaren aurkako borrokaren alorrean

Tratu-berdintasuneko politika publikoen ezaugarri nagusiak

Lan egiteko oinarri juridiko bat izatea funtsezkoa da estrategia ordenatuak eta koherenteak garatzeko; beraz, ezartzen den hiri-ereduak berak biztanleriari arreta emateko eta horiek sentsibilizatzeko estrategia-mota zehaztuko du gero.

Bereziki etorkinak iristearen eta ijito-etniako biztanleria izatearen ondorioz bizi dugun etnia- eta kultura-dibertsitatearen tokian tokiko kudeaketa-prozesua indarrez sartu da zeregin publikoen toki-agendetan; horren adibide argia dugu zinegotzigo berrien ugaritzea. Horiek era askotako arloen babespean sortu dira —“herritartasun berria”, “eskubide zibilak”, “berdintasuna”, “bizikidetza”...—, eta errealitatearen nahiz herritartasunaren konplexutasuna bera aitortzea dute oinarri, askotarikoak diren heinean: langileak, sexudunak, etorkinak...¹³.

Egun, korrante horrek indarra hartu du, eta etorkinekin edo ijito-etniakoekin egin beharreko lana bereizi egin du biztanleriari arreta ematea edota horiek sektoretan banatzea oinarri zuen ikuspegitik; hau da, pertsona bera pazientetzat hartzen zuen ikuspegitik. Zinegotzigo berriek (Gizarte Zerbitzuak, Bizikidetza...) beste ikuspegi bat dute, eta biztanleria hartzen dute aldaketaren subjektu aktibotzat; hau da, biztanleriak bere inguruarekiko jarrera aktiboa eta konprometitua hartzea dute xede, udalerrian normaltasunez moldatu dadin, beste herritar bat bezala, bere eskubide eta betebeharrekin.

Estrategia horiek oso lotuta daude zeharkako zinegotzigoak sortzearekin eta/edo sendotzearekin, errealitatearen ikuspegi zatitua/partziala gainditzen dutenak eta biztanleria modu orokorrean hartzen dutenak. Erakunde osoak dituen helburuak sartzea xede duen antolakuntza-eredua da, administrazio-barruti edo sektore-organo bakoitzari esleitutakoez harago doazenak¹⁵.

¹³ SOLÀ, Roser (2007): *La gestió de la immigració a l'àmbit local*. Fundació Jaume Bofill. Finestra oberta bilduma, 27. Bartzelona.

¹⁴ LLORENS, Teresa (2008): *Innovación política para una nueva realidad social*. Bartzelonako Diputazioa. Migrainfo, 27. Bartzelona.

¹⁵ SERRA, Albert (2003): *La transversalitat en la gestió de polítiques públiques*. Bartzelonako Diputazioa, Síntesi 7. Bartzelona.

Nolanahi ere, erabateko normalizazioa ez da posible desberdintasun-egoerak dauden bitartean (administrazio-egoera irregularra, hizkuntzaren ezagutzea falta, gizarte-diskriminazioa...), horrelakoetan konpentsazio-jarduketak beharrezko izaten baitira. Horiez gain, duten espezifikotasuna dela-eta, ohiko administrazio-egiturak nekez har ditzakeen premiak hautematen dira; horregatik, udal askotan zubi-lana egiten duten eta aldi baterakoak diren baliabideak sortu dituzte, herritar guztiak maila berean jartzea lortzeko eta, horrela, dituzten diferentzien ondorioz desberdintasun-egoerak sortzea saihesteko¹⁶.

Jarduketa-planak.

Dibertsitatearen kudeaketa eraginkor bat egitean, egiazko tratu-berdintasuna lortzeko ekintzak eta neurriak ezartzeko aukera ematen duena, esku hartzeko bi maila aurkitzen ditugu argi eta garbi definituta, oro har esku-hartze sozialaren ezaugarri direnak:

1. Gertakarien zuzeneko esku-hartzea.
2. Prebentziorako esku-hartzea.

Esku hartzeko bi eremu horiek lotura estua dute, eta, beraz, esku-hartzean oro har eragin dezaketen ekintzak eskatzen dituzte. Hori dela-eta, politika publikoak definitu edo zehaztean, horiek esparru orokor edo partekatu baten baitan sartzen dira; gainera, jarduketa-estrategia komun bat diseinatu behar dute, bi esku-hartze horiek gauzatzeko aukera ematen duena.

Tokiko jarduketa-planen ereduak estrategia ona da tratu-berdintasunerako politika publikoak garatzeko, ekintza desberdinak gidatzeko esparru komun bat sortzeko aukera ematen baitute.

Jarduketa-estrategia horiek (toki-planak) definituz, errealitate berriari buruzko diskurtso bat sor daiteke, bai eta baliabideak modu arrazionalago batean erabili ere, jarduera ordenatzean eta bertan esku hartzen duten agente desberdinak koordinatzean; horrela, itxurakeriazko edo arretarik gabeko egoerak saihestu eta fenomenoaren ikuspegi orokorra hartuko da.

Toki-planak diseinatzean, udalerriko biztanleria- eta gizarte-errealitateari buruzko **diagnosi-azterketak** egin behar dira; horretarako, ezinbestekoa da aldi behin eguneraketak egitea, biztanleria-fluxuak etengabekoak eta aldakorrak baitira.

¹⁶ SOLÀ, Roser (2007): *La gestió de la immigració a l'àmbit local*. Fundació Jaume Bofill. Finestra oberta bilduma, 27. Bartzelona.

Diagnosian, halaber, biztanleriak udal-baliabideetan eta -zerbitzuetan eragiten duen inpaktua aztertu behar da; horrenbestez, eskaera edo premia berriak daudela hautemango da, eta, horrela, poliki-poliki, udal-egitura biztanleria-errealitate berrira egokitu ahal izango da.

Udallerriaren tamaina nahiz horren osaera soziodemografikoa, “migratzaileen eta bertako biztanleriaren arteko nahasketa”, edota gutxiengo etnikoen presentzia (ijito-etniako biztanleria eta beste batzuk); alderdi horiek baldintzatuko dute garatu beharreko jarduketak-mota.

Lidergo politikoaz gain, gobernuaren konpromiso sendoa ere ezinbesteko duten jarduketak behar dira; konpromiso horri esker, immigrazioa edo ijitoen gaia erasorako erabiliz gaia politizatzea saihestuko da. Noski, ezin da plan bat garatu aurrez zenbait elementu ez badira zehazten; hain zuen: ekintzen egutegia, aurrekontu bat eta plana ezartzea bermatuko duten finantziazio-iturri egokiak.

Jarduketak egiteaz gain, beharrezkoa da teknikarien eta hautatutako pertsonalaren **etengabeko prestakuntza**; gainera, prestakuntza hori ez dagokie etorkinekin edo ijitoekin zuzenean lan egiten dutenei soilik, baizik eta baita arreta-zerbitzuko langileei ere, biztanleriari tratu integrala eta kalitatezkoa bermatzeko, aurreiritziak eta estereotipoak alde batera utzita.

Bestalde, plan horiek **lankidetzak estua** izan behar dute udalerrian dauden **gizarte-erakundeekin**; gainera, diskriminazioaren aurkako borrokan sentsibilizatzeko erakunde horiek duten esperientzia eta egiten dituzten ekintzak baliatu behar dira.

Amaitzeko, plan eta programa horietan **sentsibilizazio-jarduketak** sartu behar dira; hau da, sentsibilizazio teknikoak, udal-egituraren beraren baitakoak, nahiz herritarrei dagokien sentsibilizazioa, biztanleria osoarekin lan egiten duena.

Fenomenoak izan duen bizkortasunaz eta intentsitateaz gain, aldaketa handia eragin du hiri-paisaian, eta, beraz, bertako biztanleekin lan egiteko estrategia bereziak pentsatu behar dira; alde batetik, biztanleria autoktonoarekin lan egiteko, aldaketa ulertzen lagunduz eta gizarte-errealitate berrira hurbilduz —horrela, etorkinak hartu dituen gizartearen ezagutza sustatuko da—, eta, bestetik, bertan bizi diren herritar berriekin lan egiteko.

Sentsibilizazio-jarduketetan beharrezkoa da pedagogia handiz jokatzea, elkarrenganako ezagutza sustatuz. Ezin dugu ahaztu integrazioa bi norabide dituen prozesua dela, eta biztanleriaren parte-hartze aktiboa eta ausarta behar duela, bai biztanleria etorkinarena, bai autoktonoarena.

Hurbileko administrazio diren heinean, toki-gobernuek zeresan handia dute, kultura-dibertsitatearen kudeaketarako ezinbestekoak baitira jarduketak integralak,

lurraldean lan egiten duten agente guztiak inplikatzeko dituztenak; horrela, desberdintasunaren aldeko jarrera positiboak eta errespetuzko jarrerak sustatzen dira, betiere tratu- eta aukera-berdintasunean oinarrituta.

Arrazoi horiek direla-eta, sentsibilizazioa aurrez definitu bezala aurkeztu da Gida honetan, gure udalerrietan bizi den gizarte-dibertsitatearen nahiz etnia- eta kultura-dibertsitatearen mundu konplexu eta liluragarria landu dezakeen estrategia eta ekintzat; horrez gain, elementu garrantzitsua izan daiteke toki-erakundeek dibertsitatearen kudeaketarako politika publikoak garatzeko.

Sentsibilizazioa estrategiatzat tratu-berdintasunerako udal-politikan.

Dibertsitatea Espainiako gizarteko eta udalerrietako ezaugarri nagusietako bat dela adierazi da, eta, horrez gain, toki-erakundeek duten funtzioa azaldu da, bai elementu horren kudeaketan, bai tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren alorreko politika publikoen garapenean; atal honen xedea, berriz, toki-erakundeek alor honetan egiten dituzten jarduketan sentsibilizazioak jarduketa-estrategia egokitzat duen funtzioa zehaztea da.

Beraz, sentsibilizazioak estrategiatzat dituen ezaugarriak aurkeztea da, argumentu-multzo baten arabera; horri esker, eta oinarri sendo batekin, erabaki politikoak hartzen dituzten pertsonen nahiz toki-erakundeetako teknikarien erabakiak eta ekintzak gidatuko dira sentsibilizaziorako jarduketak prestatzean.

Atal hau hiru ikuspegiaren arabera garatu da:

- a) Lehenik eta behin, **ekintza eta estrategia batzuk aurkeztu dira, tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ezaren alorrerako toki-erakundeek egiten dituzten ekintzen oinarri edo euskarri izan daitezkeenak**. Horien artean sentsibilizazioa dago, beste estrategia bat bezala.
- b) Tratu-berdintasunaren politika batean gauza daitezkeen hainbat eta hainbat estrategien eta jarduketan artean, sentsibilizazioa beste estrategia bat da; beraz, hori aintzat hartuta, **hainbat arrazoi eta argudio eman dira, sentsibilizazioa plan eta politika zabalagoen baitan garatzea** udalerrri eta toki-erakundeentzat **eredu egokia den ustea azaltzeko**.
- c) Hirugarren, Gida honetan proposatu da **tratu-berdintasunaren Sentsibilizaziorako Toki Planetan sentsibilizazioa estrategiatzat sartzea**, edo, bestela, ildo estrategikotzat hartzea Dibertsitatea Kudeatzeko Planen baitan.

a) Tratu-berdintasunerako tokiko ekintzak eta estrategiak.

Dударik gabe, migratzaileen eta gutxiengo etnikoen gizarte- eta kultura-integrazioarekin lotutako tokiko ekintzek indar handia hartu dute azken urteetan. Hain zuzen, 2.1 eta 2.2 ataletan adierazi bezala, horretan lagundu dute honako faktore hauek, bakoitzak bere mailan:

- Espainiako lurraldean gizarte-, kultura- eta etnia-dibertsitatearen existentziaren egiaztapena.
- Gutxiengo etniko historiko baten existentzia Espainian, ijito-etniarena, hain zuzen; horiek gainerako biztanleetatik bereizten dituzten kultura- eta identitate-ezaugarriak dituzte.
- Espainian biztanleria immigranteak izan duen igoera handia.
- Etorकिन harrerari eta integrazioari laguntzeko nahiz horien hezkuntza-errefortzurako funtsak (Immigrazioaren eta Emigrazioaren Estatu Idazkaritzarena) izan zuen eragin pizgarria eta sustagarria; horrez gain, Herritartasunerako eta Integrazioarako Plan Estrategikoaren garapena aipatu behar da.
- Atzerritik etorritako biztanleriaren presentzia handiagoa; presentzia handitze horrek, gainera, eztabaida handiagoa eragin du gizartean politika publikoak garatzeko premiari buruz, bai sarrerak (eta, beraz, mugak) kontrolatzeari dagokionez, bai integrazioari dagokionez.
- Diskriminazioaren aurkako gaiei buruzko Europako zuzentarauak¹⁷.

Horri dagokionez, azken hamarkadan nabarmen ugartu dira integrazioarako, kurturarteko bizikidetzarako edo gizabidezko herritartasunerako toki-planak; gainera, ekintza-estrategia hori garatu duten toki-erakundeek kopurua ere egunez egun hazten ari da azken urteetan.

Noski, **oraindik beharrezkoa da plan horietan tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren alorreko ekintzak modu argiagotan sartzea**, nahiz eta jada hazkunderako joera hauteman den.

Besteak beste, toki-erakundeak gauzatzen ari diren eta/edo gauzatu beharko lituzketen ekintza garrantzitsuenen artean, honako hauek azpimarratu behar dira¹⁸:

- Gaiari buruzko unean uneko ikerketak egitea eta diskriminazioari eta tratu-berdintasunari buruzko datuak biltzea.
- Behatoki iraunkorrak izatea.

¹⁷ Ikus diskriminazioaren aurkako borrokari buruzko Europako araudia esparru juridikoari buruzko eranskinean (191. or.).

¹⁸ Atal hau egiteko, integrazioarako eta/edo bizikidetzarako toki-plan batzuek zehaztutako ekintzak eta neurriak hartu dira kontuan, bai eta Arrazakeriaren aurkako Herrien Europako Koalizioaren (ECCAR) Ekintzen Dekalogoia ere (www.unesco.org).

- Tratu-berdintasuna zeharkako ardaztat hartzea bere jarduketa-eremu guztietan.
- Tartean dauden beste erakundeekin eta gizarte-eragileekin koordinazio espezifikoa eta etengabekoa izatea, administrazio publikoaren eta gizarte zibilaren arteko erantzukizun partekatuaren ikuspegitik.
- Toki-teknikariei dibertsitatearekin eta tratu-berdintasunarekin lotutako gaiei buruzko prestakuntza ematea (legedia, zerbitzuak...), bai eta kulturartekotasunaren eskumenari dagokiona ere.
- Eragile nagusiak prestatzea: kazetariak, poliziak, legelariak eta beste aditu batzuk.
- Edozein eremutan diskriminazioaren aurka borroka egiteko zerbitzuak sortzea; besteak beste, honako hauek: arreta eta informazioa, babes juridikoa eta biktimentzako laguntza psikosoziala.
- Enpleguaren alorrean tratu-berdintasunerako jarduketak abian jartzea eta lan-merkatuan dibertsitatea bultzatzea, udaletako enplegu-zerbitzu desberdinen bidez.
- Bizitza publikoko maila desberdinetan baldintza berdinekin sartzeko aukera ematen duten ekintzak garatzea; esaterako, honako alor hauetan: hezkuntza eta osasun-alorra, herritarrentzako zerbitzuak...; horretarako, informazioa eta aholkularitza-zerbitzua emango dute.
- Udal-eremuan, etnia- eta kultura-dibertsitatea nahiz kulturartekotasuna modu ekitatiboan sustatzea: kultura-programak eta espazio publikoak.
- Prebentziorako eta sentsibilizaziorako ekintza zabalak garatzea: eremuen araberako unean uneko kanpainak, sentsibilizazio-kanpaina orokorrak eta diskriminazioaren aurkako borrokaren garrantziari buruz sentsibilizatzeko kanpainak.

Gauzatu diren ekintza horietatik ia guztietan agertzen diren estrategietako bat izan arren, beharrezkoa da adieraztea sentsibilizazioa ez dela toki-erakundeek gara ditzaketen estrategia eta ekintzetako bat baino; dudarik gabe, ordea, gehien onartzen duten estrategietako bat da, bai teknikariek eta erabaki politikoak hartzen dituzten pertsonak, bai gizarte zibilak, gizarte-erakundeen bitartez.

Kultura- eta etnia-jatorriari dagokionez askotarikoa den gizarte baten aurrean – gurea, esaterako–, sentsibilizazioa tresna egokia da bizikidetzarako espazio komun eta partekatu bat sortzeko premiaz biztanleria osoa kontzientziatzeko; espazio horretan, hain zuzen, ez dute lekurik izango estereotipoek, aurreiritziek eta diskriminaziozko jarrerak.

Nolanahi ere, ideia horrek ez du garrantzirik izan Sentsibilizaziorako Toki Planak funtzionamenduan jarri diren arte; hau da, kasu gehienetan, Integraziorako Toki Planen zeharkako estrategia-ildotzat agertu da.

b) Sentsibilizazio-ekintzak garatzeko argumentuak.

Sentsibilizazioa diskriminazioaren aurkako borrokaren eta tratu-berdintasunaren aldeko estrategia ezin hobetzat definitzean, beharrezkoa da argi izatea **esku hartzeko prozesu oso batean ezarri beharreko estrategia bati** buruz hitz egiten ari garela, ez sentsibilizatorako unean uneko ekintzak edo ekintza isolatuak garatzeari buruz.

Prozesu horrek aukera eman behar du bizi dugun dibertsitate-testuinguruan sentsibilizazioak ahalmena izan dezan pentsaeren, pertzepzioen eta jarrerren aldaketa sustatzeko, bai eta edozein pertsonarenganako diskriminaziozko ekintzak saihesteko edo eragozteko ere, pertsona horren gizarte-, kultura- edo geografia-jatorria zeinahi izanda ere. Hori da, hain zuzen, sentsibilizazioaren erronka, aldaketa hori jokabideetan azpimarratzea eta doitzea, gure gizarteko pertsona guztien gizarteratze eraginkorra lortzeko.

Arrazoi ugari daude sentsibilizazioak estrategia egokitzat duen funtzioa ulertzeko aukera ematen digutenak, oro har integratzaileko eta tratu-berdintasunerako politika publikoak garatzeko, eta, bereziki, gutxiengo etnikoen eta etorkinen integratzaileko eta tratu-berdintasunerako politikak garatzeko.

Hurrengo lerroetan, hainbat arrazoi edo argumentu aurkeztuko dira, lan honen arabera sentsibilizazioak tratu-berdintasunerako estrategiatzat udal-eremuan duen garrantzia azaltzen dutenak:

- Toki-erakundeak daude herritarrengandik hurbilen, eta, noski, horrek bi abantaila ditu:
 - Toki-erakundeek ezagutzen dituzte hobekien herritarrek tratu-berdintasunarekiko eta diskriminazio ezarekiko duten pertzepzioa eta gizarte-diskurtsoa.
 - Zehazki, herritarrekiko duten hurbiltasuna dela-eta, eraginkorrak izan daitezke mezuak transmititzean edota bat egiteko nahiz elkartrukerako espazioak sortzean, tratu-berdintasunaren alorrean aurrera egiteko aukera emango dutenak.
- Hain zuzen, toki-esparruan du herritartasun-kontzeptuak bere agerpenik handiena; gainera:
 - herritartasuna ez da posible tratu-berdintasunik ez badago.
 - herritartasun-kontzeptua da tratu-berdintasuna edo -desberdintasuna lantzeko ideia nagusietako bat.

- Tratu-berdintasunaren alorrean ezin da jarduketa integral bat burutu baldin eta ez badira sentsibilizazio-prozesu batzuk garatzen, gizarte-taldeak berdintasun hori errealitate bihurtzeko duen garrantzia ulertzea gerturatuko dituztenak.
- Sentsibilizazioa estrategia hoberenetako bat da tratu-desberdintasunaren ondorioak ez dituela jasango uste duen jendearengana iristeko; hau da, askotan “biztanleria orokorra” izendatzen dugun talde horrek uste du tratu-desberdintasuna beraiei sekula eragingo ez dien zerbaite dela.
- Gizarte-integratzearako politika publiko bat egiteko edota integratzearako, tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako hainbat neurri garatzeko, aurrez jarrera-aldaketa sustatu behar da; hau da, poliki-poliki, zenbait estereotipo ezabatu behar dira, egiten diren jarduketak guztiak, pixkanaka, kultura-aldaketaren bidez biribiltzea zailtzen edo oztopatzen dutenak.
- Beraz, sentsibilizazioa esku hartzeko lanetik isolatuta edo independente dagoen tresnatzat hartzen bada, ondorio nagusia izango da bi ildoentzat onuragarri diren sinergiak alferrik galduko direla; horren ondorioz, sentsibilizazioak eta esku-hartzeak elkar indartzeko duten aukera galduko da.

Esaterako, *inguru zehatz batean errazagoa da etorkinen kontratazioa sustatzeko neurriak sartzea, baldin eta aurrez lan-merkatuan berdintasun-baldintzetan sartzeko epe ertainerako eta luzerako sentsibilizazio-prozesuak garatu badira.*

- Herritar berriak gizarteko eremu desberdinetan egoki integratzea errazteko aukera ematen du; horretarako, horiek ordezkatzeko duten dibertsitatearekiko tratuan izan daitezkeen jardute desegokiak ezabatuko dira.

Adibidez: *Kontziente izan behar dugu dibertsitatea aukera bakarra dela elkartrukean kultura aberasteko, desberdintasunek duten balioaz ohartzeko, edo alderantziz, elkarrenganako ezagutza faltak eraginda, kultura-arrazoiengatik gatazkak edo istiluak sortzeko. Erabakia gure esku dago, herritar guztion esku, etorkinen eta bertakoen esku.*

- Baliabideak eskuratzeari dagokionez, diskriminaziozko jokabideak eragin ditzaketen aurreiritziak sortzea edo zabaltzea saihesten laguntzen du sentsibilizazio-estrategiaren garapenak.
- Zeharkako estrategia dira eta epe luzera baztertzailak diren politikak saihesten dituzte (egindako akatsetatik ikastea): etxebizitza sozialen politikak eragindako espazio-bereizketa, biztanleria etorkinaren kontzentrazioa hezkuntza-zentro batzuetan... Prozesu bat gauzatzea da, erabakiak hartzeko, araudia egiteko eta programa nahiz zerbitzuak garatzeko zeharkako ardaztat etnia- eta kultura-dibertsitatea hartzen dituen; aldi berean, prozesu horren ezarpenean gatazkak saihestuko dira.

- Jarrera eta jokabide positiboak bultzatzen dituen eta jokabide positibo horiek izaten jarraitzeko estimuluak etengabe sustatzen dituen gizarte-, erkidego-edo talde-ingurunea sortzen du; izan ere, estrategia moduan, honako xede hauek ditu: jarrera- eta pentsaera-aldaketak sustatu, existitzen diren estereotipoekin hautsi, hainbat gizarte-agente inplikatu eta herritar guztiek berdintasunezko balioak barneratzea sustatu.
- Eragile desberdinek lan koordinatua eta sare bidezkoa egitea ahalbidetzen duen estrategia bat da sentsibilizazioa, besteak beste administrazioak, gizarte zibil antolatuak eta herritarrek; horrela, gai horri buruzko politika publikoak ezartzean, gizartearen erantzukizun partekatua bultzatzeko aukera ematen du.
- Komunikazioa sentsibilizazioaren tresnetako bat izanik, gizarte-aldaketan laguntzen duen tresna bat dugu, elkarriketarako, elkartruckerako, bat egiteko eta eztabaidarako espazioak sortzeko aukera ematen baitu.

c) Sentsibilizaziorako Toki Planak

Aurreko bi ataletan, sentsibilizazioa Espainiako herritar guztien –hau da, Espainiako lurraldeko kaleetan, auzoetan, herrietan eta hirietan bizi diren pertsona guztien– tratu-berdintasuna lortzeko eta bermatzeko egiten diren ekintzen nahiz politiken garapenerako estrategia egokitzat aurkeztu da; orain, beraz, zehaztu behar da sentsibilizazioak inplizitu dituen ekintza guztiak nola egituratu eta antolatu.

Aurrez aipatu bezala, sentsibilizazioa unean uneko ekintzen nahiz ekintza isolatuen bidez edo esparru komun eta partekatua duten ekintza-multzoen bidez gauzatu daiteke. Gida metodologiko honetan, hain zuzen, bigarren aukera hori proposatu da, ustez hori baita aukera egokia zehaztutako helburuak sentsibilizazioaren bidez lortzeko. Horrenbestez, garrantzitsua da sentsibilizaziorako ildo-, ekintza- eta programa-multzo bat maila guztietan lantzeko aukera emango duten toki-planak garatzea eta gauzatzea, bai orokorragoak direnak eta sentsibilizazio-ildo bat dutenak, bai espezifikoki Sentsibilizaziorako Toki Planak direnak.

Gidaren bigarren zatian Sentsibilizaziorako Toki Planen garapenerako proposamen metodologiko bat egin da, bai tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren alorreko toki-jarduketan esparruan garatzeko, bai “autonomiazkotzat” defini dezakegun esparru batean garatzeko; hau da, azken hori, berez, Sentsibilizaziorako Toki Plan bat izango litzateke, eta, inon sartzekotan, toki-ekintzen multzoan sartu beharko litzateke.

OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA. 2. KAPITULUA: TOKI-ERAKUNDEAK: DIBERTSITATEA, TRATU-BERDINTASUNA ETA DISKRIMINAZIORIK EZA

CEA, M^a Ángeles eta VALLÈS, Miguel S. (2008): *Evolución del racismo y de la xenofobia en España. Informe 2008*. MTIN – OBERAXE. Madril.

Hezkuntzako Ikerketa eta Dokumentazio Zentroa (CIDE) – Emakumearen Institutua – Ijitoen Idazkaritza Fundazioa (FSG) (2006) “Incorporación y trayectoria de niñas gitanas en la ESO” www.gitanos.org

Ijitoen Idazkaritza Fundazioa (2005) “Población gitana y empleo: un estudio comparado” www.gitanos.org

Ijitoen Idazkaritza Fundazioa eta Etxebizitza Ministerioa (2007) “Mapa sobre vivienda y comunidad gitana en España” www.gitanos.org

FOESSA Fundazioa eta Espainiako Cáritas (2008) “VI Informe sobre exclusión y desarrollo social en España”; Ijitoen Idazkaritza Fundazioa (FSG) (2005) “Población gitana y empleo: un estudio comparado”; eta Ijitoen Idazkaritza Fundazioa eta Etxebizitza Ministerioa (2007) “Mapa sobre vivienda y comunidad gitana en España”; besteak beste.

FOESSA Fundazioa eta Espainiako Cáritas (2008) “VI Informe sobre exclusión y desarrollo social en España”. Osasun eta Kontsumo Ministerioa eta Ijitoen Idazkaritza Fundazioa (2009) “Hacia la equidad en salud. Estudio comparativo de las Encuestas Nacionales de Salud a población gitana y a población general de España, 2006” www.gitanos.org

GARRETA, Jordi (2003): *La integración sociocultural de las minorías étnicas (gitanos e inmigrantes)*. Antropos argitaletxea. Rubí.

LLORENS, Teresa (2008): *Innovación política para una nueva realidad social*. Bartzelonako Diputazioa. Migrainfo, 27. Bartzelona.

Immigrazioaren Behatoki Iraunkorra (OPI), Lan eta Immigrazio Ministerioa, 2009ko urtarrila.

Biztanleriaren Udal Errolda, 2009, behin-behineko datuak, Estatistikako Institutu Nazionala (www.ine.es).

Púmares Fernández, Pablo: “La Inmigración en España, perspectivas desde el territorio”. Aubarrel, Gemma (Coordin.) *Perspectivas de la Inigración en España*. Icaria, Bartzelona, 2003, 117-201 or.

RECAÑO, Joaquín eta DOMINGO, Andreu (2006): *Evolución de la distribución territorial y la movilidad geográfica de la población extranjera en España. Veinte años de inmigración en España. Perspectivas jurídica y sociológica [1985 – 2004]*. Argitaratzailea: Fundación CIDOB. Bartzelona

SERRA, Albert (2003): *La transversalitat en la gestió de polítiques públiques*. Bartzelonako Diputazioa, Síntesi 7. Bartzelona.

SOLÀ, Roser (2007): *La gestió de la immigració a l'àmbit local*. Fundació Jaume Bofill. Finestra oberta bilduma, 27. Bartzelona.

SUBIRATS, Joan (2006): "El 'contenedor' escuela". *In* El País egunkaria, 2006-12-22.

TOURAINÉ, Alain (1997): *¿Podremos vivir juntos?: Iguales y diferentes*. Promoción Popular Cristiana. Madril.

UNESCO, Arrazakeriaren aurkako Herrien Europako Koalizioaren (ECCAR) Ekintzen Dekalogoia (www.unesco.org)

3.

kapitulua

Sentsibilizaziorako Toki Planak.

Proposamen metodologiko bat

III.1 SARRERA.

Gida metodologikoaren hirugarren kapitulu honetan, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren Sentsibilizaziorako Toki Plan bat diseinatzeko eta egiteko garrantzi gehien duten faktoreetan sakonduko da, ikuspegi praktiko eta eraginkorra oinarri hartuta.

Atal honen xedea lan egiteko hainbat metodologia ematea da, Sentsibilizaziorako Toki Plana parte-hartzearen bidez eraikitzeo aukera emango dutenak; horrez gain, lan-tresna erabilgarriak eta praktikoak eskura jarriko dira, plan horiek Espainiako toki-erakundeek osatzen dituzten hainbat lurralde-testuingurutan ezartzea ahalbidetuko dutenak.

Noski, testuinguru hori hain zabala eta desberdina denez eta hainbeste heterogeneotasun-elementu eskaintzen dituen (Espainian 8.000 udalerrri baino gehiago daude), **proposamen metodologikoak eta lan-tresnak ikuspegi dinamiko eta malgu batetik ematen dira**, lurralde-, gizarte- eta politika-ezaugarri desberdinetara egokitu ahal izan daitezen. Horrenbestez, abiapuntutzat hartu behar dira, tokiko ekintza gidatzeko oinarri izango ditugun pista metodologikotzat.

Kapituluan honako eduki hauek landuko dira:

- a) Lehenik eta behin, Plana egiteko eta garatzeko **metodologia parte-hartzaileak berrikusiko** ditugu kapitulu honetan, plangintza garapen komunitarioko prozesutzat hartu baitugu, komunitatearen parte-hartzea funtsezko den prozesutzat.
- b) Bigarren, **Sentsibilizaziorako Toki Plan baten zenbait printzipio gidari** proposatuko dira. 2. kapituluan aipatutako ideia aintzat hartuz —hau da, Plana ikuskapen-tresnatzat hartzeari buruzkoa—, zenbait printzipio proposatu behar dira; hain zuzen, printzipio horiei esker, komunitateak aukera izango du lortu nahi diren gizarte- eta politika-balioak identifikatzeko.
- c) Azkenik, hirugarren lekuan, Sentsibilizaziorako Toki Plan bat **diseinatzeko eta egiteko fase desberdinetan** sakonduko dugu; plan horien xedea, hain zuzen, ikuspegi praktiko eta erabilgarri bat ematea da toki-eremuan sentsibilizazio-ekintzak garatzen dituzten instituzio eta erakunde guztiei.

III.2 SENTSIBILIZAZIORAKO TOKI PLANA EGITEKO PROPOSAMEN METODOLOGIKOA.

Gidaren atal honetan, Sentsibilizaziorako Toki Plan bat diseinatzeko eta egiteko proposamen metodologiko bat aurkeztu da. Erabaki da proposamen metodologikoa atal independente batean jartzea, Sentsibilizaziorako Toki Plan bat diseinatzeko, egiteko eta gauzatzeko prozesu guztian ikuspegi orokor, antolatu eta sistematiko bat izateak duen garrantzia azpimarratzeko.

Horrek adierazi nahi du aukeratzen den metodologiak Planaren lan-fase guztietan eragin behar duela, eta ez soilik fase batzuetan. Esaterako, ohikoa da helburuen eta xedeen diagnosi- edo diseinu-faseetan gizarte-eragileen parte-hartzeari dagokionez elkarlanerako jarrera edo jarrera irekiagoa izatea, ez soilik politika publikoak egiten lagun dezaten, baizik eta, beraien laguntzari esker, diseinatutako ekintzek gizartean zilegitasun handiagoa lor dezaten. Halaber, askotan, gizarte-eragileek parte hartzeko eta laguntzeko erabiltzen dituzten bideak desberdinak izaten dira proiektuaren beste fase batzuetan; batez ere, aurreikusitako ekintzak gauzatzean eta horien jarraipena nahiz ebaluazioa egitean.

Atal honen helburua da Sentsibilizaziorako Toki Planaren fase guztietan jarduketa-metodologia bat aplikatzeak duen garrantzia azpimarratzea, ez soilik fase batzuetan.

III.2.1 Abiapuntuko zenbait gogoeta.

Zein jarduketa-metodologia da egokiena nire lurralde- eta gizarte-testuingururako? Zer elementu balia ditzakegu lan egiten dugun lurralde- eta gizarte-testuinguru bakoitzean jarduketa-metodologia bat aukeratzeko?

Erabakiak hartzen lagundu nahian, honako elementu hauek, gutxienez, aintzat hartzea proposatu dugu, gure testuingururako metodologia egokiena aukeratzeko:

- Lehenik eta behin, esku hartzen duten gizarte-eragileak aztertuko dira.
- Gero, komunitatearen ezaugarriak hartuko dira aintzat; hau da, esku hartu nahi den tokiko testuingurua.

ESKU HARTZEN DUTEN GIZARTE-ERAGILEAK	GIZARTE-TESTUINGURUAREN EZAUGARRIAK
Administrazioak (estaturak, autonomia-erkidegoak eta toki-administrazioak)	- Lurralde-antolakuntza - Lurralde- eta geografia-berezitasunak
Gizarte-erakundeak eta -instituzioak	- Gizarte-ehunaren konplexutasun-maila - Funtsezko ezaugarriak - Agenteen arteko gizarte-harremanak - Esperientzia parte-hartzailea
Biztanleria	- Biztanleria-dimentsioa - Antolakuntza-berezitasunak

a) Esku hartzen duten gizarte-eragileak.

Funtsezko hiru eragile hartzen dira aintzat: Administrazioa, gizarte-erakundeak nahiz -instituzioak, eta biztanleria.

- **Administrazioa.** Beharrezkoa da komunitatean dauden administrazio publikoak eta horietako bakoitzak izan dezakeen ekarpena aintzat hartzea, elkarrizketaren, instituzioen arteko koordinazioaren eta proposatutako jarduketaren zeharkakotasunaren ikuspegia oinarri hartuta.

Dударik gabe, hau da alderdi konplexuenetako bat, ikuspegi hori oztopatzen duten hainbat eta hainbat faktorek eragiten baitute; besteak beste: faktore politikoek (esaterako, instituzio publikoen maila desberdinetan alderdi politiko desberdinak izatea), faktore burokratikoek (adibidez, administrazio-maila desberdinen artean informazioak elkarri komunikatzeko edo emateko moduarekin lotura dutenak)...

Nolanahi ere, gizabidezko eta demokrazia-zilegitasuneko ikuspegia oinarri hartuta, beharrezkoa da instituzioen arteko elkarrizketa eta koordinazioa azpimarratzea politika publikoen eraginkortasuna hobetzeko ezinbesteko bitartekotzat.

Espaniako administrazio publikoa hiru lurralde-mailatan dago egituratuta: Estatuko Administrazio Orokorra, autonomia-erkidegoak eta toki-administrazioak).

Bestalde, lurraldeko toki-erakundeak¹⁹ honako hauek dira: udalerrria, probintzia eta, Balearretan nahiz Kanarietan, uhartea. Halaber, toki-erakundetzat hartzen dira honako hauek:

- Udalerrriaren azpiko lurralde-eremuetako erakundeak, autonomia-erkidegoek sortuak edo aitortuak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 45. artikuluari jarraiki.
- Udalerrri bat baino gehiago barne hartzen dituzten eskualdeak edo bestelako erakundeak.
- Metropoli-areak.
- Udalerrri-mankomunitateak.

Beraz, diagnosi-prozesuan aholkatu dugu lurralde-testuinguru bakoitzean zer administrazio publiko dauden identifikatzea, bai eta erakunde horiek tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren alorrean zer eskumen eta jarduketa dituzten ere.

Dudarik gabe, **toki-erakundea (zeinahi izanda ere: udalerrria, mankomunitatea, eskualdea...)** instituzio-maila garrantzitsuena da, toki-jarduketa bat proposatzen ari baikara; beraz, instituzio horren agerpenik edo parte-hartze aktiborik gabe, eta, zenbaitetan, lidergo politiko eta sozialik gabe, ezin da Sentsibilizaziorako Toki Plan bat garatu.

Bestalde, toki-administrazioek antolakuntza-konplexutasunaren maila altua dute, bai eta eskumenen nahiz komunitatearentzako zerbitzuen antolakuntza-maila altua ere. **Koordinazioa eta zeharkakotasuna ez dira soilik kanpo-baldintza bat (administrazio-mota desberdinen artekoa), baizik eta baita toki-administrazioaren barne-baldintza bat ere.**

Horri dagokionez, plangintza-prozesuaren hasieratik komeni da parte hartuko duten departamentuak edo sailak identifikatzea; hau da, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren sentsibilizaziorako ikuspegia oinarri hartuta, presentzia edo parte-hartze garrantzitsua izango dutenak. Esaterako, herritarren segurtasuna edo hirigintza departamentuak aipatu behar dira, esku hartzeko eremuei buruzko atalean ikusiko dugun bezala.

- Komunitatean dauden **gizarte-erakundeak eta -instituzioak**; hau da, gizarte zibila izendatzen duguna. Proposamen metodologiko honen

¹⁹ 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen.

ondorioetarako, gizarte zibila honela definituko dugu: eremu publikoko erabakiak bultzatzeko hainbat gizarte-erakunde eta -instituzioren bitartez taldean funtzionatzen duten pertsona desberdinen multzoa.

Dudarik gabe, gizarte-erakundeak eta -instituzioak heterogeneotasun handikoak izango dira: gizarte-elkarteak eta -erakundeak, sindikatuak, elizak eta instituzio erlijiosoak...

Garrantzitsua da murriztaileak ez izatea eta aintzat hartzea, bereziki, ezaugarri sozial nabarmena duten erakundeak edo instituzioak. Alderantziz, tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza komunitate osoak eta, beraz, komunitate antolatuak esku hartu behar duten alderdiak dira. Horri dagokionez, honako hauek ere kontuan izan beharko dira: batetik, enpresa-ehuna, Enpresaren Gizarte-erantzukizunaren baitako ekintzak garatuz esku hartu ahal izango duena (ikus terminoen glosarioa), eta, bestetik, komunikabideak, bereziki tokikoak, oso funtzio garrantzitsua baitute garatu nahi ditugun ekintzak biderkatzeari dagokionez (irratikateak, prentsa, tokiko telebista-programak...).

Nolanahi ere, beharrezkoa da zehaztea horietako zenbat ari diren lanean tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren alorrean, edota zenbatek duten horretarako interesa.

Baiezta dezakegu politika publikoek eraginkortasun txikiagoa izango luketela, gizarte zibilak parte hartzeko mekanismorik ezean.

- **Biztanleria**, oro har. Espainiako gizartean, gizarte-erakundeen eta Hirugarren Sektorea deritzonaren profesionalizatzeko-prozesua nahiz elkarteetako parte-hartzearen tasa baxuak direla-eta, egokia iruditzen zaigu zenbait neurri ezartzea, politika publikoak diseinatzeko eta egiteko prozesuan biztanleen presentzia eta parte-hartzea sustatuko dutenak, hain zuzen.

Badira aukerak, metodologikoak nahiz teknikoak, politika publikoak diseinatzeko eta egiteko prozesuan biztanleriak parte hartzeko aukera ematen dutenak. Horri dagokionez, azpimarratu behar da aukera batzuetan beldur apur bat hauteman dela biztanleriaren parte-hartzea sustatzen duten neurriak ezartzeari dagokionez, bai instituzio publikoetako arduradunen artean, bai gizarte-erakundeetako teknikari eta adituen artean.

Ezbairik gabe, politika publikoen plangintza-prozesu bat biztanleriaren lankidetzarik gabe gauzatu daiteke, baina herritar horiek lagundu egingo dute prozesu-garapenean.

Definitutako eragile bakoitzaren funtzioa nahiz horien erantzukizun- eta erabaki-ahalmena desberdina izango da seguru asko, komunitate desberdinen eta lurralde-testuinguruen ezaugarrien arabera; dena den, definitutako eragile horien guztien eta bakoitzaren presentziarik eta parte-hartzerik gabe, prozesuaren eraginkortasuna gutxitu egingo da pixkanaka, beheko grafikoan ikus daitekeen bezala.



b) Komunitatearen ezaugarriak.

Komeni da hainbat gai kontuan hartzea; esaterako, honako hauek:


a) Sentsibilizazio-plana garatuko den **toki-entitatearen berezitasunak**; esaterako, toki-entitateko **biztanleria**, bertako **lurralde-antolamendua** edota **lurralde- eta geografia-berezitasunak**. Metodologia nabarmen aldatzen da herri txiki baten eta, bere tamaina nahiz neurriak direla-eta, lurralde-antolakuntza gero eta konplexuagoa bihurtu den beste herri baten artean; halaber, lurraldearen mugikortasun- eta komunikazio-ahalmenarekin dago lotuta, bai eta zenbait eremutako kontzentrazio demografikoekin ere.

b) Toki-entitate horretako **gizarte zibilaren edo gizarte-ehunaren ezaugarriak**, hots **gizarte-ehunaren konplexutasun-maila**; gizarte-ehun hori, zehazki, toki horretako sentsibilizazio-ekintzen garapenean esku hartzen duten gizarte-eragile guztiek osatuko lukete: elkaratek, sindikatuek, sinesmen desberdinekin lotutako taldeek...

Besteak beste, honako adierazle hauek hartu behar dira kontuan: **gizarte-ehunaren dimentsioa** toki-entitatean (gure lurralde-testuinguruan, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren alorrean sentsibilizatzeko jardueren garapenean esku hartzen duten elkarteen, sindikatuen edota toki-garapenerako agentzien kopurua); **gizarte-ehunaren funtsezko ezaugarriak** (Sentsibilizaziorako Toki Plan baten garapena hastean edo proposatzean bizi den egoera, indartsuagoa edo indar gutxiagokoa); **eragile desberdinen artean**

dauden **gizarte-harremanen ezagutza**; eta **parte-hartzean izandako esperientzia**, Sentsibilizaziorako Toki Plana abian jartzen duten arduradunena nahiz gizarte-ehuneko kideena.

Beheko grafikoan, gure lurraldeko hainbat toki-entitateko errealitatean ager daitezkeen aukera desberdinak islatzen saiatu gara, labur-labur. Ikus daitezkeen bezala, A gizarte-entitaterako (biztanleria- eta lurralde-dimentsio txikia eta gizarte-ehunaren konplexutasun baxua) aukeratuko den metodologia ez da B gizarte-entitaterako (kontrako ezaugarriak) edo C entitaterako (biztanleria- eta lurralde-dimentsio txikia, baina konplexutasun-maila altua bertako gizarte-ehunaren osaeran) aukeratuko den metodologiaren berdina izango.



Hau da, adierazi nahi dugu metodologia bakar bat ere ez dela, berez, ona edo txarra; bestea baino hobea edo txarragoa. Hau da, Sentsibilizaziorako Toki Plana (gidan horri buruzko azalpen txiki bat eman da) garatu nahi den toki-entitateko gizarte- eta lurralde-testuinguruaren ezaugarri nagusiak ezagutu eta gero aukeratu ahal izango dugu ustez egokiena den edo arrakasta izateko aukera gehien duen lan-metodologia.

Nolanahi ere, proposamen metodologiko honetan politika publikoak diseinatzeko perspektiba parte-hartzailean oinarritu garenez, hurrengo lerroetan parte hartzeko zenbait orientabide eta ikuspegi emango ditugu, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren Sentsibilizaziorako Toki Plan bat egitea sustatzeko.

III.2.2 Metodologia parte-hartzaileak.

Metodologia parte-hartzaileak deritze biztanleriaren parte-hartzean oinarritzen diren ikuspegi, esku-hartze sozialeko programen diagnostia, gauzapena, jarraipena eta ebaluazioa egiteko erabiltzen direnak.

Metodologia horietan, biztanleriak du protagonismoa, eta kanpoko eragileek tresna metodologikoak ematen dituzte; hau da, biztanleek adierazten, eztabaidatzen eta aztertzen dute informazioa, funtsean kualitatiboa (ez hainbeste kuantitatiboa). Hori dela-eta, metodologia horien berrikuntzetako bat askotariko ikuspen-tekniken ekarpena izan da, hain zuzen (diagramak, marrazkiak, material desberdinen erabilera...); biztanleak eroso daude teknika horiekin eta ondo ulertzen dituzte, gainera, ohiko azterketa-metodoekin ez bezala: estatistika ofizialak, egituratutako elkarrizketak...

Prozesu parte-hartzaileen denbora-dimentsioa funtsezko ezaugarrietako bat da, azpimarratzekoa; horren baitan, zehazki, bi elementu hartu behar ditugu aintzat:

- Ez da argitu politika publikoen ikuspegi parte-hartzailea edo esku-hartze komunitarioko ikuspegia beste ikuspegi batzuk baino motelagoa denik. Egia da, bai, denbora-inbertsio handiagoa behar duela garapeneko zenbait fasetan (diseinuan eta plangintzan, esaterako); baina, ezin da esan epe osoa luzeagoa denik. Gainera, frogatu ahal izan da ikuspegi parte-hartzaile batek atzerapen eta zailtasun handiak izan ditzakeela esku-hartze komunitarioko programak gauzatzean.
- Ikuspegi parte-hartzailean egutegi zorrotzak edo epe desegokiak izateak epe luzerako aurrerapena eragotzi dezake.

Segidan, konparazio-taula bat egin da, eta, bertan, esku-hartze sozialeko prozesuetan nahiz garapen-prozesuetan erabiltzen diren metodologia parte-hartzaile garrantzitsuenen ezaugarri orokorrak zehaztu dira.

Ikuspegi parte-hartzaileen ezaugarriak

	Ikerketa Ekintza Parte-hartzailea	Landa Diagnosti Parte-hartzailea	Jarraipen eta Ebaluazio Parte-hartzaileak	Pobreziaren Azterketa Parte-hartzailea
Noiz sortu	1970ean	1980 amaieran	1990ean	1990ean
Non sortu	Unibertsitateetan	GKEetan (eta unibertsitateetan)	GKEetan	Munduko Bankuan
Erabiltzaile nagusiak	GKEak eta unibertsitateak	GKEak eta nazioarteko agentziak	GKEak eta nazioarteko agentziak	Munduko Bankua

Helburua	Hezkuntza eta ahalduntzea	Ahalduntzea	Inpaktu-azterketa	Pobrezia-aren ebaluazioa
Zertarako	Toki-garapenerako proiektuak	Toki-garapenerako proiektuak	Toki-garapenerako proiektuak	Pobrezia-ri buruzko politikak
Eragile nagusiak	Tokiko biztanleria	Tokiko biztanleria	Tokiko biztanleria	Kanpokoan eta tokikoan konbinazioak
Emaitzak	Programak eta proiektuak	Toki-ekintza iraunkorra eta instituzioak	Proiektu-prozesuaren ebaluazioa	Pobrezia-aren balorazioa
Berrikuntza nagusia	Azterketen, hezkuntzaren, ahalduntzearen, parte-hartzearen eta ekintzaren konbinazioa	Jarrera, jokabidea	Tokiko biztanleriaren laguntza arrakastadierazleak zehazteko	Nazio-maila, eta ohiko metodoekiko konbinazioa
Aurrez baztertutako funtsezko baliabidea	Gaitasunak eta tokiko ezagutza	Tokiko biztanleriaren gaitasunak	Tokiko biztanleriak inpaktuari buruz duen pertzepzioa	Tokiko ezagutza, pobrezia-aren aurkako politika nazionalak hobetzeko

Iturria: Diccionario de Acción Comunitaria y Cooperación al Desarrollo, Hegoa

Ikerketa Ekintza Parte-hartzailean (IEP) eta gizarte-kontsultan oinarrituko gara; izan ere, bi ikuspegi parte-hartzaile horiek oso egokiak eta garrantzitsuak dira esku-hartze sozialeko prozesu batean, eta, gainera, Sentsibilizaziorako Toki Plan bat diseinatzeko eta egiteko prozesua bidera dezakete.

A) IKERKETA EKINTZA PARTE-HARTZAILEA

Ikerketa Ekintza Parte-hartzailea (IEP) errealitatearen taldeko ikerkuntza- eta ikaskuntza-metodo bat da, azterketa kritiko batean oinarritzen dena; bertan, tartean dauden taldeek hartzen dute parte, eta jarduera eraldatzailea nahiz gizarte-aldaketa sustatzea du xede.

IEP metodoak bi prozesu konbinatzen ditu: ezagutzea eta jardutea; hain zuzen, bi prozesu horietan, lantzen ari diren errealitateko biztanleriak esku hartzen du. Beste ikuspegi parte-hartzaile batzuek bezala, **IEPk metodo bat ematen die komunitateei biztanleriaren errealitatea hobeto aztertze eta ulertze (horien arazoak, premiak, gaitasunak, baliabideak...); horrez gain, ekintzen eta neurrien plangintza egiteko aukera ematen die, errealitate hori aldatzeko eta hobetzeko**. Prozesu honek teoria eta praxia konbinatzen ditu, eta, aldi berean, honako hauek ahalbidetzen ditu: ikaskuntza, biztanleek beren errealitateari buruzko kontzientzia kritikoa hartzea, ahalduntzea, beren sare sozialak indartzea eta zabaltzea, talde-mobilizazioa, eta eraldatze-ekintza.

IEPren proiektu bakoitzean, hiru osagaiak maila aldagarrian konbinatzen dira.

a) **Ikerketa** prozedura erreflexiboa, sistematikoa, kontrolatua eta kritikoa da; errealitatearen alderdiren bat aztertzea du xede, helburu praktikoa zehatz batekin.

b) **Ekintza** ez da ikerkuntzaren azken helburu soilik, baizik eta ekintza bera ezagutza-iturri ere bada; era berean, azterketa egitea esku hartzeko bide bat da.

c) **Parte-hartzeak** adierazten du, prozesuan, ikertzaile profesionalen gain, proiektuaren xede den komunitateak berak ere esku hartzen duela; azken horiek ez dira ikerkuntza-objektu hustzat hartzen, beren errealitatea ezagutzen eta aldatzen laguntzen duten subjektu aktibotzat baizik.

IEPren helburua errealitatea aldatzea eta herritar batzuen arazoei aurre egitea da, dituzten baliabideak eta parte-hartzea oinarri hartuta; horregatik, da bereziki egokia plangintza estrategiko baten garapenerako.

IEPn, **lau fase** izaten dira, funtsean; fase horiek, ordea, ez dira beti argi bereizten bata bestearengandik.

a) *Behaketa parte-hartzailea*: bertan, ikerlariak aztertu beharreko errealitatean esku hartzen du, bertako eragileekin erlazionatuz eta bertako prozesuetan parte hartuz.

b) *Ikerketa parte-hartzailea*: ikerkuntza diseinatzen da, eta horretarako erabiliko diren metodoak aukeratzen dira, talde-lana, herri-kulturako elementuen erabilera eta berreskuratze historikoa oinarri hartuta. Ikerlariak informazioa lortzeko eskura dauden hainbat metodo aurkeztuko dizkio taldeari; hau da, metodo horien logika, eraginkortasuna eta mugak azalduko dizkio, baloratu ditzan eta, dituen giza baliabideak eta baliabide materialak oinarri hartuta, aukeraketa egin dezan. Informazioa biltzeko honako teknika hauek erabiltzen dira, besteak beste: eremuaren behaketa, artxibategi eta liburutegietako ikerkuntza, bizitzako istorioak, galdetegiak eta elkarrizketa. Informazioa bildu eta gero, sistematizatu eta aztertu egiten du komunitateak berak; beraz, ikertzailearen funtzioa lana erraztea baino ez da.

c) *Ekintza parte-hartzailea*: lehenik eta behin, lortutako informazio guztia komunitateko gainerako kideei edo beste erakundeei helarazi behar zaie, bilkuren, antzezpenen edo bestelako tekniken bidez; horrez gain, sarritan, errealitatea aldatzeko ekintzak burutu behar dira.

d) *Ebaluazioa*: gizarte-zientzietako sistema ortodoxoen bidez egingo da, edo, bestela, lortutako aldaketei dagokienez ekintzak duen eraginkortasuna balioetsiko da; esaterako, jarrera berriak garatzeari dagokionez edo taldeko balio eta helburu berriak berriro zehazteari dagokionez.

B) GIZARTE-ENTZUKETA.

Gizarte-entzuketaren ikuspegiaren helburu nagusia gizarte-eztabaida sustatzea eta herritarrak dinamizatzea da; horrela, parte-hartze komunitarioko eredu bat sortuko da, eta, horri esker, plangintza estrategikoaren fase guztietan aintzat hartuko dira esku hartzeko eremuetan inplikaturik dauden gizarte-eragileak (kasu honetan, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren alorreko sentsibilizazioan).

Kontsulta- eta dinamizazio-prozesu hori oinarri hartuta, zenbait baldintza zehaztu nahi dira, lurralde zehatz bateko gizarte-eragileen arteko parte-hartzea, komunikazioa eta koordinazioa sustatzeko bideak ezartzea ahalbidetuko dutenak. Horren ondorioz, erabilitako teknikak edo prozesu metodologikoaren faseak aldatu egingo dira, lurralde- eta gizarte-testuinguruen ezaugarrien arabera.

Politika publikoak diseinatzean eta garatzean herritarren esku hartzea bultzatzen du gizarte-entzuketaren ikuspegiak; horrez gain, parte hartzeko eredu bat sortzen du, gobernantza-tresnetan oinarritzen dena. Labur-labur azalduta, honako xede hau izango luke:

- **Komunitatea eraikitzea**, prozesuan inplikaturik dauden hainbat gizarte-eragileren eta eragile instituzionalen artean.
- Migrazioari, tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzko **politika publikoak, tokikoak nahiz nazioz haraindikoak, kudeatzeko eredu berriak** diseinatzea
- Politika publikoen **plangintza parte-hartzaile** bat izatea.
- Tartean dauden hainbat gizarte-eragile eta, funtsean, biztanleria **ahalduntzea** (*empowerment*).

Metodologia hori bereziki egokia da plangintza estrategikorako, besteak beste “Pentsamendu Kolektiboaren Eraketa” eta “AMIA” tekniketan oinarritzen baita (baita bi teknika horien konbinazioetan ere); horri esker, gizarte-eragile desberdinen iritziak aintzat hartzen dira, eta, gero, epe ertainerako helburu estrategiko bihurtzen dira.

Horretarako, gizarte-entzuketako ikuspegia **bi fase nagusitan** egituratzen da, gutxienez:

a) Lehenengo fasean eztabaidatu egiten da; hau da, prozesu parte-hartzailean konfiantza lortu nahi da, zilegitasuna, prozesuan esku hartzen duten gizarte-eragileek elkar aitortzea. Helburu nagusia, hain zuzen, komunitateak eta gizarte-eragileek esku-hartzeko eremu zehatz batean (esaterako, tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza) dituzten eskaerak azaltzea da.

b) Bigarren fasean, aldiz, erabakiak hartzen dira, helburu eta jarduketa zehatzak diseinatu.

Gizarte-entzuketaren ikuspegiaren bitartez, elkarteek, gizarte-erakundeek, administrazioek eta beste eragileek zenbait gairi buruz dituzten iritziak eta eskaerak bildu ditzake udalerrri batek, besteak beste, komunitateko kide desberdinekiko dauden aurreiritziei buruzkoak edo arraza- edo etnia-jatorri desberdina duten komunitateko kideen arteko harremanei dagokienez izan edo sor daitezkeen gatazkei buruzkoak.

III.3. SENTSIBILIZAZIORAKO TOKI PLAN BATEN PRINTZIO GIDARIAK.

Gida honetako proposamen metodologikoak sentsibilizazioaren honako definizio hau du oinarri: **jarduketa-estrategia planifikatua**. Beraz, estrategia bat denez, oinarrizko printzipio batzuk onartu behar ditu sentsibilizaziorako neurriak hartzeko edota jarduketak, programak edo planak egiteko.

Gidaren ondorioetarako, Sentsibilizaziorako Toki Plan bat egiteko prozesuan printzipio gidarien bi mota bereiztea proposatu dugu:

- a) Planaren bidez herritar guztiei helarazi nahi zaizkien **oinarriak, balioak eta jarrerak** onartzearekin lotuta daudenak.
- b) **Metodologikoak** diren printzipioak eta Planaren fase desberdinak garatzeko tekniken definizioan eragingo dutenak.

a) Oinarrizko printzipioen proposamena.

Oso desberdinak diren eremuetan (esaterako, gazteria, emakumea, berdintasuna...) hainbat jarduketa-plan egitean, ezinbestekoa da horien esparru estrategikoan ekintza-proposamena gidatzen duten balioak eta printzipioak definitzea.

“Askotariko gizartea” kapituluan adierazi bezala, migratzaileen eta gutxiengo etnikoen gizarte- eta kultura-integrazioarekin lotutako toki-planen garapenak bultzada handia jaso du azken urteetan, bai Estatuan —“2007-2010 Herritartasunaren eta Integrazioaren Plan Estrategikoa”ren bidez—, bai autonomia-erkidegoetan, eta baita toki-erakundeetan ere. Azken horiek, bestek beste, Immigrazioaren eta Emigrazioaren Estatu Idazkaritzaren “Etorकिन harrerari eta integratioari laguntzeko nahiz horien hezkuntza-errefortzurako funtsa”ri esker sustatu dira.

Gomendio metodologikoa. Instituzioen arteko koordinazioa eta bateratasuna oinarri hartuta, Sentsibilizaziorako Toki Planak garatzeko egokia litzateke, gutxienez, estatuko eta norberaren autonomia-erkidegoko nahiz, abiapuntutzat, erreferentziazkoak izan daitezkeen autonomia-erkidegoetako planetan dauden printzipioak berrikustea.

Proposamen hau egiteko, Herritartasun eta Gizarteratze Plan Estrategikoa (HGPE)²⁰ eta autonomia-erkidego desberdinetako immigrazio-planak hartu dira

²⁰ Herritartasun eta Integrazio Plan Estrategikoa (2007-2010), Madril. Lan eta Inmigratio Ministerioa

kontuan. Gero, plan horiek kontsultatu ostean, printzipioak egokitu dira, Sentsibilizaziorako Toki Planen diseinua eta prestaketa bideratu ahal izan dezaten.

1. Berdintasun-printzipioa. Funtsean, bi faktoreri egiten die erreferentzia testuinguru honetan:

- Tratu-berdintasunari eta hainbat ezaugarri direla-eta egiten den diskriminaziora, besteak beste: arraza- edo etnia-jatorria, nazionalitatea, sexua, ezintasuna, adina, sexu-joera edo beste edozein motibo.
- Aukera-berdintasunari, gizarte inklusibo baten bermetzat.

Horren ondorioz, berdintasun-printzipioak lotura estua du gizarte kohesionatu bat eraikitzearekin; hau da, gizartearen ideia bera garatuko duena eta bertan sortzen diren gatazkak modu erregularrean eta baketsuan konpontzeko gai dena.

2. Herritartasun-printzipioa. Berdintasun-printzipioan adierazitako helburua —hau da, gizarte kohesionatu bat sortzea, bizikidetzak baketsua izango dena— ezin da bete, baldin eta ez bada herritarrek dituzten eskubideak, zereginak eta betebeharrak aitortzen eta berdintzen diren testuinguru batean sartzen.

Herritarren eskubideetan eta betebeharretan aurrera egitearen helburu nagusia da lurralde- eta gizarte-testuinguru batean elkarrekin bizi diren pertsona guztien kidesun-sentimendua sustatzea.

3. Parte-hartzearen printzipioa. Parte-hartzearen printzipioa oso lotuta dago herritartasun-kontzeptuaren garapenearekin; hau da, gai publikoen kudeaketan nahiz espazio sozialen egokitzapenean parte hartzeko bideak ezartzearekin. Nolanahi ere, proposamen metodologiko honen ondorioetarako, bereizi egin dugu, metodologian parte-hartzeari nahiz erantzukizun partekatuari eman zaien garrantzia dela-eta.

4. Kulturartekotasun-printzipioa. HGPIren arabera, "kultura-dibertsitatea Espainiako eta Europako pluralismoari atxikitako balioetako eta aberastasunetako bat da". Abiapuntua, beraz, egungo gizarteetan dagoen gizarte- eta kultura-pluraltasunaren onarpena da; horietan, hain

zuzen, bertako kide guztien arteko elkarreragin positiboa bultzatu nahi da.

Horrenbestez, kulturartekotasun-printzipioak dibertsitatearen eta aniztasunaren aitortza du oinarri; bere xedea, hain zuzen, komunikazioa, elkarrizketa eta erlazioa garatzea da, lurralde- eta gizarte-testuinguru berean bizi diren askotariko pertsonen eta taldeen artean.

b) Printzipio metodologikoen proposamena.

Sentsibilizaziorako Toki Planak eginez eta garatuz bultzatu nahi diren balio eta jarrerekin lotura duten printzipio nagusiez gain, beste printzipio batzuk sar daitezke; horiek, hain zuzen, ez dute zerikusirik balioekin, baizik eta printzipio metodologikoen ezarpenarekin daude lotuta.

Hurrengo lerroetan zenbait printzipio metodologiko aipatu dira, Sentsibilizaziorako Toki Plan bat egiteko prozesua bidera dezaketenak:

- 1. Esku hartu nahi den errealitateari buruzko ezagutza.** Jarduketa-proposamen bakar bat ere ez da hasi behar, baldin eta ez bada esku hartu nahi den gizarte-egoera horri buruzko ezagutza zabala; hau da, egoera horren jatorria, tartean dauden gizarte-eragileak eta egoera horretan esku hartzeko alternatiben zehaztapena aztertzeko eta ulertzeko aukera ematen duen informazioa izan behar da.
- 2. Sentsibilizazioa epe luzerako aldaketa-prozesutzat.** Gida honen abiapuntua sentsibilizazioaren definizio bat da, esku hartzeko epe luzerako estrategia planifikatutzat hartzen duena, hain zuzen; izan ere, jarrerak, balioak eta sentimenduak, besteak beste, ez dira berehalako aldaketarako faktore sinpleak.
- 3. Modu integralean esku hartu nahi den egoera lantzen duten ekintzak.** Ekintzen integraltasuna da elementu garrantzitsuenetako bat Sentsibilizaziorako Toki Plan bat egiten hastean. Izan ere, gizarte-gertaerak dimentsio askotakoak dira, eta, beraz, beharrezkoa da horien dimentsio desberdinetan jardutea, baldin eta gizarte-aldaketa nahiz gizarte-jarreraren eta -balioen eraldaketa sustatu edota horietan eragin nahi bada.
- 4. Ekintzen zeharkakotasuna.** Integraltasun-printzipioak lotura estua du zeharkakotasunarekin; beraz, gizarte-gertaeren dimentsio-aniztasuna aitortzean eta modu integralean jardutean, ezinbesteko dira toki-erakundeko sail desberdinen arteko nahiz gizarte-eragile desberdinen arteko elkarrizketa, koordinazioa eta lankidetzak, ahalik eta modurik eraginkorrenean esku hartu dezaten.


Noski, esku hartu daiteke integraltasun- eta zeharkakotasun-printzipiorik gabe, baina, dudarik gabe, jardute-eredu horrek asko murriztuko du gizarte-

aldaketarako dugun gaitasuna; beraz, nahitaezkoa da horren jakitun izatea. Beti ez da horrela izango, ordea; gehienetan, tokiko sail desberdinen artean, horien eta beste administrazioen artean nahiz horien eta gure lurralde-testuinguruko gizarte-ehunaren artean koordinazioa eta lankidetzaz sustatzeko eskainiko den denborak edo egingo den ahaleginak biderkatu egingo ditu planifikatutako helburuak.

5. **Toki-entitatearen baitakoa.** Komeni da toki-erakundearen eskumen-esparrua nahiz baliabideei edo konpromiso politikoei dagokiena kontuan hartzea, gure kontrol-eremutik kanpo dauden ekintzak edo helburuak ez agintzeko; esaterako, jarduera bikain bat diseinatzea, hori gauzatu ahal izateko ezinbesteko direnean kanpoko finantza-laguntza edo beste instituzio batzuen erabaki politikoa edo administratiboa.
6. **Genero-ikuspegia, gizarte-joera eta beste ikuspegi batzuk kontuan izan behar ditu.** Azkenik, kulturartekotasunaren bidez gizarte- eta kultura-pluralismoaren printzipioa aintzat hartuz, Sentsibilizaziorako Toki Planak diseinatzean eta egitean, halaber, kontuan izan behar ditugu genero-ikuspegia, sexu-joeraren ikuspegia...

Edo, bestela, nazioarteko lankidetzaren bidez garatzen dena:

ESPAINIAKO LANKIDETZAREN PLANGINTZA-ZIKLOA



Iturria: Programen eta proiektuen jarraipena egiteko eta horiek ebaluatzeko kontzeptu nagusiak. PREVAL / FIDA (Nekazaritza Garatzeko Nazioarteko Funtsa)

III.4.1 EGOERAREN DIAGNOSIA

Tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren Sentsibilizaziorako Toki Plan bat egiteko zer informazio orokor eta espezifikoa behar da? Nola lor dezakegu?

Diagnosi egoki batek nabarmen handitzen du gerora garatuko ditugun ekintzen eraginkortasuna, eta, horrenbestez, baita gure xedeek eta helburuek arrakasta izateko aukerak ere.

Egokia kontzeptuaren bidez, azpimarratu nahi dugu ez dela beharrezkoa errealitatea ezagutzeko zenbait ekintza gauzatzea, gure eremuaz haraindi daudenak eta gure giza ahalmenak nahiz eskura ditugun baliabideak gainditzen dituztenak, zehazki. Hau da, toki-entitatearen ezaugarrien arabera, informazio erabilgarria, fidagarria eta esanguratsua lortzea da, funtsean.

Beheko taulan, bi diagnosi-mailen ezaugarri nagusiak bildu ditugu:

DIAGNOSI-MOTA	ONARRIZKO ELEMENTUAK	ADIBIDEAK
Diagnosi orokorra	<ul style="list-style-type: none"> - Lurralde-azterketa - Biztanleria-azterketa - Baliabideak - Eskaerak: 	<ul style="list-style-type: none"> - Alderdi geografikoak (kokapena, klima, altitudea, garraio-sarea...) eta hirigintzakoak (lurralde-eremuak eta -zonak) - Datu soziodemografikoak; honako elementu hauen arabera banaketak: adina, sexua, nazionalitatea, barrutia, auzoa, biztanleria-mugikortasuna, hazkunde begetatiboa... - Pertsonak dira beti baliabide nagusia. - Komunitatearen eskarien azterketa parte-hartzailea.
Diagnosi espezifikoa	<ul style="list-style-type: none"> - Praktiken eta diskurtso sozialen azterketa - Jarrera eta gertaera diskriminatzaileen ezagutza - Tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren sentsibilizaziorako dagoeneko egiten ari diren jardueren ezagutza 	<ul style="list-style-type: none"> - Gizartean nagusi diren pertzepzioak, aurreiritziak eta estereotipoak. - Hautemandako bizikidetzaz arazoak, emakumeen taldeen eta beste gutxiengo batzuen arazo espezifikoa, askotariko diskriminaziozko egoerak... - Gai horri dagokionez tokian bizi izandako esperientzien azterketa, jarduerak bultzatu dituen administrazioa edo entitatea zeinahi izanda ere

Diagnosi-prozesu askotan, bi faktore lantzen dituzte, funtsean: jarduketa-lurraldea eta biztanleria. Dena den, komunitatearen baliabideak eta eskariak ez dira sartzen; hain zuzen, proposamen metodologiko honetan aholkatu dugu horiek politika publikoen plangintza-ekintzetan sartzea.

Azpimarratu behar da komunitate guztietako baliabiderik garrantzitsuena pertsonak direla: lurraldean bizi diren biztanleen gaitasunak. Parte-hartzearen ikuspegitik, beharrezkoa da biztanleriak gizarteko premiei eta eskariei aurre egiteko dituen gaitasunak balioan jartzea, eta, horrenbestez, baita plangintza estrategikoaren prozesuaren bidez ahalduntzea eta komunitatea sortzea ere. Beraz, Plana diseinatzeko eta egiteko prozesua bera esku hartzeko ekintzatzat hartu behar da.

Orientazio moduan, diagnosia garatzeko zenbait teknika azaldu dira ondorengo taulan; bertan, metodo kuantitatiboak eta kualitatiboak bereizi ditugu, aztertu nahi ditugun alderdi desberdinen arabera. Gaien eta tekniken zerrenda proposamen-multzo bat baino ez da; hau da, ez da guztiz zehatza, eta gai horiek guztiak ez dira testuinguru guztietan ezarri behar, ez eta, noski, teknika guztiak ere. Teknikak ezartzeari dagokionez, halaber egokia litzateke adieraztea ez dela azterketa zientifiko bat egitea; hau da, azterketa-tekniken ezarpena malgua da, betiere gure helburuak lortzeko informazio fidagarria eta erabilgarria ematen badigute.

Lan-proposamenak	Proposatutako teknikak
<p>Nolako da biztanleria nire jarduketa-testuinguruan? Zer banaketa-mota du adinaren, sexuaren eta beste ezaugarri batzuen arabera?</p> <p>Zer ezaugarri dituzte biztanleria ijitoak eta migratzaileak nire testuinguruan?</p> <p>Zer-nolako banaketa dute gutxiengo etnikoek herriko auzo edo barrutietan?</p> <p>Herrian zer ekonomia-sektoretan egiten dute lan gutxiengoek?</p> <p>Zer-nolako banaketa dute gutxiengoek herriko ikastetxeetan?</p>	<p>Gai horiek azterketa kuantitatiboen teknika desberdinak erabiliz landu daitezke; horiek, hain zuzen, bi motatakoak izan daitezke:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bigarren mailako iturriak. Kasu honetan, instituzio publikoen edo pribatuen datuak aztertzerako joko dugu; zehazki, instituzio garrantzitsuenen artean, honako hauek aipatuko ditugu: Estatistikako Institutu Nazionala edo toki-erakundeetako estatistika-departamentuak. - Lehen mailako iturriak. Nekezagoak dira, baina informazio zehatzagoa ematen digute esku hartu behar dugun egoerari buruz; funtsean, honako hauek dira: inkestak egitea edo talde zehatz edo mugatu batzuentzako teknika espezifikoak gauzatzea (esaterako, Delphi metodoa).
<p>Zein dira dibertsitateari eta migrazioari buruzko pertzepzio nagusiak nire gizarte-testuinguruan?</p> <p>Zein dira migratzaileekiko argumentu nagusiak?</p> <p>Herrian bizi diren migratzaileak edo ijitoak diskriminatuta sentitu al dira, zuzenean edo zeharka?</p> <p>Tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari dagokionez, biztanleriaren zati batek zer premia eta eskaera hauteman ditu bereziki?</p>	<p>Teknika kualitatiboek informazioa ematen digute, baina informazio hori ezin da estatistikoki erabili, landutako aldagaien eta proposatutako gaien jatorria dela-eta.</p> <p>Beraz, bereziki egokiak dira eremu bereziren bati buruzko gizarte-diskurtsoa aztertzeke edota gizarte-eraikuntzako balorazioak eta pertzepzioak aztertzeke.</p> <p>Askotarikoak izan daitezke; baina, batez ere, honako hauek azpimarra ditzakegu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Elkarrizketa sakonak. - Eztabaida-taldeak. - Parte-hartzaileen behaketa.

III.4.2 HELBURUAK ETA ESTRATEGIAK

Sentsibilizaziorako Toki Planaren diseinuko bigarren etapa xede hori lortzeko proposatu diren helburuak eta estrategiak definitzea da. Zein dira helburuen ezaugarri orokorrak Plan bat diseinatzean?

a) Lehenik eta behin, **koherenteak izatea**; hau da, Plana garatzean diagnosiarekin nahiz plangintza osoarekin lotuta egotea.

b) **Errealistak** izatea; hots, ditugun baliabide eta gaitasunei dagokienez egokiak izatea.

c) **Neurgarriak** izan behar dira, kuantitatiboki nahiz kualitatiboki; izan ere, horrela, jardueren jarraipena eta ebaluazioa egin ahal izango dugu, bai eta hasiera batean aurreikusitako helburuekiko izan den lorpenaren edo desbideratzearen jarraipena eta ebaluazioa egin ere.

d) Azkenik, denboran zehaztuta egon behar dute; hots, helburu bakoitzak bere **denborazkotasuna** izan behar du, horri esker plangintza egin eta, batez ere, plangintza hori denboraren arabera egokitu ahal izango baitugu.

Fase honetan, batez ere, honako hau egin behar dugu:

1. **Lehentasunak finkatu**, egoeraren diagnosiak ematen dizkigun datuak oinarri hartuta; hau da, diskurtso, jarduera edo eremu garrantzitsuenak zein diren zehaztu beharko dugu.

2. Planaren **xede diren taldeak zehaztu** behar ditugu: itu den taldea (biztanleria guztia) eta helburu diren taldeak (alor desberdinetako funtzionarioak, saltokiak, enpresak, herritarrak oro har, tokiko komunikabideak, udaleko segurtasun-indarrak, talde politikoak...).

3. Ikuspegi metodologikotik, Sentsibilizaziorako Toki Plana garatzeko egindako aukera **erantzukizun partekatua** bada, jarduketa-helburuen eta -estrategien diseinuan eta definizioan esku hartzen duten gizarte-eragile desberdinen parte-hartzeari eutsi behar zaio.

Helburuen tipologia labur bat zehaztu dezakegu, Sentsibilizaziorako Toki Plan bat egiteko toki-erakunde batek aplikatu dezakeena:

a) Lehenik eta behin, **gizarte-diskurtsoan eragin nahi duten helburuak**: taldeen edo pertsonen estereotipoak, aurreiritziak eta ikuspegi negatiboak, oro har herritarrenak eta, bereziki, taldeenak.

b) Bigarren, **diskriminaziorik ezaren alorrean eragin nahi duten helburuak**, diskriminaziozko jarduerak gutxitu nahi dituztenak: pertsonen arteko berdintasuna areagotzeko kontzientzia handiagoa, bizikidetzan gerta daitekeen diskriminaziozko tratua gutxitzea, eta zerbitzu publiko nahiz pribatuak eskuratzeko eta erabiltzeko aukera.

c) Eta azkenik, **herritarren parte-hartzea sustatu nahi duten helburuak**, erantzukizun partekatua hedatzea lortzeko nahiz taldeen eta pertsonen arteko harremanak sustatzeko; horrenbestez, dibertsitatean oinarritutako parte-hartzea izan beharko litzateke: foroak, mahaiak, lagun-taldeak, espazio publikoak, auzo-elkarteak, guraso-elkarteak... Azken batean, dibertsitatean bizitzea da helburua, ez hainbeste beren premiak aldarrikatzeko elkartzen diren talde zehatz batzuk izatea.

Helburu orokorrak dituzten hiru talde handi horiek oinarri hartuta, toki-erakunde bakoitzak helburu zehatzak definitu beharko ditu, aurrez egin den diagnosiaren eta finkatu diren lehentasunen arabera.

Esaterako, udalerrri batek honako gai hauetan oinarritu dezake bere jarduketa: tokiko enplegu-plana eta udalerrian bizi diren etorkinek derrigorrezko eskolatzearaldia aldeztu aurretik uzteko duten joera.

III.5. ESKU HARTZEKO EREMUAK

III.5.1 SARRERA.

Gida metodologikoaren atal honen xedea diskriminazioaren aurkako borrokan sentsibilizatzeko plan baten ildo nagusiak azaltzea da, toki-erakundeek beren jarduerak diseinatzean eta proposatzean oinarritzat hartu ahal izango dutena. Nolanahi ere, asmoa ez da erreferentziako testu bat eratzea, itxia, estatikoa; hau da, abiapuntu bat ezarri nahi da, helburu batzuk lantzeko zenbait ideia eman, baina etorkizunean sor daitezkeen eranskinei, aldaketei eta aholkuei irekia dena. Hori, hain zuzen, funtsezkoa da gizartearen eta bertan bizi direnen izaera mutakorra eta aldakorra kontuan hartuta.

Atal honetan proposatu den esku hartzeko eremu bakoitzean honako hauek zehaztu dira:

- Eremu zehatz horretan esku hartzeko premia justifikatzen duen sarrera txiki bat.
- Jarduera-ildoaren proposamen bat.
- Ekintzen errepertorio bat, eredu gisa (horiek ezartzeko behar diren baliabideak barne).

Bestalde, beheko lerroetan eremu zehatz batzuk aholkatu diren arren, toki-erakunde bakoitzak balioetsi beharko du zein eremu lehenetsi nahi edo behar dituen; horrez gain, atal honetan aztertu ez diren beste eremu batzuk sartu edo ez erabaki beharko du, esaterako: herritarren segurtasuna, hirigintza, gazteria, emakumea...

Atal hau prestatzeko, esku-hartzeko eremu hauek identifikatu dira:

- Eremu soziolaborala: enplegua eta lan-prestakuntza.
- Etxebizitza eta ostatua.
- Arreta juridikoa.
- Gizarte-hezkuntzako eremua.
- Kultura, parte-hartzea eta aisia.

Halaber, komunikazioaren eta gizarte-sentsibilizazioaren alorrean jardutea proposatu da, zeharka nahiz eremu espezifiko batean gara daitezkeen ekintza-multzo baten bitartez.

Horien irizpide gidaritzat honako hauek hartu dira:

- Toki-erakundeek eremu bakoitzean esku hartzeko duten ahalmena, dituzten eskumenen eta esperientziaren arabera.
- Eremu bakoitzean proposatutako esku-hartzearen ezaugarri pedagogikoa: sentsibilizazioaren oinarrizko printzipiotzat proposatutako jarduera orok funtzio pedagogiko argia izan behar du; hau da, jarduketa bakoitzak esku-hartze zuzenaren helburuak betetzea ahalbidetu behar du, baina, aldi berean, baliagarria izan behar du herritar guztien prebentziorako eta/edo ikaskuntzarako.
- Zeharkakotasuna. Horrenbestez, eremu bakoitza ez da atal finkotzat hartu behar, bere enuntziatua eta edukia direla-eta gainerakoetatik bananduta dagoen ataltzat; izan ere, jarduketa ugari hainbat eremutan baliagarri izango dira. Hala izan ezean, eremu horien helburuak ez dira osorik lortuko.
- Ikuspegi bikoitza. Bi jarduera-mota handi sartzen dira, xede dituzten eragileen eta udalak horiekiko duen “kontrol-mailaren” arabera; batetik, udalaren zuzeneko ardura diren zerbitzu publikoak, eta, bestetik, biztanleria, oro har, edo gizarte-taldeak (osasun-alorreko profesionalak, hezkuntzakoak, komunikabideak, gizarte-eragileak...).

III.5.2 JARDUKETA-EREMUAK ETA ESKU HARTZEKO PROPOSAMENAK.

1. Soziolaborala: enplegua eta lan-prestakuntza.

Lan-munduan txertatzea oinarrizkoa da pertsonen integrazioarako; baieztatu dezakegu integrazio-maila zehaztu eta baldintzatuko duen funtsezko elementu bihurtzen dela. Beraz, adi egon behar dugu, desberdintasunak edo etorkinekiko nahiz gutxiengo etnikoekiko (esaterako, ijitoak) diskriminazioa susta dezaketen hainbat faktore agertzeari dagokionez; desberdintasun eta diskriminaziozko jarrera horien agerpena, gainera, areagotu egiten da emakumeengan. Hori dela-eta, biztanleria etorkina eta ijito-etniako biztanleria lan-merkatuan sartzea errazteko nahiz bertako lan-baldintzak hobetzeko jarduerak badute beste xede bat, bi talde horiek gizartean hobeto integratzea.

Horrenbestez, jarduera-ildoan honako proposamen hauek egin dira:

- Kultura-talde desberdinek (etorkinak, gutxiengo etnikoak...) udaleko hainbat zerbitzu berdintasun-baldintzetan eskuratzeko aukera izan dezaten sustatzea.
- Biztanleria etorkinak nahiz ijitoak lan-merkatuan baldintza berdinetan sartzeko aukera izan dezaten lan egitea; bereziki, emakumeei dagokienez, genero-baldintza dela-eta, diskriminazio bikoitza jasaten baitute.

- Udal-langileei (arduradun politikoak eta teknikariak) kultura-dibertsitateari eta kultura-dibertsitatearen kudeaketari buruzko prestakuntza ematea eta alor horretan sentsibilizatzea.

Ekintza-multzoa²¹

- Kontratazioei buruzko udal-ordenantzak berrikustea, eta horietan tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak ezartzea.
- Lehiaketa publikoen deialdietan klausula bereziak sartzea, lehiaketa horren xede den zerbitzua emateko etorkinen eta ijitoen ehuneko zehatz bat kontratatzea sustatzen dutenak.
- Prestakuntza-jarduerak ematea, biztanleria ijitoaren eta etorkinaren lanbide-prestakuntza optimizatu, horien eskumenak identifikatu eta gizarte- nahiz lan-integrazioa erraztuko dietenak.
- Emakume etorkin eta ijitoentzako prestakuntza-ekintzak gauzatzea, lan-merkatuan aukera-berdintasuneko egoeran sartzeko dituzten aukerak hobetuko dizkietenak.
- Enpresarietzako aholkularitza- eta informazio-zerbitzuak sortzea, horiek sentsibilizatzeko eta, horrela, ijito-etniako pertsonak eta biztanleria etorkina kontratatzea bultzatzeko.

2. Etxebizitza eta ostatua.

Baldintza berdinetan etxebizitza duin bat izatea pertsona guztien eskubidea da; dena den, askotan frogatu ahal izan da gutxieneko bizi-baldintzak ez izateak gizarte-bazterketako arazo handiak sortzen dituela. Hori dela-eta, lehenetsuna dute pertsona orok etxebizitza bat baldintza berdinetan izatea bermatzen duten ekintzak.

Besteak beste, honako jarduera-ildo hauek proposatu dira:

- Etxe-jabeak eta, oro har, herritarrak sentsibilizatzea, ijito-etniako pertsonen eta biztanleria etorkinari etxebizitzak alokatzean diskriminaziorik ez izatea bermatzeko.

Ekintza-multzoa:

- Errentatzaileen eta errentarien arteko bitartekaritza-zerbitzua.
- Etxe bat eskuratzeari buruzko informazio-zerbitzua ijito-etniako biztanleentzat eta biztanleria etorkinarentzat; zerbitzu hori gizarte-

²¹ Ekintza horiek guztiak abian jartzeko, entitateak baliabide propioak ditu, horiek gauzatzeko aukera ematen diotenak: zerbitzu juridikoak, enplegu-orientaziorako zerbitzuak...

zerbitzuen bitartez eman daiteke, edo, bestela, halakorik bada, zerbitzu espezifikoaren bidez: herritarrentzako laguntza juridikoaren zerbitzuak, Immigrazio-bulegoa, Kulturarteko Bitartekaritza Zerbitzua edo beste batzuk.

- Herritar guztientzako sentsibilizazio-kanpainak, etxea eskuratzeari dagokionez tolerantzia eta tratu-berdintasuna sustatzeko

3. Arreta juridikoa.

Azken batean, etorkinek eta ijito-etniako pertsonak indarreko legedian agertzen den eskubidea gauzatzeko duten aukera bermatzen du, bai eta informazio-sistemak eta lege-aholkularitza eskura izateko aukera ere; horretarako, beharrezkotzat jo da honako jarduketak hauetan lan egitea:

- Esparru juridikoko profesionalak —bereziki, etorkinekin eta gutxiengo etnikoekin lan egin behar dutenak— sentsibilizatzea eta horiei prestakuntza ematea, honako gai hauetan: kulturartekotasuna, berdintasuna...
- Era guztietako delituen biktimei laguntza ematea, eta horien ikusgaitasunari dagokionez sentsibilizatzea.

Ekintza-multzoa²²:

- Arrazakeriaren aurkako borrokaren kanpaina orokorrak egitea, herritar guztientzat, oro har; horrela, gai horri buruzko legedia eta salaketa-bideak ezagutaraziko dira: materialak egin, publizitate-kanpainak sortu...
- Informaziorako, aholkularitzarako eta laguntza juridiko espezifikorako zerbitzuak sortzea eta horiei eustea; zehazki, diskriminazioaren aurkako borrokan espezializatuta daudenak.
- Hizkuntza-interpretazioa errazteko zerbitzuak sortzea eta horiei eustea, erabiliko den hizkuntza ofiziala ulertzen edo hitz egiten ez duten atzerriko pertsonentzat.

4. Gizarte-hezkuntzako eremua.

Atzeritik datozen etorkinen kopuruan izan den igoera handiak, halaber, eskola-adinean dagoen biztanleriaren hazkunde nabarmena ekarri du; biztanleria horrek, besteak beste, geografia- eta kultura-jatorrien dibertsitate handia eta gutxiengo etniko desberdinetakoak diren ikasleen presentzia ditu ezaugarri.

²² Ekintza horiek gauzatzeko, Udalak bere baliabide juridikoak izan ditzake; baina, horrez gain, alor horretan lan egiten duten erakundeek lankidetzak izan dezake.

Beraz, *eskolak*, bere funtzio sozializatzaileri esker, kulturarteko bizikidetzan, berdintasuna eta elkartasuna eraikitzeko espazio izan behar du; horregatik, espazio pribilegiatua da tratu-berdintasuna bermatuko duten hainbat sentsibilizazio-ekintza garatzeko.

Lehentasunezko helburu horiek lortzeko, honako jarduerak hauek proposatu dira:

- Ikasleak sentsibilizatzea kulturartekotasunak hezkuntza-komunitatean nahiz gizarte-testuinguruan dituen onurei dagokienez.
- Hezkuntza-zentroetako irakasleei kultura-dibertsitatearen alorreko prestakuntza ematea eta gai horretan sentsibilizatzea.

Ekintza-multzoa:

- Hezkuntza-zentroi laguntza ematea, kulturarteko bizikidetzan eta diskriminazioaren aurkako borrokan oinarritutako tailerrak eta jardunaldiak egin ditzaten. Horretarako, udalerrak baliabide materialak, giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak eman ditzake: sentsibilizaziorako teknikariak, gizarte-hezitzaileak, kulturarteko bitartekariak edo komunitate-dinamizatzaileak.
- Eskolaz kanpoko jarduerak garatzea, jatorri desberdineko ikasleek topo egiteko aukera ematen dutenak: kirol-jarduerak, jarduerak artistikoak edo akademikoak (era askotako lehiaketak, udako kanpamenduak, hiri-udalekuak, ikasleei laguntzeko programak, kirol-txapelketak, erakusketen antolaketa...). Kasu honetan, baliagarria izan daiteke diskriminazioaren aurkako borrokan nahiz kulturarteko bizikidetzaren alorrean lan egiten duten eta bereziki hezkuntza-zentroentzat diren sentsibilizazio-kanpainak diseinatzen dituzten erakunde desberdinen laguntza²³.
- Prestakuntzarako eta sentsibilizaziorako material-mota desberdinak idaztea eta argitaratzea, irakasle nahiz ikasleentzat. Hezkuntza-alorrean eskumena duen organoak ekintza hori garatzeko behar diren baliabideak eta esperientzia izan ditzake; era berean, sentsibilizazio-ekintzen garapenean esperientzia duten hainbat gizarte-erakunderekin lankidetzan aritza onuragarria izan daiteke.

5. Parte-hartze soziokulturala eta aisia.

²³ Alor horretan proiektu espezifikoak dituzten erakunde ugari daude Espainiako geografian zabaldua; kasu askotan, gainera, material espezifikoak dute edozein administrazioaren eskura.

Biztanleria etorkinak eta ijito-etniako biztanleriak gizarte- eta kultura-bizitzan parte hartzea gizarte edo kultura bateko kidetasun-sentimendua bultzatzen duen elementuetako bat da, eta oso lotuta dago herritartasuna eraikitzeko prozesuari. Horrenbestez, neurriak hartu behar dira, gizarte-, gizalege- eta kultura-gaietan aktiboki laguntzea erraztuko dutenak, betiere gainerako herritarrekiko berdintasun-baldintzetan.

Xede hori lortzeko, honako jarduera hauek proposatu dira, besteak beste:

- Topaketarako espazioak eta sozializazio-inguruneak sustatzea.
- Herritar guztiak aisialdiaz baldintza berdinetan goza dezaten sustatzea.

Ekintza-multzoa²⁴:

- Parte hartzeko modu desberdinei buruzko aholkularitza-zerbitzua — gizartekoak, aisialdikoak eta informaziokoak— eta laguntza asoziazionismo-alorrean.
- Kultura desberdinen elkartzea eta horien bizikidetzat bultzatzea xede duten kultura- eta kirol-jarduerak sustatzea.
- Herritarrak sentsibilizatzea, jarduera eta ekitaldi multikulturalen bitartez (Errefuxiatuaren Mundu Eguna...).
- Gutxiengo etnikoen eta udalerrian bizi diren atzerritarren berezko jaiak ospatzea, berez autoktonoak diren jaietz gain, ospakizun horietan herritar guztiak inplikatu asmoz.
- Udalerriko kultura- eta jai-programazioan kulturartekotasunaren ikuspegia sartzea.
- Udalerrri-mailan elkartzeko eta parte hartzeko espazioak sortzea, gizarte-ehunaren presentziarekin: etorkinen elkarteak, ijitoen elkarteak, auzo-elkarteak, kulturakoak...

Komunikazioaren eta gizarte-sentsibilizazioaren alorreko ekintzak, zeharkakoak eta espezifikoak.

Sentsibilizazioa *“kontzientzia kritikoa sustatu eta gizarte-mobilizazioa bultzatu nahian gai edo jarduera batzuk hedatzeko jardueratzat”* hartzen bada, ondoriozta daiteke funtsezkoa dela immigrazioa bezain fenomeno garrantzitsu bat behar bezala kudeatzeko gizarte-sentsibilizazioko plan egoki bat izatea; horrez gain,

²⁴ Alor honetan ere Udalak baliabide propioak ditu, ekintza horien arrakasta berma dezaketenak; dena den, aurrekoan bezala, funtsezko elementua izango da gizarte-ehunarekiko lankidetzatza.

kontuan izan behar da migrazio-gertakari horren pertzepzioak lotura duela hainbat informazio-gunetan horri ematen dioten trataerarekin.

Beraz, beharrezkoa da sentsibilizaziorako espazioak eta baliabideak sortzen nahiz sortutakoei eusten laguntzea, eragile desberdinak inplikatuz; horretarako, beraz, honako esku-hartze hauek gauzatzea proposatu da:

- Herritarrak oro har sentsibilizatzea.

Ekintza-multzoa:

- Talde desberdinei immigrazioaren eta kulturartekotasunaren alorrean prestakuntza ematea; dena den, arreta berezia eman ahal izango zaie komunikabideekin lotutako pertsoneri, herritarren arretarako profesionalei nahiz estatuko segurtasun-indarrei eta -taldeei (kasu honetan, funtsean, udaltzaingoari).
- Kulturarteko ikuskizunak eta jarduerak antolatzea.
- Arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka nahiz tratu- eta aukera-berdintasunaren alde sentsibilizazio-kanpainak abian jartzea, eremuen arabera: hezkuntza, osasuna, etxebizitza, enplegua, auzoa...
- Jardueren garapenean gizarte-ehuna, oro har, eta, bereziki, ijitoen eta etorkinen elkarteak inplikatzea.

Jarduera-eremu horiek proposatu eta gero, funtsezkoa da tratu-berdintasunaren esparruan sentsibilizatzeko politika bat zehazteko garrantzitsu izan daitezkeen zenbait gai zehaztea.

Lehenik eta behin, adierazi behar da sentsibilizaziorako plan bat egitea bera ekintza bat dela berez, diskriminazioaren aurkako eta tratu-berdintasunaren aldeko borrokan sentsibilizatzea xede duen politika publiko bat abian jartzea adierazten baitu.

Halaber, beharrezkoa da adieraztea toki-administrazioak funtzio garrantzitsua bete dezakeela eta bete behar duela arrazakeriaren aurkako borrokan sentsibilizatzeko lanaren koordinazioan, gizarte zibilarekin eta administrazio desberdinekin lan eginez.

III.6 APLIKAZIO-EREDUA ETA TRESNA METODOLOGIKOAK


Metodologia honen xedea leku zehatz batean esku hartzeko proposamen bat egitea da, biztanleria jakin batentzat eta helburu zehatzekin.

Pentsa dezagun toki-administrazio zehatz batean: neurri ertaineko udalerrri bat (80.000 biztanle), etorkinak biztanleria osoaren %15 ordezkatzeko dutena.

Metodologia parte-hartzaileen erabilera kontuan hartuta, hurrengo lerroetan zenbait jarraibide emango dira, landu nahi den zonaren azterketa sistematikoa egiteko; gero, azterketa hori oinarritzat hartuta, proiektu bat proposatu da, bere elementu guztiak argi eta garbi zehaztuta. Hona hemen, aipatutako jarraibideak:


1) Arazoen azterketa

Zonan dauden egoera negatibo (arazo) guztiak kausa eta efektuaren arteko loturaren bidez ordenatzea da; *Arazo Nagusia* hartzen da abiapuntutzat, eta, horren kausei buruz galdetuz, *Arazoen Zuhatza* egiten da. Hurrengo lerroetan laburtu den ereduan, Arazo Nagusia “*etorkinen aurkako aurreiritziak eta estereotipoak ugaritzea*” da, eta hori horrela dela erabakitzen da, honako bi kausa hauek direla-eta: bata, “*uste da nabarmen ugaritu dela udalerrian bizi diren etorkinen kopurua*”, eta, bestea, “*pertzepzioa dago baliabide guztiak atzerritarrentzat direla*”. Bestalde, azken arazo horietako bakoitzak bere kausak ditu, eta, horrela, behin eta berriz errepikatzen da egoera.



2) Helburuen azterketa

Identifikatutako arazoak oinarri hartuta, desiraten diren eta eskuratu nahi diren helburuak zehazten dira; horretarako, arazo horietako bakoitza lortu nahi den egoera positibotzat hartzen da. Aurrez deskribatu den Arazoen Zuhatzari honako *Helburuen Zuhaitz* hau legokioke.



3) Estrategien azterketa

Ezarritako helburuak estrategia izeneko azpimultzotan bana daitezke, bakoitzak sektorearekiko duen kidetasunaren arabera zehaztuta; hau da, helburu-kopuru zehatz bat egongo da azpiegiturekin lotura duena, beste bat ekoizpenarekin, beste bat osasunarekin... Jarraitzen ari garen adibideari jarraiki, bi estrategia zehaztu daitezke: "informatzea" eta "sentsibilizatzea".

Azpimultzo horiek identifikatu eta gero, horietako bat aukeratuko da plangintza-taldeak berak zehaztutako irizpide desberdinen arabera; esaterako, estrategia bat edo beste bat aukeratzeko irizpide erabakigarria izan daiteke etorkizuneko proiektu hori gauzatu behar duen organismoaren espezializazioa. Horrez gain, honako irizpide hauek ere izan daitezke: emaitzak lortzeko ahalmena, ustez izango duen kostua, gauzapenerako aurreikusitako epea, zailtasun-maila... Jo dezagun gure adibidean "sentsibilizazioa" estrategia hautatzen dugula.

4) *Proiektuaren Plangintza Matrizea (PPM)*

PPMk egin nahi den proiektuko elementu guztiak biltzen ditu, eta egindako estrategien azterketa hartzen du abiapuntutzat. Matrize hori bi sarrerako taula da, eta lau zutabe eta lau lerro ditu, 96. orrialdean ikus daitekeen bezala.

Plangintza-taldeak eduki-zutabe hauen arabera egituratu du matrize hori, hurrenkera honetan, zehazki: 1) Esku hartzeko logika; 2) Hipotesia; 3) Adierazleak eta Egiatzapen-iturriak, aldi berean; eta 4) Baliabideak eta Kostuak.

4.1. Esku hartzeko logika

4.1.1. Lehenik eta behin, *Helburu Espezifikoa* (HE) zehazten da; helburu espezifikoa hori, hain zuzen, aurrez hautatutako strategiaren goiko mailetan ezarritako helburuen arabera da. Horiek aurkezteko, beti da ona biztanleria onuradunarentzat zuzeneko onura edo neur daitekeen onuraren bat iradokitzen duten moduan adieraztea. Esaterako, HE bat honela adierazi liteke: “Udaleko informazio-bulegoetara joan diren pertsonak iritziz aldatu dute baliabide-esleipenari dagokionez”. Aldiz, zeharkako onuratzat adierazteko modua honela litzateke: “udaleko informazio-bulegoetara joan diren pertsonak baliabide-esleipenari buruzko informazioa jaso dute”. Bigarren modu horretan, gerta daiteke iritziz sekula ez aldatzea (nahiz eta informazioa jaso), proiektua sortzeko ideia hasiera batean hori izanda ere.

Gainera, HEren edukiak iraunkortasunaren ideia izan behar du; hau da, ez da epe zehatz batean onuraren bat lortzea, baizik eta onura horrek bere horretan betiko jarraitzeko nahia adierazi behar du.

4.1.2. *Helburu Nagusia* (HN) HEren arabera ondorioztatzen da, eta horren emaitza izan behar du. Normalean, proiektu bakar baten bidez ezin da HN lortu, baizik eta neurriren batean lortzen soilik lagun dezake. HN ezartzeko, honako galdera hauek egin diezazkiokegu geure buruari: zer gertatuko da aurreiritziak eta estereotipoak gutxitzea lortzen badugu? Etorkizunean, epe ertainera, zer egoera izango dugu, baldin eta HE lortzen badugu?

4.1.3. Hirugarren, zehaztu den HE lortzeko behar diren *Emaitzak* diseinatzen dira; laburbilduz, HE lortzeko nahikoa diren gertaera nabarmenak edo agerikoak zehaztea da.

4.1.4. Amaitzeko, “Esku hartzeko logika” zutabearen baitan, zehaztutako hiru emaitza horietako bakoitza lortzeko egin behar diren jarduerak finkatuko dira; atal

honetan, komeni da imajinatzea emaitzak jada lortu direla, eta, horrenbestez, egin beharko ditugun jarduera guztien plangintza egiten hasi beharko da.

Oro har, jarduerak definitzean ez da oso xehetasun-maila altua izan behar, hori zehaztasun handiagoz finka baitezake proiektu-zuzendaritzak erantzukizun operatiboak esleituz.

Esku hartzeko logikari dagokionez, garrantzitsua da azpimarratzea plangintza-taldeak sakon egiaztatu behar dituela honako hauek:

- a) Planifikatutako jarduera guztiak zehaztutako emaitzak lortzeko beste dela.
- b) Azken horien eta Helburu Espezifikoen artean ezarritako kausaltasun-harremanak errealista dirudiela.
- c) Helburu Espezifikoa eskuratuz Helburu Nagusia lortzen lagunduko dugula pentsatzea sinesgarria dela.

Horrek adierazten digu proposatutako proiektuak duen koherentzia; gainera, oso garrantzitsua da proposatu den garapen-ekintza sendoa izan dadin eta ongi identifikatutako arazoari erantzun ahal izan diezaion.

4.2. Hipotesia

Hipotesiak proiektuaren kontrolaz harago dauden faktoreak dira, zehaztutako esku-hartzearen logika egiaztatzeko gertatu behar direnak.

Atal honetan, plangintza-taldeak ahalegina egin behar du etorkizunari aurre hartzeko eta, guztia aurreikusi bezala joan dadin, gertatu behar diren egoerak ikusteko; horretarako, oso garrantzitsua da beste proiektu batzuk gauzatuz hartutako esperientzia, bai eta planifikatzen ari diren proiektua gauzatuko den erkidegoaren ezagutza sakona ere.

Hipotesiak adierazteko prozedura bat dago, eta honako etapa hauetan antola daiteke:

4.2.1. Hipotesiak *ez du inolako zerikusirik izan behar proiektuaren kontrolarekin* (bestela, jarduera edo emaitzatzat sartuko litzateke Esku hartzeko logikaren atalean), eta, horrez gain, *proiektua garatzeko aldeko baldintzak izan behar ditu*.

4.2.2. Garrantzitsua al da hipotesia gertatzea proiektua garatzeko? Erantzuna baiezkoa izanez gero, hurrengo galderara pasako gara; aldiz, erantzuna ezezkoa bada, hipotesia baztertuko dugu.

4.2.3. Zer aukera dago hipotesia gertatzeko? Ia seguru, agian edo nekez.

4.2.4. Alda al daiteke proiektu-estrategia hipotesiak garrantzitsu izateari utz diezaion? Erantzuna baiezko bada, proiektu-estrategia aldatu beharko da; aldiz, ezezkoa bada, hobe da proiektua egiteko asmoa alde batera uztea.

Azpimarragarria da azken erantzun horretara iristean Esparru Logikoaren lkuspegiak proposatzen duen muturreko irteera; hobe da baliabideak ez arriskatzea, ez behintzat identifikatutako norabidean, oso litekeena baita gainditu ezineko oztopoak aurkitzea.

4.3. Adierazleak eta Egiaztapen-iturriak

Objektu eta emaitza bakoitzari dagokionez, komeni da *adierazle* batzuen bitartez nora iritsi nahi den zehaztea. Adierazle horiek, gainera, objektiboki egiaztagarriak izan beharko dira; hau da, hainbat behatzailek ondorio berdinak atera behar dituzte emaitzen eta helburuen betetze-mailari dagokionez.

Hori lortzeko, ezinbestekoa da aurrez modu narratiboan adierazitakoa zenbakien bidez azaltzea; beraz, *zein* produktu edo baldintzaren *zenbat* adierazi behar da, bai eta *zenbat denboran* ere. Gainera, beharrezkoa bada, adierazleak honako informazio hau ere bildu beharko du: neurketak *zein* talderi egiten dion erreferentzia eta talde hori *non* dagoen.

Ezaugarri horiek adierazteaz gain, ordea, adierazlea betetzen dela egiaztatzeko zer informazio-iturritan oinarritu behar den ere adierazi behar da; izan ere, halakorik egin ezean, bi behatzailek iturri desberdinetara jo dezakete, eta, horrenbestez, ondorio desberdinak atera ditzakete. Hain zuzen, hori saihestu nahi da.

Emaitzek eta helburuek neurketa-maila desberdinak onar ditzakete; aldiz, jarduerak, normalean, edo egiten dira edo ez dira egiten, ez dago erdi-biderik gauzatze-mailari dagokionez. Beraz, ez du zentzurik jarduera horietarako adierazleak ezartzeak; horien ordez, hain zuzen, proiektua gauzatzeko behar diren baliabideak eta kostuak adierazten dira.

	Esku hartzeko logika	Objetiboki egiazta daitezkeen adierazleak	Egiatzapen-iturriak	Hipotesiak
Helburu nagusia	Estereotipoak eta aurreiritziak gutxitzen dira.	Herritarren gehiengo zabalaren iritzi, immigrazioa ez da arazoa.	Inkesta (edo metodologiaren atalean ikusitako teknikaren bat).	
Helburu espezifikoak	Udaleko informazio-bulegoetara joan diren pertsonen aldatu egin dute baliabide-esleipenari buruz zuten iritzia.	Informazio-kanpainez jositako sei hilabeteren ondoren, udal-bulegoetara joan diren pertsonen %90ek badu baliabideak esleitzeko irizpideen berri.	Udaleko informazio-bulegoetako galdera-sortak.	
Emaitzak	E.1. Baliabide-eskaintza udalerriko bizilagunek dituzten premien arabera egokitzen da.	Bizilagunen eskaeren %80 betetzen da, gutxienez.	Baliabideei buruzko datuak: eskaera-kopurua/kontzesio-kopurua (bekak, laguntzak...).	Udalerrian behar beste baliabide dago.
	E.2. Herritarrentzako udaleko informazio-bulegoen sarea zabaldu da.	Proiektua hasi eta urtebetera, beste hiru bulego daude.	Zuzeneko behaketa.	Informazio-eskaera areagotu egingo da.
Jarduerak	<p>J.1.1. Udaleko informazio-bulegoetako langileentzako prestakuntza-ikastaro bat egitea.</p> <p>J.1.2. Baliabideak esleitzeari buruzko irizpide objektiboak, gardenak eta egiaztagarriak komunikabideetan zabaltzea.</p> <p>J. 1.3. Antzeko beste esperientzia batzuk aztertzea (herritarrentzako informazio-bulegoak).</p> <p>J.2.1. Bulegoentzako kokapen egokiena aurkitzea.</p> <p>J.2.2. Bulegoetako langile berriak kontratatzea eta prestatzea.</p>	<p>BALIABIDEAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Pertsonak/hilean • Dibalgaziozko liburuxkak • Kanpoko eragileen laguntza. • Lokalak 	<p>AURREIKUSITAKO KOSTUAK</p> <ul style="list-style-type: none"> · 3.600 · 1.500 · 3.000 · 15.000 	<ul style="list-style-type: none"> · Udal-agintaritzak proiektuaren aldekoak dira. · Bulegoak proiekturako zona estrategikoetan ezartzen dira.

4.4. Baliabideak eta kostuak

Dagokion zutabean identifikatutako jarduerari dagokienez, beharrezko diren baliabide guztiak ezarriko dira (giza baliabideak eta baliabide teknikoak, jarduera batekin edo, oro har, guztiekin lotura zuzena dutenak) jarduerak egiaz egin ahal izan ditzagun. Hurrengo zutabean, baliabide tekniko edo giza baliabide bakoitzaren diru-kostua zehaztu da.

5) Jardueren egutegia

Proiektuak izango duen iraupenari buruzko ideia zehatza izateko, beharrezkoa da Proiektuaren Plangintza Matrizean (PPM) jasotako jarduera bakoitza egiteko ustez beharko dugun denbora zehaztea. Esparru Logikoaren Ikuspegiak (ELI) jardueren egutegia baliatzea proposatu du, horiek banatzeko; zehazki, plangintza-taldearen arabera hori egitea beharrezkoa den arte. Esaterako, lan-egutegia astebeteko, hilabeteko eta hiru hilabeteko aldiak baliatuz zehaztu daiteke, betiere proiektuaren premien eta planifikatutako jardueren jatorriaren arabera.

III.7 PLANAREN EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA

a) Proiektuaren jarraipenari eta ebaluazioari buruzko zenbait gogoeta orokor.

Sentsibilizazioa epe luzerako plangintzan oinarritutako prozesutzat duen definizioa hartu dugu abiapuntu; beraz, hori kontuan hartuta eta, horrez gain, sentsibilizazioaren helburu nagusia diskurtso, iritzi eta jarreretan eragitea dela iritzita, baieztatu dezakegu Sentsibilizaziorako Toki Planaren jarraipena eta ebaluazioa planaren faserik garrantzitsuenetako bat dela, esku hartu behar dugun testuinguruan gertatutako gizarte-aldaketak neurtzeko duen konplexutasuna eta zailtasuna direla-eta. Beste gai batzuen artean, beti galdetu ahal izango diogu geure buruari aldaketa gure esku-hartzearen ondorio izan den edo kanpoko beste faktore batzuek eragin duten.

Gai horretan sakontzen saiatzeko, garrantzitsua da Planaren ebaluazio- eta jarraipen-fasea hasierako diagnosian bertan aurreikusitako ekintzen artean egotea; hala izan ezean, arriskua izango dugu aukeratutako metodoak eta adierazleak plangintza osoarekin koherentziarik ez izateko. Horrenbestez, honako hau da lehenengo aholkua: jarraipena eta ebaluazioa ez dira garatu beharreko *azken neurriak*; gehienez ere, esan dezakegu Planaren azken fasea dela, baina horren baitan sartuta egon beharko du hasiera-hasieratik.

Helburuekin egin dugun modu berean, ebaluazioaren zenbait ezaugarri orokor adieraz ditzakegu²⁵:

a) **Parte-hartzailea.** Sentsibilizaziorako Toki Planaren diseinu metodologikoa erantzukizun partekatuan oinarritu bada, gertaera horrek eragina izan behar du jarraipenaren eta ebaluazioaren diseinuan: bertan, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren alorreko ekintzetan esku hartzen duten gizarte-eragileek parte hartzeaz gain, garatutako jarduera desberdinen hartzaileak ere aintzat hartu behar dira.

b) **Prestakuntzako.** Hau da, jarraipenaren eta ebaluazioaren bidez, beharrezko diren zuzenketak sartzeko aukera izan behar dugu.

²⁵ Cachón, L. (2005):- "Inmigración y sensibilización". Etorकिन Plan Estrategikoari buruzko hausnarketa-jardunaldiak. Inmigrazioari, parte-hartzeari eta sentsibilizazioari buruzko mintegia. San Lorenzo del Escorial. Madril.

c) **Baloratzalea.** Jarraipen- eta balorazio-neurriek prozesuaren hainbat alderdi baloratzeko aukera eman behar dute; era berean, baliagarriak izan behar dute jarduketak eta helburuak berriro zehaztu asmoz aholku egokiak emateko.

d) **Integrala.** Ebaluazioak honako hauen arteko erlazioak aztertu behar ditu, besteak beste:

- Hautemandako premien nahiz diagnostikatutako arazoaren eta helburuen artekoak.
- Helburuen eta helburu horiek lortzeko proposatutako estrategien artekoak.
- Helburuen eta emaitzen artekoak.
- Erabilitako baliabideen eta lortutako emaitzen artekoak.

Hiru adierazle-mota bereiz ditzakegu; horiek, hain zuzen, gure jarduketa etengabe ebaluatzeko aukera emango digute.

1. **Prozesuaren adierazleak.** Planaren gauzapena nola garatu den baloratzen dute (antolakuntza, arazoak, premiak, konponbideak...).

2. **Emaitzen adierazleak.** Plana garatuz proposatutako helburuak eta xedeak zein neurritan lortzen diren baloratzen du, planifikatutako hainbat jarduketan emaitza zehatzak neurtuz.

3. **Eraginaren adierazleak.** Planaren emaitzek gizartean zer-nolako eragina duten baloratzen dute. Horrenbestez, hasierako diagnosiarekiko aldaketarik gertatu den ala ez adieraziko digute, bai eta aldaketen ezaugarriei buruzko informazioa eman edota eragin handiena zein biztanleria-sektoretan izan duten azaldu ere.

b) Jarraipenaren eta ebaluazioaren ikuspegi parte-hartzaileak.

Ikuspegi parte-hartzaileak gordian daude azken urteetan, oro har programen ebaluazioan eta, bereziki, zenbait sektoretan, besteak beste: garapenerako lankidetzaren politikak eta nazioarteko laguntza. Parte-hartzaileak direla esaten denean, oro har adierazi nahi da arreta berezia jartzen dela komunitateko gizarte-eragileek ebaluazio-prozesuetan duten parte-hartzean.

Honako hauek dira ikuspegi parte-hartzaile horietako batzuk:

- **Laugarren belaunaldiko ebaluazioa.** Ikuspegi alternatiboa da epistemologiaren eta metodologiaren ikuspegitik. Paradigma alternatibo naturalista abiaburutzat hartuta, ebaluazio-ikuspegi bat proposatzen dute, hainbat eragile kritikoren parte-hartzea teorikoki oinarritzen duena. Horren garrantzia eta eragina ukaezina da; batez ere, ikuspegi horien justifikazio ontologikoari eta epistemologikoari dagokienez.
- **Ahalduntzeko ebaluazioari esker,** esperientzia parte-hartzaile ugari eragin eta sortu dira ebaluazioan. Arrakasta eta eragin handia izan du; besteak beste, *empowerment* kontzeptua beste eremu batzuetan lortzen ari den garrantzia dela-eta (esaterako, genero-berdintasunerako politikak garatzeari dagokionez).
- **Ebaluazio pluralista,** gizarte-eragileetan oinarritua. Ikuspegi honek eragin berezia du politiken esparruan eta kudeaketa publikoan; gainera, beharrezkotzat jotzen du gizarte-eragileek politika publiko baten inguruan parte hartzea.

Ikuspegi parte-hartzaile desberdin horiek izan arren, ebaluazio-metodologia parte-hartzaile bat diseinatzeko eta egiteko Jarraipen eta Ebaluazio Parte-hartzailea (JEP) izeneko proposamenean sakontzea erabaki dugu; hain zuzen, hurrengo lerroetan azalduko dugu proposamen hori, xehetasun osoz.

Jarraipen eta Ebaluazio Parte-hartzailea (JEP)

Jarraipena eta ebaluazioa egiteko metodo bat da, gizarte-erakundeen eta -instituzioen, administrazioaren eta tokiko biztanleriaren baterako parte-hartzean oinarritzen dena.

Jarraipena eta ebaluazioa oinarrizko bi funtzio dira politika publikoen kudeaketan eta plangintzan, horien eraginkortasuna eta helburuen lorpen-maila epaitzeko. Funtzio horiek kanpoko teknikariek bete izan dituzte oro har, ekintzak eta emaitzak neurtuz eta aurrez zehaztutako adierazleekin konparatuz, betiere estandarizatutako prozeduren arabera. Jarraipen eta Ebaluazio Parte-hartzailearen metodoa sistema tradizional horren alternatibatzat sortu zen; izan ere, **tokiko biztanleria, gizarte zibila eta kudeatzaile publikoak elkartu egiten dira, proiektu-aurrerapena nola neurtu behar den eta, ebaluazio-emaitzak oinarri hartuta, zer ekintza bete behar diren erabakitzeko.**

Gomendio metodologikoa: gizarte-kontsultaren ikuspegia atalean adierazi bezala, hori JEP metodologiaren osagarri bikaina da; izan ere, gizarte-eragile desberdinek osatutako taldeak izatea gizarte-kontsultaren abiapuntu da, eta talde horiei jarraipena eman dakieke plangintzaren beste faseetan ere.

JEP ikuspegiak gero eta interes handiagoa piztu du, biztanleriaren parte-hartzea aintzat hartuz (bakoitzaren ikuspegi eta helburuekin) errazagoa da leku horretan gertatzen denari buruzko ikuspegi erreal bat lortzea. Gainera, metodo horrek biztanleriaren ikaskuntzari, dituzten gaitasunen garapenari eta horien ahalduntzeari laguntzen dionez, helburuak bat datoz gizarte-kontsultaren ikuspegiarekin.

JEP metodoak hainbat berrikuntza ekarri ditu jarraipenerako eta ebaluaziorako ohiko metodoekin alderatuz; hala hauteman da, hain zuzen, erantsitako taulan. Ezaugarri bereizgarri horiek bere oinarritzko lau printzipio hauen ondorio dira:

- a) **Parte-hartzea:** prozesua diseinatzean nahiz datuak aztertzean biztanleria aintzat hartzea adierazten du, eta hori da, hain zuzen, ohiko sistemekiko desberdintasun nagusia.
- b) **Ikaskuntza,** praktikoa, batez ere; etengabe hobetzen joateko eta ekintzak zuzentzen jarraitzeko oinarritzat hartzen da.
- c) **Negoiazioa** esku hartzen duten eta gero eta ugariago diren pertsonen artean (biztanleria, gizarte-erakundeak eta -instituzioak, administrazioa...), honako zehaztapen hauek adosteko: zer objekturen jarraipena eta ebaluazioa egin behar den, datuak nola eta noiz bilduko diren, informazioak zer esanahi duen, emaitzak nola partekatu behar diren, eta, azkenik, zer ekintzari eman behar zaion hasiera.
- d) **Malgutasuna** prozesuan; ezaugarri hori funtsezkoa da onuradunengan (kopurua, funtzioa, ezagutzak) nahiz horien testuinguruan gertatzen diren aldaketetara egokitzeko.

Ohiko jarraipen- eta ebaluazio- metodoak

Jarraipen eta Ebaluazio Parte-hartzailea

Nork prestatzen eta kudeatzen du prozesua?	Administrazio-kudeatzaileak edo kanpoko eragile adituak.	Komunitateko kideak, tokiko biztanleriak, proiektuko langileak, eragileak.
Zer?	Aurrez zehaztutako arrakasta-adierazleak; batez ere, kostuak eta produkzioa.	Jendeak bere arrakasta-adierazleak identifikatzen ditu, eta horietan produkzio-erantzak ere sar ditzakete.
Nola?	“Objektibotasun zientifikoaren” ikuspegia; ebaluatzaileen urrutzea beste parte-hartzaileekiko; prozedura konplexuak eta uniformeak; emaitzen eskuragarritasun mugatua edo berantiarra.	Autoebaluazioa; toki-kulturara egokitutako metodo sinpleak; erantzak modu irekian eta berehalakoan konpartitzea, tokikoek ebaluazio-prozesuetan parte hartuz.
Noiz?	Jarraipena, zenbaitetan, proiektuaren erdian egiten da; ebaluazioa, berriz, amaitu eta gero egingo da normalean.	Ebaluazio txikiak eta ohikoak.
Zergatik?	Esperientziari esker ikasteko edota lortutako erantzak etorkizunean egingo diren beste prozesu batzuetan erabiltzeko. Kontuak emateko (batez ere, kontabilitatearekin lotura dutenak), finantziarioarekin jarraituko den zehazteko.	Tokiko biztanleria ahalduz; horri esker, neurri zuzentzaileak hasi, kontrolatu edota hartu ahal izango ditu.
Onuradunen funtzioa	Funtsean, informazioa ematea.	Metodologia diseinatzea eta egokitzea, datuak jasotzea eta aztertzea, lorpenak konpartitzea eta ekintzarekin lotzea.

JEP metodoak hainbat helburu dituen arren, honako hauek azpimarra daitezke:

a) *Plangintzaren eta horren ekintzen (proiektuen) eragina kalkulatzeko*; horrela, egiaztatu ahal izango da lorpenak identifikatutako helburuetara iritsi diren, horiek denbora pasa ahala garrantzitsu izaten jarraitzen duten edota ekintza-estrategia hoberenak erabili diren.

b) *Etorkizunerako jarduketan nahiz proiektuen plangintza eta kudeaketa hobetzea*, eta, aldi berean, helburu eta jarduketa berriak adierazteko izan behar den esperientziari buruz hausnartzea.

c) *Antolakuntzaren indartzea eta instituzioen ikaskuntza:* autoebaluazioari esker, pertsonen antolakuntza-gaitasuna handitzen da, eta horrek lagundu egiten du iraunkortasuna, erantzuteko gaitasuna eta garapen-ahaleginen eraginkortasuna sustatzen.

d) *Perspektiben egituraketa eta negoziazioa:* JEP metodoan ezinbestekoa da proiektuan esku hartzen duten sektore guztien (biztanleria, gizarte-erakundeak, administrazioa) lan bateratua; beraz, sektore bakoitzak bere premiak, interesak eta itxaropenak aurkezten ditu eta, horiek oinarri hartuta, estrategia eta ekintza bateratuak garatzen dituzte.

JEP metodoa erabiltzeko lau etapa daude:

a) *JEP prozesuaren plangintza:* funtsezkoa da arrakasta lortzeko, eta, gainera, esku hartzen duten hainbat eragileren arteko negoziazioa ezinbestekoa da, askotariko funtzio hauen inguruan: parte-hartzaileak identifikatzea; bakoitzak dituen itxaropenak nahiz bakoitzaren esku-hartzea eta erantzukizun-mota zehaztea; lehentasunak eta adierazleak definitzea; eta, azkenik, zehaztea zer informazio bilduko den, noiz eta zer metodo erabiliz.

b) *Informazio-bilketa:* parte hartzeko ikuspegi desberdinen teknikak erabiliz zer egin daitekeen zehaztea.

c) *Datuen azterketa bateratua egitea;* hau da, sektore guztien artean, tokiko biztanleria barne.

d) *Sortutako informazioa zabaltzea,* horretarako behar diren dokumentuak eginez; aurrez, ordea, emaitzak nork eta nola erabiliko dituen erabaki beharko da. Prozesua amaitzean, garrantzitsua da, halaber, prozesua berriro hastea egokia den edo, hala erabakiz gero, nola egin daitekeen eztabaidatzea.

Aurrez aipatu bezala, JEP prozesua gauzatzeko, hainbat ikuspegi parte-hartzailetan eskuragarri dauden tekniken eta metodoen aukera zabala erabili ohi da; horiek ebaluazioaren arabera egokitzen dira, proiektu bat edo zenbait jarduketa gauzatu aurreko eta ondoreneko egoerak alderatzeko.

Adierazleak funtsezkoak dira proiektuaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko, eta horiek kualitatiboak edo kuantitatiboak izan daitezke. Horiek aukeratzea zaila izan ohi da, batez ere JEP metodoan sektore edo pertsona askok parte hartzen dutenean. Izan ere, oreka bilatu behar da tokian-tokian garrantzi gehien duten faktoreen eta oro har garrantzitsu direnen artean. Gainera, aldaketa nabarmenez gain, hain agerikoak ez diren aldaketak ere aintzat hartu behar dituzte; bereziki, hainbat faktore helburutzat dituzten proiektuetan (pertsonaren edo gizartearen garapena, esaterako).

OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA. 3. KAPITULUA: SENTSIBILIZAZIORAKO TOKI PLANAK: PROPOSAMEN METODOLOGIKO BAT.

Cachón, L. (2005):- “Inmigración y sensibilización”. Etorकिन Plan Estrategikoari buruzko hausnarketa-jardunaldiak. Immigrazioari, parte-hartzeari eta sentsibilizazioari buruzko mintegia. San Lorenzo del Escorial. Madril.

Programen eta proiektuen jarraipena egiteko eta horiek ebaluatzeko kontzeptu nagusiak. PREVAL / FIDA (NEKAZARITZA GARATZEKO NAZIOARTEKO FUNTSA)

7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen Oinarriak Arautzen dituen.

Herritartasun eta Integrazio Plan Estrategikoa (2007-2010), Madril. Lan eta Inmigrazioko Ministerioa

4. kapitulua

Jardunbide eta
esperientzia
adierazgarriak.

JARDUNBIDE ETA ESPERIENZIA ADIERAZGARRIENAK SISTEMATIZATZEKO FITXA

Esperientziaren izenburua eta hari dagokion plana edo proiektua	Stepss proiektua (ingeleseko siglak dira, eta “polizia-erregistro eta -geldiarazteetarako estrategia eraginkorrak” esan nahi dute).
Udalerrria eta herrialdea	Girona (Katalunia) eta Fuenlabrada (Madril). Espainia
Lurralde-ezaugarrien deskribapena	Girona (Katalunia) eta Fuenlabradako (Madril) udalerriak.
Entitate bultzatzailea	Girona eta Fuenlabradako Udalak; Kataluniako Generalitatea eta Open Justice Initiative GKEa, eta Europar Batasunaren babesa.
Esperientziaren deskribapena: helburuak, nori zuzenduta dagoen, estrategiak, inplementatutako ekintzak, egutegia (iraupena, faseak, etab.)	<p>Stepss proiektuaren helburu nagusia da polizia-indarrek immigrante-komunitateekin eta etnia-gutxiengoekin dituzten harremanak hobetzea. Helburu hori lortzeko, polizia-jarduera ohikoenetako bati erreparatzen dio, hau da, poliziak kalean egiten dituen geldiarazte-jarduera eta erregistroei, horiek baitira poliziaren eta adierazitako kolektiboen arteko liskarra pizten duen arrazoi nabarmenetako bat.</p> <p>Stepss proiektuak polizia-indarrei eskatzen die modu sistematikoan aztertzeke ekintza horiek, jakiteko ea ekintza horiek delituak prebenitzeko estrategia eraginkorren baitan egiten diren ala, aitzitik, aurreiritziek eta jokabide diskriminatzaileek bultzatuta egiten ote diren sarritan.</p> <p>Azterketa-lan hori egiten bada, jendea kalean geldiarazteko eta miaketak egiteko prozedura arautuak finkatzen dira, herritarrei bermeak ematen dizkietenak, eta komunikazio-bideak irekitzen dira poliziaren eta ekintza horiek gehien jasotzen dituzten komunitateen artean. Horrez gain, prestakuntza-ekintzak egiten dira polizia-agenteentzat, immigrante-taldeen eta etnia-gutxiengoen ordezkariekin.</p> <p>Proiektua 2005ean hasi zen, eta, formalki, 2008ko azaroan amaitu zen, proiektua ebaluatzeke nazioarteko konferentzia egin zenean, Madrilgo Fuenlabrada hirian. Hala ere, Gironako eta Fuenlabradako udaltzaingoei erabaki dute aurrerantzean ere jarraitu egingo dutela Stepss proiektuarekin egiten hasi ziren azterketa eta prozedurak aplikatzen. Horrez gain, Kataluniako Mossoek adierazi dute orain artean Girona hirian egin</p>

	<p>dituzten jarduerak Katalunia osora zabaltzeko asmoa dutela.</p>
<p>Esperientzia zehaztu eta lantzeko inplikazioa ageri duten eragileak</p>	<p>Stepss proiektua programa europar bat da, Open Justice Initiative gobernuz kanpoko erakundeak bultzatua eta Europar Batasunaren finantziazioaz egina.</p> <p>Espanian, Gironako Udalean (hango udaltzaingoak eta Mossos d'Esquadra polizia-gorputzak batera parte hartu zuten) eta Fuenlabradako Udalean gauzatu da proiektua. Azken udalerrri horretan, soilik udaltzaingoak parte hartu zuen proiektuan. Hiri batean zein bestean, polizia-prestakuntzarako zentro ofizialen laguntza izan zuten, bai Kataluniako <i>École de Policía</i> zentroarena eta Madrilgo Erkidegoko tokiko polizien akademiarena. Horrez gain, hiri horietan, immigranteen elkarte handien laguntza izan zuten, proiektu horiek aurrera eramateko. Horien artean, nabarmentzekoak dira UNESCO-Catalunya eta Fuenlabradako komunitate islamikoa. Giza eskubideen aldeko gobernuz kanpoko zenbait erakundek ere parte hartu zuten; esaterako, SOS Racismo eta Amnesty International erakundeek.</p> <p>Erresuma Batuko bi polizia-indarrek, Londreseko metropoli-poliziak eta Leicester konderrikoak, gai honetan pilatu duten esperientziaren berri eman zuten; izan ere, polizia-estrategia ezegokiak erabiltzeagatik, gatazka-egoera ugariri aurre egin behar izan diete beren herrialdean.</p> <p>Polizia-indar horiez gain, Hungariako eta Bulgariako polizia nazionalak ere parte hartu zuten proiektuan.</p>
<p>Esperientziaren zeharkakotasuna</p>	<p>Esperientzia oso baliagarria izan da, batetik, zenbait oinarri finkatzeko poliziaren jardunaren eraginkortasuna aztertzeko, hiritarren eskubideak auzitan jartzen dituzten zenbait egoeratan (batik bat, etnia-kolektiboak eta immigranteei eragiten dietenak), eta, bestetik, bereziki, baliagarria izan da komunikazio-bide etengabeak sortzeko polizia publikoen eta kolektibo horien artean.</p> <p>Komunikazio-bide horiek erabiltzen dira, gaur egun, gizarte-egoera ahuleko kolektibo horien iritzia berri izateko, segurtasuneko toki-politikak lantzerako orduan.</p>
<p>Erabilitako baliabideak</p>	<p>Stepss proiektuaren baitan, proiektuko kideek bisitak egin zituzten proiektuan parte hartzen zuten polizia-gorputzei, eta, haren amaieran, proiektua ebaluatzeko nazioarteko konferentzia bat egin zen.</p> <p>Berriazko prestakuntza-ekintzak egin ziren Gironan eta Fuenlabradan, eta horietan parte hartu zuten immigranteen komunitateetako irakasleak eta polizia</p>

	<p>parte hartzaileetako ia agente operatibo gehienak (patruilatzen aritzen diren agenteak).</p> <p>Kartelak eta esku-orriak egin ziren bi udalerrietan, herritarrei jakinarazteko zer eskubide dituzten poliziak kalean geldiarazten edo miatzen dituztenean eta zer obligazio dituzten poliziek ekintza horietan. Horrez gain, euskarri horien bidez adierazi zitzairen herritarrei zer prozedura dituzten beren eskubideak baliarazteko, baldin eta eskubide horiek urratu bazaizkie poliziaren jardunean. Kartelak eta esku-orriak hizkuntza askotan atera ziren (gaztelania, katalana, errumaniera, arabiera, txinera, etab.).</p> <p>Horrekin batera, polizia-inprimaki berriak egin ziren, besteak beste, geldiarazte- eta miatze-ekintza bakoitza erregistratzeko, eta Poliziaren Prozedura Eskuliburua argitaratu zen, zehatz-mehatz adierazteko nola egin behar dituzten poliziek ekintza horiek.</p> <p>Azkenik, poliziak arlo horretan egiten dituen ekintzen azterketa xehea egin zen, eta, berariaz aztertu zein kolektiborengan eragiten duten gehien ekintza horiek eta poliziak zer eraginkortasun-erakutsak lortzen dituen. Horrez gain, behatzaile inpartzial batzuek kalean egindako kontrolak egin zituzten, egiaztatzeko ea betetzen ziren ala ez aurrez ezarritako protokoloak.</p>
<p>Erabilitako metodologia</p>	<p>Polizia-funtzionarioei prestakuntza ematea; immigrante-elkarteekin eta giza eskubideen aldekoekin harremanak lantzea; poliziak egindako identifikazioei buruzko datuak biltzea eta aztertzea; polizia-prozedurak hobetzea; hiritarrak sentsibilizatzeko ekintzak egitea.</p>
<p>Erakutsen balorazioa</p>	<p>Stepss proiektua egin bitartean, ekimenean parte hartu duten polizia-gorputzek gogoeta-prozesu bat egin dute, kalean jendea gelditzeko eta miatzeko jarraitu behar dituzten estrategien eta bete behar dituzten prozeduren inguruan. Gogoeta-prozesu horri jarraiki, gaiari buruzko prozedura oso aratuak finkatu dituzte, herritarrei orain artekoak baino berme handiagoak emateko. Halaber, beraien jarduna modu sistematikoan aztertzeko bitartekoak landu dituzte, ekintza-mota horiekin lortzen dituzten eraginkortasun-mailak baloratzeko (hautemandako arau-hausteak eta delituak).</p> <p>Fuenlabradan, esaterako, Stepss proiektua egin bitartean, nabarmen murriztu da poliziak kalean egin dituen geldiketak eta miaketak, eta, era berean, ekintza horien eraginkortasun-maila handia izan da.</p> <p>Azkenik, proiektuaren beste lorpenetako bat izan da nabarmen hobetzea parte hartu duten polizia-indarren</p>

	eta haien lurraldeko immigrante-komunitateen arteko harremanak.
Oharrak / komentarioak	Proiektua betetzen parte hartu duten polizia-agente guztiek adierazi dute proiektuak oso eragin ona izan duela beren lan-jardunean. Horrez gain, uste dute proiektuaren gabeziarik handiena izan dela beste polizia-organizazio batzuek proiektuan ez parte hartu izana.

JARDUNBIDE ETA ESPERIENZIA ADIERAZGARRIENAK SISTEMATIZATZEKO FITXA

Esperientziaren izenburua eta hari dagokion plana edo proiektua	<i>Hiria eta eskola. Balioetan heztea</i>
Udalerrria eta herrialdea	Sabadell- Bartzelona Espainia
Lurralde-ezaugarrien deskribapena	Bartzelona probintziako Valles eskualdearen mendebaldeko hiriburuetako bat da Sabadell. Bartzelonatik 25 kilometrora dago, gutxi gorabehera, eta 202.000 biztanle inguru ditu. Hiriak 7 barruti ditu, eta Lehen Hezkuntzako 59 ikastetxe eta Bigarren Hezkuntzako 29, 27.000 ikasle baino gehiago hartzen dituztenak.
Entitate bultzatzailea	Sabadell udalerriko hezkuntza-zinegotzigoak bultzatu du programa orokorra, Ciudad y Escuela izeneko kontseiluaren bidez. Hiriko hainbat udal-sail, enpresa, entitate eta eragile ekonomiko eta sozialek parte hartzen dute kontseilu horretan. Nueva Ciudadanía izeneko bulegoak sustatzen du balioetan oinarritutako hezkuntzaren atala.
Esperientziaren deskribapena: helburuak, nori zuzenduta dagoen, estrategiak, inplementatutako ekintzak, egutegia (iraupena, faseak, etab.)	Curriculum-programazioan laguntzeko programa bat da, Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako eta helduen eskoletako irakasle eta irakasleei zuzendua. Nueva Ciudadanía izeneko bulegoaren bidez, jarduera-multzo bat eskaintzen da, bizikidetzaren helburu dutela eta hainbat balio lantzeko; esaterako, errespetua, diferentziarako eskubidea eta eskuzabaltasuna. Lankidetzan dihardugu, hezkuntza-eskaintza ikasleen premietara egokituko dela bermatzeko, eta gizarte-kohesioaren eta bizikidetzaren alde egiteko.
Esperientzia zehaztu eta lantzeko inplikazioa ageri duten eragileak	Ciudad y Escuela kudeaketa-kontseiluaren bidez, honako hauek parte hartzen dute: hiriko hezkuntza-plangintzaren arduradunek, irakasleek eta entitate laguntzaileek (Proyecto Local izeneko entitatea, Akwaba fundazioa, Ibn Batuta elkarte soziokulturala, Unescocat, etab.).
	Udal-departamentu hauek parte hartzen dute Ciudad y Escuela kontseiluan: Osasun, iraunkortasun eta ingurumeneko departamentua, Lankidetzaren eta elkartasuneko departamentua, Hezkuntzako, Kiroletako, Kulturako (Museoak, Liburutegiak), etab.

	Jarduera propioekin parte hartzen dute horiek guztiek programa orokorrean.
Erabilitako baliabideak	Guztira, 15 jarduera eskaintzen ditu programak 2009-10 ikasturtean, eta jarduera horien hartzaile izan daitezke, gutxi gorabehera, 5.000 ikasle. Gobernuz kanpoko erakundeek, entitateek eta enpresa sozialek daramate jardueren zuzendaritza teknikoa eta beste jarduera batzuk administrazioek eskaintzen dituzte; esaterako, Bartzelonako diputazioak eta Valles mendebaldeko eskualde-kontseiluak.
Erabilitako metodologia	Eskaintako jardueren artean, aipatzekoak dira, besteak beste, partaidetza-lantegiak, taldeko eta gogoeta bidezko metodologiak erabiltzen dituztenak, interpretazio- eta antzezte-lantegiak, rol-playing ariketak, ikuskizunak, eta erakusketetarako bisita gidatuak.
Emaitzen balorazioa	Hamar urtetik gorako ibilbidea egin du, jada, Ciudad y Escuela programak. Nueva Ciudadanía bulegoa sortu zenetik, hazi egin da eskaintzaren kantitatea eta kalitatea, eta eskaintza horren helburua da hiriak, azken migrazio-mugimenduen ondorioz, bizi duen gizarte-errealitate berriari erantzutea. 2008-09 ikasturtean, 11 jarduera egin dira. Jarduera horiek 152 lantegi sorrarazi dituzte; hau da, hasierako eskaintzaren %72 inguru. Guztira, 4.000 erabilpen inguru egin dira.
Oharrak / komentarioak	

JARDUNBIDE ETA ESPERIENZIA ADIERAZGARRIENAK SISTEMATIZATZEKO FITXA

<p>Esperientziaren izenburua eta hari dagokion plana edo proiektua</p>	<p>Argazki-erakusketa ibiltaria</p> <p><i>Tan iguals, tan diferents</i></p> <p>("Hain berdinak, hain desberdinak")</p>
<p>Udalerrria eta herrialdea</p>	<p>Bartzelonako probintzia. Espainia</p>
<p>Lurralde-ezaugarrien deskribapena</p>	<p>Bartzelonako probintziako 311 udalerriek osatzen dute Bartzelonako diputazioaren jarduera-eremua, eta udalerrri horietan 5.416.447 pertsona bizi dira 2008ko urtarrilean. Pertsona horien lurralde-distribuzioa ez da uniforme. Izan ere, metropoli-eremuan biztanle ugari kontzentratzen da, eta udalerrri guztien %75ek, berriz, 10.000 biztanle baino gutxiago dituzte.</p> <p>Azken urteetan, migrazio-fluxuek eragin sozial eta demografiko handia izan dute; izan ere, 2001ean, 745.216 atzerritar zeuden errolatuta, eta 2008an, berriz, biztanleriaren %13,8 da atzerriko nazionalitatea duena.</p>
<p>Entitate bultzatzailea</p>	<p>Berdintasuneko eta herritartasuneko arloa</p> <p>Bartzelonako Diputazioa</p>
<p>Esperientziaren deskribapena: helburuak, nori zuzenduta dagoen, estrategiak, inplementatutako ekintzak, egutegia (iraupena, faseak, etab.)</p>	<p>Bizikidetzeta eta gizarte-kohesioa bultzatzeko jardueren baitan, <i>Tan iguals, tan diferents</i> ("Hain berdinak, hain desberdinak") erakusketa ibiltaria hartzeko aukera ematen die diputazioko Gazteria eta Herritartasuneko arloak udalerriei. Eskaintza horren helburua da beste kolektibo batzuetako pertsonak ezagutzen laguntzea eta herritarren sentsibilizazioa handitzea, migrazioaren errealitatearekiko.</p> <p>Helburuak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kultura-jatorri anitzeko pertsonen artean dauden diferentzia erlatibizatzea eta balio komunak azpimarratzea. Immigrazioarekin lotzen diren estereotipoak eta topikoak ezabatzea.

- Herritarrak sentsibilizatzeko tresna izatea, immigrazioari buruz hausnarketa egiteko elementu baliagarria izan dadin, eskolaren edo auzoaren errealtateari erreparatuta.
- Kultura-dibertsitatea gure gizartearentzat aberasgarria dela ikusaraztea.
- Immigranteak eta bertako jendea elkar ezagutu dadin sustatzea.

Hartzaileak

Herritar guztientzat egin da erakusketa.

Edukiak

Erakusketan, berrogeita bederatzi argazki erakusten dira. Argazkiekin batera, zenbait testuren bidez, argazkien ikusleei helarazi nahi zaie argazkietan ageri diren haurren pentsamenduak eta ilusioak. Haurrak Bartzelonako probintziako ikasleak dira.

Haur horiek guztiak beren familietako lehen katalan-belaunaldiko kide dira. Horietako batzuk Katalunian jaio dira, baina beste batzuk berriz, ibilaldi luze bat egin dute.

Haur horien azalpenen bidez, agerian uzten da Katalunian jaiotako haurrekiko dituzten aldeak, batik bat, itxurazkoak direla, eta ez alde errealak. Hala, antzeko alderdiak garrantzitsuagoak dira diferentziak baino.

Ezaugarri teknikoak

Erakusketak 49 argazki erakusten ditu, 50,50cm x 40,50cm neurrikoak eta marko batean sartuak.

Erakusketako erakuste-eremua, horman, 10,10 metro koadrokoa da.

Erakusketa udalei lagatzeko modalitateak

Hiru erakusketa-formatu eskaintzen dira, udalerrri eskatzaileen beharrei eta espazio-aukerei erreparatuta.

Jarduera osagarriak

- Erakusketaren katalogoa.
- *Berdintasun eta herritartasuneko katalogoa*. Katalogoak sentsibilizazio-jarduerak eskaintzen ditu, udalerrri eta hirietan gertatzen diren aldaketa kultural

	eta sozialekiko sentikortasuna handitzeko.
Esperientzia zehaztu eta lantzeko inplikazioa ageri duten eragileak	Berdintasuneko eta herritartasuneko arloa Bartzelonako Diputazioa.
Esperientziaren zeharkakotasuna	Herritarrekin sentsibilizazio-lana egitea da Bartzelonako diputazioak udal-programa guztietarako baliatzen duen zeharkako lan-ildo.
Erabilitako metodologia	<p>Erakusketaren formatuak astebetez, bi astez edo hiru astez hartzeko aukera ematen die Bartzelonako diputazioak bere lurralde-eremuko udalerriei.</p> <p>Erakusketa hartu nahi duten udalek eskaera-inprimaki bat bete behar dute eta Bartzelonako diputazioko Berdintasun eta herritartasuneko arloa bidali. Diputazioa udaleko erreferentziako pertsonarekin jarriko da harremanetan, lagapenaren egutegia eta gainerako xehetasunak adosteko.</p> <p>Ondoren, Berdintasuneko eta herritartasuneko arloak harremanetan jartzen ditu erakusketa hartuko duen udalerrria eta erakusketa garraiatu, instalatu eta desmuntatzeaz arduratzen den enpresa, eta lan horiek guztiak ikuskatzen ditu.</p>
Emaitzen balorazioa	<p>2009ko apirilaren 6tik eskaintzen zaie erakusketa udalerriei, eta, guztira, 6 ibilbide hitzartu dira 2009rako (2009ko iraileko datuak).</p> <p>Herritar guztiei zuzendutako sentsibilizazio-jarduera da erakusketa, baina bisitak ere antolatzen dira eskoletatik.</p> <p>Erakusketa beste kanpaina edo ekimen batzuen osagarri gisa hartzeko interesa azaldu dute udalek, eta, kasu horietan, handitu egiten da erakusketa ikustera joan daitekeen pertsonen kopurua.</p>
Oharrak / komentarioak	Bartzelonako diputazioak probintzia horretako udalerrien eskura jartzen du erakusketa ibiltaria, baina herritarrak dira ekintzaren azken onuradunak.

JARDUNBIDE ETA ESPERIENZIA ADIERAZGARRIENAK SISTEMATIZATZEKO FITXA

<p>Esperientziaren izenburua eta hari dagokion plana edo proiektua</p>	<p>Ikus-entzunezko materiala:</p> <p>-<i>El Diccionari de la Diversitat</i></p> <p>("Dibertsitatearen hiztegia")</p> <p>- Connectats ("Konektatuta")</p>
<p>Udalerrria eta herrialdea</p>	<p>Bartzelonako probintzia.</p> <p>Espania.</p>
<p>Lurralde-ezaugarrien deskribapena</p>	<p>Ikus aurreko esperientzia</p>
<p>Entitate bultzatzailea</p>	<p>Bartzelonako diputazioko berdintasun eta herritartasuneko arloa</p> <p>Xarxa de Televisions Locals (XTVL)</p> <p>Aurreko bi entitateez gain, Connectats gazte-dinamizazioko kolektiboak parte hartzen du Connectats izeneko magazinean.</p>
<p>Esperientziaren deskribapena: helburuak, nori zuzenduta dagoen, estrategiak, inplementatutako ekintzak, egutegia (iraupena, faseak, etab.)</p>	<p><i>Dibertsitatearen hiztegia</i> 26 ataleko dokumental-sail bat da, eta Bartzelonako diputazioak eta tokiko telebisten elkarte baten baterako lan baten ondorioz sortu da; hain justu, Bartzelonako diputazioko Berdintasun eta herritartasun arloak eta Xarxa de Televisions Locals (XTVL) entitateak.</p> <p>Dokumental-sailak aztertzen du zer-nolako garrantzia duen hizkuntzak kultura eta nortasuna transmititzeko.</p> <p>Atal bakoitzak, batez beste, 13 minutuko iraupena du, eta, horietan, ikuspegi anitzetatik aztertzen dira hiztegi bateko kontzeptu giltzarriak, dibertsitatearen eta aniztasunaren balioak sustatzeko. Horrez gain, migrazioaren errealitatea ulertzeko laguntza ematen zaie herritarrei.</p> <p>Hiztegiko letrak alfabetoari jarraiki ordenatuta daude, eta haiek dira sailaren hari nagusia, batasuna eta jarraitasuna ematen baitiote 26 atalei.</p> <p>Ikus-entzuleak sentsibilizatzeko helburuari jarraiki, adituek parte hartzen dute ataletan, eta haiek soziologiaren, historiaren, hizkuntzaren, hirigintzaren, ekonomiaren eta beste jakintza-arlo batzuen ikuspegitik jorratzen eta lantzen dituzte</p>

gaiak. Aditu horietako batzuk dira: Judith Astelarra, Salvador Cardús, Eliseu Aja, Manuel Delgado, Rafael Crespo, Mary Nash eta Oriol Nel-lo.

Herritar guztientzat egindako dokumental-saila da, eta bi helburu nagusi ditu; batetik, tokiko telebistek beren programazioetan sartzea, eta, bestetik, pedagogia- eta sentsibilizazio-lana egiteko tresna bat izatea, hezkuntzako eta aisiarako zentroek erabil dezaten. Dokumental-sailaren erabiltzaile izan daitezke, halaber, bizikidetzan dibertsitatearen ikuspegitik landu nahi duten entitateak.

Connectats gazte-dinamizaziorako plataforma anitza da, komunikazioaren bidez lan egiten duena.

2005. urtetik egiten diren "Gazteen komunikazio-lantegietan" egindako lana da sailaren abiapuntua, eta, lan horretan, Kataluniako Entitate Latinoamerikarren Federazioaren (FEDELATINA) laguntza jasotzen dute.

Gaur egun, elementu hauek osatzen dute:

1. Tokiko telebisten sarean (XTVL) ematen den telebista-programa bat, eta web-ataria, telebista-menu baten aukera ematen duena.
2. On-line bidezko irratsaioa.
3. Paperean argitaratutako aldizkari bat, Bartzelonako metropoli-areako Bigarren Hezkuntzako ikastetxe batzuetan banatzen dena.
4. Ikus-entzunezko produkzioari laguntzeko lantegiak.
5. Espazio publikoari buruzko dokumentalak.
6. Taldeko topaketa presentzialak.

Helburu orokorrak:

- Gazteek Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan egiten dituzten ekintzak bistaraztea eta entzunaraztea.
- Bertako gazteen eta immigranteen arteko gizarte-kohesioa eta kulturarteko dinamizazioa bultzatzea. Ikuspegi autonomoa, kritikoa eta konprometitua izatea, sare-lanean oinarrituta.

- Gazte nortasun solidarioa eta sozializatua eraikitzen laguntzea, gatazkarako bide eman dezaketen arloetan lan eginez.

Helburu espezifikoak:

- Komunikazio- eta ulermen-aukerak aberastea hiri-inguruneke gazteen artean.
- Ikus-entzunezko munduarekin eta komunikabideekin lotutako topalekuak sortzea.
- Gizarte-laboretegi bat finkatzea, gazteek elkarreraginak izan ditzaten eremu publikoetan, gizarte-kohesioaren eta kulturarteko dinamizazioaren gerizpean.
- Dinamika demokratiko eta zibil bat sortzea, gazteen inplikazioa bilatuz.
- Geldotasuna eta partaidetzarako nagitasuna ezabatzea, gizarte-bazterketaren eragile den aldetik.
- Etengabeko eztabaida piztea, gazteen ikuspegitik eta sare-lanean, hirietako bizitzaren pertzepzioari eta eraikuntzari buruz.

Plataforma multimedia bat da *Connectats*, eta gazteen kezken, arazoaren eta errealitatearen bilgunea da.

Proiektuak leku bat du gordea gazteentzat, eta kulturartekotasuna lantzen da bertan, autogestioaren bidetik.

Taldeak egitura malgua du, eta balio artistiko, kultural eta pertsonalak baliatzen ditu, jakintza eta jardunbideak transferitzeko. Lan-bide horietan sakonduz, hainbat esperimentazio, sozializazio-jardun eta lantegi egiten dira, jende gazte eta askotarikoarekin .

Edukiak oso dinamikoak dira, eta elkarrizketak, erreportajeak, bideoak, klipak, laburmetraiak eta bestelako euskarriak erabiltzen dira, kalean bertan lan eginez.

Parte hartzaileen profilak gizartearen dibertsitatea eta integrazia islatu nahi du, haren oraingo eta geroko tentsioak eta itzaropenak aintzat hartuta.

Edukiak sortzeko, gazteekin lan egiten da, partaidetzaren eta inplikazio errealearen bidetik, helburu hauek lortze aldera:

	<ul style="list-style-type: none"> - Lantalde bat sortzea, ikasleek eta profesionalak osatua, kulturen arteko trukea bultzatzeko. - Gazteen intereseko edukiak bistarazten laguntzea, haien partaidetzaren bidetik. - Adierazpiderako gaitasun autonomo, kritiko eta konprometitua sustatzea bertako gazteen eta gazte immigranteen artean. - Bitartekoen plataforma propio bat sortzea: telebista-programa bat, irratsaio bat, aldizkari bat eta web-orria. <p>Komunikazio-espazioak sortzea, etorkizuneko profesionalak edo interesa izan dezaketen gazteek eskarmentua har dezaten.</p>
Esperientzia zehaztu eta lantzeko inplikazioa ageri duten eragileak	<p>Berdintasuneko eta herritartasuneko arloa. Bartzelonako Diputazioa.</p> <p>Xarxa de Televisions Locals de Catalunya (XTVL).</p>
Esperientziaren zeharkakotasuna	<p>Herritarrekin sentsibilizazio-lana egitea da Bartzelonako diputazioak udal-programa guztietarako baliatzen duen zeharkako lan-ildoetako bat.</p>
Erabilitako baliabideak	
Erabilitako metodologia	<p>Dibertsitatearen hiztegia egiteko, eduki jakin batzuk prestatu ditu Berdintasun eta herritartasuneko arloak, haiek gida batean jaso, eta, gerora, eduki horiek garatuko dituzten adituak kontratatzeke.</p> <p>Xarxa de Televisions Locals de Catalunya (XLTV) entitateak egin ditu grabazio-lanak.</p>
Emaitzen balorazioa	<p>Consell de la Joventut kontseiluak ematen duen <i>Comunicación</i> sariaren 2008ko edizioako saria jaso zuen <i>Connectats</i> proiektuak.</p>
Oharrak / komentarioak	<p><i>Dibertsitatearen hiztegiarekin batera</i> gida didaktiko bat sortu da, ikus-entzunezko euskarrian egiten diren sentsibilizazio-jarduerak egiten laguntzeko.</p> <p><i>Connectats</i>: http://www.xtvlblocs.cat/connectats/</p>

JARDUNBIDE ETA ESPERIENZIA ADIERAZGARRIENAK SISTEMATIZATZEKO FITXA

<p>Esperientziaren izenburua eta hari dagokion plana edo proiektua</p>	<p><i>Berdintasun eta herritartasuneko katalogoa</i></p>
<p>Udalerrria eta herrialdea</p>	<p>Bartzelonako probintzia. Espainia</p>
<p>Lurralde-ezaugarrien deskribapena</p>	<p>Ikus aurreko esperientzia.</p>
<p>Entitate bultzatzailea</p>	<p>Berdintasuneko eta herritartasuneko arloa Bartzelonako Diputazioa</p>
<p>Esperientziaren deskribapena: helburuak, nori zuzenduta dagoen, estrategiak, inplementatutako ekintzak, egutegia (iraupena, faseak, etab.)</p>	<p>Pedagogia-izaerako ekintzen multzoa da <i>Berdintasun eta herritartasuneko katalogoa</i>, denak ere Berdintasuneko eta herritartasuneko arloaren jarduera-eremuetan lan egiten duten gizarte-entitateek eskainiak. Jarduera-eremu horiek dira: dibertsitatea eta herritartasuna, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, gazteria, herri-partaidetza eta garaiko ohitura berriak.</p> <p>Helburuak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Herritarrei helaraztea herri eta hirietan gertatzen ari diren gizarte-aldaketei eta dibertsitate-errealitatei buruzko jakintza oinarritzkoak. - Diferentziarekiko errespetua sustatzea, gizarte anitz eta demokratiko baten baitan. - Ikuspegi-aldaketak sustatzea, gizonen eta emakumeen arteko pertsona-erlazioak bidezkoagoak eta ekitatiboagoak izan daitezen, eta harreman horiek zailtzen dituzten estereotipoak eta mitoak gainditzea. - Emakumeen parte-hartzea sustatzea eremu guztietan (ekonomikoa, soziala, kulturala, politikoa, etab.). - Gazteen emantzipazioa eta autonomia bultzatzea. - Herritarren asoziazioak, elkartasun-jarduerak eta partaidetza sustatzea. - Giza eskubideen eta elkartasunaren kultura sustatzea, bizikidetzaren moduaren eredu gisa. <p>Hartzaileak</p> <p>Bartzelonako probintziako udalak.</p> <p>Edukiak</p> <p>Gizarte-entitateek egindako sentsibilizazio-jardueren zerrenda da katalogoa.</p> <p>Bost gai-multzotan biltzen dira jarduerak:</p>

	<ul style="list-style-type: none"> - Dibertsitatea eta herritartasuna - Emakume-gizonen arteko berdintasuna - Gazteria - Herritarren parte-hartzea - Garaiko ohitura berriak <p>Jarduera-mota hauen inguruan antolatzen da atal bakoitza:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hitzaldia/eztabaida - Tailerra - Ikus-entzunezkoa - Azalpena - Ikuskizuna - Beste jarduera batzuk, aurrekoak baino espezifikoagoak edo zenbait modalitatearen ezaugarriak biltzen dituztenak.
Esperientzia zehaztu eta lantzeko inplikazioa ageri duten eragileak	Berdintasuneko eta herritartasuneko arloa. Bartzelonako Diputazioa.
Esperientziaren zeharkakotasuna	Herritarrekin sentsibilizazio-lana egitea da Bartzelonako diputazioak udal-programa guztietarako baliatzen duen zeharkako lan-ildoetako bat.
Erabilitako metodologia	<p><i>Berdintasun eta herritartasuneko katalogoa 2009</i> formatuak 400 sentsibilizazio-jarduera baino gehiago biltzen ditu, eta horiek guztiak Bartzelonako probintziako udalei eskaintzen zaizkie, beren lurralde-eremuan egiten dituzten sentsibilizazio-ekimenak indartzeko.</p> <p>Lan-tresna bizia da katalogoa, urtez urte eguneratzen baita, jarduera-fitxa berriak erantsiz.</p> <p>Bartzelonako diputazioak diruz laguntzen ditu jarduerak. Horien kostuaren erdia ordaintzen du, baina 3.000 euroko muga dago udal eta katalogoko atalekiko, aurrekontu-ekitaldi berean.</p> <p>Bartzelonako probintzian lan egiten duten gizarte-entitateek pentsatu eta prestatu dituzten katalogoko jarduerak.</p>
Emaitzen balorazioa	Guztira, 420 jarduera eskaini zaizkie udalei 2008. urtean, eta 734 jarduera eskatu eta diruz lagundu dira.
Oharrak / komentarioak	<i>Berdintasun eta herritartasuneko katalogoak</i> laguntza bat eman nahi die udalerriei, beren ekintza-planen baitan egiten dituzten sentsibilitate-jardueren programazioak indartzeko Berariaz, jarduerak bilatu eta programatzeko laguntza ematen du.

JARDUNBIDE ETA ESPERIENZIA ADIERAZGARRIENAK SISTEMATIZATZEKO FITXA

Esperientziaren izenburua eta hari dagokion plana edo proiektua	Emakume abegitsuak programa.
Udalerrria eta herrialdea	Badalonako Udala (Bartzelona) Espainia.
Lurralde-ezaugarrien deskribapena	Badalona, Bartzelona hiriaren metropoli-eremuko udalerrria. 216.000 biztanle ditu.
Entitate bultzatzailea	Badalonako Udaleko emakume-gaietarako zinegotzikoak.
Esperientziaren deskribapena: helburuak, nori zuzenduta dagoen, estrategiak, inplementatutako ekintzak, egutegia (iraupena, faseak, etab.)	<p>Hiri-programa bat da Emakume abegitsuak, 2003. urtean abiatutakoa. Programaren bidez, balioa eta zentzua eman nahi zaio bizikidetzari eta dibertsitatearekiko errespetuari.</p> <p>Emakumeen eta auzotarren elkarrekin bidez eta Badalonako Emakumearen Udal Kontseiluaren bidez antolatuta egiten da programa. Haren xedea da integrazioa lortzea eta kulturartekotasuna balioestea, eta, horrez gainera, eremu horrekin lotutako boluntario-jarduerak laguntzea eta sustatzea.</p> <p>Etengabeko prestakuntza ez-formalean, helduen eskoletan, hizkuntza normalizazioan eta antzeko eremuetan lan egiten duten entitateei laguntzeko programa bat da, eta, berariaz, jarduera integratzaileak optimizatzeke eta kulturartekotasuna balioesteko ahalegina egiten du.</p> <p>Programak, besteak beste, ekintza hauek biltzen ditu:</p> <p>Haurren zaintzaile solidarioak, emakume immigranteei laguntzeko, haiekin lan egiteko, eta, finean, haien prestakuntza-aukerak handitzeko.</p> <p>Topagune bat eskaintzen da, hirian bizi diren emakumeak eta etorri berriak direnak elkar daitezten, emakume diren aldetik komunean dituzten gauzak konpartitzeko eta haiek arteko diferentziak deskubritu eta onartzeko.</p> <p>Hiri-ibilbideak eskaintzen dira, etorri berriak diren pertsonen hiriko leku esanguratsuenak ezagutu eta zerbitzu nagusien kokapena ikas dezaten.</p> <p>Liburuen maleta pedagogikoak eskaintzen dira; hau da, gai jakin batzuei buruzko agiritegiak. Maleta</p>

	<p>horiek mailegu-sistema baten bidez eskatu behar zaizkio, laguntza-material gisa, Emakumeei Baliabideak eta Aholkularitza emateko Zentroari. Prestakuntzan sakontzeko proiektua da, emakume immigranteek prestakuntza-aukerak handitzeko xedea duena. Horrez gain, komunikazio-arazoak, eta, berariaz, hizkuntzaren ezagutzarekin lotutako arazoak konpontzeko espazio bat sustatzen du.</p>
Esperientzia zehaztu eta lantzeko inplikazioa ageri duten eragileak	<p>Emakumearen zinegotzigoko pertsonal teknikoa, hiriko entitateetako boluntarioak eta emakume immigranteak.</p>
Esperientziaren zeharkakotasuna	<p>Programaren xedek dira:</p> <p>Hizkuntza-tresna oinarrizkoak ematea, komunikazioa lantzeko.</p> <p>Espazio bat eskaintzea, migrazioak sortzen duen galera- eta dolu-prozesua lantzeko.</p> <p>Espazioak sortzea bertako emakumeek eta emakume immigranteek bizikidetzarekin eta herri-partaidetzarekin lotutako gaiak lan ditzaten.</p> <p>Jarduera osagarriak programatzea, pertsonen eta taldeen prozesuak, pertsonen autonomia eta gizarte-zirkulazioa mesedetzeko.</p> <p>Udal-arloen eta hiriko gainerako entitate interesatuen arteko zehar-lana sustatzea.</p>
Erabilitako baliabideak	<p>Programa bi fasetan egin da:</p> <p>Hiriko emakume immigranteak ezagutzeko azterlan bat egin zen 2003an, Emakumeen migrazioari eta haiek Badalonan integratzeko laguntza-baliabideei buruzko azterlana.</p> <p>Gaur egun, jardueraren inplementazioa oso handia da eta gorantz doa, Emakume abegitsuen programako talde asko erabat finkatuta baitaude eta hiriko lurraldearen %80 baino gehiago hartzen baitute. 40 emakume boluntario inguruk parte hartzen dute eta leku askotako 300 emakume immigranteek.</p>
Erabilitako metodologia	<p>Kulturartekotasunari buruzko sentsibilizazioa eta prestakuntza; emakume immigranteei prestakuntza ematea.</p>
Emaitzen balorazioa	<p>Programaren hasierak oso apalak izan ziren, baina, denborak aurrera egin ahala, igo egin da, bai programan inplikatzaren boluntarioen kopurua, bai bertan parte hartzen duten pertsonen kopurua, bai lortu nahi diren helburuen ebaluazioan eta</p>

	<p>garapenean inplikaturata dauden entitateen kopurua.</p> <p>Emakume askorentzat oso baliagarria izan da programan parte hartzea, ingurunearekin duten harremana asko hobetu baita. Emakume ugari, Badalonan bizitzen denbora luzea eman arren, ez ziren beren ingurune murrizetik atera, ez zituzten udal-zerbitzuak ezagutzen eta beren etxeetan bizi ziren, urrunduta. Egoera hori aldatu egin da pixkanaka, eta gaur egun esan dezakegu aldatu egin dela bizi diren herrialdearekiko pertzepzioa, hura lehen baino gehiago ezagutzen baitute.</p> <p>Taldearen eboluzioa, oro har, oso ona izan da. Emakume horiek programan inplikatuta direnez, programako jarduerak eta ibilbideak prestatzen parte hartzen dute, eta, besteak beste, emakume magrehtarren talde edo elkarte bat sortzeko proposamena egin dute, beren gizarte-kezkak handik bideratzeko, eta hiriko partaidetza-sareko kide izateko (Consell de Ciutat izeneko kontseiluan gauzatua).</p>
<p>Oharrak / komentarioak</p>	<p>Emakume abegitsuak programak “jardunbide onaren” kalifikazioa jaso du nazioz gaindiko Olympia de Gouges proiektuan. Proiektua Bartzelonako Diputazioko berdintasun-planeko bulego teknikoak, Municheko Udalak (Alemania) eta Italiako Província della Spezia probintziak egin dute (Europako Batzordearen laguntza jaso du proiektuak; zehazki, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko Erkidegoko estrategiaren 2001-2005 programarena).</p>

JARDUNBIDE ETA ESPERIENZIA ADIERAZGARRIENAK SISTEMATIZATZEKO FITXA

Esperientziaren izenburua eta hari dagokion plana edo proiektua	Emakumeak eta immigranteak udaltzaingoan sartzeko ekintza positiboa. "Convive" izeneko plan integral bateko ekintza da. Plana udalak berak prestatu du, immigranteen integrazioa bultzatzeko.
Udalerrria eta herrialdea	Fuenlabrada (Madril) Espainia.
Lurralde-ezaugarrien deskribapena	Madrilgo metropoliaren hegoaldean dagoen udalerrria da Fuenlabrada, eta 205.000 biztanle ditu.
Entitate bultzatzailea	Fuenlabradako udaltzaingoa. Polizia-gorputz horrek 250 agente ditu.
Esperientziaren deskribapena: helburuak, nori zuzenduta dagoen, estrategiak, inplementatutako ekintzak, egutegia (iraupena, faseak, etab.)	<p>2002. urtetik aurrera eta etengabe egiten ari da ekintza positiboa; hala ere, hasieran, emakumeak ziren ekintzaren onuradun. 2005. urtetik aurrera, immigranteen familietako ondorengoak ere onuradun dira, baldin eta Espainiako nazionalitatea badute eta Madrilgo erkidegoko udaltzaingoetara sartzeko eskatzen diren lege-baldintzak betetzen badituzte (altuera, gidabaimenak, titulazio akademikoak, etab.).</p> <p>Ekintza doako ikastaro bat antolatzea da, udaltzaingoan sartzeko oposaketak prestatzeko. Ikastaroan, proba fisikoak, arrera psikologikoko probak eta oposaketako gaitegia prestatzen dira.</p> <p>Enplegu publikoko udal-eskaintza onartzean ekiten zaio, urtero, ikastaroari, eta hautapen-prozesua amaitzean bukatzen da.</p> <p>Udaltzaingoaren prestakuntza-gelan eta udal-kiroldegietan ematen dira eskolak.</p>
Esperientzia zehaztu eta lantzeko inplikazioa ageri duten eragileak	<p>Fuenlabradako udaltzaingoko agintariak ematen dituzte proba fisikoei eta gaitegiari dagozkion eskolak eta proba psikologikoei dagozkienak, berriz, Delituen biktimei laguntzeko udal-zerbitzuak ematen ditu.</p> <p>Kiroletako udal-patronatuaren kirol-instalazioak baliatzen dira.</p> <p>Prestakuntzarako eta enplegurako ekimenen udal-zentroak, Casa de la Mujer izenekoak, emakume-elkarteek eta immigrante-elkarteek laguntza ematen dute, ikasturte-hasieran, ekintzaren publizitatea egiteko.</p>
Esperientziaren zeharkakotasuna	Esperientzia honen bidez, familia immigranteetako espainiarren gizarte-integrazioa lantzen da, enplegu publiko batean sartzeko laguntza emanez, baina,

	<p>horrez gain, garrantzi handiko zerbitzu publiko batean parte hartzeko aukera ematen zaie; izan ere, udaltzaingoaren jarduerak lotura zuzena du herritarren eskubide eta askatasunen erabilpenarekin.</p> <p>Horrenbestez, zerbitzu publikoaren izaera integratzailea indartzen da, eta estutu egiten dira udaltzaingoak bertako komunitatearekin dituen harremanak; izan ere, komunitate horren kultura-dibertsitatea gero eta handiagoa da.</p>
Erabilitako baliabideak	Udaltzaingoko eta Delituen biktimei laguntzeko udal-zerbitzuko irakasleak eta udaleko kirol-instalazioak.
Erabilitako metodologia	Udaltzaingorako oposaketak prestatzen diharduten irakaskuntza-zentro pribatuek erabilitakoaren oso antzeko prestakuntza-metodologia erabiltzen da.
Emaitzen balorazioa	<p>Ekintzari ekin zitzaionean, soilik %3 ziren emakumezkoak eta ez zegoen immigranteen familiako agenterik. 2009an, emakumeak udaltzaingo plantillaren %13 dira eta familia immigranteko agenteak, berriz, %1,6 dira.</p> <p>Fuenlabradan lortutako emaitza objektibo horiez gain, nabarmendu behar da ekintzan parte hartu duten emakume askok eta immigrante batzuek lanpostu bat lortu dutela Madrilgo erkidegoko beste udaltzaingo batzuetan.</p>
Oharrak / komentarioak	<p>Hasieran, zenbait sektore politikok eta sindikatuk ez zioten harrera onik egin ikastaroari, "diskriminatzailea" zela baitzeritzoten. Gaur egun, esperientzia oso finkatuta dago, eta oposaketak prestatzen diharduten irakaskuntza-zentro pribatu zenbaiten kexak baino ez ditu jasotzen.</p> <p>Nabarmendu beharreko alderdi oso garrantzitsu bat da ekintzak, emakumeak eta familia immigranteetako ondorengoak udaltzaingoan presentzia handigoa izatea lortzeaz gain, berariaz lortu duela udaltzaingoaren eta immigranteen komunitateen arteko harremanak hobetzea, integrazio-programa berriak abiaraztea eta poliziaren operatibotasuna handitzea; izan ere, udaltzaingoko agente berriek beste kultura batzuek ezagutzen dituzte eta udalerrian presentzia handia duen immigrante-kolektibo baten hizkuntza dakite (arabiera).</p> <p>Fuenlabradako udaltzaingoa izan zen mota horretako esperientzia bat abiarazi zuen Espainiako lehen polizia-gorputz publikoa. Gaur egun, Kataluniako Mossos d'Esquadra poliziak abian du, 2007. urtetik, antzeko</p>

	<p>ekintza bat, Dibertsifikazio Sozialeko Programa deritzona. Programa horren helburua da Espainiako nazionalitatea izan eta atzerriko hizkuntzen eta kulturen ezagutza egiaztatzen duten pertsonak sartzea polizia-gorputz horretan. Lehentasuna ematen zio Europako Erkidegotik kanpoko hizkuntzen eta kulturen ezagutzari. Hiru hil eta 300 orduko ikastaroa da, eta 60 plaza eskaintzen dira urtero.</p>
--	--

JARDUNBIDE ETA ESPERIENZIA ADIERAZGARRIENAK SISTEMATIZATZEKO FITXA

Esperientziaren izenburua eta hari dagokion plana edo proiektua	BIZIKIDETZARAKO MEZU ETA BALIO POSITIBOAK TRANSMITITZEKO SAREA
Udalerrria eta herrialdea	SANTA COLOMA DE GRAMENET (Bartzelona) Espainia
Lurralde-ezaugarrien deskribapena	
Esperientziaren deskribapena: helburuak, nori zuzenduta dagoen, estrategiak, inplementatutako ekintzak, egutegia (iraupena, faseak, etab.)	<p>Ekimena abiarazteko oinarri izan zen egoera</p> <p>Santa Colomako Udalak partaidetza-prozesu bat abiarazi zuen, eta haren azken emaitza izan zen bizikidetza-plan bat egitea. Prozesu horren harian bultzatutako ekimenen ezaugarri nagusia gertutasuna zen, auzoetako funtzionamendu-dinamikari oso lotuak agertzen baitziren.</p> <p>Auzo-bitartekaritzako zerbitzuarekin batera, beste programa batzuk prestatu ziren, herritarrekiko eta gizarte-sarearekiko konplizitatea bilatu eta bizikidetza oztopatzen duten zurrumurru eta estereotipo faltsuen aurka borrokatzeko. Udalak erabaki zuen herritarren eta entitate zibikoen sare bat bultzatu behar zela, eta horiek guztiek konpromiso bat izenpetu zuten, bizikidetzaren alde egiteko, haien ingurunean.</p> <p>Sare hori egiteko arrazoia, azken finean, espazio bat prestatzea da, bizikidetzaren alde lan egiteko prest dauden herritarrek lan hori egiteko informazioa, euskarriak eta bitartekoak izan ditzaten. Ildo horretatik, nabarmentzekoa da esperientzia nahiko berritzailea dela, eta ziur gaude eraginkorra izango dela, dibertsitate handiko testuingurutan, bizikidetza sustatzeko. Hori guztia, noski, herritar guztiek konpartitutako eskubide eta betebeharren esparru orokor baten baitan egin behar da.</p> <p>Laburpena/ Deskribapena Helburuak, estrategiak eta lehentasunak adieraztea.</p> <p><i>HELBURUAK:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • Hainbat gerturatze-bitarteko erabiliz, sentsibilizazio-lana egitea herritarrekin,

bizikidetza-giro on bat bermatzeko.

- Herritarrak inplikatzeko informazio benetakoa eta zehatza zabal dezaten, bizikidetzarentzat kaltegarriak diren pertzepzio eta estereotipoekiko.
- Konplizitatea biltzea herritarrekin, balizko gatazkei eta haiei konponbideei aurre hartzeko herrian bertan.

FUNTZIONAMENDUA:

- Herri-eragileen sare bat sortzea eta mantentzea, banakoen eta taldeen atxikitzeen bidez. Bizikidetzaren alde lan egiteko konpromisoa ekarriko dute atxikitze horiek.
- Mezu baikorrak sortzea eta pertsonekin komunikazio zuzena izatea. Informazioa eta transmisioa.
- Elkarrekin gaitzea hark kudea dezan, zuzenean, bizikidetza. Prestakuntza eta dinamizazioa.
- Udal-langileak gaitzea, zerbitzu guztietan egin dadin dibertsitatearen tratamendu egokia.

BIZIKIDETZAREN ALDEKO KONPROMISOA:

Balio eta mezu positiboen sareko kide guztiek izenpetu dute honako konpromiso hau:

«Santa Colomako herritarra naizen aldetik, agiri hau izenpetzen dut, adierazteko borondatezko konpromisoa hartzen dudala bizikidetzarako balio eta mezu positiboak transmititzeko sare sortu eta abiarazten laguntzeko, jarraian adierazitako moduan:

1. *Informazio objektiboa eta benetakoa transmitituko diek Sareko gainerako kideei, bizikidetza oztokatzen duten aurreiritzi eta zurrumurru faltsuak ezabatzeko.*
2. *Gogoz lan egingo dut nire auzotarrei jakinarazteko zein diren gure herritartasun-sistemako berezko arau eta ohiturak eta haiek bete behar direla adierazteko. Santa Coloma de Gramenet udalerriko herritar guztien eskubideen berdintasuna aitortzen eta babesten dut, eta haiei dagozkien obligazioak onartu eta jakinaraziko ditut.*
3. *Konpromisoa hartzeko gonbita egingo diet gainerako herritarrei eta herriko elkarte, enpresa eta kolektiboak. Bizikidetzarako mezu eta balio positiboak transmititzeko sareko edukiak zabalduko ditut.*
4. *Jardunbide onei eta gizalegeari buruzko*

	<p><i>kanpainen berri emango diet nire bizilagunei. Gizalegea bete eta zabaltzeko konpromisoa hartzen dut, bai eta espazio publikoak eta komunitarioak ongi erabiltzen ekintza positiboak egitekoa ere.</i></p> <p>5. <i>Elkarte, auzo-batzar, entitate eta talde ez-formaletan parte hartuko dut eta haietan jakinaraziko ditut bizikidetzarako balio eta mezu positiboak transmititzeko sareko konpromisoa eta konpromiso horren edukiak.</i></p> <p>6. <i>Auzotarren arteko negoziazioa, elkar ezagutza, bitartekaritza eta harremana baliatuko ditut, harremanak sustatu eta bizikidetzaz errazteko.</i></p> <p>7. <i>Erakunde eta entitateekin lan egingo dut, hautemateko zer egoerek behar duten ahalegin berezi bat, herritar guztiek eraginkortasunez eta baikortasunez parte har dezaten.</i></p> <p>Agiri hau izenpetzearekin, bizikidetzarako eragile zibikoa izateko konpromisoa hartzen dut. »</p> <p>2004aren amaieran abiarazi zen proiektua.</p>
<p>Esperientzia zehaztu eta lantzeko inplikazioa ageri duten eragileak</p>	<p>Egungo kudeaketa-hitzarmena berritzeko lanak egiten ari da udala, eta funts-hornidurak bermatu ditu, hurrengo 4 urteetarako. Bartzelonako diputazioaren (Berdintasun eta herritartasuneko arloa) eta Kataluniako Generalitatearen (Gizarte-ongizateko departamentua) finantziazioa jasotzen du zerbitzuak.</p> <p>Lortutako emaitza onek, batetik, eta bizikidetzak gaur egun Santa Coloma de Gramenet-en moduko hiriguneetan dakartzan erronkek, bestetik, ezinbestekoa egiten dute herritarrak inplikatu dituzten proiektuak inplementatzea, erantzukidetasunaren ildo jorratuz.</p>
<p>Esperientziaren zeharkakotasuna</p>	
<p>Erabilitako baliabideak</p>	<p>Egun, bizikidetzaren aldeko konpromisoa izenpetu dute</p> <ul style="list-style-type: none"> • 314 herritarrek • 47 elkartek <p>Hilero buletin bat argitaratzen da, eta sareko kideei bidaltzen zaie. Buletin horretan, sareko jardueren buruzko atalak eta beste hiri-jardueren batzuei buruzkoak topa daitezke, baina, bereziki, zurrumurrutxoak eta topiko faltsuen aurka egiteko informazioak ematen dira.</p> <p>Doako jardueren katalogo bat argitaratu da, eta</p>

entitateei, erakundeei, ikastetxeei eta udal-organismoei banatu zaie. Hauek dira katalogoaren atalak:

- Zurrumurru faltsuak: zurrumurru eta estereotipo faltsuei buruzko lantegia, emakumeak kultura-testuinguru ugarritan bizi duen errealitateari buruzko hitzaldiak eta kafe-tertuliak.
- Sentsibilizazioa: bizikidetzari buruzko lantegiak, adineko pertsonen arteko trukeei buruzko lantegiak, eta TV3 telebista-kateko "Tot un Món" (mundu oso bat) saioko kapitulu hautatuei buruzko zine-foruma.
- Prestakuntza: mintegiak, profesionalentzako ikastaroak (esaterako, erlijio-dibertsitateari buruzkoak), entitateei zuzendutako kudeaketa-ikastaroak, etab.
- www.gramenet.cat/xarxavalors web-orria sortu da.
- Egun, 350 pertsona ari dira, zuzenean, beren auzoetan lanean, elkarrizketaren eta bizikidetzaren aldeko iritzi-jarrerak sortzen.
- Aldizkakotasun jakin batez, beste udal-zerbitzu batzuekin koordinatzen da sarea (hezkuntza, emakumea, gazteria, zentro zibikoen dinamizatzaileak, merkataritza, kultura...)
- Babesa eta aholkularitza teknikoak eman zaie sortze-bidean ari diren entitateei, modu formalean era daitezten. Halaber, udal-baliabideei buruzko informazioa eman zaie, udal-ekipamenduak ikusteko bisitak egin dira, eta harremanetan jarri dira hainbat eragile, gerora lankidetzajarduerak egiteko.
- Lanerako eta eztabaidarako esparru egonkorak sortu dira:
 - Sentsibilizazio-jarduerak eskaintzen zaizkie auzo-entitateei eta herritar-taldee.
 - **Erljioen arteko elkarrizketarako taldea.** Talde hori izan zen Erljioen arteko elkarrizketarako Santa Colomako elkartearen aurrekaria. Elkartek, egun, herritar katolikoak, ebanjelikoak, musulmanak eta sikh erlijioak biltzen ditu.

Sareak eragin positiboa izan du hirian, baina komeni da ekimena herritar gehiagorengana iristea, eta, nola ez, jada jorratzen ari diren ildoari jarraiki, interbentziorako eta sentsibilizaziorako beste tresna

	batzuekin osatu behar dute ekintzaren eragina.
Erabilitako metodologia	
Emitzen balorazioa	
Oharrak / komentarioak	

JARDUNBIDE ETA ESPERIENTZIA ADIERAZGARRIENAK SISTEMATIZATZEKO FITXA

<p>Esperientziaren izenburua eta hari dagokion plana edo proiektua</p>	<p>Arena II.</p>
<p>Udalerrria eta herrialdea</p>	<p>Andaluziako Junta Espainia.</p>
<p>Lurralde-ezaugarrien deskribapena</p>	<p>Proiektuaren ardatza da kultura-dibertsitateari balioa ematea, Andaluzian arrazismoaren eta xenofobiaren aurka egiteko bitartekoa izan dadin. Horren azken xedea immigranteak lan-merkatuan sartu eta eguneroko bizitzan integratzea da.</p>
<p>Esperientziaren deskribapena: helburuak, nori zuzenduta dagoen, estrategiak, inplementatutako ekintzak, egutegia (iraupena, faseak, etab.)</p>	<p>Helburu orokorra da kultura-dibertsitatearen balioespena bultzatzea, arrazismoaren eta xenofobiaren aurkako borrokaren faktoreetako bat izan dadin. Horrez gain, proiektuaren bidez, neurriak hartzen dira, gizon eta emakume immigranteak lan-merkatuan sar daitezten eta gizarteko eta komunitateetako bizitzan berdintasunezko egoeran parte har dezaten sustatzeko. Arena II aukera ona da haren aurreko Arena proiektuak lortu zituen emaitzak finkatu eta indartzeko.</p> <p>Helburu orokor hori lortzeko, helburu espezifiko hauek finkatu dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Arrazismoarekiko eta xenofobiarekiko prebentzio-lana egitea lan-arloan, enpresariak eta gizarte zibila jabe daitezten zer-nolako balioa duten kultura-dibertsitatea bizi duten inguruneak. • Kulturartekotasunari buruzko prestakuntza ematea profesionaleri eta lanbide-prestakuntza ematea immigranteeri, lan-merkatuko diferentziak ezaba daitezten. • Ibilbideak prestatzea, immigranteak, eta, bereziki, emakume immigranteak gizartean eta lan-merkatuan integra daitezten, egungo zerbitzuekin behar bezala koordinatuta. <p>Hartzaileak: Immigranteak, bereziki emakumeak, eta Andaluziako herritarren zenbait sektore.</p> <p>Interbentzio-estrategiak: Oro har, immigranteak dira interbentzio-estrategiaren ardatza, eta haien</p>

	<p>inguruan antolatzen dira ekintza gehienak: onuradunak bilatzea eta hartzea; eta haiei lan-arloko eta gizarte-arloko orientazioa, prestakuntza eta aholkularitza ematea. Ekintza horien azken helburua da immigranteek zerbitzu publiko normalizatuak eskuratzeko aukera izatea, zerbitzu publikoak gizarte- eta lan-alorreko erreferenteak izan daitezen haientzat.</p> <p>1. Lan-alorrean arrazismoa eta xenofobia prebenitzeko sentsibilizazioa. Sentsibilizazio-kanpainak egitea aurreikusten da, eta haien hartzaileak immigranteak, enpresaburuak eta lan-merkatuko gainerako eragileak izatea.</p> <p>2. Immigranteei, eta, bereziki, emakume immigranteei zuzendutako lanbide-prestakuntza bultzatzea, lan-merkatuko diferentziak ezabatzeko; eta bitartekaritzaren nahiz kulturartekotasunaren alorreko prestakuntza-ekintzak lantzea, gizarte-, enplegu-, osasun- eta hezkuntza-alorretako gizarte-eragile eta profesionalentzat.</p> <p>3. Gizarte-interbentzioko sare bat sortzea, eskuragarri dauden baliabideetara jotzeko bideak errazteko. Gizarte- eta lan-integrazioko bederatz unitate dira, eta, haietan, kulturartekotasunean espezializatutako teknikariak daude, lan-esparruko laguntza eman, kultura arteko bitartekaritza egin eta sektore-dibertsifikazioa sustatzeko. Horrez gain, immigranteek beren lan-eskubideen berri izateko ekimenak bultzatzen dira.</p> <p>4. Jatorrizko nahiz harrerako immigrazio-egoerei buruzko jakintza handiagoa izatea. Tokian-tokian immigranteen egoerari buruzko azterlanak egitea aurreikusten da, bai eta EQUAL Arena proiektuan sortutako gizarte- eta lan-alorreko diskriminazio-adierazleak eguneratzea ere. Horrez gain, esperientziak trukatzeko mintegi tematikoak egitea aurreikusten da.</p>
<p>Esperientzia zehaztu eta lantzeko inplikazioa ageri duten eragileak</p>	
<p>Esperientziaren zeharkakotasuna</p>	
<p>Erabilitako baliabideak</p>	<p>Andaluziako Juntak eta Europako Gizarte Funtsak finantzatutako proiektua.</p>
<p>Erabilitako metodologia</p>	<p>Prestakuntza</p> <p>Sentsibilizazio-ekintzak</p>

	Gizareratze- eta laneratze-zerbitzuak Bitartekaritza-zerbitzuak
Emitzen balorazioa	
Oharrak / komentarioak	

Iturria: Andaluziako Junta - Europako Gizarte Funtsa – Equal proiektuak

JARDUNBIDE ETA ESPERIENZIA ADIERAZGARRIENAK SISTEMATIZATZEKO FITXA

Esperientziaren izenburua eta hari dagokion plana edo proiektua	Etxebizitzari buruzko udalerrri-arteko gutuna, gizarte-izaerako tresna bat Frantziako Ulis eskualdean
Udalerrria eta herrialdea	Massy-les-Ulis eskualdeko 24 udalerrri: Baillainvilliers, Bièvres, Bures-sur-Yvette, Champlan, Chilly-Mazarin, Epinay-sur-Orge, Gif-sur-Yvette, Gometz-le-Chatel, Igny, Les Ulis, Longjumeau, Massy, Morangis, Orsay, Palaiseau, Saclay, Salux-les-Chartreux, Saint Aubin, Vauhallan, Verrières-leBuisson, Villebon-sur-Yvette, Villejust, Villiers-le-Bacle eta Wissous. Frantzia.
Lurralde-ezaugarrien deskribapena	Udalerrrien arteko konferentzian egin zen gutuna; hau da, udalerrietan gizarte-babeseko etxebizitzak esleitzeaz arduratzen diren eragileak biltzeko instantzian. Proiektuaren helburua da lurraldeari buruzko jardunbide-arau komunak ezartzea, gizarte-babeseko etxebizitzak eraiki eta esleitzeko.
Esperientziaren deskribapena: helburuak, nori zuzenduta dagoen, estrategiak, inplementatutako ekintzak, egutegia (iraupena, faseak, etab.)	Udalerriek gizarte-babeseko etxebizitzaren arloan dituzten premiak zehazten ditu gutunak, lurraldearekiko gizarte-dibertsitatea bultzatzeko tresna izan nahirik. Horrenbestez, helburu hauek ditu gutunak: - Gizarte-babeseko etxebizitzaren desoreka murriztea: gutunak aukera eman behar du hura izenpetu duten udalerrietako lurraldean leku pribilegiatu bat eratu, eta lurralde horretako biztanle-orekak ezagutu, datu horien jarraipena egin, eta, ahal bada, oreka horiek hobetzeko. Horren guztiaren helburua izango da etxebizitzaren eskaintzak nola egokitu behar diren zehaztea. - Gutuneko xedapenak betetzea: errentatzaileen laguntzarako konpromisoa lortu da (SCIC Habitat IDF, Logirep eta Etxebizitzaren eta garraioen atalak).
Esperientzia zehaztu eta lantzeko inplikazioa ageri duten eragileak	Massy – Les Ulis eskualdeko 24 udalerrriak
Erabilitako metodologia	Etxebizitzaren komuna-arteko konferentziaren (CIL) batzar orokorrak aztertu zuen gutuna betetzen hasteko modua.
Emaitzen balorazioa	Gutunaren aplikazioa ez da uniforme izan hura izenpetu duten udalerrri guztietan, hura ez baitzen udalerrri-mailan berretsi behar; hala, konpromisoari erreparatuta, alde handiak izan dira.

Iturria: Diskriminazioaren aurkako eta berdintasunaren aldeko goi agintaritzak (HAUTE)

JARDUNBIDE ETA ESPERIENTZIA ADIERAZGARRIENAK SISTEMATIZATZEKO FITXA

Esperientziaren izenburua eta hari dagokion plana edo proiektua	JoBArt: immigrante gazteen integrazioa, arte ederren bidez adierazia.
Udalerrria eta herrialdea	Olesa de Montserrat, Bartzelona. Espainia.
Lurralde-ezaugarrien deskribapena	<p>Bartzelonako probintziako Olesa de Montserrat udalerrria adibide egokia da ikusteko nola ari den gora egiten, etengabea, atzeritarren etorrera Espainian. Migrazio-prozesu horren arrazoia, gehienetan, familia berrelkartzea izaten da, eta, ondorioz, gero eta handiagoa da haur eta gazte immigranteen etorrera.</p> <p>Horrenbestez, programaren helburua da askotariko adierazpen artistikoak izatea Olesa de Montserrat udalerrira iritsitako gazteak udalerrian egiaz eta modu positiboan integratzeko prozesuaren eragile nagusiak, arte ederrak harremanetarako hizkuntza unibertsala direla ulertuta.</p>
Entitate bultzatzailea	Olesa de Montserrat-eko udala
Esperientziaren deskribapena: helburuak, nori zuzenduta dagoen, estrategiak, inplementatutako ekintzak, egutegia (iraupena, faseak, etab.)	Programaren bidez, 12 eta 17 urte bitarteko nerabeen integrazio-prozesuan eragin nahi da. Gazte horiek Olesa de Montserrat udalerrian bizi behar dute, nahiz eta, jatorriz, beste leku batzuetakoak diren. Horrez gain, ahaleginak egiten dira bertako biztanleek prozesu horietan parte har dezaten, herritarren, eta, batik bat, herritar gazteen bizikidetzeta eta gizarte-kohesioa bultzatu nahi baitira.
Esperientzia zehaztu eta lantzeko inplikazioa ageri duten eragileak	Artea taldearen nortasun-ezaugarria izatea lortu nahi dute, eta, ondorioz, dinamika hori integrazioarako bitarteko bat izatea. Programaren bidez, gazte immigranteak eta bertako gazteak gerturatu nahi dira, bitartekaritzako eta bizikidetzako eremu hauetan: arte eta ofizioen udal-eskolako fundazioa, musika-eskola eta Olesa de Montserrat-eko gazteria-saila.
Esperientziaren zeharkakotasuna	
Erabilitako baliabideak	
Erabilitako metodologia	Saio teoriko batez hasi zen proiektua, esparru teorikoko eta egingo ziren praktiketako alderdi guztiak berregin eta adosteko. Horrez gain, demografia-azterketa sakon bat egin zen. Ondoren, ekintza-fasean, askotariko jarduerak egin ziren parte

Erabilitako metodologia	Saio teoriko batez hasi zen proiektua, esparru teorikoko eta egingo ziren praktiketako alderdi guztiak berregin eta adosteko. Horrez gain, demografia-azterketa sakon bat egin zen. Ondoren, ekintza-fasean, askotariko jarduerak egin ziren parte hartzaileekin: gizarte- eta arte-saioak eta askotariko lantegiak (dantza, marrazketa/margoketa, literatura-adierazpena, sukaldaritza-trukeak, etab.). Programaren azken fasea ebaluazioarena da, eta, bertan, gazteen satisfazio-maila neurtzen da, eta proiektuaren ebaluazio orokor bat egiten.
Emaitzen balorazioa	Programa betetzeko proiektua. Aurreikusitako emaitzen artean, nabarmendu behar da immigranteak udalerriko baliabide eta zerbitzu normalizatuera gerturatzeko direla, askotariko iatorria duten gazteen arteko harremanak estutzen

Iturria: <http://www.integralocal.es/>

JARDUNBIDE ETA ESPERIENTZIA ADIERAZGARRIENAK SISTEMATIZATZEKO FITXA

Esperientziaren izenburua eta hari dagokion plana edo proiektua	<p><i>Equality for all (Berdintasuna guztiontzat)</i></p> <p>Arrazismoaren aurkako aste europarra (2009ko martxoak 14 - 22)</p>
Udalerrria eta herrialdea	<p>Ipar Irlanda</p>
Lurralde-ezaugarrien deskribapena	<p>Estatu-mailako kanpaina, tokian-tokian ekintzak egiteko aukera ematen duena.</p>
Esperientziaren deskribapena: helburuak, nori zuzenduta dagoen, estrategiak, inplementatutako ekintzak, egutegia (iraupena, faseak, etab.)	<p>Lau ardatz estrategiko ditu kanpaina, eta, horietan, sentsibilizazio-jarduera ugari txertatzen dira. Hauek dira lau ardatzak:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1) Dibertsitatearekiko errespetua; arrazismoaren eta diskriminazioaren aurkako borroka; aurreiritziak eta estereotipoak ezabatzea; eskubide-berdintasuna guztiontzat. 2) Ipar Irlandako berdintasun-batzordearen lana eta eskumenak ezagutaraztea. 3) Giza ezaugarri anitzeko gizarte onurak ezagutaraztea. 4) Zorrotzak izatea arrazismoaren aurkako borrokan: arrazismoa legez kontrakoa da. <p>Ardatz horien baitan, sentsibilizazio-ekintza ugari txertatzen dira; esaterako:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zuri-beltzean pentsatzeari uztea. - Sortzailea eta alaia izatea. - Kanpainako jardueraren bat planifikatzea. - BAT egin dezagun (we are UNITED) - Hainbat kolektibori buruzko materialak sortzea (kultura-gidak, etab.).
Esperientzia zehaztu eta lantzeko inplikazioa ageri duten eragileak	<p>Naughton Gallery at Queen´s galeria eta Ulsterreko unibertsitatearen inplikazioa lortu zuten Ipar Irlandako berdintasun-batzordeak eta UNITED sareak. Liburutegi handietan eta gazte-klubetan banatu ziren kanpainako materialak.</p>
Esperientziaren zeharkakotasuna	
Erabilitako baliabideak	

Erabilitako metodologia	Sare-lana izan da kanpainako lanabes nagusia; izan ere, UNITED izeneko sarearen bidez egin dira jarduera gehienak (Arrazismoaren aurka egiteko eta immigranteei eta errefuxiatuei sostengua emateko sare europarra). Lankidetzak eta baterako ekintzak dira sare horren lanaren oinarria; izan ere, askotariko jarduerak eta ekimenak konpartitzen dituzte, elkar errespetatuz.
Emaitzen balorazioa	
Oharrak / komentarioak	

Iturria: <http://www.equalityni.org>

JARDUNBIDE ETA ESPERIENTZIA ADIERAZGARRIENAK SISTEMATIZATZEKO FITXA

Esperientziaren izenburua eta hari dagokion plana edo proiektua	<i>Do your thing.</i> Zer egin dezakete toki-administrazioek etnia-taldeen arteko elkar ulermena hobetzeko?
Udalerrria eta herrialdea	Tilburg – Herbehereak
Lurralde-ezaugarrien deskribapena	
Esperientziaren deskribapena: helburuak, nori zuzenduta dagoen, estrategiak, inplementatutako ekintzak, egutegia (iraupena, faseak, etab.)	<p>Tilburg hirian etnia-taldeen arteko integrazioa sustatzea da "Egin zeurea" proiektuaren helburua. ROC Midden-Brabant izeneko institutuak antolatzen du, gazte, adineko, immigrante eta bertakoentzat, eta denak hilean behin bueltatzen dira ekitaldira. Hilean behin, Ospearen Aretoko ibiltokian azaltzen dira gazteak, Tilburg hiriko fabrika zahar batean. Larunbat arratsaldetan egiten da, gazteek beren bizi-estiloa jendaurrean aurkezteko aukera izan dezaten. Gazteek aukeratzen dute zer egin: hitz egin, dantzatu, kirol-jarduerak egin, etab. Jarduera honek etnia-taldeen irudi ona ematen du, elkar ulertzen laguntzen du, eta, bide batez, handitu egiten da kaleetako segurtasuna.</p> <p>Hileko hirugarren larunbatean, ikuskizun bat antolatzen da, eta 15 eta 23 bitarteko gazteak aurkez daitezke parte hartzeko. Guztira, 10 erakustaldi egiten dira eta 60 gaztek parte har dezakete.</p> <p>Ikasle-talde batek antolatzen ditu jarduerak. Talde horrek zenbait azpitalde ditu, harreman publikoak, erregistroa eta produkzioa lantzeko.</p> <p>Harreman publikoetako azpitaldeak gazteen bila aritzen dira, zentro komunitarioetan, autolaguntzako erakundeetan, eskoletan eta kaleetan. Parte hartzaileek egin nahi dutena antolatzeaz arduratzen da erregistroen eta prozeduren azpitaldea. Produktuen azpitaldea, berriz, ikuskizuna aurkezten du eta emankizun konkretuak prestatzeaz arduratzen da, programaren baitan. Zine-produktore batek proiektuan parte hartzen du, eta sei ataleko sail bat egiten ari da ferriako parte-hartzaileei buruz. Gazteek beraiek egiten dute "Egin zeurea" proiektua, eta, zeharka, Tilburg hiriko biztanleen zati batengana iristen da.</p>
Esperientzia zehaztu eta lantzeko inplikazioa ageri duten eragileak	
Esperientziaren zeharkakotasuna	
Erabilitako baliabideak	Tilburg udalerrriak dirulaguntza bat eman du proiektua finantzatzeko.
Erabilitako metodologia	
Emaitzen balorazioa	<ul style="list-style-type: none"> - Parte-hartzaileen kopurua 25etik 60ra igo da programako. - Emaitzen adierazpena nabarmena da kirol-elkarteen

	<p>eta dantza-taldeen kide berriak hartzeko izaten dituzten eskaeren gorakadan.</p> <ul style="list-style-type: none">- Hobeto ulertzen da taldeen izaera.- Gaueko bizitzako jardueren aitortzea. Giro lasaiagoa dago taberna eta diskoteketan.- Aurreiritziak atzean geratzen ari dira.
Oharrak / komentarioak	

Iturria: http://europa.eu/index_es.htm

JARDUNBIDE ETA ESPERIENTZIA ADIERAZGARRIENAK SISTEMATIZATZEKO FITXA

Esperientziaren izenburua eta hari dagokion plana edo proiektua	"Wij Amsterdammers" ("Gu amsterdarrak") eta "Platform Amsterdam Samen" ("Amsterdam Guztiok Batera") horien plataforma.
Udalerrria eta herrialdea	Amsterdam – Herbehereak
Lurralde-ezaugarrien deskribapena	
Esperientziaren deskribapena: helburuak, nori zuzenduta dagoen, estrategiak, inplementatutako ekintzak, egutegia (iraupena, faseak, etab.)	<p>Giro politikoa nahiko nahasia zen garaian Amsterdam hiriko toki-eremuan sortu zen proiektu bat da; zehazki, Pim Fortuyn politikaria eta Theo Van Gogh zinemagilea hil eta gero. Gertaera horren ondorioz, gizartean galdera eta zalantza ugari sortu ziren, beren hiriaren nahiz bizikidetzaren kulturantzaren etorkizunari dagokionez.</p> <p>Proiektuak hiru helburu handi ditu, eta horiek jarduketa- eta ekintza-multzo baten bidez lortu nahi ditu:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Hiriaren eta jendearen artean loturak egitea, bai eta talde edo kolektibo desberdinen artean ere. Helburu horren bidez, benetako kidetasun-sentimendua sortu nahi da Amsterdam hiriarekiko. Horretarako, honako estrategia hauek ezarriko dira: sare sozial sendoak sortzea eta hirian bizi diren giza taldeen artean hainbat topagune antolatzea. 2. Polarizazioaren aurka Amsterdam indartzea. Helburu horrekin "besteari" buruzko irudi positiboa sortu nahi da, diskriminazioaren nahiz biztanleria etorkinak bizi duen diskriminazio-sentipenaren aurka borrokatu, eta sinismen erlijioso desberdinen arteko elkarreragina bultzatu, gatazka erlijiosoak ere kudeatzen saiatzeko. Helburu hori lortzeko definitutako estrategiak honako hauek dira: eztabaida publiko handi bat sortzea²⁶, pertsona guztien parte-hartzea indartu eta sustatzea, eta, azkenik, diskriminazioaren aurkako ekintzak garatzea. 3. Erradikalismoaren aurka aurrera eraginez borrokatzea. Komunitate islamiarra indartzea da asmoa; horretarako, hain zuzen, hainbat gizarte-eragilek esku hartzea lortu nahi da (esku-hartzeetako profesionalak, GKEak eta meskitetako erreferente erlijiosoak). Zehazki, honako neurri hauek proposatu dira. Alde batetik, musulmanen elkarteei eta meskitei laguntzea: islama ezagutaraztea eta elkarrizketaren alde egitea; eta, bestetik, erradikalismo erlijiosoari eraginkortasunez aurre egitea, islamaren praktika ortodoxotik bereiziz.
Esperientzia zehaztu eta lantzeko	Islamaren erradikalismoa eta eskuin-muturraren

<p>Esperientzia zehaztu eta lantzeko inplikazioa ageri duten eragileak</p>	<p>Islamaren erradikalismoa eta eskuin-muturraren erradikalismoa landuko dituen Unitate Berezia: unitate horren helburuetako bat erradikalismoa eta islamaren praktika ortodoxoa bereiztea da, bai eta eskuin muturraren erradikalismoa eta eskuineko praktika politikoa edo ideologia bereiztea ere. Hori dela-eta, unitate honetan erlijio islamiarraren nahiz erradikalismoaren adituak daude; horrela testuinguru eta diskurtso berezi bat sor dezakete, goiko lerroetan aipatutako bereizketa hori zabaltzen lagunduko duena.</p> <p>Islamaren erradikalismoari dagokionez, zereginen edo helburuen bi multzo handi daude. Batetik, imanekin eta musulmanen taldeko lider garrantzitsuekin (gizartekoak nahiz erlijiosoak) harremanetan jartzea eta elkarrekin lan egitea erradikalak eta islamaren praktikanteak bereizteko; horrela, prebentzioa landuko da “erradikalismoaren gizarte-haztegi” izendatzen dituzten eremuetan. Eta bestetik, gazte erradikalekin zuzenean lan egitea, bai neurri polizialak eta judizialak erabiliz, bai birgizarteratze-proposamen baten bidez; horretarako, erlijio musulmanaren lider moderatuekin eta erlijio-sinesgarritasun handia dutenekin harremanetan jarriko dira.</p> <p>Meskitekin eta musulman-elkarteekin harremanetan jartzea eta koordinazioan jardutea lan-prozesu honetan arrakasta lortzeko bermeetako bat da.</p> <p>Eskuin muturreko erradikalismoari dagokionez, planteamendua antzekoa da: helburua diskriminazioaren eta tolerantziarik ezaren aurka borrokatzea eta horiekin amaitzea da, bai eta talde horiek atzeritarrekin, oro har, eta musulmanekin, bereziki, dituzten indarkeriazko jarrera eta jokabide negatiboak errotik kentzea ere. Hori lortzeko, beraz, sare formalak eta informalak erabiltzen dira, eta, horrez gain, muturreko erradikalismoaren kasuak hautematen dira.</p>
<p>Esperientziaren zeharkakotasuna</p>	<p>Unitate Berezia diziplina anitzekoa da, bertan hainbat esparrutako kideak baitaude: poliziak, Ekialde Ertaineko erlijioen eta, oro har, erradikalismoaren (erlijiosoa edo ez) adituak, gizarte-langileak, soziologoak...</p>
<p>Erabilitako metodologia</p>	<p>Estrategia elkarrizketaren printzipioan oinarritzen da, eta eztabaiden inguruan eraikitzen da.</p>

Emitzen balorazioa	
Oharrak / komentarioak	

<http://www.amsterdam.nl/wijamsterdammers>

JARDUNBIDE ETA ESPERIENZIA ADIERAZGARRIENAK SISTEMATIZATZEKO FITXA

Esperientziaren izenburua eta hari dagokion plana edo proiektua	Sentsibilizaziorako eta Parte-hartze Sozialerako Programa - 2009
Udalerrria eta herrialdea	Municipi D'Ártá- Balear Uharteak - Espainia
Lurralde-ezaugarrien deskribapena	7.200 biztanleko udalerrri bat da, eta horien %10 Europako Erkidegotik kanpoko egoiliarak dira.
Esperientziaren deskribapena: helburuak, nori zuzenduta dagoen, estrategiak, inplementatutako ekintzak, egutegia (iraupena, faseak, etab.)	<p>Artako Udaleko Gizarte-hezkuntza Sailaren bidez, Sentsibilizaziorako eta Parte-hartze Sozialerako Programa bultzatu dute, gizartean bizikidetzeta eta diskriminazioaren aurkako borroka sustatuko dituen ekintza publiko bat eragiteko eta horren ildoak zehazteko; hori, hain zuzen, etorkinen nahiz udalerrian jaiotakoak diren pertsonen parte-hartze sozialaren eta kulturalaren bidez egingo da.</p> <p>Honako hauek dira proiektuaren helburu nagusiak:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1) Artan elkarrekin bizi diren giza talde desberdinek elkar ezagutu dezaten laguntzea. 2) Elkartasunezko eta tolerantziatzko jarduerak sustatzea. <p>Sentsibilizaziorako eta parte-hartzerako udal-proiektua biztanleria guztiari dago zuzenduta, oro har. Zehazki, honako jarduera hauek garatu dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Dóna 'ns la mà</i> (Eman eskua): udalerriko kulturartekotasuna lantzen duen ikastaro-mintegia. - <i>Marrazketa-lehiaketa bat sortzea eta antolatzea.</i> - <i>Kulturarteko sukaldaritzeta-liburu bat editatzea eta argitaratzea.</i> - <i>Herritarren sentsibilizaziorako eta lankidetzarako kulturarteko astea antolatzea:</i> erakusketa, munduko ipuinen kontaketa, pelikula-emanaldiak, jokoak, tailerrak eta jarduerak, eta kulturarteko afaria ("sopar").
Esperientzia zehaztu eta lantzeko inplikazioa ageri duten eragileak	Artako udalerrria. Jarduerak garatzeko, udalerriko hainbat gizarte-erakunde eta -organizazio hartu dira kontuan.
Esperientziaren zeharkakotasuna	
Erabilitako baliabideak	Jarduera desberdinak egiteko materialak (sukaldaritzeta-liburua, DVDak): dibulgaziozko liburuxkak, musika-edo antzerki-taldeen kontratazioak, pelikulen alokairua, kulturarteko afaria, soinu-ekipoak...
Erabilitako metodologia	Metodologia praktikoa eta parte-hartzailea izango da oso. <i>Dóna 'ns la mà</i> ikastaroari dagokionez, parte-hartzaile bakoitzak esku-hartze bat prestatu beharko du, ematen zaien gidoi labur bati jarraiki. Hizlariaren

	<p>baimenarekin, ikasgaietako bakoitza gorde egingo da, eta, horrela, ikastaro-mintegiaren amaieran, liburu-DVD bat egin ahal izango da. Liburu horri esker, pertsona orok Arta herriko kulturarteko errealitatea ezagutu ahal izango du, atzerriko biztanleen beren ahotsetik.</p> <p>Ikastaroa honako hamabi ikasgai hauek osatuko dute: Bolivia, Maroko, Alemania, Ekuador, Ingalaterra, Senegal, Peru, Euskadi, Italia, Txina, Errumania eta Errusia.</p>
Emitzen balorazioa	
Oharrak / komentarioak	<p>Etorkinen Integrazioarako Zuzendaritza Nagusiak diruz lagundutako proiektu bat da (Lan eta Immigrazio Ministerioa).</p>

Esperientziaren izenburua eta hari dagokion plana edo proiektua	Jardunbide Egokien eta Kulturarteko Prestakuntzaren Gida.
Udalerrria eta herrialdea	"Campo Arañuelo" Udalerrien Mankomunitate Integrala - Extremadura Espainia.
Lurralde-ezaugarrien deskribapena	Extremadurako zona horretara atzerritarrak iristeko motiboa nekazaritza-kanpainetan izaten den jornalarien premia da; kanpaina horiek bata bestearekin lotzen dira denborari dagokionez (fruta-arbolak, tomatea, piperrak, tabakoa...), eta, horren ondorioz, jornalari asko eta haien familiak zona horretan gelditzen dira, behin betiko.
Esperientziaren deskribapena: helburuak, nori zuzenduta dagoen, estrategiak, inplementatutako ekintzak, egutegia (iraupena, faseak, etab.)	<p>Jardunbide Egokien eta Kulturarteko Prestakuntzaren Gida bat egitea biztanleria osoarentzat; bertan, hainbat atal egongo dira, esaterako: giza eskubideak, balioak, elkarrekiko ezagutza... Helburua oinarri sendoak jartzea da, kontzientzia hartzen joan daitezen, eta, emigratzeko erabakia hartzerantz bultzatzen dituzten motibazioei, sentimenduei, jokabideei eta premiei dagokionez, iritzi egoki bat har dezaten; bestalde, genero-ikuspegia zeharka eta etengabe landuko da. Gidaren, sentsibilizazio-jardunaldien eta "Herrien kultura" jardueraren helburuak honako hauek dira:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1) Giza eskubideei eta herritartasunari buruzko ideiak eta balioak biztanleria guztiari zabaltzea. 2) Herritarrentzat immigrazioari buruzko dokumentu argi bat prestatzea, erabilgarria dena eta erraz kontsulta daitekeena. 3) Bizikidetzaren harremanak sustatzea; horretarako, bakoitzak bizi izandako esperientziak trukatu dituzte, azterketa bultzatu eta migrazio-fenomenoari dagokionez kontzientzia kritikoa garatzea sustatuko dutenak. 4) Immigrazioak Mankomunitateko biztanleen artean duen irudia hobetzea, eta dibertsitatea ezaugarri duen gizarte baten alderdi positiboak sustatzea. 5) Biztanleria etorkinak eta autoktonoak bat egiteko foro bat ezartzea. 6) Hazten ari den kultura-dibertsitatearen errealitate konplexua lantzea, elkarrenganako errespetuan eta bizikidetzan oinarritzen den ikuspegitik. 7) Lanbide-sustapenaren eta prestakuntzaren alde egitea, eta, aldi berean, biztanleria langileak dituen gaitasunak lan-merkatuan dauden aukeren arabera egokitzea. <p>Aipatutako helburu horiek lortzeko, honako jarduera hauek gauzatuko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ikertzea eta materialak biltzea. - Sentsibilizatorako liburuxkak eta bestelako material propioak editatzea.

	<ul style="list-style-type: none"> - <i>Jardunbide Egokien eta Kulturarteko Prestakuntzaren Gida</i> egitea. - <i>Emakumea eta immigrazioa gaietan sentsibilizatzeko jardunaldiak</i> antolatzea. - <i>"Herrien kultura"</i>: eskualdearen egunean, hainbat gauza egingo dira: erakusketak, antzezpenak, gastronomia, folklorea...
Esperientzia zehaztu eta lantzeko inplikazioa ageri duten eragileak	"Campo Arañuelo" Udalerrien Mankomunitate Integrala; jardueran hainbat eragilek hartuko dute parte: ikastetxeek, lehen arretako osasun-zentroek, elkarteek...
Esperientziaren zeharkakotasuna	
Erabilitako baliabideak	Jarduerak garatzen esku hartzen duten langile guztiak, bai eta helburu hori lortzeko behar den material guztia ere.
Erabilitako metodologia	Jarduera bakoitza metodologia egoki bati jarraiki garatuko da jarduera horren helburua lortzeko; nolana ere, guztietan izango da lan parte-hartzailea, proiektu desberdinetan parte hartzen duten pertsonen premiak eta iritziak aintzat hartuko baitira. Metodologiaren helburua erlazioa bultzatzea da; beste biztanle-talde batzuekiko lotura bilatu behar da, jarduera komunei irekita dauden programetan.
Emaitzen balorazioa	Immigrazioaren egungo errealitateari buruzko interesa piztea lortu nahi da, eta, aldi berean, migrazio-fenomenoa nahiz horrek inguruan eragiten dituen ondorio pertsonalak, sozialak eta lan-arlokoak ahalik eta herritar gehienek ulertzea, bakoitzak dagokion mailan (langileak, ikasleak, elkarteak, hainbat udal-zerbitzuren erabiltzaileak...); horrez gain, zonan erreferente bihurtu nahi da.
Oharrak / komentarioak	Etorkinen Integrazioarako Zuzendaritza Nagusiak diruz lagundutako proiektu bat da (Lan eta Immigrazio Ministerioa).

JARDUNBIDE ETA ESPERIENTZIA ADIERAZGARRIENAK SISTEMATIZATZEKO FITXA

Esperientziaren izenburua eta hari dagokion plana edo proiektua	<i>Equality and Diversity Forum-EDF</i> (Berdintasunaren eta Dibertsitatearen Foroa)
Udalerrria eta herrialdea	Erresuma Batua
Lurralde-ezaugarrien deskribapena	
Entitate bultzatzailea	<p>Honako alor hauetan lan egiten duten erakundeen sarea: aukera-berdintasuna, justizia soziala, erkidegoarteko harremanak, giza eskubideen errespetua eta hainbat ezaugarri direla-eta (adina, ezintasuna, sexua, sexu-joera, etnia-jatorria edo arraza, erlijioa edo sinismena...) egiten den diskriminazioaren aurkako borroka.</p> <p>Kideak: Advice UK; Age Concern England; Board of Deputies of British Jews; British Humanist Association; British Institute of Human Rights; Children's Rights Alliance for England; Citizens Advice; Discrimination Law Association; End Violence Against Women Campaign; Equality Challenge Unit; Fawcett Society; Forum Against Islamophobia and Racism; Help the Aged; Institute for Public Policy Research; JUSTICE; Law Centres Federation; Liberty; Mind; National AIDS Trust; Policy Research Institute on Ageing and Ethnicity; Press for Change; Race On The Agenda (ROTA); RADAR; Refugee Council; RNIB; RNID; Runnymede Trust; Scope; Stonewall; The Age and Employment Network; Trades Union Congress; UKREN; UNISON; Unite the Union (Amicus section); Women's Budget Group; Women's National Commission; Women's Resource Centre.</p> <p>Behatzaileak: 11 Million (Children's Commissioner for England); 1990 Trust; Acas; British Council; Business in the Community; Carers UK; Centre for Inclusion and Diversity, University of Bradford; Churches Together in Britain and Ireland; Communities and Local Government; Confederation of British Industry; Department for Business, Enterprise and Regulatory Reform; Department for Work and Pensions; Department of Health; Employers Forum on Age; Employers Forum on Belief; Employers' Forum on Disability; Equal Rights Trust; Equality and Human Rights Commission; Equality North East; Equality South West; The European Union Agency for Fundamental Rights (FRA); Friends, Families and Travellers; Government Equalities Office; GrandParents Plus; Improvement and Development Agency (IDeA); InterFaith Network UK; Joint Committee on Human Rights; Local Government Association; Men's Health Forum; Ministry of Justice; Muslim Council of Britain; National Council for Voluntary Organisations; Odysseus Trust; Office for Disability Issues; Oxfam; Religion and Belief</p>

	Consultative Group; Scottish Council for Voluntary Organisations; Wales Council for Voluntary Action.
<p>Esperientziaren deskribapena: helburuak, nori zuzenduta dagoen, estrategiak, inplementatutako ekintzak, egutegia (iraupena, faseak, etab.)</p>	<p>Hauak dira helburuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Berdintasuna nahiz hainbat ezaugarri direla-eta egiten den diskriminazioaren aurkako borroka sustatzea; besteak beste, honako hauek dira diskriminazioa eragiten duten ezaugarri batzuk: adina, ezintasuna, sexua, sexu-joera, etnia-jatorria edo arraza, erlijioa edo sinismena, eta horien arteko edozein konbinazio. - Giza eskubideak sustatzea. -Boluntario-lana sustatzea, gizarteak efikaziaz eta eraginkortasunez joka dezan berdintasun-alorrean, diskriminazioaren aurkako borrokan eta giza eskubideen sustapenean. - Berdintasun-alorreko gatazkak konpontzeari eta adiskidetzeari dagokionez aurrera egitea. <p>Honako hauek dira Berdintasunaren eta Dibertsitatearen Foroaren jardura nagusiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Azaldutako gaiei dagokienez, Foroko kideek informazioa, esperientziak eta jarduerak trukatzeko. - Elkarrizketarako eta sareko lana egiteko espazio bat bultzatzea. - Esperientziak trukatzeko eta sarean lan eginez, hirugarren sektorea indartzea. - Aipatutako gaiei buruzko ikerketak eta mintegiak egitea. - Aldian behin topaketak antolatzea, komunikazioa eta jardunbide egokien trukaketa bultzatuko dituztenak, bai eta berdintasunerako nahiz giza eskubideen alorrerako politika publikoen garapena ere.
<p>Esperientzia zehaztu eta lantzeko inplikazioa ageri duten eragileak</p>	<p>Berdintasunaren eta Dibertsitatearen Foroa eta hori osatzen duten kide guztiak. Berdintasuna, giza eskubideak eta diskriminazioaren aurkako borroka sustatzen esku hartzen duten hainbat administrazio publikorekiko koordinazioa indartzen hasi dira.</p>
<p>Esperientziaren zeharkakotasuna</p>	
<p>Erabilitako baliabideak</p>	<p>PROGRESS Europako Finantziarioa</p>
<p>Erabilitako metodologia</p>	<p>Bertako kide eta kolaboratzaile guztien arteko elkarrizketan, errespetuan eta parte-hartzean oinarritzen den foro bat da.</p> <p>Halaber, sareko lana egingo da, honako helburu honekin: informazioa, esperientziak eta jardunbide egokiak trukatzeko. Aldian behin, aldizkari bat argitaratzen dute: <i>Equal Opportunities Review</i>, and</p>

	<i>Mature Times</i>
Emitzen balorazioa	
Oharrak / komentarioak	

JARDUNBIDE ETA ESPERIENTZIA ADIERAZGARRIENAK SISTEMATIZATZEKO FITXA

Esperientziaren izenburua eta hari dagokion plana edo proiektua	<i>Everyone is equal</i> (Guztiok berdinak gara)
Udalerrria eta herrialdea	Erresuma Batua
Lurralde-ezaugarrien deskribapena	
Entitate bultzatzailea	
Esperientziaren deskribapena: helburuak, nori zuzenduta dagoen, estrategiak, implementatutako ekintzak, egutegia (iraupena, faseak, etab.)	<p>Europako Progress ekimen bat da, eta horren helburua diskriminazioaren aurka borrokatzea da, indarrean dagoen diskriminazioaren aurkako legedian jasotako eginbeharrei eta eskubideei buruzko informazioa nahiz horien ezagutza oinarri hartuta.</p> <p>Jarduerak Erresuma Batuko hainbat lekutan gauzatu dira; horiek gauzatzeko, gainera, kontuan hartu dira dibertsitateari dagokionez testuinguru bakoitzean dauden alderdi garrantzitsuak eta esanguratsuak. Hona hemen programa honen baitan egin diren jarduketan adibide batzuk:</p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>BEMIS and STUC</i> (Ethnic Minorities Law Centre) - Edinburgoko Jaialdia / <i>Edinburgh Festival</i> (Ethnic Minorities Law Centre) - TUC Maiatzeko Rally Eguna/ <i>TUC May Day Rally</i> (Chesterfield Law Centre) - Gorren Jaialdia / <i>Deaf Festival</i> (Chesterfield Law Centre) - 3D Berdintasunaren eta Dibertsitatearen bazkaria / <i>3D Equality and Diversity launch</i> (Chesterfield Law Centre) - T parkean / <i>in the Park</i> (Ethnic Minorities Law Centre) - Mitchaneko inauteriak / <i>Mitcham Carnival</i> (South West London Law Centres) - Herritartasunaren Eguna Croydonen / <i>People's Day in Croydon</i> (South West London Law Centres) - <i>Glasgow MELA</i> (Ethnic Minorities Law Centre)

	<ul style="list-style-type: none"> - Nottinghameko urguilua / <i>Nottingham Pride</i> (Chesterfield Law Centre) - Loturen eta gaitasunen topaketa / <i>Connexions Event Skills Festival</i> (Chesterfield Law Centre)
Esperientzia zehaztu eta lantzeko inplikazioa ageri duten eragileak	<p>Law Center Federationek (LCF) proiektua koordinatzen du, tokiko eta eskualdeko agentziekin lankidetzan:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Carlisle Law Centre - covering the North West of England, especially Cumbria - Ethnic Minorities Law Centre - Scotland - Newport Citizens Advice Bureau - Wales - Southampton Advice and Representation Centre - South West of England - Kirklees Law Centre - Yorkshire and Humberside - Chesterfield Law Centre - Midlands - South West London Law Centres - London - Alnwick Citizens Advice Bureau - North East of England
Esperientziaren zeharkakotasuna	
Erabilitako baliabideak	PROGRESS Europako Finantziazioa
Erabilitako metodologia	Proiektuan askotariko materialak erabili dira (posterrak, postalak, banderatxoak, standak, dibulgaziozko liburuxkak...), diskriminazioaren aurka borrokatzeko eta alor horretako legeei buruzko informazio emateko.
Emaitzen balorazioa	
Oharrak / komentarioak	

Esperientziaren izenburua eta hari dagokion plana edo proiektua	“ONE-STOP-SHOP: A New Answer for Immigrant Integration”
Udalerrria eta herrialdea	Portugal
Lurralde-ezaugarrien deskribapena	Estatu-mailako proiektua da. Bi zentro daude Lisboa eta Oporto hirietan, biztanleria egoiliarraren kontzentrazio handiena den lekuetan, hain zuzen; ordezkaritza bat Faron (Algrave), etorkinen kopurua halaber oso handia den hirian; eta, azkenik, nazio-lurralde guztian etorkinen integrazioari laguntzeko tokian tokiko 83 zentroyen sarea dago.
Entitate bultzatzailea	Immigrazioarako eta Kulturarteko Elkarrizketarako goi-komisarioa (ACIDI – IP) – Etorkinen integrazioarako estatu-erakundea.
Esperientziaren deskribapena: helburuak, nori zuzenduta dagoen, estrategiak, inplementatutako ekintzak, egutegia (iraupena, faseak, etab.)	2004. urtean, Portugalek estrategia bat garatu zuen (<i>One-Stop-Shop</i>), proiektu berritzaile baten bitartez; zehazki, Etorkinei Laguntzeko Zentro Nazionalak izen ofiziala hartu zuen. Bereziki etorkinei laguntzeko baliabideen bi zentro sortu zituzten. Portugalgo bost gobernu-ministeriorekin koordinatuta, laguntza espezifikoak eta arreta ematen zaie hainbat alorretan: erregularizazioak, egoitza-baimenak, familien berrelkartzea, enplegu-eskaera, portuguesaren ikastaroak atzerritarrentzat, kultura-bitartekaritarako zerbitzuak... One-Stop-Shop moduaren azpian dagoen estrategia erabiltzaileari erantzun global bat ematea da, xede den jendartearen datu komunak kudeaketa-sistema batean oinarrituta; horrela, datuen eta dokumentuen digitalizazioa erraztu eta zentralizatu egiten da, bai eta gobernu sail desberdinen arteko komunikazioa ere. Gainera, zentro horietan etorkin-komunitate desberdinen arteko kultura-bitartekarien aurrez aurreko laguntza izaten da; bitartekari horien bidez, gardentasun-, errespetu- eta duintasun-kutsua ematen zaie Portugalgo administrazio publikoarekin izaten diren harremanei.
Esperientzia zehaztu eta lantzeko inplikazioa ageri duten eragileak	Europako Batzordeak (Justizia, Askatasuna eta Segurtasunaren Zuzendaritza Nagusia) finantzaturako Europako proiektu baten parte izanik, eta Immigrazioarako eta Kulturarteko Elkarrizketarako goi-komisarioak (ACIDI - IP) sustatu eta koordinatu duenez, erantzukizun partekatuen filosofia kontuan hartuta egin da lan; hau da, etorkinen integrazioarekin lotutako gizarte-eragile ugari hartu dute parte: erabaki politikoak hartzen dituzten pertsonak; tokiko, eskualdeko eta estatuko gobernu-eragileak; zerbitzuak ematen dituztenek; ikertzaile akademikoak; etorkinen elkarteak...

Esperientziaren zeharkakotasuna	
Erabilitako baliabideak	2004. urtean, Etorquinei laguntzeko Zentro Nazional horiek abian jarri ziren Portugalen, eta, horretarako, 1,4 milioi euroko konpromisoa hartu zen; zehazki, Immigrazioaren eta Gutxiengo Etnikoen goi-komisarioak hartu zuen bere gain konpromiso hori. 2007. urtean, berriz, Immigraziorako eta Kulturarteko Elkarrizketarako goi-komisarioaren (ACIDI - IP) aurrekontu-zatirik handiena (5,51 milioi euro) Portugalgo Lan eta Elkartasun Sozialaren Ministerioak finantzatu zuen.
Erabilitako metodologia	Etorquinei Laguntzeko Zentro Nazionaletako Informazio partekatutaren sistema (IT) formula oso berritzailea izan zen; horri esker, gainera, Immigraziorako eta Kulturarteko Elkarrizketarako goi-komisarioak (ACIDI – IP) Portugalgo Sektore Publikoko Jardunbide Egokien saria jaso zuen 2004/2005ean. Etorquin bakoitzari buruzko informazio digitalizatua izanez eta elkarrekin trukaturaz, arreta emateko prozesuak asko erraztuko dira, dokumentu erregularizatua lortzearekin edota bertan jarraitzeko, lan egiteko edo bizitzeko baimenak berritzearekin lotutako prozedura guztietan. Modu paraleloan, etorkinentzat larrialdien arretarako telefono-zerbitzu bat izateari esker, erabiltzaile bakoitzak telefonoaren bidez lor dezake bere prozesuari buruzko informazioa.
Emaitzen balorazioa	Migrazioen Mundu Erakundearen (IOM) aipamena azpimarratu behar da; nazioarteko sare bat garatzea aholkatu zuen, One-Stop-Shops estrategien eredia integraziorako eredutzat ebaluatzeko, bai eta Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetan abian jartzeak izango zukeen bideragarritasuna aztertzeko ere.
Oharrak / komentarioak	

JARDUNBIDE ETA ESPERIENZIA ADIERAZGARRIENAK SISTEMATIZATZEKO FITXA

Esperientziaren izenburua eta hari dagokion plana edo proiektua	Dibertsitate-politika Amsterdameko Udalean
Udalerrria eta herrialdea	Amsterdam Herbehereak
Lurralde-ezaugarrien deskribapena	
Entitate bultzatzailea	Amsterdameko Udala
Esperientziaren deskribapena: helburuak, nori zuzenduta dagoen, estrategiak, inplementatutako ekintzak, egutegia (iraupena, faseak, etab.)	<p>Dibertsitate- eta integrazio-politika bat garatzea bereziki ahulak diren taldeentzat (emakumeak, etorkinak, ezintasuna duten pertsonak, homosexualak eta bazterketa-arriskua duten biztanleria autoktonoa), diskriminazio positiboak ekintzak sustatuz talde ahul horiek Amsterdameko Udalean lanean has daitezten.</p> <p>Amsterdameko Udalak udalerrian bizi den dibertsitatearen isla izan behar du; egiaz, ordea, talde horiek oraindik ez dira behar beste agertzen udaleko hainbat zerbitzutan.</p> <p>Garapen Sozialerako Zerbitzuak (<i>Social Development Service DMO</i>) talde horien presentziari buruzko azterketa bat egin du (enplegatu-kopurua, prestakuntza-maila, ordainsarien maila...); hori oinarritzat hartuta, beraz, hainbat ekintza garatu eta aholkuak eman ditu udal-langileen hautaketa- eta erreklutatze-prozesuetarako.</p>
Esperientzia zehaztu eta lantzeko inplikazioa ageri duten eragileak	Amsterdameko Udala
Esperientziaren zeharkakotasuna	Garapen Sozialeko Zerbitzua (<i>Social Development Service DMO</i>) Amsterdameko Udalaren baitan dagoen politika integral bat da; hori dela-eta, bertako sail guztietan eragiten du.
Erabilitako baliabideak	
Erabilitako metodologia	Errealitatea ezagutzeko aukera ematen dien azterketa bat hartzen dute oinarri, hainbat eta hainbat programa abian jartzeko: prestakuntza espezifikoak dutenak, udal-langileak sentsibilizatzekoak, edota Giza Baliabideak motibatuzko teknikei buruzkoak.
Emaitzen balorazioa	Sei hilabeteen, %19,7tik %22,5era igo da Amsterdameko Udalak kontratatutako etorkinen kopurua.
Oharrak / komentarioak	

1. eranskina

Terminoen glosarioa

1. TERMINOEN GLOSARIOA.

Metodologia-gida honek berdintasunezko jokaerarekin eta diskriminazioaren aurkako borrokarekin lotutako tokiko sentsibilizazio-kanpainak abian jartzeko balio behar du. Horregatik, gai horiekin lotutako terminoen glosario bat izatea lagungarria izango dela pentsatu dugu.

Beraz, metodologia-gida honetako funtsezko terminoak definitu nahi ditugu eranskin honetan, eta bide batez, hausnartzera bultzatu nahi ditugu gida hau erabiliko duten eta definitutako kontzeptuetan sakondu nahi duten pertsonak.

Hautatutako kontzeptuak definitzeko, hainbat material izan ditugu lagungarri (erreferentzia-lanak, webgune interesgarriak eta abar). Erreferentzia horiek guztiak eranskin honen amaierako bibliografia-atalean jaso ditugu.

Erakunde publikoek eta gizarte-erakundeek sentsibilizaziorako egindako materialak berrikusi ondoren, 55 kontzeptu hautatu ditugu, eta alfabetoaren hurrenkeran ordenatu. Glosarioaren amaieran, berau egiteko erabilitako bibliografia aurkeztu dugu.

AKULTURAZIOA.

Akulturazio esaten zaio hasieran giza talde autonomoak direnek egiten duten kultura-aldaketari, beren arteko zuzeneko harremanen eta elkarrekintzen eraginez. Prozesu horrek harremanetan dauden talde guztiei eragin diezaieke, baina ohikoena izaten da gutxiengoan dagoen taldeak talde hartzailearen identitate-ezaugarriak bereganatzea.

Gizabanakoen aldaketez ari bagara, akulturazio psikologiko terminoa erabiliko dugu; politikan, ekonomian, demografian eta abarretan gertatzen diren aldaketez ari bagara, berriz, talde-akulturazio terminoa.

ANTISEMITISMOA.

Antisemitismo nozioak juduen giza taldearen aurkako jarrerak eta adierazpenak biltzen ditu. Aurreiritzi horrek bultzatutako intolerantzia-moduak pertsona horiekiko diskriminazioa ekartzeaz gain, giza talde horren jazarpena ere ekarri du. Antisemitismoa, bai erlijioso bai laikoa, fenomeno *sui generis* bat da; arrazoi etniko, erlijioso, kultural, ekonomiko eta politikoko nahasketa berezia da, eta modu askotan agertzen da gizartean.

ARRAZA-JATORRIA.

2000/EE/43 zuzentarauak "baztertu egiten ditu giza arrazak badirela argudiatzen duten teoriak. Zuzentarau honetan arraza-jatorria terminoa erabiltzeak ez du esan nahi teoria horiek onartzen direnik."

Dokumentu honetan *arrazajatorria* terminoa erabiliko dugu arrazaren ordeaz, arraza bakarra baitago: giza arraza. Beraz, *arrazajatorria* terminoa erabiltzea ez da zuzena, eta arrazakeriazko adierazpenen euskarri izan daiteke.

ARRAZAGATIKO DISKRIMINAZIOA.

Beste arraza-jatorri bateko kideenganako jokabide diskriminatzailea edo abusuzkoa. Arrazagatiko diskriminazioak "arrazajatorria-, gizarte-, kultura- nahiz erlijio-irizpideetan, sexu-jokeraketan edo besteren batean oinarrituta egindako bereizketa, bazterketa, murrizketa edo lehentasun oro adierazten du. Helburu edo emaitza hau du: giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak berdintasun-baldintzetan aitortu, izan edo gauzatea ezabatu edo urritzeta, politika-, ekonomia-, gizarte- edo kultura-eremuetan nahiz beste eremuren batean"²⁷.

ARRAZAKERIA²⁸.

Idea multzo horren arabera, giza talde batek berezko nagusitasuna du beste batekiko, bai pertsonak banaka hartuta, bai maila instituzionalean. Jarduera diskriminatzaileak ekarri ohi ditu, zenbait talderen estatusa babesteko eta bere horretan eusteko, bai eta arraza-gutxiengoaren, gutxiengo etnikoen eta gutxiengo nazionalen estatus baxuari eusteko ere.

Beraz, pertsonen aurkako diskriminazio-modu bat da, teorikoa edo praktikoa, pertsona horiek arraza-jatorri edo leinu jakin bateko kideak edo etnia-, nazio-, kultura- zein erlijio-talde jakin bateko kideak izateagatik. Jarrera horrek, besteak beste, esaten du bakoitzaren berezko ezaugarri biologikoek mugatzen dutela gizakion portaera.

ARRAZAKERIA BERRIA.

Gizarteak arrazakeria baztertu duenez, jarrera arrazista berriak sortu dira, arrazakeria biologikoak jasotako gaitzespena gainditzen dutenak. Hainbat formulazioren bidez, kultura batzuk beste batzuen gainetik daudela baieztatzen da, eta Mendebaldeko kulturarako eta bizimodurako mehatxu potentziala dagoela argudiatzen da, kultura-, nazio-, erlijio- nahiz etnia-bereizgarri batzuk eta beste bereizgarri batzuk bateraezinak direlako (arrazakeria sinbolikoa). Zenbait planteamendu berriren eraginez, zeharka eta sinbolikoki adierazten da aurreiritzia; adibidez, etorkinen integrazioari laguntzeko neurrien aurka egiten da (arrazakeria modernoa), baina ez dira onartzen neurri segregazionistak eta nabarmen baztertzailak; edo bestela, jokabide diskriminatzaileak justifikatzen dira (higuin-arrazakeria).

Gure gizartean begien bistako arrazakeria-modu batzuk aurki litezke

(arrazakeria tradizionala), beste modu leunago batzuekin batera. Arrazakeria leunak bereizgarri hauek ditu: 1) Balio tradizionalen alde egiten du (horren ondorioz, etorkinak jotzen dira haien egoeraren errudun, gizartean arrakasta izateko behar den jokabiderik ez dutela izaten argudiatuta). 2) Kultura-desberdintasunak puztu egiten ditu: diskriminazioa jasaten duen taldearen desabantaila-egoera ez da gutxiago izatearen ondorioa, baizik eta kultura-desberdintasunen ondorioa. 3) Ez da kanpotaldeekiko sentimendu negatiborik agertzen (kanpotaldeetako kideekiko erreakzio emozional negatiboak izatea arrazakeria-zantzutzat har baitaiteke, eta aurreiritzi leunak ez baitu onartzen sentimendu horiek daudenik), baina bai sentimendu positiborik eza.

ATZERRITARRA.

Erreferentziatzat hartzen den komunitate politiko, sozial, kultural... batekoa ez den pertsona.

AUKERA-BERDINTASUNA.

Inolako eragile diskriminatzailearik ez egotea (sexua, estatus sozio-ekonomikoa, kultura, erlijioa, iritzi politikoa eta abar), gizabanakoak hainbat eremutan murrizketarik gabe parte har dezan (ekonomia-, politika- eta gizarte-eremuetan eta abarretan).

AURREIRITZIA.

Elementu berri edo ia ezezagunen baten aurkako kategorizazio negatiboa eta diskriminatzailea da, eta jarrera edo jokabide jakin bat ekarri ohi du. Gizarte-taldeak eta haietako kideak ebaluatzeko joerak dira. Afektibitate-eremua dute euskarri. Etnia- eta nazio-taldeekiko aurreiritziak balorazio negatiboak izan ohi dira normalean. Horrek esan nahi du, jakina, aurreiritzia duen gizabanakoak afektu negatiboak garatu dituela taldearekiko eta taldeko kideekiko. Baina baliteke aurreiritzia gizabanakoak taldeko kideekiko dituen usteetan oinarrituta egotea, eta kide horiei ihes egiteko eta haiek errefusatzeko nahiz areriotzat hartzeko asmoa izatea.

BALIO DEMOKRATIKOAK.

Demokrazia ordezkatzaileraren oinarritzko elementuak edo zutabeak dira. Hauek dira, besteak beste: giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak errespetatzea, boterea zuzenbide-estatuaren arabera erabiltzea, alderdi politikoaren erregimen plurala, eta botere publikoaren arteko bereizketa eta independentzia. Eta horiek batera, baita beste hauek ere: gobernuek kudeaketa publikoa gardentasunez, zintotasunez eta erantzukizunez gauzatzea, gizarte-eskubideak errespetatzea, adierazpen-askatasuna eta herritarren parte-hartzea.

KOEXISTENTZIA²⁹

Koexistentzia-egoeran, desberdintasunak errespetatu egiten dira; pertsonak eta giza taldeak ez dute elkarrekiko harreman aktiborik, eta elkarrengandik bananduta bizi dira. Beraz, errespetu hori pasiboa da batez ere, egiten uztekoa, eta ez dago bestearenganako batere interesik edo interes askorik. Jendea bestea desberdina dela jabetzen da, eta bestea bestelako mundu soziokultural batean bizi dela uste denez, bakean uzten zaio, norberari kalterik egiten ez dion artean. Ez da nahasi behar *bizikidetzarekin*.

“Koexistentzian, pertsonak ez dute harreman aktiborik beren artean, eta elkarrengandik banandu samartuta bizi dira. Gizabanakoen arteko harremana errespetuzkoa da, baina errespetu hori nahiko pasiboa da, egiten uztekoa, eta ez dago bestearenganako batere interesik edo interes askorik. Jendea bestea desberdina dela jabetzen da, eta bestea bestelako mundu soziokultural batean bizi dela uste denez, bakean uzten zaio, norberari kalterik egiten ez dion artean.”

BIZIKIDETZA³⁰

“Bizikidetzan, pertsonak harreman aktiboak dituzte beren artean; ez dira bizi elkarrengandik bananduta eta elkarri bizkar emanda. Elkarrekintza horrek elkarrekikotasunarekin, elkarrengandik ikastearekin eta lankidetzarekin du zerikusia. Espazioa edo lurraldea partekatzeaz gain, pertsonak elkar errespetatzen dute, eta onartu egiten dituzte bai komunitateko oinarrizko edo funtsezko balioak, bai arau moralak eta juridikoak. Batzuen eta besteen interesak elkartu egiten dira, eta subjektuen artean loturak sortzen dituzte. Lotura horiek sendoak edo ahulak izan daitezke, baina loturak dira azken finean.”

DISKRIMINAZIOA.

Etnia-, gizarte-, kultura- nahiz erlijio-irizpideetan, sexu-joerakoetan edo besteren batean oinarrituta egindako bereizketa, bazterketa, murrizketa edo lehentasuna. Helburu edo emaitza hau du: giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak berdintasun-baldintzetan aitortu, izan edo gauzatzea ezabatu edo urritzea, politika-, ekonomia-, gizarte- edo kultura-eremuetan nahiz beste eremuren batean.

ASKOTARIKO DISKRIMINAZIOA.

Pertsona edo giza talde batengan diskriminazio-faktore batek baino gehiagok bat egiten dutenean gertatzen da. Adibidez, diskriminazio bikoitza jasaten dute emakume etorkinek. Emakume izateaz gain etorkin direnez gero, diskriminazioa bikoiztu egiten da. Beraz, desgaitasunen bat duen lesbiana batek diskriminazio

hirukoitza jasaten du: emakumea izateagatik, sexu-joerarengatik eta desgaitasuna edukitzeagatik.

ZUZENeko DISKRIMINAZIOA ETA ZEHARKAKO DISKRIMINAZIOA.

Zuzeneko diskriminazioa gertatu dela edo dagoela esango dugu baldin eta pertsona batek “beste batek egoera berean jasoko lukeen tratua baino okerragoa jaso badu edo jaso badezake”. Zeharkako diskriminazioa gertatu dela edo dagoela esango dugu “itxuraz neutroa den xedapen, irizpide edo jardun batek desabantaila-egoeran jartzen badu norbait”, non eta xedapen, irizpide edo jardun hori ez den objektiboki bidezkoa, helburu zilegi bat duelako.

EKINTZA POSITIBOA.

Ekintza-neurri positiboek helburu hau dute: diskriminazio-jokabide orokorren ondorioz parte-hartze txikia duten gizarteko hainbat taldek funtsezko aukera-berdintasuna izatea, eta ez aukera-berdintasun formala soilik, gizarteko parte baitira. Diskriminazioaren aurkako neurriak eta ekintza positibokoak konbinatuta lortuko da giza talde horiek gizartean txertatzea (gizarte-inklusioa)³¹.

ELKARTEEN GIZARTE ERANTZUKIZUNA (EGE).

Enpresak gizarte- eta ingurumen-errealitatean boluntarioki inplikatzeko, beren jarduerak eta lanek errealitate horretan zer eragin duten aintzat hartuta, eta horrela beren jardura zuzentzen duten printzipioak eta balioak berretsiz, bai beren metodoei eta barne-prozesuei dagokienez, bai beste eragile batzuekiko eta kanpoko solaskideekiko harremanei eta lankidetzari dagokienez. Giza baliabideetan dibertsitatea kudeatzeko zenbait jardunbide ere hartzen ditu barne, besteak beste.

ERREFUXIATUA.

“Jazarria izateko oinarri sendoko beldurrak eraginda bere herrialdetik kanpo dagoen pertsona oro da. Jazarpen-arrisku horrek hainbat arrazoi izan ditzake: jazarria izan daitekeen pertsonaren arraza-jatorria, erlijioa, nazionalitatea edo gizarte-talde nahiz aukera politikoren bateko kide izatea. Horrez gain, jazarpen-arriskuan den pertsona horrek ezin izaten du bere herrialdearen babesik jaso edo ez du jaso nahi izaten, aipatutako beldur horien ondorioz”.³²

ERROLDATZEA.

Biztanleen udal-errolan izena ematea; hau da, udalerrri bateko biztanle guztien datuak jasotzen dituen administrazio-erregistroan. Udal-errolako datu horiek frogatzen dute udalerrri horretan bizi dela bertan ageri dena. Datu horiei buruz egindako ziurtagiriak dokumentu publiko eta frogagarriak dira, administrazio-xede orotarako.

ZUZENBIDEZKO BERDINTASUNA.

Legediaren aurrean berdinak izatea. Legegintzako neurrien bidez lortzen da berdintze hori.

ESTEREOTIPOA.

Zenbait pertsonari edo giza talderi buruzko sinesmen, iritzi edo ideia sinplifikatuen multzoa. Estereotipoek ezaugarri berezi batzuk ematen dizkiete pertsona edo giza talde horiei, eta haiei buruzko iritzi moralak sortzeko eredu izaten dira.

Nortasun-ezaugarriak, ezaugarri fisikoak eta jokabideak izan daitezke; baita rolak eta lanbideak ere. Estereotipoak sortzen ditugu errealitatea sinplifikatzeko beharra dugulako eta norberaren esperientziatik (edo zuzeneko ezagutzatik) abiatuta iritzia sortzea zaila gertatzen zaigulako. Gizarteko giroa erraz ulertzeko eta bertan gerta daitezkeen gertaerak aurreikusteko aukera ematen dute. Hauek dira prozesu horien osagai garrantzitsuenetako bi: hautematea eta gizarte-kategoriak sortzea. Beraz, ez da harrizkoa estereotipo askok eta askok ikuspuntu negatiboa adieraztea eta aurreiritziekin lotuta egotea.

ESTIGMATIZATZEA.

Gizarteko egozte-prozesu honen bidez, balioa gutxitzen zaio gizabanako baten edo giza talde baten identitateari, eta erabateko gizarte-onarpena lortzeko desabantaila-egoeran uzten du.

ETNIA.

Hizkuntza, identitate sinboliko, ideologia, kultura eta, zenbaitetan, ageriko bereizgarri fisiko batzuk dituzten gizabanakoen multzoa edo komunitatea, gainerako giza talde eta komunitateak ez bezalakoa³³.

GENERO-IKUSPEGIA.

Gaur egungo migrazioen oinarritzko ezaugarrietako bat feminizazioa da. Aintzat hartu behar dira emakume etorkinen eta beste gutxiengo etnikoetako emakumeen beharrak, bai eta politika publikoen bidez sustatu beharreko eskakizun espezifikoak ere, emakumeek gure gizartean orain arte baino berdintasun handiagoz parte har dezaten errazteko.

Politika publiko horien oinarrian, gizonen eta emakumeen arteko berdintasun-printzipioa, genero-estrategia gehitzea, eta sexuarengatik ez diskriminatzea daude, eta nazioarteko nahiz Europako instantzietan sortu ondoren, pixkanaka joan dira txertatzen gure herrialdean.

Genero-estrategia Sentsibilizazio Plan osoan izan behar da kontuan, zeharlerro gisa, bai eta hura osatzen duten ardatz bakoitzean ere. Horretarako, banaka onartu eta aintzat hartu behar dira gizonen eta emakumeen bizibaldintzen arteko aldeak eta, gizarte-, ekonomia- eta kultura-egoeren artekoak. Era berean, emakume etorkinei eta gutxiengo etnikoetakoei zuzendutako esku hartzeko neurri espezifikoak gehitu behar dira, desberdintasun- eta diskriminazio-egoerak zuzentzeko. Egoera horren oinarrian, genero- eta jatorri-estereotipoetan oinarritutako gizarte-, ekonomia- eta kultura-jardunak daude.

GIZA ESKUBIDEAK³⁴.

Nazio Batuen Batzar Nagusiak eginga du giza eskubideen aldarrikapen unibertuala, herri eta nazio guztiek izan beharreko jomuga legez, bai norbanakoek eta bai erakundeek, aldarrikapen honetan etengabe oinarrituta, alde batetik, eskubide eta askatasun hauen begirunea bultzatzen dezaten irakaskuntzaren eta hezkuntzaren bidez, eta bestetik, nazio- eta nazioartemailan arian-arian neurriak hartuz, era eraginkorrean eta orokorrean ezar daitezkeen ziurtatzeko, bai elkarkide diren estatuetakoko herrien artean eta baita horien jurisdikzioean dauden lurraldeetan ere. Aldarrikapen horrek hogeita hamar artikulua ditu. Hona hemen lehen biak, laburtuta:

1. artikulua.

Gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela; eta ezaguera eta kontzientzia dutenez gero, elkarren artean anaitasunez jokatu behar dute.

2. artikulua.

Gizaki orori dagozkio aldarrikapen honetan adierazitako eskubide eta askatasunak, eta ez da inor bereiziko arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, sorterria edo gizarteko jatorria, ekonomia-maila, jaiotza edo beste inolako gorabeheragatik.

GIZARTE-BAZTERKETA.

Prozesu honen bidez, pertsona bat edo talde bat banandu egiten dute gizartetik edo haren oinarritzko prozesuren batetik. Pertsona edo talde hori gizarteko partaidetzat jotzen den arren, ez da garatzen gizarte horren barruan integratuta. Gizartean dauden baliabideak eskuratzeko aukera bera ez izatea dakar.

Politika-, ekonomia-, gizarte- eta kultura-esparruetan parte ez hartzea da bazterketaren sintoma nabarietako bat³⁵.

Marjinezioak integrazioan sakoneko diskriminazioa dagoela adierazten du. Bazterketak, aldiz, egiturazko bereizketa-prozesu bat adierazten du, baina baita

ideologia- eta kultura- jarraibideen eta gizarte-joeren egiturazko prozesu bat ere. Horregatik, oso zaila da lehengo egoerara itzultzea, baldin eta arazoaren sustraietara jotzen duten integrazio-programak garatzen ez badira behintzat.

GIZARTE-ELKARRIZKETA.

Kontzeptu teorikoa eta praktikoa da, eta barne hartzen ditu gizarte eragileen arteko komunikazioa, negoziazioak, kontsultak edo informazio-trukeak, ekonomia-, gizarte- edo kultura-politikarekin lotutako denen intereseko gai buruz.

Gizarte-elkarrizketa kontzeptuaren beste adiera bat lotuta dago gizarte-solaskideek (gizarte- eta enpresa-erakundeek) eta gobernuak akordioak lortzeko egiten duten negoziazioarekin, enpleguaren eta lan-merkatuaren arloetan.

GIZARTE-KOHESIOA.

Gizarte-prozesu bat da, balio eta erronka berak dituen komunitatea sortzea edo garatzea xede duena, berdintasunezko jokabideak eta aukera-berdintasuna barneratuta izango dituen komunitatea, kide guztien arteko konfiantzan, itxaropenean eta elkarrekikotasunean oinarrituko dena.

GIZARTE ZIBILA.

Gizabanakoen eta estatuaren arteko bitartekari modura diharduten hiri-erakunde boluntarioen eta gizarte-erakundeen multzoa³⁶. Beraz, eremu publikoan jarduteko gizarte-mugimendu antolatuen multzoa da. Gizarte-mugimendu horiek guztien onaren bila jarduten dira; ez dute beste xede edo interesik, hala nola irabazi-asmorik edo botere politikorako asmorik.

GOBERNANTZA.

Europako Batzordeak Europako Gobernantzari buruz ateratako Liburu Zuriak dioenaren arabera, gobernantza terminoak botere publikoen kudeaketan eta erabakiak hartzeko prozesuetan zenbait printzipio txertatzea adierazten du, hala nola irekitasuna, parte-hartzea eta erantzukizuna, gobernu onerako printzipioetan jada txertatutakoak ahortzi gabe, hala nola eraginkortasuna eta koherentzia. Gobernantzaren bidez “erabaki politikoak hartzeko prozesua irekitzea” lortu nahi da, “integratio eta erantzukizun handiagoak izan ditzan” (Europako Batzordearen aipamena); hau da, gobernu-egiturak ireki nahi dira, gizarte zibilaren partaidetzari bide emateko, horrela gai publikoen kudeaketa demokratikoagoa izan dadin.

GUTXIENGOA.

Gutxiengoei buruz nazioarteko zuzenbidean denek onartutako definiziorik ez badago ere, horrela defini daiteke: kopuruz estatu bateko gainerako biztanleria baino txikiagoa den taldea, nagusitasunezko estatusik ez duena, gainerako biztanleriak ez bezalako etnia-, erlijio- edo hizkuntza-ezaugarriak dituzten eta beren kultura, tradizioak, erlijioa eta hizkuntza gordetzeko elkartasun-zentzuari eusten dioten pertsonen osatua³⁷.

GUTXIENGO ETNIKO ETA KULTURALAK.

Gizarte bateko biztanleria-talde espezifikoak dira, kultura-, gizarte- edo etnia-ikuspegitik elementu bereizgarri batzuk dituztenak. Talde horietako kideek entitate berezitua izatearen kontzientzia izaten dute.

Gizarte-mendekotasunezko edo -marjinaziozko egoeran dagoen etnia. Gutxiengoa ez du kopuruak zehazten, baizik eta talde osoarekiko gutxiagotasunak. Gutxiengoaren estatusak gizarteko bizitzan parte hartzetik baztertuak izatea dakar.

HERRITARTASUNA.

Pertsonak eskubideen eta betebeharren jabe izatea, komunitate politiko bateko kide diren aldetik. Estatusa da komunitate politiko horren ordezkaria; hark bermatzen ditu eskubide horiek, eta partaidetza hori onartzen.

- Bizileku-herritartasuna.

Herritartasun berriaren esparrua lantzen duen gizarte-mugimendu honek dioenez, pertsonak herritartzat hartu behar dira, edozein nazionalitate dutela ere, beren bizilekuan errotuta dauden aldetik eta eguneroko bizitza bertan egiten dutenez gero.

- Herritartasun politikoa.

Pertsonak eskubideen eta betebeharren jabe izatea, komunitate politiko bateko kide diren aldetik. Estatusa da komunitate politiko horren ordezkaria; hark bermatzen ditu eskubide horiek, eta partaidetza hori onartzen.

- Herritartasun soziala.

Estatuko nazionalitatea duenaren estatus juridikoarekin nahitaez lotuta ez dauden eskubideak, erantzukizunak, jarduerak, partaidetzak eta sentimenduak dira. Elementu horiek hirietan, herrietan, auzoetan, bizilagun-komunitateetan eta oro har gizartean agertzen eta adierazten dira, batez ere, ez hainbeste herrialde- edo nazio-mailan.

IDENTITATEA.

Identitate terminoari hainbat adiera eta erabilera ematen zaizkio gizarte-zientzietan. Talde bateko kideek batera dituzten nolakotasunak adierazteko *identitate kolektiboa* terminoa erabiliko dugu. Nolakotasun horien bidez, pertsonak elkar daitezke edo beste pertsona batzuek elkar ditzakete, ezaugarri berdinak izateagatik.

Bestalde, *identitate soziala*³⁸ terminoaren bidez “gizabanakoak bere buruaz duen kontzeptuaren zati bat adierazi nahi da, gizarteko talde bateko edo batzuetako partaide izateaz jabetzetik sortzen dena, eta partaidetza horri loturiko balorazioen eta emozioen esanahia kontuan hartzen duena”.

INTEGRAZIOA.

Elkarren artean egokitzeko bi norabideko prozesua da, emaitzatzat koherentziazko gizarte oso bat duena, bi aldeen batura baino balio handiagokoa. Integrazio-egoeran, elkarrekintzak eta trukeak berdintasun-egoeran egiten dira. Gizarte-, hezkuntza- eta ekonomia- arloetan eta abarretan berdintasunezko aukerak egotea da pluralismo horren bereizgarria. Pluralismo horretan txertatzen da gaur egungo kulturartekotasuna. Gizarte-, kultura- eta lan-eremuetako integrazioak harrera-gizartean txertatzen lagunduko du, bai eta bertan ekarpenak egiten ere, herritar-nozio bera izango baitute.

Integrazioaren erantzukizuna etorkinena ez ezik, harrera-gobernuarena, erakundeena eta komunitateena ere bada³⁹. Herritartasunaren eta Integrazioaren 2007-2010 Plan Estrategikoak dioenez, formulazio horretan hiru ideia giltzarri daude: lehenik, integrazioa ez da hainbeste une jakin bateko egoera, baizik eta gizarte-prozesu dinamiko luze bat, behin eta berriz errepikatu eta berritu beharrekoa; bigarrenik, integrazioa lortzeko, biek egin behar dute errealitate berrira egokitzeko esfortzua (*bi norabidekoa* izan behar du), bai etorkinek bai harrera-gizarteak; eta hirugarrenik, Europar Batasuneko oinarrizko balioek mugatzen dute zer markotan gauzatu behar den bien esfortzu hori.

“*Elkarri egokitzeko bi norabideko prozesua*” denez, herritar guztien parte-hartze aktiboa behar du, bai etorkinena bai bertakoena, bai eta harrera-herrialdeko erakundeena ere. Prozesu horrek gizarte inklusiboa lortzea du helburu; hau da, etorkinek tratu- eta aukera-berdintasunean ekonomia-, gizarte-, kultura- nahiz politika-eremuetan osoki parte hartzea bermatuko duen gizartea.

Beraz, prozesuak partekatua izan behar du; hau da, erakunde publiko guztiak, gizarte-eragileak (erakunde sindikalak eta enpresa-erakundeak, GKEak, etorkinen elkarteak eta abar) eta harrera-gizarte osoa inplikatu behar ditu.

ISLAMOFOBIA.

Islamari fobia izatea. Gaur egun gizarteak duen gaitzik okerrenetako bat da, musulmanen aurkako muturreko tolerantziarik ezaren adierazpena. kontzeptu

berri honek Nazio Batuen salaketa jaso du, Islama mehatxu larri ezagunekin lotzen duen aurreiritziari buruzkoa. Izan ere, aurreiritzi horrek fanatismorako oinarriak jartzen ditu, eta musulmanei musulman izate hutsagatik eraso egitea justifikatzeko bidea ematen.

JARRERAK.

Ebaluatzeko joerak dira; hau da, modu jakin batean eta jarrera sortzen duen objektuaren aldeko edo aurkako erreakzioen bidez erantzuteko alde aurretiko joerak. Iritzi edo sinesmenez, sentimenduz eta portaeraz osatuta daude. Faktore horiek guztiak elkarrekin lotuta daude.

- *Osagai kognitiboa*: jarrera sorrarazten dion objektuari buruz norberak dituen datuen eta informazioen multzoa da. Objektua nolakoa den ondo jakiteak lagundu egiten dio subjektuari objektuarekin lotzen.

- *Osagai afektiboak*: objektuak subjektuarengan sorrarazten dituen sentrazioak eta sentimenduak dira.

- *Jokabide-osagaia*: objektu batekiko asmoak, gogoak edo joerak dira, eta objektuaren eta subjektuaren arteko benetako lotura sortzen denean agertzen dira.

Arrazakeria-jarrerak, adibidez, osagai hauek izango ditu:

- Osagai kognitiboa: estereotipoak
- Osagai afektiboak: aurreiritziak
- Jokabide-osagaia: diskriminazioa

KOMUNITATEA.

Lurralde berean bizi diren eta elkarrekin zenbait lotura nahiz interes dituzten pertsonen multzoa da⁴⁰.

KULTURA.

Taldeko kideek partekatzen dituzten portaeren, sinesmenen, jarreraren, balioen eta idealen multzoa da. Portaera, sinesmen, jarrera, balio eta ideal horiek belaunaldiz belaunaldi transmititzen dira, ikaskuntza-prozesuaren bidez.

KULTURA-DIBERTSITATEA.

Gizarteko errealitatean dauden era askotako desberdintasunen agerpen bat baino ez da. Gizarteko errealitate horrek alderdi ekonomikoak, politiko-juridikoak, generoarekin lotutakoak, ideologiko-kulturalak eta etnikoak ditu, gutxienik. Gizabanako guztiak koordinatu horietan txertatzean, partaidetza-

edo identitate-taldeak sortzen dira.

KULTURA-ASIMILAZIOA.

Uniformizaziorako politika da, eta hau proposatzen du: gutxiengoan dauden kultura-taldeak gehiengoan dagoen komunitatearen identitate-ezaugarriak bereganatuz joango dira (hizkuntza, balioak, kode arauemailea eta abar), eta beraienak baztertuz (beren idiosinkrasia-ondarea, hizkuntza, tradizioak, balioak, jokabideak eta abar), bizikidetza hobea lortzeko asmoz. Beraz, gizarte uniforme xede duen akulturazio-estrategia da.

Eredu honek gizabanakoaren eta estatuaren arteko harremanak azpimarratzen ditu, eta ez die balio handirik ematen gutxiengoan dauden komunitateei. Herritar-izaera lortzeko, ingurunera egokitu behar da, eta prozesu hori amaitutakoan —zenbait belaunaldi eragin diezaieke—, ez da alde nabaririk geratzen bertako biztanleriaren eta bertakoak ez direnen artean.

Prozesu hori bazterketa handiko, arrazakeriazko edo xenofobiazko egoerek behartuta gertatzen bada, dekulturazio terminoa erabiliko dugu.

KULTURA-ETNOZENTRISMOA⁴¹.

Norberaren giza taldea guztiaren erdigunea dela uste izatea, eta beste talde guztiak norberaren taldearekin duten harremanaren arabera baloratzea eta sailkatzea.

Etnozentrismoak beste kultura batzueganako aurreiritzizko eta mesfidantzazko jarrerak izaten ditu berekin. Ezjakintasunaren eraginez sortzen da, eta hainbat jende ez delako jabetzen kultura desberdinak egoteak ez duela esan nahi talde batzuk beste batzuk baino gutxiago edo eskasagoak direnik.

KULTURA-ANIZTASUNA.

Zenbait kultura-talderen artean begirunea, bizikidetza eta elkarrizketa bultzatzearen aldeko printzipioa da, bai eta desberdintasunerako nahiz antolatuta egoteko eskubidearen aldekoa ere, haien eskubideak errespetatu daitezzen eta aukera- eta tratu-berdintasuna izan ditzaten.

Kultura-aniztasunaren ereduak hainbat kulturaren koexistentziari erreparatzen dio, immigrazioa etengabekoa dela uste du, eta gizartearen izaera plurala indartzen du. Etorrinek beren kultura-identitateari eustea eta garatzea sustatzen du eredu honek, baina ez da lortzen kultura hori bertako kulturarekin sare edo egitura batean biltzea. Dibertsitatea eta desberdintasunak aitortzeko printzipioak ditu oinarri. Beraz, tolerantziazko eredu bat da, eta beharra duenari laguntzea barne hartzen du (solidaritatea), eta kultura bakoitzari erreparatzen dio. Horrela, bakoitzaren identitatea azpimarratzen du eta desberdintasunak

nabarmetzen ditu, onarpena lortzeko beharrezko urratsak baitira. Koexistentzia du xede, eta aski du hori lortzea. Bizikidetzan, sortzen bada, besteenganako begirunearengatik eta besteak onartzeagatik gertatuko da.

Kultura-anitza den orok kultura-pluralismo modu bat osatzen du. Kulturantz kontzeptua bi ikuspegitan bana daiteke, batetik errealitateari eta bestetik proposamenei erreparatzen badiegu⁴²:

Kultura-anitza:

- Adiera faktikoan, kultura-dibertsitatea aipatuko dugu, edo hobe, kultura-, etnia-, hizkuntza-, erlijio-dibertsitatea eta abar. Koexistentziako egoeretako ezaugarria da.
- Araugintza-arloarekin lotuta, praxi jakin bat adierazteko aipatuko dugu multikulturalismoa: gizarteak eta erakundeek desberdintasuna aktiboki onartzetik abiatzen den praxia, eta onarpen horretan oinarrituta, politika publikoko, hezkuntza sistemako eta beste zenbait esparruetako eredu jakin batzuk garatzen dituenak.

KULTURA-PLURALISMOA.

Praktikan, kultura-pluralismoak adierazten du hainbat kulturatako beste hainbat biztanleria aldi berean izatea lurralde- edo gizarte-eremu zein -esparru jakin batean, izan koexistentziako egoeran izan bizikidetzan-egoeran.

Araugintzaren arloan, kultura-pluralismoak kultura-dibertsitatea modu positiboan ulertzea eskatzen du, eta praktikan legegintzatik eta erakundeetatik gai horri heltzeko modu bat proposatzea. Proposamen horren arabera, kultura-, etnia-, erlijio- eta hizkuntza-adierazpen guzti-guztiek izan behar dute tokia komunitate sozio-politikoan, eta errepresiorik gabe eta askatasunez garatu ahal izan behar dute.

INTERKULTURALITATEA.

Hainbat kulturatako pertsonen eta giza taldeen artean harreman positiboak sortzen dituen jarduna, berdintasuna, desberdintasunerako eskubidea eta bizikidetzan oinarritzat hartuta.

Dibertsitatean oinarritzen da, kulturen artean etengabeko elkarrizketa abian jartzeko, eta horrela, desberdintasunak errespetatuz, guztien artean bizikidetzan justua eta egokia eraikitzeko, ordura artekoa baino aberatsagoa eta etorkizun zabalagokoa, kultura guztien era askotako elementuen sintesi antzeko bat izango dena. Interkulturalismoak eta multikulturalismoak biek dituzte berdintasunaren eta desberdintasunaren printzipioak, baina lehenak kulturen arteko elkarrekintza positiboa azpimarratzen du. Kulturen arteko baterako faktoreak nabarmetzen ditu, kultura horiek elkarrekin lotzeko. Beraz,

norberaren kulturari eta historiari baino gehiago erreparatzen die elkarrengandik ikasteari, trukeari eta lankidetzari. Multikulturalismoarekin alderatuz, kulturen arteko gatazkak modu baketsuan erregulatzea gehitzen du interkulturalismoak.

Interkulturala den orok kultura-pluralismo modu bat osatzen du. Kulturarteko kontzeptua bi ikuspegitan bana daiteke, batetik errealitateari eta bestetik proposamenei erreparatzen badiegu⁴³:

- Adiera faktikoa: interkulturalitatea, edo hobeto esateko, kulturarteko, etniarteko, erlijioarteko eta hizkuntzarteko harremanak. Taldeen arteko harremanari erreparatzen die, eta beraz, bizikidetzako egoerak ditu hizpide.
- Araugintzarekin lotuta: interkulturalismoa.

LAN-INTEGRAZIOA.

Enplegua bitarteko garrantzitsua da etorkinek ekarpen nabaria egin diezaieten harrera-gizarteei eta haietan parte har dezaten. Hainbat gauza egin daitezke lantokietan etorkinen integrazioa sustatzeko: beste herrialde batzuetan lortutako kalifikazioak onartu, lanpostuetarako behar diren gaitasunak eskuratzeko prestakuntza-aukerak erraztu, eta enplegurako eta lan-mundurako sarbideak errazteko politikak eta programak abian jarri.

Halaber, garrantzitsua da nahikoa pizgarri eta aukera egotea, etorkinek lana bila eta lor dezaten –bereziki harrera-herrialdean finkatzeko asmoa eta aukera dutenek⁴⁴.

NAZIONALITATEA.

Pertsona jakin batek duen izaera juridikoa, estatu jakin batekin duen loturarengatik edo harremanarengatik sortua. Pertsona hori estatu-komunitate baten kide izatearen adierazpen juridiko gorena da. Izaera juridiko horri esker, talde bateko partaide izan daiteke, harekin identifika daiteke, estatuaren babesa jaso dezake, eta estatuaren arau juridikoen araberako eskubideak gauza ditzake.

OINARRIZKO ESKUBIDEAK, DUINTASUNA, DESBERDINTASUNA.

“Oinarrizko Eskubideak legalki onartutako eta juridikoki babestutako Giza Eskubideak dira; hau da, ordenamendu juridiko (legedi) jakin batean (adibidez, estatu batean) zuzenbide positiboaren zati bihurtzen diren eskubideak. Eskubideak aitortzeko eta babesteko prozesua zabalik dagoenez, eta toki guztietan garrantzi eta hedapen bera ez duenez (ez dute estatu guztiek adiera berean aitortzen, eta ez dira eskubide guztiak berdin aitortzen), Giza Eskubideak aipatuko ditugu hemen, Oinarrizko Eskubideen nazioarteko markoa

osatzen baitute. Giza Eskubideak honela defini daitezke: *oinarrizko balioak adierazten dituzten xede moralak dira*.

Marko juridikoari buruzko eranskinean nabarmentzen denez, badira gure ordenamendu juridiko osoaren markoaosatzen duten oinarrizko bi artikulua. Bata Espainiako Konstituzioaren 10. artikulua da. Honela dio: “ordena politikoaren eta gizarte-bakearen oinarri dira gizabanakoaren duintasuna, hari datxezkion eskubide bortxaezinak, nortasunaren garapen askea, eta legeei eta gainerako eskubideei zor zaien begirunea”. Adiera horrekin erabiliko dugu **duintasun terminoa** metodologia-gida honetan.

Bestea 14. artikulua da, eta gizabanakoen **berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa** bermatzen du gure ordenamendu juridikoan. Honela dio: “Espainiarrak legearen arabera berdinak dira, eta ezin da inolako bereizkeriarik egin, jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi nahiz bestelako inguruabar edo egoera pertsonal zein sozialak aintzat hartuta”. Beraz, badago **desberdintasunerako eskubidea** (jatorri, sinesmen, sexu-joera edo beste edozein egoeragatik), beti ere berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipio horretan oinarrituta.

PARTE-HARTZE SOZIALA.

Gizabanakoek kontzienteki parte hartzen duten gizarte-ekimenak dira. Ekimen horietan, pertsonak jarrera jakin bat hartzen dute, eta zenbait talderekin bat egiten dute, helburu jakin batzuk gauzatzeko. Horretarako, gizarte-egitura boteredunak erabili behar dituzte.

Parte-hartzea gizarte-eremu berriak eratzeko aukeratzat jotzen da, bai eta gizarte-eragileak gizarte-mugimenduetan, gobernu-erakundeetan eta gobernu kanpokoetan sartzeari edo egoera jakin batzuk aldarrikatzeko edo aldaketak eskatzeko eremu publikoan tokia izatea ere. Parte hartzea ez da bertan izatea soilik: tratu- eta aukera-berdintasuna eskatzen ditu.

PLANGINTZA ESTRATEGIKOA.

Garapen komunitarioko edo gizarte-ekintza komunitarioko prozesua, garapen komunitarioaren ikuspegi dinamikoa duena, eta beraz, komunitatearen beraren parte-hartzea eta inplikazioa alderdi giltzarri gisa barne hartzen dituena.

SEGREGAZIOA.

Diskriminazio modu horretan, eragindako taldeari/ei urruti eusten zaio/e, berezko eremuak gordetzen dira harentzat/haientzat, eta taldeko/taldeetako kideek baldintza murriztaileetan baino ezin dituzte eremu horiek utzi⁴⁵. Horren ondorioz, taldeek beren idiosinkrasia bereziari eusten diete, eta harremanak murrizteko joera izaten dute.

Egokitzapena, guztizkoa edo partziala, faktore hauen arabera izango da: beste taldeko kideekin harremanak izatea edo ez izatea, eta norberaren kultura eutsi beharreko balioetat jotzea testuinguru berrian.

SENTSIBILIZAZIOA.

Gizabanakoen nahiz taldeen ideietan, ulertzeko moduetan, estereotipoetan, eta iritzietan eragiteko asmoz egindako ekintzen multzoa, gure jardun sozial banakako zein kolektiboetan jarrera-aldaketa bat eragiteko.

Pertsona batzuek beste batzuei eragitearen ondorioa da, jarrera-aldaketak lortzeko informazioa emanaz eta parte harraraziz.

TOLERANTZIARIK EZA.

Tolerantziarik ezaren arazoak dimentsio etikoa, soziala eta politikoa ditu, eta hainbat faktorek sortzen eta sustatzen dute: egiturazko faktoreek, ideologikoen eta/edo kulturek. Norberaren agerpena den aldetik, tolerantziarik eza honela defini genezake: giza dibertsitatea onartzen ez duen eta pertsonen duintasuna eta oinarrizko eskubideak urratzen dituen edo duintasun eta eskubide horiek ukatzera bultzatzen duen jarrera, adierazpide edo jokabide oro. Buru-jarrera jakin baten ondorioa da, eta buru-antolamendu horretatik bestelako pertsona, gizarte-talde eta kulturei kalte egiten dieten portaera edo jarrera politiko, ekonomiko, kultural eta sozialak irteten dira, eta horrek giza harremanak zailtzen ditu, edo ezinezko bihurtzen. Tolerantziarik eza gertaera kolektiboa edo instituzionala bilakatzen bada, ahuldu egiten ditu bizikidetzak eta printzipio demokratikoak, eta mehatxu bihurtzen da munduko bakerako. Tolerantziarik ezaren adierazpenek ez dute gizabanakoa –era askotako identitateen jabe dena– balioesten, baizik eta norberaren identitatea, besteen identitatearen aurka dagoena. Horregatik, jarrera hori duenak ez du gainerakoen identitatea onartzen, eta ez ditu haiek ez errespetatzen ez estimatzen. Tolerantziarik ezarekin batera, arraza, nazionalitate, sexu edo erlijioarekin lotutako gorroto-adierazpenak izaten dira, bai eta giza taldeak, pertsonak edo gutxiengoak diskriminatzeke nahiz bereizteke edo haiei eraso egiteko eta/edo beste batzuk horretara bultzatzeko jokabideak ere.

TRATU-BERDINTASUNA.

Pertsona jakin batzuei tratu desberdina edo kaltegarria ematera bultzatuko duten egoera diskriminatzaileak ez egotea (sexua, estatus sozio-ekonomikoa, kultura, erlijioa, iritzi politikoa eta abar).

Tratu-berdintasunaren printzipioak bi ikuspegi ditu: berdintasun formala eta berdintasun materiala. Berdintasun materialaren ikuspegiak desberdin tratatutako giza taldeen artean egun dauden alde errealak hartzen ditu abiapuntu, eta horrek zilegi egiten du desberdintasunak egitea, gizartean bazter utzitako berdintasuna ezartzeko asmoz⁴⁶.

XENOFOBIA.

Norberarena ez den kultura-identitate oro errefusatzeko eta baztertzeko jarrera. Arrazakeriak ez bezala, kultura-segregazioa aldarrikatzen du, eta atzerritarrak eta etorkinak bertako gizartean eta kulturean integratzen direnean (horiek asimilatzen dituztenean) baino ez ditu onartzen⁴⁷.

Atzerritarrenganako gorrotoa, biguina edo etsaitasuna. Ez dago nazioartean onartutako definiziorik xenofobiarako, baina honela defini daiteke: beste pertsona batzuk errefusatzeko, baztertzeko eta sarritan arbuiatzeko jarrerak, aurreiritziak eta jokabideak, atzerritarra izateagatik edo komunitateko, gizarteko nahiz herrialdeko identitateetik kanpo egoteagatik. Oso lotura estua dago arrazakeriaren eta xenofobiaren artean, eta ez da erraza bi termino horiek banantzea. Xenofobia delituen inguruabar larrigarritzat jasota dago, Espainiako Zigor Kodearen 22.4 artikuluan. Bestalde, zigor-kode horren 515. artikuluan, zilegi ez den elkartetzat jotzen da gorroto- eta indarkeria-mota hori sustatzen dituen elkarte oro.⁴⁸

TERMINOEN GLOSARIOKO OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA.

Jarraian, kontzeptuen definizioa emateko erabili den bibliografia-oinarria zerrendatuko dugu, alfabetikoki ordenatuta.

- ACNUR, *Genevako 1951eko Hitzarmena, errefuxiatuen estatutuari buruzkoa.*
- ALONSO PÉREZ, Francisco: *Régimen jurídico del Extranjero en España: comentarios, jurisprudencia, legislación, formularios*, 2. ed., Dykinson, Madril, 1997.
- Giza eskubideetarako NAZIO BATUETAKO GOI-KOMISARIOA, 1965. <http://www.ohchr.org/SP/Pages/WelcomePage.aspx>
- Giza eskubideetarako NAZIO BATUETAKO GOI-KOMISARIOA *Arraza-diskriminazioko modu guztiak ezabatzeari buruzko nazioarteko hitzarmena*, 1965. www2.ohchr.org/spanish/law/cerd.htm
- AMNESTY INTERNATIONAL, *España: entre la desgracia y la invisibilidad. Políticas del Estado español en la lucha contra el racismo*, Madril, 2008.
- ANTÓN, C. eta QUESADA, C. (2008). Igualdad de trato y no discriminación: Guía de recomendaciones para la formación de fuerzas y cuerpos de seguridad. Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa, Madril.
- ARANCIBIA TAPIA, Luis: *La Sensibilización y Educación para la Solidaridad*, Ramón Areces ikasketa-zentroa eta Luis Vives fundazioa, Madril.
- AULA INTERCULTURAL. www.aulaintercultural.org
- BALIBAR, ÉTIENNE; WALLERSTEIN, Immanuel: *Raza, nación y clase*, Iepala, Madril, 1991.
- BARAÑANO, ASCENSIÓN; GARCÍA, JOSÉ LUIS; CÁTEDRA, María (koord.): *Diccionario de relaciones interculturales, diversidad y globalización*, Complutense arg. (UCM), Madril, 2007.
- BARRÉRE UNZUETA, M.A. : *Discriminación, derecho antidiscriminatorio y acción positiva*, Civitas, Madril, 1997.
- BORRÁS, A. (zuz.): *Diez años de la Ley de Extranjería. Balance y perspectiva*, Paulino Torras Domènech fundazioa, Madril, 1995.
- CABRA, M.A, (2004). *Discapacidad y aspectos sociales: la igualdad de oportunidades, la no discriminación y la accesibilidad universal como ejes de una nueva política a favor de las personas con discapacidad y sus familias. Algunas consideraciones en materia de protección social*. Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioko aldizkaria, 50, 21-46 or.

<http://www.mtas.es/es/publica/revista/numeros/50/Est02.pdf>

- CARBONELL, Miguel (eta beste autore batzuk) (bildumak): *Derechos sociales y derechos de las minorías*, UNAM: Ikerketa Juridikoen Institutua, Mexiko, 2000.
- *KODE ZIBILA, 1889ko uztailaren 24ko Errege Dekretua.*
- COHN-BENDIT, Daniel y SCHMIDT, Thomas: *Ciudadanos de Babel: apostando por una democracia multicultural*, Madril, Talasa, 1996.
- YEDRA KOLEKTIBOA, *Glosario Educación Intercultural*. FETE-UGT, Madril:

http://www.aulaintercultural.org/article.php?id_article=3203

ESPAINIAKO KONSTITUZIOA. http://www.ivap.euskadi.net/r61-3039/es/contenidos/informacion/leyes_euskera/eu_3818/adjuntos/Konstituzio-zuzenbidea/Espainiako_Konstituzioa.pdf

- **EUROPAKO ERKIDEGOETAKO BATZORDEA, BRUSELA.** *Comunicación de la Comisión al Parlamento Europeo, al Consejo y al Comité Económico y Social Europeo. Poner en práctica la asociación para el crecimiento y el empleo: Hacer de Europa un polo de excelencia de la Responsabilidad Social de las Empresas*, COM (2006) 136 azkena, 2006-03-22.

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2006:0136:FIN:ES:PDF>

- **MURTZIAKO AUTONOMIA-ERKIDEGOA:** Gizarte-politikarako, emakume-gaietarako eta immigraziorako sailburutza: Dirección General de Inmigración y Voluntariado *Glosario de términos de integración de inmigrantes*, Murtzia, 2007. http://www.carm.es/ctra/cendoc/docpdf/publicaciones/2007_Glosarioinmigrantes.pdf

- **CREA Y MEDIA.** *Estrategias de sensibilización Proyecto de acción 3. Iniciativa Comunitaria Equal.*

<http://www.cepaim.org/data/Ressources/Estrategiasdesensibilizacion.pdf>

- **DE PRADA, MIGUEL ANGEL,** Loé kolektiboa, Madril. *Glosario de términos sobre la integración de inmigrantes e indicadores de la misma en los documentos recientes de la unión europea (PROYECTO INTI – I3 Indicadores de integración de inmigrantes)*, 2005eko urria.
- **DE VREEDE, E.** (1990). 'What are we talking about?': Plural Education and Teacher Education. *European Journal of Teacher Education*, 13(3), 129-140

<http://members.home.nl/e.devreede/stock/framework.pdf>

- EQUAL: *Buenas Prácticas y Recomendaciones para la Lucha contra el Racismo en el Mercado de Trabajo*.
<http://www.equal-france.com/virtual/30/Documents/pdf/BPLuchaRacismo.pdf>
- EUROPA: Europar Batasunaren ataria. <http://europa.eu>
- EUROPEAN FUNDAMENTAL RIGHTS AGENCY (FRA)
http://fra.europa.eu/fraWebsite/home/home_en.htm
- ESPLAI fundazioa, *Educación, ciudadanía e inmigración*, Documentos para el Debate, 2. zk., Prat de Llobregat, 2008.
- ESPAINIAKO UDALERRI ETA PROBINTZIEN FEDERAZIOA: *FORO DE COLECTIVIDADES LOCALES UNIÓN EUROPEA – AMÉRICA LATINA Y EL CARIBE. Cohesión Social: ¿qué definición?*, Acción local y nacional
<http://www.forum-localgovts-uealc.org/uploads/file/Doc%20cohesion%20social%20FEMP%20ESP.pdf>
- <http://www.sp.upcomillas.es/sites/mtas/Lists/Documentos/Attachments/85/glosario%20inmigracion.pdf>
- GIL, VILLA FERNANDO: *La exclusión social*, Ariel, Bartzelona, 2002.
- GIMÉNEZ, ROMERO CARLOS: "La formación de minorías étnicas a partir de la inmigración", in MARTÍN, L. (eta beste batzuk): *Hablar y dejar hablar*, Madrilgo Unibertsitate Autonomoa, Madril, 1994.
- GIMÉNEZ ROMERO, CARLOS: *¿Qué es la inmigración?*, RBA, Bartzelona, 2003.
- GIMÉNEZ ROMERO, CARLOS: "Convivencia: conceptualización y sugerencias para la praxis", *Puntos de Vista: Cuadernos del Observatorio de las Migraciones y la Convivencia Intercultural de la Ciudad de Madrid (oMci)*, Madril, 1. zk. (2005), 7. or.
- INTER TALDEA (UNED), *Racismo: qué es y cómo se afronta. Una guía para hablar sobre racismo*, FETE-UGT, Madril, [s. a.].
- ESTATISTIKAKO INSTITUTU NAZIONALA (INE): *Padrón municipal: explotación estadística y Nomenclátor*.
<http://www.ine.es/jaxi/menu.do?type=pcaxis&path=%2Ft20%2Fe245&file=inebase&L=0>
- ESTATISTIKAKO INSTITUTU NAZIONALA (INE): *Metodología*.
<http://www.ine.es/metodologia/t20/t203024566.htm#pad>

- INTERNATIONAL COALITION OF CITIES AGAINST RACISM (ECCAR). http://portal.unesco.org/shs/en/ev.php-URL_ID=3061&URL_DO=DO_TOPIC&URL_SECTION=201.html
- JEANNOTTE, SHARON M.: *Social Cohesion Around the World: An International Comparison of Definitions and Issues*, Department of Canadian Heritage, Quebec (Kanada), 2001.
- JONES, JAMES M.: *Prejudice and racism*, McGraw-Hill, New York, 1997.
- KARSZ, SAUL: *La exclusión: bordeando sus fronteras*, Gedisa, Bartzelona, 2004.
- KYMLICKA, WILL: *Ciudadanía multicultural: una teoría liberal de los derechos de las minorías*, Paidós, Bartzelona, 1996.
- KOSAKAÏ, TOSHIAKI: *L'étranger, l'identité. Essai sur l'intégration culturelle*, Payot et Rivages, Paris, 2000.
- KOTTAK, C. *Antropología. Una exploración de la diversidad humana*, Mc Graw Hill, 1994.
- LAFUENTE, ALBERTO, VIÑUALES, VÍCTOR, PUEYO, RAMÓN (eta beste batzuk): *Responsabilidad Social Corporativa y Políticas Públicas. Documento de trabajo 3/2003*, Ecología y Desarrollo fundazioa (ECODES), Madril, 2003.
- LAMO DE ESPINOSA, EMILIO: *Culturas, Estados, Ciudadanos*, Alianza, Madril, 1995.
- LUCAS, JAVIER DE (zuz.): *Derechos de las minorías en una sociedad multicultural*, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, Madril, 1999.
- LUCAS, JAVIER DE: *El desafío de las fronteras. Derechos humanos y xenofobia frente a una sociedad plural*, Temas de Hoy, Madril, 1994.
- MALGESINI, GRACIELA y GIMÉNEZ, CARLOS: *Guía de conceptos sobre migraciones, racismo e interculturalidad*, Catarata, Madril, 2000.
- MARIÑO MENÉNDEZ, FERNANDO M. (zuz.): *Derecho de Extranjería, Asilo y Refugio*, Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa, Madril, 2003.
- MARSHALL, THOMAS HUMPHREY Y BOTTOMORE, TOM: *Ciudadanía y clase social*, Alianza, Madril, 1998.
- MATA, PATRICIA: *Glosario Educación Intercultural*. FETE-UGT, Koordinazioa: Yedra kolektiboa. http://www.aulaintercultural.org/article.php3?id_article=3203
- ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN MINISTERIOA. www.map.es

- BERDINTASUN MINISTERIOA. www.migualdad.es

http://www.mtin.es/es/alianza_civilizaciones/documenta_interes/guia_policia.pdf

BARNE MINISTERIOA: *4/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 11koa, atzeritarren eskubide eta askatasunei buruzkoa*. http://www.ivap.euskadi.net/r61-3039/es/contenidos/informacion/leyes_euskera/eu_3818/adjuntos/Konstituzio-zuzenbidea/Atzeritarrek_Espainian_dituzten_Eskubide_eta_Askatasunei_buruzkoa.pdf

http://www.mir.es/SGCAVT/extranje/normativa_basica.html

- JUSTIZIA MINISTERIOA. www.mjusticia.es
- LAN ETA GIZARTE-GAIETARAKO MINISTERIOA: Administrazio-informazioko eta argitalpenetako azpi-zuzendaritza orokorra *Plan estratégico Ciudadanía e Integración: 2007-2010*, Madril, 2007.
- LAN ETA GIZARTE-GAIETARAKO MINISTERIOA: *Pistas metodológicas para la sensibilización intercultural*, Madril, 2007.
- MIRA, *Género y derechos humanos*, Zaragoza, 2002.
- MOVIMIENTO CONTRA LA INTOLERANCIA www.movimientocontralaintolerancia.com
- MOYA, M. eta PUERTAS, S (2008). Estereotipos, Inmigración y Trabajo. *Papeles del Psicólogo*, 29(1), 6-15 <http://redalyc.uaemex.mx/redalyc/pdf/778/77829102.pdf>
- MUGAK: SOS ARRAZAKERIAk sustaturiko immigrazio, arrazakeria eta xenofobiari buruzko ikerketa eta dokumentazio gunea. www.mugak.eu/gunea/
- NAZIO BATUAK: *Arrazismoaren, arraza-diskriminazioaren, xenofobiaren eta intolerantziarekin lotutako jarduera-moduen aurkako mundu-konferentziako txostena. Durban, 2001eko abuztuaren 31tik irailaren 8ra*. [http://www.unhchr.ch/huridocda/huridoca.nsf/e06a5300f90fa0238025668700518ca4/df63f5ce6e120207c1256b4f005438e2/\\$FILE/N0221546.pdf](http://www.unhchr.ch/huridocda/huridoca.nsf/e06a5300f90fa0238025668700518ca4/df63f5ce6e120207c1256b4f005438e2/$FILE/N0221546.pdf)
- NAÏR, SAMIR eta LUCAS, JAVIER de: *El desplazamiento en el mundo. Inmigración y temáticas de identidad*, Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa, Madril, 1999.
- ARRAZISMOAREN ETA XENOFOBIAREN ESPAINIAKO BEHATOKIA. www.oberaxe.es
- LANAREN NAZIOARTEKO BULEGOA: Administrazio Kontseilua: Empresa Multinazionalen Azpi-batzordea, *Iniciativa InFocus sobre*

responsabilidad social de la empresa, GB.295/MNE/2/1, 295. bilkura, Geneva, 2006ko martxoa.

<http://www.ilo.org/public/spanish/standards/relm/gb/docs/gb295/pdf/mne-2-1.pdf>

- OFRIM, “*¿La interculturalidad va al cole?*”, gehigarriak, 1999ko azaroa-abendua: 47-65

http://www.aulaintercultural.org/article.php?id_article=2658

- MIGRAZIOETARAKO NAZIOARTEKO ERAKUNDEA (OIM): Migrazioei buruzko glosarioa. Liburu Berdea.

<http://oim.org.co/LinkClick.aspx?fileticket=otpUXt%2F4YgA%3D&tabid=104&language=en-US>

- LANAREN NAZIOARTEKO ERAKUNDEA, *Enpresa multinazionalei eta gizarte-politikari buruzko hiru aldeko deklarazioa*, Geneva, 2006.

<http://www.ilo.org/public/english/employment/multi/download/declaration2006sp.pdf>

- REY MARTÍNEZ, Fernando (koord.): *III Foro Tercer Sector: Igualdad de trato, de oportunidades y Tercer Sector*, Cuadernos de Debate bilduma, Luis Vives fundazioa, Madril, 2008.

- RODRÍGUEZ-PIÑERO, Miguel eta FERNÁNDEZ, María Fernanda: *Igualdad y discriminación*, Tecnos, Madril, 1986.

- 1690/1986 *ERREGE-DEKRETUA*, uztailaren 11koa, Toki-erakundeen Biztanleria eta Lurralde Mugaketari buruzko Erregelamendua onartzen duena.

- 2612/1996 *Errege Dekretua*, abenduaren 20koa, Toki-erakundeen Biztanleria eta Lurralde Mugaketari buruzko Erregelamendua (uztailaren 11ko 1690/1986 *Errege Dekretuak onartua*) aldatzekoa.

- *EBAZPENA*, 2005eko azaroaren 17koa, udalei jarraibide teknikoak ematen dizkiena, udal-eroldaren urteroko berrikuspenari buruz eta herritarren kopuru ofizialen proposamena lortzeko prozedurari buruz.

- *EBAZPENA*, Europako Parlamentuarena, 2007ko martxoaren 13koa, enpresen gizarte-erantzukizunari buruzkoa: asoziazio berri bat (2006/2133(INI)), Europako Parlamentua.

<http://www.europarl.europa.eu/sides/getDoc.do?pubRef=-//EP//TEXT+TA+P6-TA-2007-0062+0+DOC+XML+V0//ES>

- SAN ROMÁN, TERESA: *Los muros de la separación. Ensayo sobre alterofobia y filantropía*, Bartzelonako Universitat, Bartzelona, 1996.

- SIERRA. R.: "Discriminación", in CAMPO, S. del, MARSHALL, Juan F. eta GARMENDIA, J. A. (koordinatzaileak): *Enciclopedia Unesco de las Ciencias Sociales*, I. liburukia, 720-721 or..
- EUROPAR BATASUNA: *Stop-Discrimination* terminoen glosarioa. http://www.stopdiscrimination.info/7476.0.html?&no_cache=1&mc_glossary%5Bcategories%5D=65
- EUROPAR BATASUNA: 76/207/EEE zuzentaraua, 2002/73/EE zuzentarauak aldatua
- UNITED STATES HOLOCAUST MEMORIAL MUSEUM. www.ushmm.org
- WIEVIORKA, MICHEL: *El espacio del racismo*, Paidós, Bartzelona, 1992.
- ZAFRINI, LAURA: *La convivencia interétnica*, Alianza Editorial, Madril, 2007.
- ZAPATA-BARRERO, RICARD: *Ciudadanía, democracia, y pluralismo cultural: hacia un nuevo contrato social*, Anthropos, Rubí, Bartzelona, 2001.

2. Eranskina

Tratu-
berdintasuna
eta
diskriminaziorik
eza: lege-
esparrua

TRATU-BERDINTASUNA ETA ARRAZA- EDO ETNIA-JATORRIAGATIKO DISKRIMINAZIORIK EZA: LEGE-ESPARRUA

Kapitulu honen asmoa ez da gaiari buruzko azterketa zehatza egitea; aitzitik, indarreko araubidea ezagutarazi nahi du, eta irakurleari gida-lerro batzuk eman.

I. SARRERA.

Espainiako 1978ko Konstituzioak arautzen du berdintasunaren edo diskriminaziorik ezaren printzipioa, eta, horrez gain, printzipio hori lege arruntetan eta garapeneko arau espezifikoetan jaso da.

Espainiako Konstituzioak adierazten duenez, “espainiarrak legearen arabera berdinak dira, eta ezin da inolako bereizkeriarik egin, jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi nahiz bestelako inguruabar edo egoera pertsonal zein sozialak aintzat hartuta.”

Arau hauek osatzen dute arraza- edo etnia-jatorriagatiko diskriminazioari buruzko esparru juridikoa: berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa garatzen duen araubide orokorrak, diskriminazio horri buruz diharduen araubide espezifikoak eta immigrazioari buruzko legediak, etnia-aniztasunari erreparatzen diona. Horrez gain, gaiari buruzko araubide espezifikoak garatu dituzten autonomia-erkidegoek.

II.- NAZIOARTEKO ERAKUNDEEK TRATU-BERDINTASUNARI ETA DISKRIMINAZIORIK EZARI BURUZ EZARRI DUTEN ARAUBIDEA

Giza eskubideen 1948ko Aldarrikapen Unibertsalak 2. artikuluan xedatzen du gizaki guztiak berdinak direla eta diskriminazioa ezabatu behar dela, haren arrazoa edozein dela ere: arraza, hizkuntza, erlijioa, nazioko edo jaiotzako jatorria edo bestelako arrazoiak. Gerora, ildo horretako deklarazio, hitzarmen, akordio, itun, gomendio eta xedapen ugari egin dituzte nazioarteko erakundeek (Nazio Batuak, UNESCO, LNE, ESLA, Europako Kontseilua eta haren ECRI batzordea, Europar Batasuna, etab.), herrialdeetako erakundeek eta askotariko gobernuz kanpoko erakundeek, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipio horren alde.

Azken urteetan, indartu egin da diskriminazio oro ezabatzeko ardurak, eta, bereziki, arrazismoak edo xenofobiak eragindakoa; izan ere, gora egin dute nazioarteko migrazio-fluxuek eta, era berean, ugaritu egin dira jarrera arrazista eta xenofoboak. Hori ikusita, nazioarteko erakundeak ahalegin berezia egiten

ari dira diskriminaziorik ezaren printzipioa aplikatzeko, gutxiengo etniko, erlijioso eta kulturei eta migrazioan ari diren pertsoneri.

Europar Batasunean era askotako araudiak eman dira Batasuneko herrialdeetako nazionalak ez diren immigranteen sarrera, egonaldia eta irteera arautzeko, eta haiei zer-nolako tratua eman behar zaien finkatzeko; hala, araudi horiek xedatzen dute ez dela immigranterik diskriminatu behar, haien etnia-jatorriagatik edo haien kultura-aniztasunagatik.

Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatuen oinarrizko printzipioak dira askatasuna, demokrazia, giza eskubideen nahiz oinarrizko askatasunen errespetua eta Zuzenbideko Estatuak; horrez gain, *diskriminaziorik ezaren printzipioa* aitortzen du Tratuak. Tratatuko 12. artikulua pertsonak nazionalitate-arrazoiengatik diskriminatzea debekatzen du. Halaber, 13. artikulua, *Amsterdamgo Tratuak* aldatua, gainerako tratatuek diskriminazio ezari buruz ezarri zituzten bermeak osatu ditu Europako Erkidegoko Tratatuan, eta, haren bidez, diskriminazioaren aurkako ekintzak abiarazteko eskumena ematen zaio Kontseiluari, diskriminazio horren sorburua pertsonen sexua, arraza- edo etnia-jatorria, erlijioa edo sinesmenak, minusbalotasuna, adina edo sexu-joera bada. Immigrazioaren gaian, bisatuei eta immigrazio- eta asilo-politikei buruzko xedapenak ezartzen dira, arian-arian, *askatasun, segurtasun eta justiziako espazio komun bat* eraikitzen joateko.

Arau horiei erreparatuta, Europar Batasunak, bere erakunde bidez, zenbait agiri osatu ditu, gero eta ugariagoak diren diskriminazio-kasuak murrizteko. Esaterako, zuzentarau batzuk argitaratu ditu gai espezifikokoak lantzeko: besteak beste, pertsoneri tratua berdina eman beharra, haien arraza- edo etnia-jatorria edozein dela ere, batik bat, lan-erregimenean eta Gizarte Segurantzako araubidean; familiak bateratzea; jatorriko herrialdera itzultzeko eskubidea; eta, bereziki, arrazismoaren eta xenofobiaren adierazpen eta jokabide jakin batzuen kontrako borroka, zigor-zuzenbidearen bidez. Halaber, gaiari buruzko lau zuzentarau eman dira, eta asilo-politika babesteko finantza-tresna bat sortu da: Errefuxiatuen alorrerako Funts Europarra. Hartutako neurrien artean, nabarmentzekoak dira *Diskriminazioaren aurka egiteko Erkidegoko ekintza-plana (2001-2006)* eta *Guztion aukera-berdintasunerako urte europarra ezartzeko Erabakia (2007)*, eta, zehazki, adierazi behar da azken horren helburuetako bat izan dela aniztasunaren abantailak nabarmenaraztea. Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lantzeko eremu askotan eman diren xedapenekin osatu behar da adierazitako araubidea. Eremu horien artean, nabarmentzekoak dira: lan-eremua, ondasun eta zerbitzuen eskurapena eta horien hornidura, gizakien salerosketaren aurkako borroka, haurren eta ezintasunak dituzten pertsonen babesa, eta erlijio-askatasunerako eskubidea.

Beste erakunde batek, Europako Kontseiluak, bi oinarritzko arau ditu; batetik, Giza Eskubideak eta Oinarritzko Askatasunak babesteko Hitzarmen Europarra, 1950ekoa, eta, bestetik, Europako Gutun Soziala, 1961ekoa, eta haren Protokolo gehigarria, 1988koa. Bi arau horietan, Europako Kontseiluak berariaz xedatzen du debekatuta dagoela arrazoi hauetan oinarritutako diskriminazio oro: sexua, arraza-jatorria, kolorea, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoak edo bestelako iritziak, jatorri nazionala edo soziala, gutxiengo nazional bateko kide izatea, ondarea, jaiotza edo bestelako egoerak. Bi arau horiek emateaz gain, Kontseiluak zenbait xedapen eman ditu gai zehatzak arautzeko; esaterako, langile immigranteei berdintasunezko tratua ematea, atzerritarrek bizitza publikoan parte har dezaten sustatzea, gutxiengo nazionalak babestea, eta intolerantzia eta arrazismoa desagerraraztea. Hala, deklarazio eta gomendio espezifikoak eman ditu, diskriminazio-kausa horien aurka borrokatzeko.

III. ESPAINIAKO KONSTITUZIOAK ETA AUTONOMIA-ESTATUTUEK TRATU-BERDINTASUNARI ETA DISKRIMINAZIORIK EZARI BURUZ EMANDAKO ARAUAK

1. Espainiako Konstituzioa.

Hauxe dio **1978ko Espainiako Konstituzioak** bere 1. artikuluko 1. zenbakian: “Espainiak zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoa eratzen du, eta, beraren antolamendu juridikoaren balio nagusi bezala, askatasuna, justizia, berdintasuna eta aniztasun politikoa aldarrikatzen ditu”.

Berdintasun-printzipioa, horrenbestez, Espainiako antolamendu juridikoaren balio nagusi bat da, Konstituzioak hala aitortua, eta antolamendu juridiko horretako gainerako arauak ezin dute printzipio hori azpiratu; izan ere, halaxe dio Konstituzioko hirugarren xedapen indargabetzaileak: “Indargabeturik geratzen dira, orobat, konstituzio honen aurkako xedapen guztiak”.

Arau horrekin batera, nabarmentzekoak dira Espainiako antolamendu juridikoa zuzentzen duten bi artikulua.

Batetik, 10. artikulua **gizakiaren duintasuna** aldarrikatzen du, hura sistema juridikoaren oinarritzko balio bihurtuz: “1. Ordena politikoaren eta gizarte-

bakearen oinarri dira gizabanakoaren duintasuna, hari datxezkion eskubide bortxaezinak, nortasunaren garapen askea, eta legeei eta gainerakoen eskubideei sor zaizkien begirunea”⁴⁹.

Konstituzioaren *14. artikulua*, **berdintasun-printzipioa eta diskriminaziorik ezarena** bermatzen du, pertsona ororentzat: “Espainiarrak legearen arabera berdinak dira, eta ezin da inolako bereizkeriarik egin, jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi nahiz bestelako inguruabar edo egoera pertsonal zein sozialak aintzat hartuta.”

Bi artikuluko horien arteko lotura eginda, herritarren eskubide eta askatasun publikoak ezartzen dira Konstituzioko titulu berean. Lehenengo atalean, pertsonen oinarrizko eskubideak eta betebeharrak adierazten dira; besteak beste, bizitza eta osotasun fisiko nahiz moralerako eskubidea (15. art.), ideologia-, erlijio- eta kultu-askatasuna (16. art.), askatasun eta segurtasunerako eskubidea (17. art.); ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako, eta norberaren irudirako eskubidea (18.1. art.); egoitza bortxaezina (18.2. art.), eta adierazpen-askatasuna (20. art.). Bigarren atalean, espainiarren eskubideak eta betebeharrak adierazten dira, eta, horien artean: ezkontzeko eskubidea, jabetza pribaturako eta jarauntsirako eskubidea, fundazio-eskubidea, lanerako eskubidea, osasuna babesteko eskubidea (43. art.), hezkuntza-eskubidea eta sindikatze-eskubidea.

Halaxe dio, bestalde, 13. artikuluko 1. puntuak: “Atzerritarrek titulu honek bermatzen dituen askatasun publikoak izango dituzten Espainian, itunek eta legeek ezartzen dutenaren arabera”.

Amaitzeko, gogoratu behar da Konstituzioko 9. artikulua hau arautzen duela: “*1. Herritarrak eta botere publikoak Konstituzioaren eta antolamendu juridikoaren gainerako arauen menpe daude*”. Horrez gain, hau xe dio 9. Artikulu horretako bigarren zenbakiak: “*Botere publikoei dagokie norbanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen askatasuna benetakoa eta eraginkorra izan dadin beharrezkoak diren baldintzak bultzatzea; betetasuna eragotzi edo ezabatzen duten oztopoak kentzea; eta herritar guztiei erraztasunak ematea bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialean parte har dezaten*”.

Konstituzioko balio eta printzipio horien argitan garatu behar dira antolamendu juridikoko arauak.

2. Autonomia-estatutuak

Autonomia-erkidegoetako autonomia-estatutuen araupenak alde handiak ditu, haiek onartu ostean aldatuak izan diren ala ez kontuan hartuta. Alde horiek nabarmenak dira berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioari eta immigranteen eta etnia-gutxiengoaren integrazioari ematen zaien lege-tratamenduan.

Aldaketa handirik izan ez duten estatutuetan, berdintasun-printzipioari buruzko araupena printzipio horren sustapenera mugatu ohi da, Konstituzioko 9. artikulua egindakoaren antzera. Aitzitik, autonomia-estatutuak aldatuak dituzten autonomia-erkidegoetako estatutuek gaiari buruzko aipamen zehatzak egiten dituzte.

Valentziako autonomia-estatutua aldatzeko, *apirilaren 10eko 1/2006 Lege Organikoa* eman zen, eta, bertan, gizon eta emakumeen arteko tratua eta aukera-berdintasunaren printzipioa arautzen da (11. art.), bai eta ezintasunak dituzten pertsonena (13. art.) eta beste giza talde batzuen ere. Horrez gain, 10. artikulua, gizarte-eskubideak arautzen dituenak, eskubideak eta gizarte-arreta aitortzen die Valentziako erkidegoan bizi diren immigranteei.

Kataluniako autonomia-estatutua aldatzeko, uztailaren 19ko 6/2006 Lege Organikoa eman zen, eta bertan arautzen da Estatutuak eta beste lege-testu batzuek aitortutako eskubide eta askatasun publikoak baliaraztea sustatu behar dela, eta gizabanakoen eta taldeen arteko askatasuna eta berdintasuna benetakoa eta eraginkorra izateko baldintzak sustatu behar direla (4. art.), baita eremu sozioekonomikoan ere (45. art.). Eremu zibil eta sozialeko eskubide eta betebeharren araupena garatzen du I. tituluko I. kapituluak, eta bertan adierazten da pertsona orok duela duintasunez, seguru eta autonomiaz bizitzeko eskubidea, inork zapaldu gabe, tratua txarrik jasan gabe eta inolako bazterkeriarik gabe bizitzeko eskubidea, eta nortasuna eta norbanakoaren gaitasunak eragozpenik gabe garatzeko eskubidea (15. art.); jarraian, pertsonen eskubideak zerrendatzen dira, eta, 19. artikuluan, berariaz aipatzen dira adingabeak, adineko pertsonak, emakumeak eta haiek berdintasunezko tratua jasotzeko duten eskubidea. V. kapituluan, zenbait giza talderen babesa eta haien gizarte-integrazioaren sustapena arautzen da, berdintasunezko baldintzatan egin beharrekoa; hala, adineko pertsonen buruz dihardute 40. artikuluko 5. eta 6. puntuak eta emakumeen buruz 41. artikulua. Halaber, hauxe dio, berariaz, 40.8. artikulua: “Botere publikoek pertsona ororen arteko berdintasuna sustatu behar dute, haien jatorria, nazionalitatea, sexua, arraza,

erlijioa, gizarte-taldea edo sexu-joera edozein delarik ere, eta, era berean, arrazakeria, antisemitismoa, xenofobia, homofobia eta pertsonen berdintasunaren eta duintasunaren aurkako beste edozein adierazpide ezabatzeko ahaleginak egin behar dituzte”. Hauxe dio, immigranteei buruz, 42.6. artikulua: “Botere publikoek martxan jarri beharreko ekimenak abiarazi behar dituzte etorkinak hartzeko sistema bat antolatzeko, eta sustatu beharreko politikak sustatu behar dituzte ondo bermatuta gera dadin etorkin horien eskubide-eginbeharrak aitortzen direla eta benetan betetzen direla, gainontzekoen aukera berberak dituztela, eta gizarteari eta ekonomiari egokitzeko eta gai publikoetan esku hartzeko beharrezko zerbitzuak eta laguntzak jasotzen dituztela”.

Otsailaren 28ko 1/2007 Lege Organikoak aldatu zuen Balear Uharteetako autonomia-estatua, eta haren 12.1. artikulua xedatzen du erkidego horretako autogobernu-printzipioetako bat berdintasun-printzipioa dela; halaber, 15.2. artikulua adierazten du herritarrek berdintasunezko baldintzetan parte hartu behar dutela gai publikoetan. Gizarte-eskubideei buruz dihardu 16.3. artikulua, eta bertan esaten du herri-administrazioen ekintzen helburua zenbait giza talde (familiak, adingabeak, gazteak) babestea izango dela, tratu- eta aukera-berdintasunen printzipioa ezartzen du ezintasunak dituzten pertsonentzat (ikus, halaber, 19. art.), gizon eta emakumeen arteko berdintasuna (ikus, halaber, 17.2. art.), eta immigranteen eskubideak eta gizarte-arreta.

Guztietan zehatzena Andaluziako autonomia-estatutua da, martxoaren 19ko 2/2007 Lege Organikoak aldatua; izan ere, berriaz jasotzen eta arautzen ditu tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa eta immigranteen eta etnia-gutxiengoaren integrazioa. Andaluziako autonomia-estatutuak balio nagusi gisa aldarrikatzen ditu askatasuna, justizia, berdintasuna eta aniztasun politikoa andaluziar guztientzat, Espainiako gainerako autonomia-erkidegoekin berdintasunean eta elkartasunean. Adierazten du baldintzak sustatuko dituela gizabanakoen (hau da, gizon eta emakumeen) eta haiek osatutako taldeen berdintasuna eta askatasuna egiazkoak eta eraginkorrak izan daitezen, eta 10.1. artikuluan adierazten du ekintza positiboko neurriak hartu dituela hori guztia gauza dadin.

Diskriminazio oro debekatzen da eskubideak eman, obligazioak bete edo zerbitzuak ematerakoan, bereziki, arrazoi hauen kariaz eginak badira: sexua, jatorri etniko edo soziala, hizkuntza, kultura, erlijioa, ideologia, ezaugarri genetikoak, jaiotza, ondarea, ezintasunak, adina, sexu-joera edo bestelako baldintza edo ezaugarri sozial edo pertsonalak. Diskriminazioa debekatuta izanda ere, ekintza positiboak egiteko aukera izango da, desabantaila-egoeran

dauden talde edo pertsonen alde (14. art.). Bitartekoak jarriko dira, konstituzio-araubidearen baitan, Andaluzian bizi diren herritar atzerritarren parte hartzea bultzatzeko; halaber, Andaluziako lurraldean bizi diren gutxiengoaren errespetua bermatzeko da, eta immigranteak Andaluziako gizartean, ekonomian, lan-esparruan eta kulturean integratzeko direla ziurtatuko. Gutxiengoaren integrazio osoa lortzeko baldintzak sustatuko dira, eta, bereziki, ijitoen komunitatearena, erabat integratuta dagoen gizartean. Andaluziako autonomia-estatutuko 5., 9., 10.3., 17. eta 21. artikuluek xedatzen dute hori guztia. Halaber, 37. artikuluko 2. puntuak arautzen du autonomia-estatutuko printzipio gidariak direla sexismoaren, xenofobiaren, homofobiaren eta belizismoaren aurkako borroka, eta lan horren bitarteko nagusia izango dela, lehenik, balioetan hezteak, berdintasuna, tolerantzia, askatasuna eta elkartasuna sustatzeko. Horrez gain, artikuluko 9. eta 17. puntuak xedatzen dute immigranteak lan-munduan, ekonomian, gizartean eta kulturean integratzea bilatuko dela, pertsona guztiek izango dutela kulturarako sarbide askea eta kultura-aniztasuna errespetatuko dela. Immigratioari buruz dihardu, zehazki, 62. artikulua, eta adierazten du, besteak beste, autonomia-erkidegoari dagokiola immigranteen integratzeak eta haien gizarte-, ekonomia- eta kultura-partaidetzarako politikak egitea, bere eskuduntzen baitan. Horrez gain, Andaluzian lan egiten duten atzerritarren lan-baimenei buruzko exekuzio eskumena du erkidego horrek, baina, betiere, pertsonen sartu-irtenen eta egonaldien alorrean Estatuak dituen eskuduntzekin koordinatuta eta Estatuaren legediarekin bat etorritik.

Azaroaren 20ko 5/2007 Lege Organikoak aldatu zuen *Aragoiko* autonomia-estatutua, eta bertan arautzen dira erkidego horretan indarrean dauden eskubideak eta printzipio gidariak. Autonomia-estatutuak xedatzen du pertsona guztiek dutela duintasunez, segurtasunez eta autonomiaz bizitzeko eskubidea, inork zapaldu gabe, tratatu txarrik jasan gabe eta inolako bazterkeriarik gabe, eta nortasuna eta norbanakoaren gaitasunak eragozpenik gabe garatzeko eskubidea dutela (12. art.). Jarraian, pertsonen aitortutako eskubideak zerrendatzen dira. Printzipio gidarien artean, botere publikoen betebeharrak da, besteak beste, herritarren berdintasuneko baldintzak eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzea, ezintasunak dituzten pertsonen tratatu- eta aukera-berdintasuna bultzatzea, eta enpleguko eta laneko berdintasuna sustatzea. Horrez gain, hauek sustatu behar ditu autonomia-erkidegoak: pertsona immigranteen integratze sozioekonomikorako politikak, haien eskubide eta betebeharrak eraginkorrak izatea, hezkuntza-munduan sartzea eta bizitza publikoan parte hartzea (20-29 artikulua).

Azkenik, *Gaztela eta Leongo* autonomia-estatutuak, azaroaren 30eko 14/2007 Lege Organikoak aldatuak, alderdi hauek finkatzen ditu: gizabanakoaren

askatasunaren eta berdintasunaren sustapena, emakumeen berdintasuna, ezintasunak dituzten pertsoneri tratu eta aukera berdinak ematea, eta generoagatiko diskriminaziorik eza (8.3, 11.3, 13.8, 14 eta 70, 10^o eta 11^o artikulua). Printzipio gidariak dira "bake-kultura, tolerantzia eta errespetu eta gizalege demokratikoak sustatzea, eta bazter uztea indarkeria, gorrotoa, diskriminazioa edo intolerantzia sustatzen duen jarrera oro, nahiz, beste edozein modutan, pertsonen berdintasunaren eta duintasunaren aurka doazenak" (16.25 art.). Azkenik, 10. artikulua, berariaz aipatzen ditu atzerritarren eskubideak: "1. Konstituzioaren eta Estatuko legedi aplikagarriaren baitan, administrazio-egoitza Erkidego honetan duten atzerritarrei zabalduko zaizkie Estatutu honek Gaztela eta Leongo herritarrei aitortzen dizkien eskubideak, eskubide horien garapeneko legeek xedatutako moduan.- 2. Erkidegoko botere publikoek sustatu egingo dute immigranteak Gaztela eta Leongo gizartean, ekonomian, lan-munduan eta kulturaren integratzea" (ikus, halaber, 76, 2^o artikulua).

IV. TRATU-BERDINTASUNARI ETA DISKRIMINAZIORIK EZARI BURUZKO LEGEDI ESPEZIFIKOA ESPAINIAN

Tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioari buruzko arau ugari eman dira Espainian, bai Estatu osorako, bai autonomia-erkidego bakoitzerako. Aurrez aipatu dugun moduan, Gida honen lan-eremua arraza- eta etnia-jatorriagatiko diskriminazioa da, baina, jarraian, zenbait arau adierazgarri zerrendatuko ditugu, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioaz diharduten arren, beste diskriminazio-arrazoi batzuei erreparatzen diotenak.

Nabarmentzekoak dira, horien artean, gizonen eta emakumeen arteko tratu-berdintasunaz dihardutenak. **Urriaren 15eko 11/1990 Legeak, Kode Zibila aldatzekoa, diskriminaziorik ezaren printzipioa aplikatzeko**, eremu zibiletik desagerrarazi zituen 1978ko Konstituzioa onartu ondoren arauetan geratzen ziren sexuagatiko diskriminazioaren azken arrastoak; eta **martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasunerakoak**, tratu-berdintasunaren arau-esparrua finkatzen du, eta lege-aldaketa handiak dakartza, emakumeen eta gizonen artean berdintasuna benetakoa izan dadin. Azken lege horrek eskubideen erabilera osoa bermatu nahi du, eta, horretarako, zehar-neurriak abiarazten ditu eremu politiko, juridiko eta sozialeko maila guztietan, emakumeei egindako diskriminazio oro desagerrarazteko.

Beste arau batzuek ezintasunak dituzten pertsonen errealitatean eragin dute; esaterako, **51/2003 Legeak, abenduaren 2koak, ezintasuna duten pertsonen aukera-berdintasunari, diskriminaziorik ezari eta irisgarritasunari buruzkoak**.

Bereziki nabarmentzekoa da **abenduaren 30eko 62/2003 Legea, neurri fiskal, administratibo eta lan-arlokoena**, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren gaia arautzen duten bi zuzentarauren transposizioa egiten baitu: lehenik, Kontseiluaren 2000/43/EE zuzentaraua, 2000ko ekainaren 29koa, pertsonen eman beharreko tratu berdinen printzipioari buruzkoa, haien arraza- edo etnia-jatorria edozein dela ere, printzipio hori hainbat eremutan arautzen duena; eta, bigarrenik, Kontseiluaren 2000/78/EE zuzentaraua, 2000ko azaroaren 27koa, enpleguaren eta okupazioaren alorrean tratu-berdintasunerako lege-esparrua ezartzekoa, diskriminazioaren aurka egin nahi duena, horren arrazoia

erlijioa edo sinesmenak, ezintasunak, adina eta sexu-joerak direnean. Lege horrek, gainera, lege-esparru orokor bat ezartzen du pertsonen arraza- edo etnia-jatorrian oinarritutako diskriminazioaren aurka egiteko eremu guztietan, diskriminazioaren lege-definizioa ezartzen du (zuzenarena nahiz zeharkakoarena) eta modernizatu egiten du tratu-berdintasunak eta diskriminazio ezak lan-eremuan duen erregulazioa.

Eremu espezifikoetan, aipatzekoa da ***uztailaren 11ko 19/2007 Legea, indarkeriaren, arrazismoaren, xenofobiaren eta intolerantziaren aurka egitekoa kirol-munduan.***

Ijito-etniak, presentzia handikoa Espainian, baditu nabarmentzeko moduko bi arau; batetik, ***891/2005 Errege Dekretua, uztailaren 2koa, Ijito Herriaren Estatuko Kontseilua sortu eta arautzekoa*** eta, bestetik, ***102/2005 Dekretua, maiatzaren 31koa, Ijito Herriaren Plan Osoko Departamentu Arteko Batzordea eta Ijito Herriko Aholku Kontseilua sortzekoa***⁵⁰.

V. BERDINTASUNAREN ETA DISKRIMINAZIORIK EZAREN PRINTZIPIOA LEGEDI ARRUNTEAN.

Legedi arruntean, badira zenbait lege-testu oinarrizko, herritar espainiarren eskubideak arautzekoak, haien eguneroko bizitza gertatzen den eremuetan bete beharrekoak. Lege horiek, halaber, atzerritarren eta etnia-gutxiengoetako kideen eskubideez dihardute, Espainian pertsona horiek duten egoera juridikoa arautzeko dauden berariazko arauz gain.

Lehenik eta behin, atzerritarrei buruzko legedi espezifikoa aipatuko dugu, eta, bigarrenik, lege arruntetan haiei buruz egiten diren aipamenak azalduko dira.

1. Atzerritarrek Espainian dituzten eskubideei buruzko legedia

Pertsona atzerritarrek Espainian duten egoera juridikoa arautzen duen legea **urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa da, Atzerritarren Eskubide eta Askatasunei buruzkoa eta Atzerritar horiek Gizarteratzeari buruzkoa**, gerora abenduaren 22ko 8/2000 Lege Organikoa, irailaren 29ko 11/2003 Lege Organikoa keta azaroaren 20ko 14/2003 Lege Organikoa aldatua. Legearen **Erregelamendua abenduaren 30eko 2393/2004 Errege Dekretuak**⁵¹ ezarri zuen.

Atzerritarren eskubideak eta askatasunak ezartzen ditu Legearen I. tituluak, eta haren 3. *artikuluak* hau arautzen du, izaera orokorrez:

“1. Atzerritarrek izango dituzte Konstituzioaren I. tituluaren aitortutako eskubide eta askatasunak. Eskubide eta askatasun horiek bat etorriko dira nazioarteko tratatuetan, lege honetan eta eskubide eta askatasun horietako bakoitzaren egikaritza arautzeko legeetan ezarritakoarekin. Interpretazio-irizpide orokor gisa, ulertuko da atzerritarrek egikaritzen dituztela lege honek aitortutako eskubideak espainiarren baldintza berdinetan.

2. Atzerritarren oinarrizko eskubideei buruzko arauak interpretatuko dira Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalarekin, eta gai berdinen inguruan Espainian indarrean dauden tratatu eta akordioekin bat etorri; ezin izango da alegatu era desberdinetako erlijio-sinesmenak edo pentsaera ideologiko nahiz kulturalak izatea, oinarrizko eskubideen aurkako egintzak edo jokaerak gauzatzea justifikatzeko”⁵².

Ondorengo artikuluek zehaztu egiten dituzte eskubide horiek⁵³. Komeni da nabarmentzea eskubide horien artean *atzerritarrak ez diskriminatzeko printzipioa* ezartzen dela (Titulu horretako IV. Kapituluak: “Bereizkeriarena urkako neurriak”)⁵⁴, eta, berariaz, 23, 1 artikulua hau xedatzen duela: “Lege honen ondoreetarako, bereizkeria da, zuzenean edo zeharka, atzerritar baten aurka bereizketa, bazterketa, murrizketa edo lehentasuna dakarren egintza oro, baldin eta horrelakoen oinarri badira arraza, kolorea, jatorri nazionala edo etnikoa, pentsaerak eta erlijio-eginerak. Gainera, egintza horien xede edo ondorea izan behar da giza eskubideen eta oinarritzko askatasunen berdintasunezko aitortzea edo egikaritzea ezabatzea edo murriztea, politika-, ekonomia-, gizarte-, edo kultura-esparruan”.

Berariaz, *bereizkeria-egintzak* zer diren adierazten du artikulua horretako 2. zenbakiak, eta, horien artean, aipatzekoak dira “atzerritarrei espainiarrei baino baldintza larriagoak ezartzen dizkieten egintza guztiak, edo oztopoak jartzen dituzten egintzak, jendaurrean eskainitako ondasun edo zerbitzuak emateko, atzerritar izate hutsarengatik, edo atzerritar horiek arraza, erlijio, etnia zein naziotasun jakin batekoak izateagatik” eta “Espainian legez dauden atzerritarrei, legitimoa ez den eran, espainiarrei baino baldintza larriagoak ezartzen dizkieten egintza guztiak, edo Espainian legez dauden atzerritarrei, lana, etxebizitza, hezkuntza, lanbide-prestakuntza eta gizarte-zerbitzuak nahiz gizarte- eta laguntza-izaerako zerbitzuak, eta lege organiko honetako gainerako eskubideak murrizten edo mugatzen dizkieten egintzak, atzerritarrak izateagatik edo arraza, erlijio, etnia edo naziotasun jakin batekoak izateagatik soil-soilik” (b eta c letrak).

Beste bereizkeria-egintza batzuk dira: “Zerbitzu publiko baten ardurapean, agintari edo funtzionario publiko batek nahiz langile batek gauzatutako egintzak, baldin eta bere eginkizunak betetzean, egitez edo ez-egitez, legeak debekatutako bereizkeriazko egintzetatik edozein gauzatzen badu, atzerriko herritar batena urka, herritar hori atzerritarra izateagatik edo arraza, erlijio, etnia zein naziotasun jakin batekoa izateagatik” eta “Legez Espainian bizi den atzerritar batek jarduera ekonomiko bat modu legitimoan gauzatzeari ekin dionean, jarduera hori gauzatea eragozten duten egintza guztiak, egitezkoak nahiz ez-egitezkoak, hori atzerritarra izateagatik edo arraza, erlijio, etnia edo naziotasun jakin batekoa izateagatik” (23.2. artikuluko a eta d letrak, hurrenez hurren).

Hala ere, aintzat hartu behar da atzerritarrak, Espainian, egoera juridiko ezberdinetan izan daitezkeela, eta araubide juridiko ezberdinak daudela egoera horiek arautzeko. *Azterritarrak ondoko egoeretako batean egon ahal izango dira Espainian: egonaldian edo bizilekuarekin*; egoera horiek egiaztatu ahal izango dira pasaportearen bidez edo atzerritarraren nortasuna egiaztatzen duen bidaia-agiriaren bidez, bisatuaren bidez edo atzerritarraren nortasun-txartelaren bidez, kasu bakoitzaren arabera (29. art.)⁵⁵.

Legeak dio *egonaldia* Espainiako lurraldea egotea dela, 90 egunetik gorakoa ez den denboraldian, ikasleentzat xedatutakoari kalterik egin gabe⁵⁶ (art. 30.1. art.). Eta dio Espainian *bizilekua dutela* Espainian egon eta bizilekua izateko baimen baten titular diren atzerritarrek (30 bis 1 art.).

Espainian bizilekua duten atzerritarrek behin-behineko bizilekua edo behin betiko bizilekua izateko egoeran izan daitezke. *Behin-behineko bizilekua izateko egoerak* baimena ematen du, Espainian egoteko, 90 egunetik gorako eta bost urtetik beherako epealdian (Legeko 31.1 artikulua eta Erregelamenduko 34. art.)⁵⁷.

Behin betiko bizilekua izateko egoerak ahalbidetzen du Espainian iraupen mugaturik gabe bizitzea eta espainiarren baldintza berberetan lan egitea (32.1. art.)⁵⁸, eta eskubide hori izango dute Espainiako lurraldean bost urtez jarrian eta legezko egoeran bizilekua izan duten atzerritarrek (Erregelamenduko 72.1. art.) edo Erregelamenduko 72.3. artikuluan adierazitako egoeretan dauden atzerritarrek.

Legeak baldintza hauek betetzea eskatzen du, Espainiako lurraldean sartzeko: horretarako ezarritako tokietatik sartzea Espainian; pasaportea, bidaia-agiria edo bere nortasuna egiaztatzen duen bestelako agiriren bat edukitzea; egonaldiaren arrazoia eta baldintzak justifikatzeko agiriak; behar besteko bizibideak dituela edo horiek legez lortzeko aukera duela egiaztatzea; bisatua⁵⁹; mediku-ziurtagiria⁶⁰; Espainian sartzeko debekurik ez izatea; eta ez izatea arrisku bat osasun publikorako, segurtasun nazionalerako, edo Espainiaren nahiz Espainiarekin harremanak dituzten Estatuetak nazioarteko harremanentzat⁶¹ (Legeko 25. artikulua eta Erregelamenduko 4.etik 1.era bitartekoak).

Horrez gain, Legeak eta Erregelamenduak arautzen dute Espainian sartzeko baimena eman ahalko dela legezko egonaldiako baldintzak betetzen ez

dituzten atzerritarrei, baldin eta aparteko arrazoi humanitarioak badaude edo interes publikoa nahiz Espainiak hartutako konpromisoak bete beharra badago, baina, betiere, hiru hileko gehieneko epean (Legeko 25.4. artikulua eta Erregelamenduko 107.4 eta 107.7 artikulua)⁶². Egonaldi-egoeran izateko aukera izango dute, agiri akastunez, agiririk gabe edo Espainian sartzeko lekuetatik sartu ez diren atzerritarrek, baldin eta arrazoi humanitarioak badaude egoera hori baimentzeko (Legeko 34.2. art.). Behin-behineko egonaldiako baimena eman ahal izango da, halaber, arrazoi humanitarioengatik, justiziarekin elkarlanean aritzeagatik edo erregelamendu bidez ezarri aparteko inguruabarrengatik. Horrelako kasuetan, ez da behar izango bisaturik. (Legeko 31.3. art.).

Suposamendu horien artean, 45. artikuluan aparteko zenbait egoera arautzen ditu, bisatuaren derrigorrezko betekizuna salbuesteko aukera ematen dutenak; betiere, Legeak 25. artikuluan eskatzen dituen gainerako baldintzak betetzen badira.

Atzerritarrak, halaber, beste egoera batzuetan izan daitezke Espainian.

a) Atzerritar asilatu eta errefuxiatuak.

Arraza, erlijio, nazionalitate edo gizarte-talde jakin batekoa izateagatik edo iritzi politikoengatik jazarria izateko beldur oinarritua duten atzerritarrak dira, beren nazionalitateko herrialdetik kanpo daudenak, eta ezin dutenak edo, beldurraren ondorioz, ez dutenak herrialde horretako babesa eskatzen edo hara itzuli nahi izaten; edo, nazionalitaterik ez duten pertsonak, eta, inguruabar horien ondorioz, lehen beren ohiko bizilekukoa zen herrialdetik kanpora izan eta herrialde hartara itzuli ezin dutenak edo, beldur horren ondorioz, hara itzuli nahi ez dutenak (*Genevako 1951ko Hitzarmenak, Errefuxiatuen Estatutuari buruzkoak*, 1(A)2 artikuluan ematen duen definizioa). Lege honek arautzen du pertsona horien egoera juridikoa: *5/1984 Legeak, martxoaren 26koak, asilo-eskubidea eta errefuxiatu-izaera arautzekoa*. Gerora, beste arau hauek aldatu egin dute lege hori: maiatzaren 19ko 9/1994 Legeak, martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, eta azken horren *Erregelamenduak*, otsailaren 10eko 203/1995 *Errege Dekretuaren* bidez onartua⁶³. Gerora emandako beste errege-dekretu batzuek *aldatu* egin

dute, halaber, Erregelamendua (abenduaren 30eko 2393/2004 Errege Dekretua izan da azkena).

5/1984 Legeak, asilo-eskubidea eta errefuxiatu-izaera arautzekoak salbuetsi egiten ditu lurraldean sartzeko betekizunak (23. artikulua). Halaber, neurri hauek hartuko dira asilo-babesa eskuratzen duten errefuxiatuen alde: Espainian bizitzeko bizileku-baimena emango zaie, beharrezkoak diren bidaia- eta nortasun-agiriak emango zaizkie; lan-, lanbide- edo merkataritza-jarduerak gauzatzeko baimena emango zaie; eta errefuxiatuei buruzko nazioarteko hitzarmenetan jaso daitezkeen neurrietatik beste edozein, baldin eta Espainiak hitzarmen horiek izenpetuta baditu (asilo-legeko 2. artikulua).

b) Aberrigabeak.

Nazionalitaterik gabeko pertsonak dira. Pertsona horien egoera arautzen dute, nazioartean, *Aberrigabeen Estatutuari buruzko Hitzarmenak, 1954koak*, eta, Espainian, *uztailaren 20ko 865/2001 Errege Dekretuak, aberrigabeen estatutuko erregelamendua ezartzen duenak, eta 5/1984 Legeak, asilo-eskubidea eta errefuxiatu-izaera arautzekoak*.

Aberrigabearen estatutua onartua duten pertsonen eskubideak izango dira: Espainian bizitzea; lan-, lanbide- eta merkataritza-jarduerak egitea; eta nortasun- eta bidaia-agiriak eskuratzea.

c) Agiririk gabeko atzerritarrak.

Haiei agiririk emango dien herrialderik ez duten atzerritarrak dira, agiriak Espainian eskuratu nahi dituztenak. Haien egoera egiaztatu ondoren, eta kasuan izaera humanitarioko arrazoiak, interes publikokoak edo Espainiak hartutako konpromisoak ematen badira, identifikazio-agiriak eskuratzeko aukera izango dute (4/2000 Legeko 34.2. artikulua).

d) Egoera irregularrean dauden atzerritarrak.

Espainian modu irregularrean sartu edo, arauzko eran sartu arren, Espainian modu irregularrean dirauten atzerritarrak dira. 4/2000 Legeak zenbait eskubide aitortzen dizkie. Estatuak erabaki dezake haiek aldizkakotasun jakin batez agintari eskudunaren aurrera agertu beharra, pasaporteia edo egiaztagiri-agiriak kentzea, kautelazko atxilotzea,

prebentziozko izaeraz sartzea presondegiko erregimena ez duen zentro batean, bueltatzea, itzularaztea, diruzko multak jartzea edo kanporatzea (Erregelamenduko 57., 58., 141. eta 157. artikulua).⁶⁴.

e) Adingabe atzerritarrak.

Adingabe atzerritarrak egoera anitzak bizi ditzakete, eta egoera bakoitzak bere araubide propioa du. Bereizi behar dira gurasoak edo tutoreak lagunduta dauden adingabeak eta bakarrik daudenak (4/2000 Legeko 35. artikulua).

2. Berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa bizitza pribatuan eta familia-bizitzan. Kode Zibileko araupena.

Eremu zibilean, harreman pribatuetara eta familia-harremanetara zabaldu da berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa. Espainiako Konstituzioko 32.1. artikulua eta Kode Zibileko (KZ) 66. artikulua araututakoari jarraiki, berariaz aplikatzen da senar-emazteen arteko harremanetan, ondorio pertsonal nahiz ondarezkoetarako, bai eta seme-alabatasuneko harremanetan ere (KZ 108. art.). Printzipioa, halaber, foru-lurraldeetako zuzenbide zibil berezietan jaso da (Katalunia, Aragoi, Nafarroa, EAE, Balear Uharteak eta Galizia), eta lurralde horietako izaera eta ohituren arabera arautzen dute familia-bizitza.

Printzipio hori atzerritarren eta etnia-gutxiengoen bizitza pribatuan eta familia-bizitzan aplikatzeko orduan, adierazi behar da atzerritarren espainiarren eskubidez zibil berak dituztela, lege berezietan eta tratatuetan xedatutakoa salbu (KZ 27. art.), eta, ondorioz, printzipioa atzerritarrei eta etnia-gutxiengoei aplikatu behar zaie; hala ere, kontuan izan behar da nazionalitateak erabakitzen duela zein izango den pertsona fisikoen lege pertsonala, eta lege horrek arautuko duela pertsonen gaitasuna eta egoera zibila, familiaren eskubide eta betebeharrak eta heriotzazko kausazko oinordetza (KZ 9.1. art.).

3. Berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa zigorzuzenbidean.

Gaiari buruzko araubidean, garrantzi berezia du Zigor Kodeak finkatzen duen araupena pertsonen berdintasuna errespetatzean dadin eta haien aurka diskriminaziorik egin ez dadin. Beste horrenbeste esan behar da gizabanakoen oinarrizko eskubideak babesteko ezartzen duen araupenaz.

Horiek horrela, azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoak, Zigor Kodeari buruzkoak, aurrerapen handiak egin ditu gai honetan; izan ere, inguruabar astungarri hau ezarri du IV. kapituluko (*Erantzukizun kriminala astuntzen duten inguruabarrak*) 22. artikulua: “*delitu egitea arrazakeria nahiz zio antisemitengatik edo bereizkeriazko beste mota batengatik, baldin eta hori biktimaren ideologia, erlijio edo sinesmen, etnia, arraza edo nazioari buruzkoa bada.*”

Halaber, XV. Tituluan, *Langileen eskubideen aurkako delituak*, hau xedatzen du 314. artikulua: “*Norbaitzuek, enplegu publiko nahiz pribatuan, pertsonan baten aurka bereizkeri larria sorrarazi eta, administrazio-agindu edo -zehapenaren ondoren, legearen aurreko berdintasun-egoera berrezartzen ez badute, horrek ondorioztatu dituen kalte ekonomikoak konponduz, hain zuzen, bereizkeriaren arrazoi direla pertsonaren ideologia, erlijioa nahiz sinesmenak; edo etnia, arraza nahiz nazio batekoa izatea; edo sexua, sexu-joera, familia-egoera nahiz gaixotasunen bat edo elbarritasunen bat izatea; edo langileen lege-ordezkaria zein ordezkari sindikala izatea; edo enpresaren beste langile batzuekin senidetasuna izatea edo Espainiako estatuaren hizkuntza ofizialen bat erabiltzea, orduan, halakoei, sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorra edo sei hilabetetik hamabi arteko isuna ezarriko zaie.*”

Zigor-kodearen XXI. tituluko (Konstituzioaren aurkako delituak) IV. Kapitulu 1. atalak, Konstituzioak bermatzen dituen oinarrizko eskubide eta askatasun publikoak egikaritzean egindako delituei buruz diharduenak, hau xedatzen du, 510. artikuluan: “*1. Norbaitzuek talde edo elkarteen aurkako bereizkeria, gorrotoa edo indarkeria eragiten badute arrazakeria nahiz zio antisemitengatik, edota talde nahiz elkarte horietako kideen ideologia, erlijio nahiz sinesmen, familia-egoera, arraza, nazio-jatorri, sexu, sexu-joera, gaixotasun edo elbarritasunarengatik, orduan, halakoei urtebetetik hiru urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaie, bai eta sei hilabetetik hamabira arteko isuna ere. 2. Zigor bera ezarriko zaie talde edo elkarteen inguruan, faltsuak direla jakinda edo egia ausartegi mesprextatuz, informazio iraingarriak hedatzen dituztenei, baldin eta informaziook horien ideologia, erlijio nahiz sinesmen, edota beren kideen etnia, arraza, nazio-jatorri, sexu, sexu-joera, gaixotasun edo elbarritasunari buruzkoak badira.*”

Halaber, halaxe dio 511. artikulua: “*1. Sei hilabetetik urte bi arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, bai eta hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna eta enplegu edo kargu publikorako desgaitasuna berezia ere, urtebetetik hiru artekoa, herri-zerbitzu batez arduratzen den norbanakoari, baldin eta pertsona bati, beraren ideologia, erlijio, sinesmen, etnia, arraza, nazio-jatorri, sexu, sexu-joera, gaixotasun edo elbarritasuna dela eta, prestazio bat ukatzen badiu, pertsona horrek prestazio horretarako eskubidea izanik. 2. Zigor berberak ezarriko dira, baldin eta egitateak elkarte, fundazio, sozietate edo korporazioen aurka edo horien kideen aurka gauzatzen badira, kideen ideologia, erlijio edo sinesmenengatik, kideen edo horietako baten etnia edo arrazarengatik, edo euren nazio-jatorri, sexu, sexu-joera, familia-egoera, gaixotasun edo*

elbarritasunarengatik. 3. Funtzionario publikoek artikulu honetan ezarritako egitateetako bat gauzatzen badute, zigor berberak, goiko erdian ezarriko zaizkie eta, horiekin batera, enplegu edo kargu publikorako desgaiuntza berezia, bi urtetik lau artekoa”.

Ildo horretatik, hau arautzen du 512. artikulua: *“Norbaitzuek, lanbide- edo enpresa-jarduerak gauzatzean, pertsona bati prestazio bat emateari uko egiten badiote, beraren ideologia, erlijio, sinesmen, etnia, arraza edo nazio, sexu, sexu-joera, familia-egoera, gaixotasun edo elbarritasunaren zioz, eta pertsona horrek prestazio horretarako eskubidea izanik, orduan, halakoei lanbidea, ogibidea, industria edo merkataritzan aritzeko desgaiuntza berezia ezarriko zaie, urtebetetik lau artekoa”.*

Nabarmentzekoa da 515. artikulua, hau adierazten baitu bere 5. paragrafoan: *“Zigortzekoak dira zilegiak ez diren elkarteak, eta halakotzat hartzen dira (...) pertsona, talde edo elkarteen aurkako bereizkeria, gorrotoa edo indarkeria sustatzen dutenak, horien ideologia, erlijioa edo sinesmenen zioz, edo horien kideen edo horietako baten etnia, arraza edo nazio, sexu, sexu-joera, familia-egoera, gaixotasun edo elbarritasunaren zioz”.*

XXIV. Tituluko (Nazioarteko Erkidegoaren aurkako delituak) II. bis kapituluan, urtebetetik hogeit hamar bitarteko espetxealdi-zigorak adierazten dira, delitu hauek egiteagatik *“genozidio-delituak, nazio, etnia, arraza edo erlijio-talde bat oso-osorik edo zati batean suntsitzeko asmoz eginak badira”⁶⁵.*

4. Berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa osasun-alorrean.

Osasun-legediko oinarritzko araua da apirilaren 25eko 14/1986 Legea, hau da, osasunari buruzko lege orokorra, eta, berariaz, hau arautzen du bere 1. artikuluko 2. eta 3. zenbakietan: *“Osasunaren babeserako eta osasun-arretarako eskubidearen titularrak dira espainiar guztian eta beren bizilekua lurralde nazionalean ezarrita duten herritar atzerritar guztiek”, eta “Espainian bizi ez diren atzerritarrek eta lurralde nazionaletik kanpo bizi diren espainiarrek bermatuta izango dute eskubide hori, legeek eta nazioarteko hitzarmenek ezarritako moduan”.*

Lege horretan bertan, osasun-sistema publikoko⁶⁶ erabiltzaileen eskubideak zehazten dira, eta eskubide horiek aplikagarriak zaizkie atzerritarrei, *diskriminaziorik ezaren printzipioaren* baitan; izan ere, erabiltzaileen eskubidea da *“beren nortasuna, giza duintasuna eta intimitatea errespetatua izatea, inolako diskriminaziorik jasan gabe, beren arraza, gizarte-egoera, sexua, morala, ekonomia-egoera, ideologia eta ildo politikoa edo sindikala dela medio”* (10.1. art.).

Atzerritarrek Espainian izango duten egoera juridikoa arautzeko legediak nabartzen du irizpide hori, eta, berariaz, 4/2000 Lege Organikoak finkatzen du zer-nolako osasun-laguntza emango zaien immigranteei, haien egoera juridikoari erreparatuta (12. art.).

Espainian iraganbiderako edo *egonaldirako* bisatua⁶⁷ eskatzen duten atzerritarrek mediku-aseguru bat dutela egiaztatu behar dute. Aseguru horrek estali behar du, haien egonaldi osoan, eta muga-kontrolen ezabaketarako Espainiak izenpetuta dituen hitzarmenak aplikatzen diren estatu guztietan, istripuen edo bat bateko gaixotasunen ondoriozko mediku-gastuak eta jatorrizko herrialdera itzultzeko gastuak (Erregelamenduko 23.2.e eta 28.1.d).

Hala ere, behin Espainiara iritsita, hau xedatzen du legediak: 1) Espainian dauden atzerritarrek osasun-laguntzarako eskubidea dute, espainiarren baldintza berberetan, ohikotasunez bizi diren udalerriko erroldan inskribatuta badaude". 2) Irizpide bera erabiltzen da 18 urtetik beherako pertsonen kasuan, baina gogoratu behar da Adingabeen babes juridikorako legeak, 1996ko urtarrilaren 15ekoak, aitortzen ziela lehendik ere eskubide hori. 3) Araubide berezi bat dago haurdun dauden emakumeentzat, osasun-laguntza jasotzeko eskubidea baitute haurdunaldian, erditze-garaian eta erditu ondorenean (4/2000 Lege Organikoko 12. artikuluko 1., 2. eta 3. zenbakiak) eta 4) Espainian dauden atzerritarrek eskubidea dute presako osasun-laguntza publikorako.

Gogoratu behar da, halaber, autonomia-erkidegoek legegintza-eskuduntza dutela osasun-gaian, eta Estatuari dagoela, gai horretan, oinarriak arautzea eta koordinazio orokorra egitea (Espainiako Konstituzioa, 148.1.21^o art.)⁶⁸. Konstituzioak eta autonomia-estatutuek xedatutakoaren baitan, autonomia-erkidegoek, arian-arian, bere egin dituzte osasun-gaiari dagozkion eskuduntzak.

Autonomia-erkidego gehienek, arau orokor moduan, 4/2000⁶⁹ Lege Organikoko irizpideari jarraitzen diote, immigranteei emango zaien osasun-laguntza arautzeko.

Hala ere, autonomia-erkidego batzuek ez dute aintzat hartu errolda-inskripzioaren elementua immigranteei osasun-laguntza emateko elementu moduan, eta laguntza horren beharrean dauden atzerritar guztiei ematen zaie osasun-laguntza. Hala egiten dute Valentziako, Andaluziako, Nafarroako eta Murtziako autonomia-erkidegoek.

Andaluzian, 1999an, hitzarmen bat izenpetu zuten Andaluziako gobernuak eta GKEek eta sindikatuek, immigrante guztiei bermatzeko osasun-sistema erabiltzeko aukera. Horrenbestez, agiririk gabeko immigranteek zuzenean joan

daitezke osasun-zentroetara edo hitzarmenean parte hartzen duten organizazioen igorpen-txartela erabil dezakete horretarako.

Valentziako Erkidegoan, Valentziako gobernuak otsailaren 22an emandako *26/2000 Dekretuak, Valentziako Erkidegoan atzerriko herritarrek izango duten osasun-laguntzarako eskubidea ezarri eta Txartel Solidarioa sortzen duenak*, arautzen du erkidego horretako osasun-sailak handitu egingo duela, Dekretuak adierazitako baldintzetan, erroldatuta ez dauden immigranteen osasun-estaldura, eta hori horrela izango dela immigrante horiek beren egoera administratiboa normalizatzen duten bitartean (2.2 art.)⁷⁰.

Ildo horretatik, hau xedatzen du, bere lehendabiziko artikuluan, *maiatzaren 25eko 2/2000 Foru Legeak (azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea, osasunari buruzkoa, aldatzen duena, Nafarroako osasun-sistemako osasun-laguntzaren estaldura foru-komunitateko immigrante guztiei zabaltzeko)*: “Osasun-laguntza publikoa, foru-komunitateko lurraldean, Nafarroako udalerrri guztietan bizi diren herritar guztiengana iritsiko da, pertsona horien lege- edo administrazio-egoera alde batera utzita”⁷¹.

Azkenik, Murtziako erregioan, *maiatzaren 11ko 3/2009 Legea eman da, Murtziako Erregioko Osasun Sistemaren Erabiltzaileen Eskubide eta Betebeharrei buruzkoa*, eta, bertan, arreta berezia ematen zaio atzeritarrek jaso behar duten osasun laguntzari. Lege horrek adierazten du arreta pertsonala eta haien egoerara egokitua eman behar zaiela immigranteei, eta, oro har, gizarte-bazterketan erortzeko arriskua duten giza taldeei, Legeak xedatutako eskubideak errespetatu eta bete daitezten. Arau horrek xedatzen du, berariaz, Legeak aitortutako eskubide eta betebeharrak izango dituztela osasun-sistemako prestazioak eta zerbitzuak erabiltzen dituzten herritar atzeritarrek, eta, horren arian, hizkuntza-trabak ahalik eta gehien murrizteko jarduerak sustatzen saiatu behar dute Administrazio Publikoek. Osasuna babesteko eta osasun-laguntzarako eskubidearen titular dira herritar atzeritarrak, maiatzaren 28ko 16/2003 Legeak, Osasun Sistema Nazionalaren kohesioari eta kalitateari buruzkoak, 3. artikuluan adierazitako baldintzetan; hala ere, erroldaturik ez dauden eta baliabide ekonomikorik ez duten atzeritarrek, Estatuko legediaren pean osasun-laguntzarako eskubidea aitortua ez izan arren, aukera izango dute, Murtziako erregioan, erregioko osasun-sistema publikoak eskaintzen dituen prestazio eta zerbitzuak jasotzeko; betiere, beren egoera legeztatzen duten bitartean, arau bidez zehaztutako prozedurari jarraiki (15. eta 20. artikulua).

5. Berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa lan-alorreko eta gizarte-segurantzako araubidean.

Lan-alorreko araubidean, Langileen Estatutuko 4. eta 17. artikuluek xedatzen dute *berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa*. Estatutu horren 4.2.c. artikulua adierazten du langileen eskubidea dela Espainiako Estatu barruan, enplegurako bereizkeriarik ez jasateko eskubidea; eta, enplegatu ondoren, sexuagatik, egoera zibilagatik eta, lege honek zehaztutako mugen barruan, adinagatik bereizkeriarik ez jasateko eskubidea; berdin, gainera, arrazagatik, egoera sozialagatik, erlijioko edo politikako ideengatik, sindikaturen batera afiliatuta egon edo ez egoteagatik, eta hizkuntzagatik bereizkeriarik ez jasateko eskubidea. Ezin izango da bereizkeriarik egin ezintasunagatik, dena delako lana edo enplegua betetzeko gaitasuna baldin badaukate langileek. Halaber, deuseztatu eta eraginik gabe geldituko dira bai erregelamendu bidezko aginduak bai hitzarmen kolektiboetako baldintzak, bai banakako itunak, zein enpresaburuaren bere kabuzko erabakiak, baldin eta, adina arrazoi dela, enplegurako kontrako bereizkeriarik egiten badute, edo kontrako nahiz aldeko bereizkeriarik egiten badute enpleguan eta ordainketetan, jardunaldian eta laneko gainerako baldintzetan, beti ere sexua, jatorria, egoera zibila, arraza, egoera soziala, iritzi politiko edo erlijioak, sindikatueta eta sindikatuen akordioetara atxikita egon edo ez egotea aitzakia hartuta, edo enpresako beste langile batzuen ahaidetasuna eta hizkuntza oinarri direla, Estatu barruan. Era berean, deusezak izango dira enpresaburuak hartutako erabakiak, baldin eta erabaki horiek langileentzat kaltegarriak baldin badira eta tratu-berdintasunaren eta bereizkeriarik ezaren printzipioa betetzeko enpresan egindako erreklamazio baten aurka edo aurrera eramandako ekintza judicial baten aurka hartutakoak (17. art.)⁷².

Espainiako antolamendu juridikoak, 4/2000 Lege Organikoko 10. artikulua bidez, lanerako eta gizarte-segurantzarako eskubidea aitortzen die atzerritarrei, eta xedatzen du Lege horrek eta hura garatzeko xedapenek zehaztutako baldintzak betetzen dituzten atzerritarrek eskubidea izango dutela ordaindutako jarduerak egiteko, bai beren kabuz, bai besteren kontura, eta eskubidea izango dutela gizarte-segurantzako sisteman sartzeko, indarreko legediak adierazitako moduan. Horrez gain, hauxe dio 4/2000 Lege Organikoko 14.1 artikulua: “Espainian bizi diren atzerritarrek eskubidea izango dute, Gizarte Segurantzako prestazioak eta zerbitzuak eskuratzeko, espainiarren baldintza berberetan⁷³”.

Langileen Estatutuak xedatzen du, 7.c artikuluan⁷⁴, atzerritarrek kontratuak egin ditzaketela, gai horren inguruko berariazko legeetan xedatutakoarekin bat etorritik.

Legedi horren osagarri, *Gizarte Segurantzako Lege Orokorraren* testu bateginak, *ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak* onartuak, xedatzen du gizarte-segurantzako sisteman sartzen direla, kontribuzio-modalitateko prestazioen ondorioetarako, *Espainian bizi diren espainiarrak eta Espainian legezko eran bizi edo dauden atzerritarrak*, haien sexua, egoera zibila eta lanbidea edozein dela ere. Bi kasu horietan, lurralde nazionalean egin behar dute beren jarduera, eta legeak adierazitako suposamenduetakoren batean egon (7. art.). **6. Berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa beste esparru batzuetan.**

Berdintasunaren printzipioa, Espainiako antolamendu juridikoan, antolamendu horren balio nagusietako bat da, eta hala adierazten du Espainiako Konstituzioko 1. artikulua. Printzipio hori, halaber, harreman juridikoak arautzean adierazten da, Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat araubide-esparrutan.

Nabarmenezkoa da, hezkuntzaren esparruan, maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak, hezkuntzari buruzkoak, 1. artikuluan egiten duen araupena, adierazten baitu Espainiako hezkuntza-sistema Konstituzioaren balioei jarraiki antolatuta eta Konstituzioan aitortutako eskubideekiko eta askatasunekiko errespetuan oinarrituta dagoela, eta honako printzipio hauek dituela jarraibide: hezkuntzaren kalitatea ikasle guztientzat, ikasleen egoera eta zirkunstantziak edozein izanda ere; ekitatea, aukera-berdintasuna, hezkuntzan txertatzeko aukera eta diskriminaziorik ez bermatuko ditu, eta desberdintasun pertsonalak, kulturalak, ekonomikoak eta sozialak (ezgaitasunen ondoriozkoak bereziki) konpentsatzeko tresna izango da; askatasun pertsonala, ardura, herritartasun demokratikoa, elkartasuna, tolerantzia, berdintasuna, errespetua eta justizia bultzatuko dituzten eta diskriminazio-mota oro gainditzeko lagunduko duten balioen transmisioa eta praktikan jartzea; eskubide-berdintasunaren eta aukera-berdintasunaren garapena, eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasun eraginkorraren sustapena.

Printzipio horiek oinarrian, hezkuntza-sistemaren helburuak dira, besteak beste: funtsezko eskubide eta askatasunekiko errespetuan hezteak; gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna eta tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza ezintasunak dituzten pertsonakiko; tolerantzia eta askatasuna baliatzea, bizikidetzako printzipio demokratikoen baitan; gatazkak prebenitzea eta haiek modu baketsuan konpontzea; norberaren ardura, meritua eta ahalegina; bakerako, giza eskubideekiko errespeturako, elkarbizitzarako, gizarte-kohesiorako, lankidetzarako eta herrien arteko elkartasunerako prestatzea, eta izaki biziekiko eta ingurumenarekiko eta, bereziki, basoekiko eta garapen iraunkorrekiko errespetua bultzatuko duten balioak eskuratzea (ikus,

besteak beste, 1., 17., 19., 23., 33., 40., 75., 80., 82., 84.3., 86. eta 88. artikulua).

Printzipio hori jasotzen du, halaber, *martxoaren 13ko 2/86 Lege Organikoak, Estatuko indar eta gorputzei buruzkoak*, eta bere oinarrizko jardueraprintzipioen artean finkatzen du Konstituzioari eta antolamendu juridikoari erabateko errespetua izan behar diola, neutraltasun politikoz eta inpartzialtasunez. Ondorioz, ez du inolako diskriminaziorik egin behar pertsonen arraza, erlijioa edo iritziari erreparatuta. Halaber, zuzentasunez eta duintasunez jokatu behar du, eta eragotzi egin behar ditu abusuzko jarduerak, jarduera bidegabeak eta diskriminatzaileak, indarkeria fisiko edo moralaz baliatzen direnak (5.1. a, b eta c, eta 5.2.a artikulua).

V. TRATU-BERDINTASUNARI ETA DISKRIMINAZIORIK EZARI BURUZKO LEGEDI AUTONOMIKOA.

Autonomia-erkidegoetan, alde handiak daude tratu berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa arautzen duten legeen artean.

Zenbait autonomia-erkidegok arautu dute zer aplikazio izango duen printzipio horrek giza talde jakin batzuekiko. Horiek horrela, legeak eman dira, berariaz, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko⁷⁵ edo drogaren mende dauden pertsonen, adingabekoen edo ezintasunak dituzten pertsonen gizarteratzea bultzatzeko. Hala ere, autonomia-erkidego gehienetan, ez da oraindik gaiari buruzko garapen-araudirik eman.

Horrez gainera, zenbait autonomia-erkidegok immigranteak haietan izango duten integrazioari buruzko legeak eman dituzte⁷⁶.

Dena den, autonomia-erkidegoetan, arau-maila txikiagoko xedapen ugari dago nazioarteko lankidetzari buruz, immigrazio-foroen sustapenari buruz eta immigranteen integrazioarekin zerikusia duten beste alderdi zehatz batzuei buruz.

VI. TRATU-BERDINTASUNA ETA DISKRIMINAZIOAREN AURKAKO XEDAPENAK TOKI-ARAUBIDEKO LEGEDIAN.

Toki-araubideko oinarrizko legeak⁷⁷, la ***apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak***, ez du berariaz aipatzen tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa⁷⁸, ezta etnia gutxiengoak edo haien gizarte-integrazioa ere. Haien aipamena egiten du, ordea, udal-errolak arautzean.

Halaxe definitzen du, legearen 16.1. artikulua, udal-errola: “Udalerriko errola udalerriko auzotarrak jasota agertzen dituen administrazio-erregistroa da. Errolako zehaztasunak udalerrian bizilekua izan eta bertan ohiko egoitza izatearen froga dira. Zehaztasun horien gainean emandako ziurtagiriak agiri publiko eta fede-emaileak izango dira administrazio-ondorio guztietarako.”.

Bigarren paragrafoan, adierazten du: “Udalerriko erroldan inskribatzeak lege honetako⁷⁹ 15. artikuluan xedatutakoaren arabera baino ez du izango eraginik, eta inskripzioa eragin duen gertaerak dirauen artekoa izango da; nolahi ere, aldiro berritu beharko da, bi urtetik behin, *bizileku iraunkorra izateko baimenik ez duten Europako Erkidegokoak ez diren atzerritarren kasuan*”. Jarraian, ohartarazten du: “Aurreko lerroaldean aipatutako epea igarotzea, baldin eta interesatuak inskripzioa berritu ez badu, aldiro berritu behar diren inskripzioen iraungipena erabakitzeko arrazoi izango da. Kasu horretan, interesatuari alde zuzenetik entzun beharrik izan gabe aldarrikatuko da inskripzioaren iraungipena”.

Legeko 16.2. artikulua arautzen du hauek direla udalerriko errolako inskripzioak jaso behar dituen datuak: izena eta abizenak; sexua; ohiko egoitza; naziotasuna; jaiotekua eta jaioteguna; bakoitzak daukan eskolako ziurtagiria edo titulua, edo titulu akademikoa; eta hautesle-errola egiteko beharrezkoak diren beste zehaztasun guztiak, Konstituzioan onartutako oinarrizko eskubideen errespetua bermatuta betiere; eta nortasun-agiri nazionalaren zenbakia.

Azken agiri horri dagokionez, legeak hau eskatzen du, atzerritarren kasuan:

a) Espainiako agintariek emandakoa izan eta indarrean dagoen bizileku-txartelaren zenbakia, edo halakorik izan ezean, jatorrizko herrialdeko agintariek eman eta indarrean dagoen nortasuna egiaztatzekoa agiriaren edo pasaportearen zenbakia, bai Europar Batasuneko kide diren estatuetao herritarren kasuan, zein Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioan parte diren beste estatuetao herritarren kasuan, nahiz nazioarteko itunen baten indarrez aipatutako estatuetao herritarrentzat aurreikusitako araubide juridikoa zabaltzen zaien estatuetao herritarren kasuan.

b) Espainiako agintariek emandakoa izan eta indarrean dagoen agirian datorren atzerritar identifikazioaren zenbakia, edo halako agirien titular ez direlako halakorik eduki ezean, jatorrizko herrialdeko agintariek eman eta indarrean dagoen pasaportearen zenbakia, paragrafo honetako aurreko puntuan jaso ez diren estatuetao herritarren kasuan.

Auzotarren eskubideak eta betebeharrak arautzen ditu 18. artikulua⁸⁰, eta adierazten du atzerritarrak udal-eroldan inskribatuta egotea ez dela Espainian legezko bizilekua izatearen froga, eta ez diela haiei emango indarrean dagoen legediak ematen ez dien inolako eskubiderik, bereziki Espainian dauden atzerritarren eskubideen eta askatasunen arloan.

Araubide hori aintzat hartuta, nabarmentzekoa da udal-eroldan inskribatuta egoteak ez duela atzerritarrak izan dezakeen egoera administratiborik baldintzatzen. Inskribapenak ez dakar, ordea, egoera horien erregularizaziorik. Hala ere, pertsona batek Espainian bizitzen daraman denboraren froga izan daiteke inskripzio hori.

Toki-araubidearen oinarriak arautzen dien legek 25. artikulua udalerriei ematen dizkien eskuduntzak aztertu behar dira, behar bezala ulertzeko zer-nolako garrantzia duten udalerrien immigrazioaren gain. Gida honetako 3. kapituluari adierazi dira, esaterako, garrantzi horren adierazle izan daitezkeen zenbait jardura.

ARRAZA- EDO ETNIA-JATORRIAGATIKO DISKRIMINAZIORIK EZAREN PRINTZIOARI BURUZKO ARAUAK

LEGEDIAREN LABURPENA

I. ESPAINIAKO LEGEDIA.

Diskriminaziorik ezaren gaian, eta diskriminazioak izan ditzakeen arrazoen artean (gure kasuan, arraza, etnia edo kultura-dibertsitatea), bada hura arautzen duen funtsezko arau bat, Espainiako Konstituzioa, oinarrizko bi arau (Atzerriartasun Legea eta haren Erregelamendua) eta zenbait aipamen legedi arruntan. Autonomia-erkidegoetako arauak ere jasotzen dute berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa.

1. Espainiako Konstituzioa: 14. artikulua, 10., 13., 15. eta ondorengo artikuluekin bat etorritik.
2. Autonomia-estatutuak: Valentzia (10-13 art.); Katalunia (4, 15, 40-45 art.); Balear Uharteak (12-17 art.); Andaluzia (1, 5-14, 37, 62 art.); Aragoi (12, 20-29 art.); eta Gaztela eta Leon (8-16, 76 art.).
3. 4/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 11koa, atzeritarrek Espainian dituzten eskubide eta betebeharrak buruzkoa eta haien gizarte-integrazioari buruzkoa (gerora, hura aldatu dute abenduaren 22ko 8/2000 Lege Organikoa, irailaren 29ko 11/2003 Lege Organikoa, eta azaroaren 20ko 14/2003 Lege Organikoa).
4. Abenduaren 30eko 2393/2004 Errege Dekretua, aurrez adierazitako legearen erregelamendua onartzekoa.
5. Kode Zibila: 27. artikulua.
6. 14/1986 Legea, apirilaren 25koa, Osasunari buruzko Orokorra: 1., 2. eta 3. artikulua.
7. Langileen Estatutua: 4, 17, c) eta 69, 1. artikulua.
8. 1/1994 Legegintzako Errege Dekretua, ekainaren 20koa, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina onartzen duena 7. artikulua.

9. Zigor-kodea: 22, 86, 108, 174, 189, 190, 221 artikulua, XV. titulua (311-314), 510-512, 515, 586, 594, 597, 607 artikulua, eta, bereziki, XV bis titulua (Herritar atzerritarren eskubideen aurkako delituak).
- 10.5/1984 Legea, martxoaren 26koa, asilo-eskubidea eta errefuxiatu-izaera arautzekoa (aldaketak egin dizkio maiatzaren 19ko 9/1994 Legeak), eta lege hori garatzeko araudia.
- 11.865/2001 Errege Dekretua, uztailaren 20koa, aberri-gabeen estatutua aitortzeko erregelamenduari buruzkoa.
- 12.188/2001 Dekretua, ekainaren 26koa, Kataluniako Generalitateak emandakoa, eta 4/2000 Lege Organikoa, 2000-01-11koa, atzerritarrek Espainian dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzkoa eta haien gizarte-integrazioari buruzkoa, aplikatzen duena.
- 13.26/2000 Dekretua, otsailaren 22koa, Valentziako Gobernuarena, atzerritarrek Valentziako Erkidegoan izango duten osasun-laguntzarako eskubidea ezarri eta Txartel Solidarioa sortzekoa.
14. Maiatzaren 25eko 2/2000 Foru Legea (azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea, osasunari buruzkoa, aldatzen duena, Nafarroako osasun-sistemako osasun-laguntzaren estaldura foru-komunitateko immigrante guztiei zabaltzeko).
15. 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, hezkuntzari buruzkoa: 1, 17, 19, 23, 33, 40, 75, 80, 82, 84.3, 86 eta 88 artikulua, besteak beste.
16. 2/1986 Lege Organikoa, martxoaren 13koa, Estatuko segurtasuneko indar eta gorputzei buruzkoa: 5. a), b) eta c); 5.2.a) artikulua.

II. NAZIOARTEKO LEGEDIA.

Nazioarteko erakunde ugari izaera orokor eta zehatzeko xedapen asko eman dituzte diskriminaziorik ezaren eta tratu-berdintasunaren printzipioa arautzeko, eta ildo beretik jo dute pertsona immigranteen egoera aratu eta arrazagatiko edo etniagatiko diskriminazioaren aurka borrokatzeko. Xedapen horietako batzuk nabarmenduko ditugu jarraian.

1. NAZIO BATUETAKO ARAUDIA.

1.1. Izaera orokorreko arauak:

a) ***Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala (1948)***. Konstituzioko 10.2. artikulua arau horretara igortzen du, arauen interpretazioa egiteko,

b) ***Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Hitzarmena (1951), eta bere Protokoloa (1967koa)***,

c) ***Aberrigabeen Estatutuari buruzko Hitzarmena (1954)***.

1.2. Izaera zehatzeko arauak:

a) ***Nazioek Batuek arraza-diskriminazioko modu guztiak ezabatzeari buruz egindako deklarazioa (1963)***.

a) ***Arraza-diskriminazioko modu guztiak ezabatzeari buruz egindako nazioarteko hitzarmena (1965)***.

Hitzarmen hau da, giza eskubideei buruz diharduten hitzarmenen artean, berrespen gehien jaso dituen Nazio Batuetako hitzarmena. Konbentzioak bere sinatzaile diren estatuei behartzen die arrazan, kolorean, leinuan edo nazio- nahiz etnia-jatorrian oinarritutako diskriminazio oro debekatzera, eta diskriminazio horren adierazle diren jardueri lege-zehapenak ezartzera. Hala ere, hitzarmenak ez du nazionalitatean oinarritutako diskriminaziorik debekatzeko.

c) ***Masa-komunikabideek bakea indartzeko, nazioek elkar ulertzeko, giza eskubideak sustatzeko eta arrazismoaren, apartheidaren eta gerrarako deien aurka borrokatzeko egin dezaketen ekarpenaren oinarritzko printzipioei buruzko deklarazioa (1978)***.

d) ***Arrazari eta arraza-aurreiritziei buruzko deklarazioa (1978)***.

e) ***Migrazio-langileen eta haien senideen eskubide guztiak babesteari buruzko nazioarteko hitzarmena, 1990ko abenduaren 18koa***.

Lanaren Nazioarteko Erakundearen hitzarmenetan oinarritzen da konbentzio hau, eta bere ezaugarri nabarmena da enplegatzailea den herrialdean legezkoa ez den eran sartu edo bizi diren langile migratzaileei (eta haien familiako kideei) zabaltzen diela hitzarmena izenpetu aurretik soilik legezko eran eta enplegu-arrazoiengatik migratzen zuten pertsonen aitortzen zitzaizkien eskubideak. Pertsona migratzaileen oinarritzko eskubideak babesten ditu eta ez du migratzaile-kategoriarik baztertzen.

f) ***Gutxiengo nazional, etniko, erlijioso edo linguistikoetako pertsonen eskubideei buruzko deklarazioa (1992)***.

g) UNESCOren deklarazioa tolerantziari lotutako printzipioei buruz, 1995eko azaroaren 16koa.

h) Hego Afrikako Durban hirian, 2001eko irailaren 8an, adostutako deklarazioa, arrazismoaren, arraza-diskriminazioaren, xenofobiaren eta intolerantziarekin lotutako jarduera-moduen aurkako mundu-konferentzian.

k) Nazio Batuetako beste tresna arautzaile batzuk..

Tresna arautzaile horien artean, nabarmentzekoak dira:

- *Emakumeen aurkako bereizkeria oro ezabatzeari buruzko hitzarmena (1979).*

- *Hezkuntzan diskriminazioaren aurka egiteko Hitzarmena (1960) eta Adiskidetzeko eta Jardunbide Oneko Batzorde bat eratzeko Protokoloa, Hezkuntzan diskriminazioaren aurka egiteko Hitzarmenak sor ditzakeen gatazkak konpontzeko (1962)*

- *Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturei buruzko nazioarteko ituna (1966).*

- *Eskubide zibil eta politikoei buruzko nazioarteko ituna (1966).*

- *Erlijioa edo sinesmenak oinarri dituzten intolerantziako eta diskriminazioko modu guztiak ezabatzeari buruzko deklarazioa, Batzar Nagusiak 1981ean onartua.*

- *Torturaren eta bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo degradatzaileen aurkako konbentzioa (1984).*

- *Umeen Eskubideei buruzko Konbentzioa (1989).*

- *Nazio Batuen nazioz gaindiko hitzarmena, antolatutako delinkuentziaren aurkakoa, eta Palermoko Hitzarmena (2001) esaten zaiona. Bereziki nabarmentzekoa da bere protokolo gehigarria, pertsonen eta, batik bat, emakume eta haurren, salerosketa prebenitu, erreprimitu eta zigortzekoa.*

Langile migratzaile guztien eta haien familien eskubideak babesteari nazioarteko hitzarmena izan ezik, Espainiak berretsiak ditu gainerako hitzarmenak eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuak. Beraz, Espainiako Konstituzioak xedatzen duenez, Espainiako antolamendu juridikoaren zati dira.

2. EUOPAR BATASUNEN ARAUAK

Europar berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioari lotuta eman diren arauen eta egin diren jardueren artean, nabarmentzekoak dira, migrazioa, arraza, etnia eta kultura-dibertsitatea gaitzat hartzen dutenen artean:

2.1. TRATATUAK

Hau xedatzen du **Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuak**, 6. artikuluan: “1. Batasunaren oinarri dira askatasuna, demokrazia, giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen errespetua eta zuzenbidezko estatua, eta estatu kide guztietan dira indarrean printzipio horiek. - 2. Batasunak oinarrizko eskubideak errespetatuko ditu, 1950eko azaroaren 4an, Erroman izenpetu zen Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak babesteko Europako Hitzarmenak bermatzen duen moduan, eta estatu kideetako konstituzio-tradizio komunak xedatzen duen moduan, Erkidegoko zuzenbidearen printzipio orokorrak diren aldetik”.

Diskriminaziorik ezaren printzipioa jasotzen du agiri horrek. Izan ere, pertsonak nazionalitate-arrazoiengatik diskriminatzea debekatzen du Tratatuak 12. artikulua. Hau xedatzen du, halaber, 13. artikulua (**Amsterdamgo Tratatuak** aldatu zuen artikulua hori; izan ere, tratatu horrek, besteak beste, gainerako tratatuetan diskriminaziorik ezaren bermeak osatu zituen, Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuak): 1. Tratatu honetako gainerako xedapenei kalterik egin gabe, eta Tratatuak Batasunari emandako eskumenen mugen barruan, Kontseiluak, aho batez, Batzordeak hala proposatuta eta Europako Parlamentuari aurrez kontsulta egin ondoren, sexua, arraza edo jatorria, erlijioa edo sinesteak, ezgaitasuna, adina edo joera sexuala arrazoi dituen bereizkeriaren kontra borrokatzeko gokiak diren ekintzak onar ditzake”.

Immigrazioaren gaian, Europako erakundeek jardun-eremua zehazten duen oinarri juridikoa **Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuaren IV tituluak** zedarritzen du: “**Bisatuak, Asiloa Immigrazioa eta pertsonen zirkulazio askearekin lotutako beste politika batzuk**” da. Titulu horretan, zenbait neurri zerrendatzen dira, bisatuekin, immigrazio-politikarekin eta asilo-araubidearekin lotuta. Europako erakundeek neurri horiek hartu behar dituzte, *askatasun, segurtasun eta justiziazko espazio komun bat* eratzen joateko.

2.2 KONTSEILUA.

A. Erabakiak.

a) Kontseiluak 2000ko azaroaren 27an hartutako erabakia, Erkidegoko ekintza-programa bat ezartzen duena, 2001-2006 eperako, diskriminazioaren aurka borrokatzeko.

b) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 771/2006/CE Erabakia, 2006ko maiatzaren 17koa, Guztion aukera-berdintasunerako urte europarra ezartzekoa (2007) - Bidezko gizarte baten alde [Egunkari Ofiziala L 146, 2006-05-31koa].

Erabakiaren 2.c) artikulua adierazten du urte horren helburuetako bat dela: “c) Aintzatespena: Aniztasuna eta berdintasuna erraztu eta gorestea. Pertsonak gizarteari oro har egin diezaioketen ekarpen positiboa nabarmenduko du Europako Urteak, haien sexua, arraza edo jatorri etnikoa, erlijioa edo sinesmenak, urritasuna, adina edo sexu-joera edozein direlarik ere.

c) 2008/913/JAI esparru-erabakia, Kontseiluak 2008ko azaroaren 28an hartutakoa, zigor-zuzenbidearen bidez borrokatzeko, arrazismoaren eta xenofobiaren adierazpen-modu jakin batzuen aurka.

B. Zuzentarauak.

Europar Batasuneko Kontseiluak ematen dituen zuzentarauek gai ugari jorratzen dituzte; esaterako, mugimendu- eta bizileku-askatasuna; beste estatu bateko lurraldean egoteko eskubidea, enplegua amaitu ondoren; langile migratzaileen seme-alaben heziketa; langile migratzaileen osasunari eta segurtasunari buruzko alderdiak; eta haiek botoa emateko eta beste estatu kide batzuetako hauteskundeetara aurkezteko duten eskubidea.

a) 2000/43/EE zuzentaraia, pertsonen tratu-berdintasunari buruzkoa, haien arraza- edo etnia-jatorria edozein dela ere.

b) 2000/78/EE zuzentaraia, enpleguaren alorrean tratu-berdintasunerako esparru orokor bat ezartzekoa.

Zuzentzarau horiek emateaz gain, diskriminazioaren aurka egiteko programak eta neurriak finantzatzeko xedez, *2000/750/EE Erabakia* hartu zuen Europar Batasuneko Kontseiluak, hau da, ***Diskriminazioaren aurkako Erkidegoko ekintza-programa (2001-2006)***; bai eta beste ekimen batzuk ere; hala nola, Erkidegoko ***EQUAL*** ekimena, lan-merkatuko diskriminazioaren aurkakoa, ***gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko Erkidegoko esparru-estrategia***, emakumeen egoerari erreparatzen diona, eta ***Errefuxiatuen alorrerako funts europarra***, finantza-laguntza ematen duena errefuxiatuak hartu, gizarteratu eta borondatez beren herrialdeetara bueltatzeko.

c) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002/73/EE zuzentzaraua, 2002ko irailaren 23koa, Kontseiluaren 76/207/EEE zuzentzaraua, ***emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioaren aplikazioari buruzkoa***, aldatzen duena, laneratzearen, prestakuntzaren eta lanbide-sustapenaren alorretan eta lan-baldintzen araupenean⁸¹.

d) 2003/86/EE zuzentzaraua, familia berrelkartzeko eskubideari buruzkoa.

Ezkontidea edo ezkontzaren baliokidea den harreman frogatu baten bidez lotuta dagoen pertsona eta adingabeko seme-alabak berrelkartzeko eskubidea ezartzen du zuzentzarauak, eta hori egiteko baldintza bakarrak etxebizitza egoki bat izatea, gaixotasun-aseguru bat izatea eta familia sostengatzeko nahikoa diru-sarrerak izatea dira. Eskubide hori erabili baino lehen, herrialdean aurretiazko egonaldi-epe bat eman izana eska daiteke, baina epe hori ezingo da bi urtekoa baino luzeagoa izan. Berrelkartuak izan diren familiako kideek hezkuntzarako, besteren edo norberaren konturako enplegu bat izateko eta lanbide-heziketa jasotzeko eskubidea dute, berrelkartzea egiten duen pertsonaren baldintza berdinetan. Espainiak zuzentzarau honi buruzko komunikazio bat helarazi dio Europako Batzordeari, adierazteko ez duela xedapen horren transposizio formalik egin behar, Espainiako legediak familien berrelkartzeari arautzen dituen xedapenak zuzentzarauak eskatutako gutxienekoetatik gora baitaude.

e) 2003/109/EE zuzentzaraua, herrialdean bizitzen denbora luzea daramaten hirugarren herrialdeetako herritarren estatutuari buruzkoa.

Estatu kide batean bost urtez eta legezko eran bizi izan denean eskuratzen diren eskubideak arautzen ditu zuzentzarau honek. Eskubide horien artean, nabarmentzekoak dira estatu horretako hiritarrekiko aplikatu behar zaien tratu-

berdintasuna hezkuntzan, lanerako sarbidean, gizarte-segurantzaz eta lanbide-diplomen aintzatespena. Haien beste eskubide bat izango da bizilekua beste estatu kide batera eramatekoa, baldintza jakin batzuek betetzen badituzte. Herrialdean egonaldi luzean bizi diren pertsonen estatutuak babes berezia dakarkie pertsona horiei herrialdetik kanporatzeko egoerekiko; izan ere, pertsona horiek kanporatzeko aukera bakarra izango da ordena publikoarentzat edo segurtasun publikoarentzat mehatxu erreala eta larria izatea.

f) 2004/113/EE zuzentaraua, 2004ko abenduaren 13koa, gizonen eta emakumeen arteko berdintasun printzipioa ondasunen eta eskubideen eskurapenera eta horien hornidurara aplikatzekoa.

g) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/115/EE zuzentaraua, 2008 abenduaren 16koa, estatu kideek izan behar dituzten prozedura eta arau komunei buruzkoa, hirugarren herrialdetako herritarrak haien herrialdeetara itzularazteko.

C. Erregelamenduak.

Kontseiluaren 859/2003 Erregelamendua, 2003ko maiatzaren 14koa, tratu-berdintasuna arautzekoa Gizarte Segurantzaz.

Europar Batasuneko herrialderen batekoak ez ziren herritarrek estatu batetik bestera igarotzean naziotasunari lotuta pairatzen zuten diskriminazioa ezabatu nahi du arau honek; izan ere, lehen herrialdeko gizarte-segurantzaz pilatzen zituzten prestazio-eskubideak galtzen zituzten beste herrialde batera igarotzean.

D. Asiloari buruzko araubidea.

Europar Batasuneko Kontseiluak gaiari buruzko lau zuzentzari eman ditu, eta asilo-politika babesteko finantza-tresna bat sortu da: Errefuxiatuen alorrerako Funtz Europarra. Lau zuzentzariek jorrotutako gaiak dira pertsona desplazatuei emango zaien aldi baterako babesa (uztailaren 20ko 2001/55/EE), asilo-eskatzailari emango zaien gutxienerako harrera-baldintzak (urtarrilaren 27ko 2003/9/EE), errefuxiatuen estatutua eta babes subsidiarioa (apirilaren 29ko 2004/83/EE) eta asilo-prozedurak (abenduaren 1eko 2005/85/EE). Uztailaren

20ko 865/2001 eta abenduaren 30eko 2393/2004 dekretuen bidez egin da lehen bi zuzentarauen transposizioa Espainiako zuzenbidera.

2.3. EUROPAKO ERKIDEGOETAKO BATZORDEA.

a) *Erkidegoko gutuna, langileen oinarrizko gizarte-eskubideei buruzkoa (1989).*

b) Europako Erkidegoetako Batzordeak eskualde-mailako arau-multzo trinkoa eman du, migrazioaren alderdi ekonomikoak eta eskualdeko integrazioa arautzeko, nagusiki. Hala ere, gero eta arreta handiagoa ematen ari zaio gizarte-arloko gaiei. Erregelamenduen artean, hauek dira garrantzitsuenak:

a') *1612/68/EEE zenbakiko Erregelamendua,* lantzen dituen, batik bat, enplegurako sarbidea, lan-baldintza, abantaila sozialak eta fiskalak, sindikatu-eskubideak, lanbide-heziketa eta hezkuntza, eta familiak berrelkartzeko printzipio gidariak; eta

b') *1408/71/EEE zenbakiko Erregelamendua,* soldatapeko langileei, soldatapekoak ez diren langileei eta haien familietako kideei Erkidegoan herrialdez aldatzen direnean gizarte-segurantzako erregimenak aplikatzeari buruzkoa, eta gerora aldatua Kontseiluak 1998ko ekainaren 29an emandako 1606/98/EE Erregelamenduaren bidez.

c) *Batzordearen Liburu Berdea, 2004ko maiatzaren 28koa, «Berdintasuna eta diskriminaziorik eza Europar Batasun handituan»*

2.4. EUROPAKO PARLAMENTUA.

Europako Parlamentuak emandako xedapenen artean, nabarmentzekoak dira:

a) *1995eko urriaren 26ko ebazpena, arrazismoari, xenofobiari eta antisemitismoari buruzkoa.*

b) *Arrazismoari, xenofobiari eta antisemitismoari buruzko ebazpena eta Arrazismoaren aurkako urte europarrari buruzkoa (1997)*

c) *2005eko ekainaren 8ko ebazpena, Europar Batasun handituan gutxiengoak babesteari eta diskriminazioaren aurka egiteko politikei buruzkoa.*

3. EUROPAKO KONTSEILUA

3.1 Izaera orokorreko arauak:

a) Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak babesteko Europako Hitzarmena (1950) eta

b) Europako Gutun Soziala (1961koa eta 1996an berrikusia) eta bere protokolo gehigarria (1988koa).

Bi xedapen horiek eskubide hauek aitortzen dizkiete beren nazionalitatekoa ez den herrialde batean bizi eta lan egiten duten pertsoneri: bizitza pribatuaren eta familia-bizitzaren errespeturako eskubidea; beste estatu kide baten lurraldean ordaindutako jarduerak egiteko eskubidea; langile migratzaileen informaziorako eskubidea; migrazioak errazteko neurriak; tratu-berdintasunerako eskubidea lan-alorrean, herrialdeko nazionalitatea eta herrialdeko nazionalitatea ez duten pertsonen artean; familia biltzeko eskubidea; kanporatzeen aurkako bermeak, etab. Xedapen horiek, ordea, soilik Europako Kontseiluko kide diren estatuetakoa herritar migratzaileei aplikatzen zaie, eta elkarrekikotasuna da haiek aplikatu ahal izateko baldintza.

3.2. Izaera zehatzeko arauak:

a) Langile migratzaileen estatutu juridikoari buruzko Europako hitzarmena (1977).

Alderdi kontratatzaile bateko nazionalitatea duten herritarrei aplikatzen zaie, baldin eta beste alderdi kontratatzaile batek baimena eman badie bere lurraldean soldatapeko lan bat egiteko. Langile migratzaileen estatutu juridikoko alderdi nagusiak arautzen ditu hitzarmen honek, eta, bereziki: erreklutamendua, mediku-azterketak eta lanbide-gaitasuneko azterketak, familiak bateratzea, etxebizitza, lan-baldintzak, ekonomia-transferentziak, gizarte-segurantza, gizarte- eta mediku-laguntza, lan-kontratuen amaiera, kaleratzeak eta enplegu berrietan kolokatzeko, eta jatorriko herrialdera itzultzeko prestaketa.

b) Naziotasun anitzeko kasuak murrizteko eta kasu horietan zerbitzu militarra egiteko obligazioari buruzko hitzarmena (1963).

c) Atzerritarrek bizitza publikoan eta toki-eremuan parte hartzeari buruzko hitzarmena (1992).

d) Arrazismoaren, xenofobiaren, antisemitismoaren eta intolerantziaren aurka borrokatzeko ekintza-plana eta deklarazioa (1993).

e) Gutxiengo nazionalak babesteko esparru-hitza (1995).

f) Gizakien salmentaren aurkako hitza, Europako Kontseiluarena, 2005eko maiatzaren 16koa.

g) Intolerantziaren eta arrazismoaren aurkako deklarazioa (2005), Faroko deklarazioa esaten zaiona.

3.3. Europako Batzordea arrazismoaren eta intolerantziaren aurka (ECRI).

a) Politika orokorreko gomendioak, 1. zenbakitik 12. zenbakira, arrazismoaren eta xenofobiaren aurka borrokatzekoak (1996).

b) ECRI batzordearen “Batera arrazismoaren aurka” deklarazioa, EURO 2008aren harian.

4. LANAREN NAZIOARTEKO ERAKUNDEAREN ARAUAK.

Aipatzekoak dira:

a) 19. zenbakia duen hitza eta 25 zenbakia duen gomendia lan alorreko berdintasunari buruzkoa (lan-istripuak), 1925ean.

b) Migratzaileen pentsio-eskubideen kontserbazioari buruzko hitza (48. zk.), 1935koa.

c) Tratu-berdintasunari buruzko hitza (gizarte-segurantzaren) (118. zk.), 1962koa.

c) Gizarte-segurantzaren alorreko eskubideen kontserbazioari buruzko hitza (157. zk.) eta gomendia (167. zk.), 1982koa eta 1983koa, hurrenez hurren..

Badira beste arau batzuk langile immigranteen egoerari buruz dihardutenak, eta, horien artean, aipatzekoak dira:

a) 1926an, emigranteen ikuskapenari buruzko hitza izenpetu zuen (21. zk.) eta itsasontzietan doazen emigranteen babesari buruzko gomendia eman (26. zk.);

b) 1939an, 66. zenbakidun hitzarmena eta 61. zenbakidun gomendia, langile migratzaileei buruzkoak, eta langile migratzaileei buruzko gomendia, 62. zenbakiduna, estatuen arteko lankidetzaz jorratzen duena;

c) 1947an, gizarte-politikari buruzko hitzarmena adostu zen (metropolikoak ez diren lurraldeetarako) (82. zk.). Hala ere, 66. hitzarmena ez da inoiz indarrean jarri, ez baitu nahikoa berrespenik izan. Hori dela eta, berrikusi egin zen 1949an, eta urte horretan bertan 97. hitzarmena izenpetu eta 86. gomendia eman ziren, langile migratzaileei buruzkoak.

d) 1955ean, langile migratzaileen babesari buruzko gomendia adostu zuen Konferentziak (nahikoa garaturik ez dauden herrialdeak) (100. zk.);

e) 1958an, 110. zenbakidun hitzarmena eta 110. zenbakidun gomendia, plantazioei buruzkoak;

f) 1962an, gizarte-politikari buruzko hitzarmena (oinarrizko arauak eta helburuak) (117. zk.).

g) 1975ean, Konferentziak osatu egin nahi izan zituen 1949ko arau-tresnak, eta, horretarako, 143. zenbakidun hitzarmena 151. zenbakidun gomendia eman zituen, langile migratzaileei buruzkoak (xedapen osagarriak).

5. BESTE ERAKUNDE BATZUK.

1. OSCE.

Kordobako deklarazioa, 2007ko urriaren 10ekoa, OSCEko jarduneko presidentearena, musulmanekiko intolerantziari eta diskriminazioari buruzkoa.

2. HIRIEN ANTOLAMENDUA.

Hirian giza eskubideak babesteko Europako Gutuna, 2000ko maiatzaren 18koa.

3. DURBAM-GO DEKLARAZIOA ETA EKINTZA-PROGRAMA

Arrazismoaren, arraza-diskriminazioaren, xenofobiaren eta intolerantziarekin lotutako jarduera-moduen aurkako mundu-konferentzia, 2001ean.

Agiriaren 5. *ATALEAN*, adierazten du neurri eta ekimen berriak zehaztu behar direla, maila guztietan, arrazismoaren, arraza-diskriminazioaren, xenofobiaren

eta intolerantziarekin lotutako jarduerak borrokatu eta ezabatzeko, horien bidez Durbango deklarazioaren eta ekintza-programaren aplikazioa sustatzeko, eta, orobat, errealitate horrek dakarren erronkei eta oztopoei aurre egiteko, aintzat hartuta, betiere, hura onartu zenetik, 2001az geroztik, munduan eman diren gertakari berriak.